

Madame de Lafayette

Clevesko Printzesa

euskaratzailea: Mikel Hoyos Sein

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Mikel Hoyos Sein.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1998

Jatorrizkoaren data: 1689

Madame de Lafayette euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=91>

HITZAURREA

Bizitza

Marie-Madeleine de la Vergne —horixe baitzen Madame de La Fayette-ren ezkondu aurreko izena— 1634. urtean jaio zen nobleziako familia on batean. Bere gazte denboran, garaiko idazle asko ezagutu zituen (Voiture, Chapelain,...), sarritan etortzen baitziren bere etxera amaren adimenaren eta edertasunaren bila. Aita, bitartean, ingeniari militarra lanbidez, gerran zebilen Richelieuren armadarekin. 1649. urtean hil zitzairen, eta horrek, aldaketa larriak ekarri zituzkion familiari; René-Renaud de Sévigné izeneko handiki bat ama alargunaren etxera etortzen hasi zen, eta antza denez, Marie-Madeleine, ordurako ezkontzeko adinean zelarik, itxaropenak egiten hasia zen zaldun haren sarritako bisitaldiak zirela eta. Zaldun gaztearen asmoak, ordea, haren amari zuzenduak ziren, eta beraz, Marie-Madeleinek nahigabe handia hartuko zuen ziurrenik, jaun hura beraren amarekin ezkondu zenean.

Marie-Madeleineren bi ahizpa gazteenak komentu batera bidali zituzten, zeren, maila oneko familia izan arren, ez baitzeukaten hiru alabentzako doteak biltzeko aski baliabide. Marie-Madeleineri, hiruetatik ahizpa zaharrenari, heziketarik onena ematen saiatu zen ama, eta aita artean bizi zelarik letren aldeko isuria agertu zuenez, Gilles Ménage gorteko abade jakintsu eta saiatuaren ardurapean utzi zuen. Horrela, bada, Marie-Madeleinek bere garaiko gainerako emakumeek baino kultura handiagoa jaso zuen, baina hori ez zen aski bizitzan garaile irteteko, eta beraz, gizarteko harremanetan ere aurrerapenak egiten ahalegindu zen. Lehenik, erreginari ohorezko andere-lagun izan zen, eta gero, Chailloren komentuan onar zezatela lortu zuen. Angélique de La Fayette zen komentuko ama nagusia, eta hantxe bizi ziren, bizimodu bakar-tuan, Ingalaterrako errege Charles I.aren alarguna eta Henriette haren alaba. Marie-Madeleine haien guztien adiskide egin zen berehala.

Angélique de La Fayettek neba alargun bat zuen. Anaia horrek gaztelu bat, izen bat eta fortuna bat zeuzkan, eta osagai horiek nahikoak

izan ziren ezkontza on bat burutzeko. Hala, bada, Marie-Madeleine de la Vergne egun bate-tik bestera Madame de La Fayette bihurtu zen, 1655. urteko otsailaren 15ean. Izen berri horren laguntzaz eta Ingalaterrako Henriettek zion adiskidetasunari esker, zabal-zabalik aurkitu zituen gorteko harremanetan sartzeko ateak.

François de La Fayette haren senarrak nahia-go zuen bere lur-eremuetako bakartasuna eta lasaitasuna, hirietako iskanbila eta atsegina mundutarrak baino, eta horrela, bera eta bere emazte gaztea Auvergneko gazteluan finkatu ziren, hiritik urrun. Madame de La Fayette Parisa joaten zen tarteka, senarrak zeuzkan zenbait auzi konpontzera, eta azkenik, hiriburuko bizimoduak gehiago erakartzen zuelako, edo ezkontza hartatik jaiotako bere bi seme-alaben etorkizuna segurtatu nahi zuelako agian, kontua da Parisen bizitzen jarri zela 1657. urtean, senarrarengandik bereizirik. Noizean behin bakarrik etortzen zen senarra, baina halere, beti izan zituen harekin adiskidetasunezko hartu-emanak.

1665. urte aldera La Rochefoucauld ezagutu zuen, eta elkarren lagun handiak izan ziren, hura

1680. urtean hil zen arte. Badirudi La Rochefoucaldek asko lagundu ziola idazle bezala zeuzkan doaiez bere burua konbentzitzen. Min gehiago egin zion La Rochefoucalden heriotzak, senarrenak baino (hiru urte geroago gertatua). Halere, Madame de La Fayette ez zen erraz amore ematen zuten horietakoa, eta doluzko lehen uneak iragan ondoren, *Ménage* izeneko bere miresleetako bat ondora ekarri, eta literatur zaletasunari ekin zion berriro. 1693. urtean hil zen, berrogeita hemeretzi urte zituela.

Obra

Clevesko Printzesa 1672. urtean idatzi zuen, nahiz ez zen 1678. urtera arte argitaratu. Ez da bere lehen lana, ez eta bere lehen elaberria ere. Lehendik badauzka bi narrazio idatziak: *Montpensierko Printzesa* (1662) eta *Zaïde* (1669). Azken hori, Segrais delako batek izenpetua dator, eta dirudienez, harekin lankidetzan idatzi zuen. *Clevesko Printzesa* gure elaberri hau ere izenik gabe eman zuen argitara. Elaberri honen 1678ko argitaraldian liburugileak ohar bat egiten dio irakurleari, eta bertan esaten zaigunez, ez du

egilearen izenik aipatu nahi izan, hain zuzen ere, beldur zelako izen horrek liburuaren arrakasta murriz zezan, nahiz esaten duen, halaber, historia horrek irakurleen onespina eta merezimen-dua jasotzen badu, emango duela ezagutzera nor den egilea.

Beraz, elaberri hori egilearen izenik gabe argitaratu zen, Madame de La Fayettearen aurreko narrazioekin gertatu bezala. Agian, garai hartako goi mailako gizartearentzat elaberrigintzak zuen balio eskasean bilatu beharko litzateke horren arrazoia, izan ere, azpigenerotzat baitzeukaten orduko pentsalariek, eta gainera, Madame de La Fayettearenean, elaberriak idaztea bateraezina zen haren gizarte mailarekin; gehienez ere, denbora-pasa gisa har zitekeen, baina argitaratzeko asmoz idaztea, hori maila beheagoko jendeei zegokien lanbidea zen. Baina, baliteke, beharbada, egileak bere izena isildu izanaren benetako arrazoia, haren emakume izatean oinarriturik egotea, oso gaizki ikusia baitzegoen, batez ere gizonezkoen artean, emakume bat idazten aritzea, eta horren erakusgarri dira ondoko adierazpenak:

«Emakume batengan, iruditzen zait ez dagoela gauza hain higuinarririk, nola idazle gisa aritzea». (Chapelainek Balzaci idatzitako gutun batean)

«Aspaldi da mintzatua naizela beste sexua-ren sasi-jakitura horrezaz, eta aspaldi ere esan dut, atseginagoa zitzaidala emakume bizardun bat jakintsu iduri egin nahian dabilena baino». (Balzacek Chapelaini eman erantzunean)

Madame de La Fayettek zenbait aholkulari izan zituen: Ménage, Segrais, Huet, La Rochefoucauld..., baina Clevesko Printzesa idatzi zuenean, azken hori bakarrik eduki zuen aldamean, eta badirudi, haren laguntza ere izan zuela obra hori idazteko orduan.

Elaberri honek, argitara eman bezain laster, berebiziko arrakasta lortu zuen. Mercure Galant izeneko garai hartako egunkari batek, argitaratzailearekin edo egilearekin hala adostu ondoren, liburuaren atalkako argitarapena iragarri zuen, eta geroago, inkesta bat zabaldu zuen

bere irakurleen artean, elaberri honetan ageri den «aitortza» bati buruzko beren iritziak eman zitzaizten. Aitortza horretan, emazteak beste norbait maite duela adierazten dio bere senarrari, eta egunkariak bere irakurleei egindako galdera honakoa izan zen: «Zer egin behar luke emazte batek horrelako edo halako egoeran aurkituz gero?».

Horrekin batera, beste bi argitalpen agertu ziren, elaberri honi nolabaiteko zabalkundea ematen eta interesa pizten lagundu zutenak: *XXX Markesaren gutunak Clevesko Printzesaren gaiaren inguruan* (izenik gabea, baina itxura guztien arabera, Valincourtek idatzia), eta *Clevesko Printzesaren kritikari buruzko elkarrizketak* (ustez Charnes abadearena, aurreko kritika horri erantzun nahirik). Azken bi lan hauek eta egunkariko inkestak izugarri lagundu zioten elaberriaren arrakastari, eta denbora luzean, bilera-aretoetako hizketagai nagusienetako bat izan zen.

Clevesko Printzesa maitasun historia bat da, baina halaber, maitasun historia baten inguruan dabilzan beste hainbat maitasunen historia.

Maitasuna, senar-emazteen arteko lotura-hitzar-
men horretan lekurik ez duen sentimendu bat
bezala agertzen zaigu, eta ezkontza, aberasta-
sun batzuk edo familiaren izen ona segurtatzeko
itun bat besterik ez da. Maitasunaren alderdi on
eta txar guztiak azaltzen zaizkigu, baina maita-
suna, batez ere, oinaze eta atsekabeen iturri da,
jelosia sortzaile eta mendeku eragile; amodioak
eragiten dizkigun sentimenduak, sentimendu
ziurgabeak eta zalantzakorrak baitira, aurkaesa-
nez beteak, batetik gure arrazoiak gauza bat
esaten digulako, baina bestetik, gure sentimen-
duek beste zerbait egitera bultzatzen gaituztela-
ko, eta pertsonaren baitan arrazoiaren eta senti-
menduen artean gertatzen den barne-borroka
saihestezin horretan datza elaberri honetako
pertsonaien bizitzaren garratzasuna.

Baina bestetik, nobela historikoa ere bada.
Henry II.aren eta François II.aren erregealdi
bitarteko garaian kokatzen da historia, eta
Madame de La Fayettek, orduko gertaerak eta
pertsonaiak ez ezik, pertsonaia horien bizimo-
duak eta gorteko jaialdi eta festak, dantzak eta
zaldun-guduak ere, ongi baino hobeto azaltzen

dizkigu. Letra handiz idatziriko historia handi horren hariari jarraituz, printze eta printzesa haien eguneroko bizitzako xehetasunetan ere barnatzen da, kontakizunari bizitasuna eta edertasuna emanez.

Mikel Hoyos Sein

LEHEN ZATIA

Arrandia eta galaitasuna sekula ez dira Franzian horrenbesteko distiraz agertu nola Henry bigarrenaren erregealdiko azken urteetan. Printze hura galaia, ederra eta maitabera zen. Valentinoisko dukesa Diane Poitierskoari zion maitasuna hogeitun urte lehenagotik hasia bazen ere, ez zion hargatik hain bortitza izateari utzi, eta printzea ere ez zen saiatzen horren agerpenak hain nabarmenak izan ez zitezen.

Gorputz-jardun guztietan miresgarriki gailentzen zenez, bere zeregin handienetako bat bihurtu zituen. Egunero izaten ziren ehizaldiak eta pilota jokoak, dantzak, zinta-karrerak edo antzeko jolasak; Valentinoisko anderearen koloreak eta lehen-hizkiak nonahi zeuden, eta dukesa hura ere hantxe agertu ohi zen, La Marck andereñoak —ezkontzekotan zebilen haren bilobak— eraman zitzakeen apaingarri guztiak berekin zituela.

Erreginaren presentzia aski zen Valentinoisko dukesa ere haietara azaltzeko. Printzesa hura

ederra zen, nahiz ordurako iragana zuen lehen gaztetasuna. Biziki maite zituen handitasuna, arrandia eta plazerrak. Errege, harekin ezkondu zenean, Orleansko duke zen artean, eta erregegaia, berriz, anaia dofina, gerora Tournonen hilko zena. Printze hark, zeukan sehaska eta dohain handiengatik, duintasunez beteko zukeen François lehena haren errege eta aitaren lekua.

Erreginak, goranahiak kitzikaturik, eztitasun handia sentitzen zuen erregina izate horretan. Bazirudien saminik gabe eramaten zuela erregek Valentinoisko dukesari zion zaletasuna, eta ez zuen inolako jelosiarik erakusten, baina hain sakonekoa zen erreginaren ezkutatu nahia, zail baitzen haren sentimenduak zeintzuk ziren epaitzea; eta politikak dukesa harengana hurbiltzea behartzen bazuen ere, erregegana are gehiago hurbiltzeko baizik ez zen. Printze hark gogoko zuen emakumeekin hartu-emanen aritzea, bai eta berak maite ez zituenekin ere. Egun oroz erreginarenean egon ohi zen zirkuluaren garaian, non hutsik gabe aurkitzen baitziren

sexu bateko nahiz besteko ederrenak eta polite-
nak.

Inoiz ez da gortetik izan horrenbeste emaku-
me eder eta miresgarriki egindako gizon izan
duenik; bazirudien naturak plazer ukan zuela
printze-printzesa handienei ezaugarrikerik ederre-
nak hornitzen. Frantziako Elisabeth anderea,
gero Espainiako erregina izan zena, hasia zen
ordurako izpiritu harrigarri bat agertzen, bai eta
hain galgarria izan zitzaion edertasun paregabea
ere. Marie Stuart, Eskoziako erregina, dofin jau-
narekin ezkondu berria eta dofin erregina izenez
ezaguna, akatsik gabeko pertsona zen bai izpiri-
tuz eta bai gorputzez ere. Frantziako gortean
hezia izan zen, han jaso zuen zeukan jendetasun
guztia, eta gauza eder guztietarako hainbeste
dohain zeuzkala jaio zen, ezen, bere gaztetasun
handia gorabehera, oso maite baitzituen haiek
guztiak, eta inork baino hobeki ezagutzen zituen.
Erreginak, haren amaginarrebak, eta Madamek,
erregeren arrebak, gogokoak zituzten bertsoak,
komedia eta musika. Errege François lehenak
poesia eta letren alde izan zuen isuria bere gore-
nean zegoen oraindik Frantzian, eta erregeren

semeak gorputz-ariketak atsegin zituenez, plazer guztiak zeuden gortean. Baina gorte hura eder eta handi bilakarazi zuena, gain-gaineko merezimendua zuten printze eta jaun handikien kopuru amaigabea zen. Aipatuko ditudanak, modu batera edo bestera, beren gizaldiko edertasunaren eredu eta mirespena izan ziren.

Nafarroako erregeak mundu guztiaren begirunea erakartzen zuen, bere giza-mailaren eta bere gorputz-eitearen handitasunagatik. Gerran nabarmendu zen, eta Guiseko dukeak sortu zion itzalak, bere jeneral kargua utzi eta haren aldamenean borrokatzera eramanean zuen sarritan, soldadu arrunt baten gisara, lekuri arriskutsuena. Egia da, orobat, duke hark hain adore miresgarria erakutsi zuela eta hain garaipen bikainak zituela lortuak, ezen ez baitzegoen bekaitzez begiratuko ez zion kapitain handirik. Haren ausardiak gainerako dohain handi guztien sustengua zuen: nortasun zabala eta sendoa zuen, arima noble eta hezia, eta trebetasun bera hala gerrarako nola negozioetarako. Lorraineko kardinalea, haren anaia, neurritz gaineko handinahi batez, izakera bizi batez eta hizketarako jario

goresgarri batez sortua zen, eta jakinduria sako-
na erdietsi ondoren, hartaz baliatzen zen lehen
erasoak jasaten hasia zen erlijio katolikoaren
defentsan nabarmentzeko. Guiseko zalduna,
geroan priore nagusi deitua izan zena, mundu
guztiak maite zuen printze bat zen, segaila, izpi-
ritu betekoa, zuzentasunez hornitua, eta Europa
guztian ezaguna zen adore batez jantzia. Conde-
ko printzeak, naturak mesede gehiegirik egin ez
zion gorputz txiki baten barruan arima itzel eta
handinahia gorde zuen, eta are emakumerik
ederrenen begietan maitagarri egiten zuen iza-
kera bat. Neversko dukeak, guduei nahiz izan
zituen goi karguei esker bizimodu loriatsua zera-
malarik, adinean aurreratu samarra egon arren,
une gozoak igaroarazten zizkion gorteari. Hiru
seme zeuzkan, askilerdenak hirurak. Bigarrena,
Clevesko printzea zeritzona, duin zen aitaren
izena eta omena bere gain eramateko; bipila eta
eskuzabala zen, eta gaztaroan inoiz gutxitan
aurkitzen den zuhurtzia zeukan. Chartresko
bidamoa, berriz, Vendome leinu zaharreko ondo-
rengoa, zeinaren izena eramatea ez baitute
gutxietsi odol garbiko printzeek ere, berdin gore-

tsia izan zen gerran nola galaitasunean. Ederra zen, itxura onekoa, adoretsua, ausarta, liberala. Haren dohain on horiek guztiak biziak eta distiratsuak ziren, eta azken batean, bera zen Nemoursko dukearekin konparatzeko duin zen bakarra, inor harekin konpara baldin bazitekeen. Naturaren maisu-lana zen printze hura; munduko gizonik galant eta ederrena izatea, horixe zen gutxien miresten ziotena. Bere adore paregabeak, eta izpirituan, aurpegian nahiz ekintzetan sekula beste inori ikusi ez zaion xarma batek, besteen gaintetik jartzen zuten. Gizonei nahiz emakumeei berdin atsegin zitzaien arraitasuna zuen, berebiziko zuzentasuna ekintza guztietan, mundu guztiak jarraitzen zion beti haren janzteko moduari —ezin imita zezaketen arren—, eta azken batean, halako eitea zuen bere pertsona guztian, berari baizik ez baitzioten so egiten agertzen zen leku guztietan. Gorteko edozein emakumek goratua ikusiko zukeen bere omena harekin uztartzea erdietsiz gero; maite izan zituenetatik gutxi ziren hari muzin egin izanaz harro egon zitezkeenak, eta are gehiago, haren pasioaren frogarik ezagutu ez zuten asko eta

asko ezin zitezkeen libraharen alde horrelakorik edukitzetik. Halako goxotasuna eta halako gertuera zuelarik galaitasunerako, ezin ziezaiekeen zenbait ardura ukatu berarekin atsegín izaten saiatzen ziren emakumeei. Gauzak horrela, maitale asko zeuzkan, baina zail zen benetan nor maite zuen asmatzea. Dofin erreginarenera sarrítan joaten zen. Printzesa haren edertasun eta samurtasunak, mundu guztiaren aurrean atsegína izaten jartzen zuen arretak eta printze honi aitortzen zion estimazio bereziak, Chartresko jaunaren begiak printzesari atxikiak zeudela uste izatea eragin zuen maiz. Guiseko jaunandereek, zeintzuen iloba baitzen, ikaragarri handitua zuten beren ospea eta omena printzesa haren ezkontzari esker. Handinahiak gutiziarazi zien errege-odoleko printzeen maila erdies-tea eta Montmorencyko kondestablearen boterea partekatzea. Izan ere, erregek kondestablearen bermatzen baitzuen gobernuaren eta bere aferen zatirik handiena, eta Guiseko dukea eta Saint-Andreko mariskala bere kuttunak bezala zeuzkan. Baina mesede baten bila edo aferak zirela medio erregerengana hurbiltzen zirenek,

Valentinoisko dukesari men eginez baizik ezin zezaketen hartantxe iraun, eta, harengan jada gaztetasunik eta edertasunik ez egon arren, dukesa hark halako agente erabatekoaz zuen menderatua errege, esan baitzitekeen dukesa zela Estatuaren eta erregeren beraren nagusi eta jabe.

Erregek estimu handitan izan zuen kondestablea betidanik, eta erreinatzen hasi orduko, errege aita François lehenak bidalitako erbestetik bere ondora deitu zuen. Gortea bitan zatitua zuten Guiseko jaun-andereek eta kondestableak, zeinak odol garbiko printzeen sustengua baitzuen. Alderdi batekoek nahiz bestekoek beti amestu zuten Valentinoisko dukesa beren aldera erakartzea. Aumaleko dukea, Guiseko dukearen anaia, haren alabetako batekin lotu zen ezkontzan. Kondestableak ere lokarri bera irrikatzen zuen. Ez zitzaion aski seme zaharrena Diane andereñoarekin ezkondu izana, zeina erregeren eta, erditzearekin batera, lekaime egin zen Piemonteko dama baten alaba baitzen. Ezkontza hark traba ugari izan zituen, Montmorencyko jaunak Piennesko andereñoari —erreginaren

ohorezko alaba bati— eginak zizkion agintzak zirela medio, eta erregek horiek guztiak ikaragarriko egonarri eta ontasunez garaitu zituen arren, kondestablea ez zen behar beste babesturik sentitzen, baldin eta Valentinoisko anderea berarekin adiskidetu eta Guiseko jaun-andereekin etsaitzen ez bazen, izan ere, Guiseko jaunen handitasuna zela medio, dukesa hura artegarazten hasia baitzen. Dukesak ahal zuen beste atzeratu zuen dofinaren eta Eskoziako erreginaren arteko ezkontza. Erregina gazte haren edertasuna eta adimen zentzudun eta bikaina, eta ezkontza hark Guiseko jaun-andereei zekarkien gorapena jasanezinak zitzaizkion. Lorraineko kardinala gorrotatzen zuen bereziki; garrazki mintzatu baitzitzaion, eta mesprezuz gainera. Erreginarekin loturak sendotzen ari zela zekusan. Eta horrela, kondestableak prest aurkitu zuen dukesa hura, berarekin batzeko eta beraren batasunean sartzeko, haren biloba La Marck andereñoaren eta beraren bigarren seme Anvilleko jaunaren arteko ezkontzaren bitartez, zeinak bere karguan jarraiki baitzion Charles IX.aren erregealdian. Kondestableak ez zuen uste ezkontza hura

gauzatzeko eragozpenik aurkituko zuenik bere seme Anvilleko jaunaren gogoan, Montmorencyko jaunarenean aurkitu zuen bezala, baina, arrazoiak ezkutatuak izan bazitzaizkion ere, zailtasunak ez ziren hargatik txikiagoak gertatu. Anvilleko jauna dofin erreginaz itsutuki maitemindurik zegoen, eta bere grina horretan apenas itxaropenik zeukan arren, ez zen deliberatzen ahal bere arretak partekaraziko zizkion konpromiso bat hartzera. Gortean, Saint-Andreko mariskala zen inolako erabakirik hartu ez zuen bakarra. Begikoetako bat zen, eta zeukan faborea berari baizik ez zegokion. Erregek estimutan eduki zuen dofin zen garaietatik, eta geroago, Frantziako mariskal egin zuen, duintasunik txikienak ere gutiziatzea ohikoa ez zen adin batean. Berarekiko faboreek distira bat zemaioten, eta horiei eusten zien bere merezimendu eta nortasunaren xarmari esker, bere mahai eta etxe-barneen fintasunari esker, eta erregetzatik kanpoko bategan sekula ikusi ez den eskuzabaltasun handiari esker. Erregeren liberaltasunak estaltzen zituen gastu guztiak, printze hura eskuzabal jokatzen baitzen maite zituenekin; ez zeuzkan dohain

handi guztiak, baina bai asko ordea, eta batik bat, gerra gogokoa izatea eta ulertzearena. Garaipen bikainak zituen lortuak, eta Saint-Quentino borrokaldia kenduz gero, garaipenen segida bat baizik ez zen izan haren erregealdia. Rentyko bataila irabazi zutenean, han izan zen bera: Piemontea azpiratua izan zen, ingelesak Frantziatik iraitziak, eta enperadore Carlos bosgarrenak Metz hiriarren ateetan ikusi zuen bere adur onaren amaiera, Espainiako Inperioaren indar guztiekin alferrik setiatu ondoren. Nolanahi ere, Saint-Quentino zorigaitzak gure konkisten itxaropenak urritu zituenez, eta fortuna bi erregeen artean banatuko zela zirudienez, bi-biak bakerako prest aurkitu ziren ezarian.

Lorraineko dukesa alarguna, horren inguruko proposamenak egiten hasia zen dofin jaunaren ezkontza garaian. Harrezkero beti izan zuten ezkutuko negoziazioren bat edo beste. Azkenik, Cercamp herria, Artoisko lurraldean, aukeratu zuten bilkura egiteko leku bezala. Lorraineko kardinala, Montmorencyko kondestablea eta Saint-Andre mariskala bildu ziren bertara erregeen aldetik; Albeko dukea eta Orangeko printzea,

Philippe II.aren aldetik; eta Lorraineko dukea eta dukesa izan ziren bitartekariak. Gai nagusienak bi izan ziren: batetik, Frantziako Elisabeth ande-
reñoaren eta don Carlos Espainiako infantearen arteko ezkontza, eta bestetik, erregeren arreba madameren eta Saboiako jaunaren artekoa.

Errege, bien bitartean, mugan geratu zen, eta bertan jaso zuen Ingalaterrako erregina Mariaren heriotzaren berri. Randango kondea bidali zuen Elisabethengana, koroara heldu izanagatik atsegin-erakutsiak egitera. Hark pozik egin zion harrera. Mariaren eskubideak hain gaizki zeuden antolaturik, mesedeko izan zitzaion erregek aintzat hartzen zuela ikustea. Kondeak, Frantziako gorteko interesez eta hura osatzen zutenen merezimenduez jakitun aurkitu zuen, baina batez ere, Nemoursko dukearen ospeaz hain jantzia aurkitu zuen, hainbeste aldiz mintzatu zitzaion printze hari buruz, eta halako joranaz, ezen, Randango jauna itzuli zenean, eta erregeri bere bidaiaz kontu eman zionean, esan baitzion ez zegoela ezer Nemoursko jaunak iguriki ez zezakeenik printzesa hari zegokionean, eta ez zuela uste harekin ezin ezkon zitekeenik.

Errege gau hartan bertan mintzatu zitzaion printze hari gai horren inguruan. Randango jaunaren ahotik Elisabethekin izandako elkarrizketa guztia jakinarazi zion, eta fortuna handi hori tentatzeko ere aholkatu zion. Nemoursko jaunak uste izan zuen, lehenik, errege ez zitzaiola seriozki hitz egiten ari, baina zinez ari zela ikusi zuenean:

— Gutxienez, Jauna —esan zion—, Berorren Maiestatearen aholkuz eta zerbitzuz ametsezko langintza batean abiatzen banaiz, eskatuko nioke, arren, ezkuta dezala sekretu hori horren arrakastak jendaurrean zilegiztatzen nauen arte, eta on iritzi diezaiola ni harroegi ez agertzeari, sekula ikusi ez nauen erregina bat nirekin maitasunez ezkon dadin nahiko banu bezala.

Asmo horretaz kondestableari baizik ez ziola hitz egingo agindu zion erregek, eta beharrezkotzat jo zuen sekretua, arrakasta izango bazuen. Randango jaunak Ingalaterrara joateko aholkatu zion Nemoursko jaunari, bidaiaren aitzakia hutsaz baliatuz, baina printze hari ezinezkoa izan zitzaion hartara deliberatzea. Lignerolles —gizon adoretzu, gazte eta bere begiko bat— igo-ri zuen erreginaren sentimenduak zeintzuk

ziren ikustera eta hartu-emanen bat abiarazten saiatzera. Bidaia haren emaitzaren zain, Saboia-ko dukea ikustera joan zen bera, zeina une hartan Bruselan baitzen Espainiako erregearekin. Ingalaterrako Marieren heriotzak eragozpen larriak ekarri zizkion bakeari, bilkurak apurtu egin ziren azaroaren bukaera aldera, eta errege Parisa itzuli zen.

Edertasun bat agertu zen orduan gortean, mundu guztiaren begiak erakarriz, eta bazen arrazoirik edertasun akasgabea zela sinesteko, zeren mirespina piztu baitzuen emakume eder-
rak ikusten ohituak zeuden leku batean. Chartresko bidamoaren etorki berekoa zen eta Frantzia seniparterik handienetako baten jabe. Gazterik hil zitzaion aita, eta haren emazte Chartresko anderearen gidaritzapean utzia zuten, zeinaren ondasunak, bertutea eta merezimenduak egundokoak baitziren. Senarra galdu ondoren, urte asko egin zituen gortera itzuli gabe. Ezaldi hartan, alabaren hezkuntzari eskaini zizkion bere ardurak, baina ez zen ahalegintzen haren adimena eta edertasuna bakarrik lantzen; aitzitik, bertutetsua eta maitagarria egitea ere ames-

ten zuen. Ama gehienek uste dute aski dela gazteei galaikeriaz inoiz hitzik ez egitea horretatik urrunarazteko. Chartresko andereak, ordea, bestelako iritzia zuen. Askotan egiten zizkion amodioari buruzko adierazpenak; erakusten zion zer zuen atseginetik, arriskutik zer zuen erakustean aiseago konbentzi zedin; azaltzen zion zer zintzotasun gutxi duten gizonek, nolakoak diren haien amarruak eta leialtasun eza, eta zinegi-teek dakartzaten etxe-hondamenak; ikusarazten zion, bestetik, emakume jator baten bizitzari nolako lasaitasunak jarraitzen dion, eta bertuteek nolako distira eta goresmena eman ohi dioten pertsona eder eta leinargiari; baina, halaber, ikusarazi zion zeinen zaila den bertute horri atxikitzea, nork bere buruari erabateko mesfidantza eduki ezik, eta emakume baten zoriona ekar dezakeen gauza bakarrari lotu ezik, hots, senarra maitatuz eta hark ere norbera maitatuz.

Senipartearen jabe hura Frantzian zegoen etekinik onenetakoa zen garai hartan, eta gaztetasun aparta eduki arren, proposatuak zizkieten jada ordurako zenbait ezkontza. Chartresko andereak, arrunt emakume harroa baitzen, ez

zuen ia inor aurkitzen alabarentzako duin. Hark hamasei urte zeuzkala ikusirik, gortera eraman nahi izan zuen. Iritsi zenean, bidamoa irten zitzaion abegi egitera. Hura harriturik geratu zen Chartresko andereñoaren edertasun itzelaz, eta harritu ere, arrazoi osoz harritu zen. Bere azalaren zurtasunak eta adats horailak, harengan baizik ikusi ez zen distira bat zemaïoten. Haren hazpegiak oro neurrizkoak ziren, eta haren aurpegia eta gorputza, graziaz eta xarmaz beteak.

Iritsitako biharamunean, mundu guztian zehar tratuan ibili ohi zen italiar baten etxera joan zen harribitxiez hornitzera. Gizon hura Florentzianetik etorri zen erreginarekin, eta halako heinean aberastua zen salerosketen bidez, ezen haren etxeak gehiago baitzirudien jaun handi batena, tratulari batena baino. Han zegoela, Clevesko printzea iritsi zen. Hainbestearaino harritu zen andereñoaren edertasunaz, ezin izan baitzuen bere harridura hura ezkutatu, eta Chartresko andereñoak ere ezin izan zion lotsagorritzeari eutsi, hari sortu zion txundidura ikusirik. Andereño hura bere onera etorri zen halere, eta zirudien bezalako gizon bati zuzen onez zor

zitzaizkion arretak baizik ez zituen erakutsi printze haren jokaeraren aurrean. Clevesko jaunak mirespenez begiratzen zion, eta ezin zezakeen ulertu nor izan zitekeen inondik ere ezagutzen ez zuen pertsona eder hura. Argi zekusan, haren gorputz-eiteagatik eta haren segizioaren inguruko guztiagatik, gizamaila handikoa behar zuela izan. Haren gaztetetasunak neskato bat zela pentsarazten zion, baina amarik inon ageri ez zenez, eta italiarrak, ezagutzen ez bazuen ere, «Madame» deitzen zionez, ez zekien zer pentsatu, eta harriduraz behatzen zion beti. Ohartu zen beraren behakoek artegarazi egiten zutela, pertsona gazteengan ohi denaren kontrara, haiek atsegin ez ikusten baitute beti beren edertasunaren emaitza, eta are iruditu zitzaion bera zela hark handik irteteko zuen ezinegonaren arrazoia, eta irten ere, lasterka bezala irten zen. Begien bistatik galdu ondoren, hura nor izango ote zen jakiteko itxaropenean kontsolatu zen Clevesko jauna, baina harritua geratu zen oso, jakin zenean han ez zutela ezagutzen. Hain txunditua geratu zen haren edertasunaz eta haren jokabidean igarri zuen izaera xaloaz, ezen esan baitai-

teke harrezkero berebiziko irrika eta estimua ernatu zitzaiola andereño harekiko. Arratsean, erregeren arreba Madameren etxera joan zen.

Printzesa hura oso aintzat hartua zen anaia erregeren gainean zuen itzalagatik, eta itzal hura hainbestearainokoa zen, ezen erregek, bakea egitean, Piemonte lehengo jabeei itzul-tzea onetsi baitzuen, Madame Saboiako dukearekin ezkon zedin. Bizitza guztian ezkontzea desiratu zuen arren, inoiz ez zuen soberano batekin ezkondu nahi izan, eta arrazoi horregatik arbuiatu zuen Nafarroako erregea, artean Vendomeko duke zela, eta desiratu zuen Saboiako jauna betidanik. Nizan, errege François lehena-ren eta aita santu Paulo hirugarrenaren arteko elkarrizketan ikusi zuenez geroztik gorde zuen harenganako isuria. Emakume hark nortasun sendoa eta gauza ederretarako ezagupide handia zuenez, jende zintzo guztiak erakartzen zituen, eta tarteka, zenbait egunetan, gorte osoa biltzen zen haren etxean.

Clevesko jauna ohi bezala iritsi zen. Chartresko andereñoaren izaerak eta edertasunak halako heinean zuten bere baitara bildua, ezina izan

zitzaion beste deusetaz mintzatzea. Ozenki eman zuen bere abenturaren berri, eta arestian ikusi baina inondik ere ezagutzen ez zuen pertsona hari gorazarre egitetik ezin zitekeen bara. Madamek esan zion ez zegoela munduan hark margotzen zuena bezalako pertsonarik, eta inor baldin bazen, mundu guztian izango zela ezagun. Dampierreko andereak, zeina Madameren ohorezko dama eta Chartresko andereñoaren laguna baitzen, elkarrizketa hura entzunik, printzesarengana hurbildu eta ahapean esan zion Chartresko andereñoa zela, zalantzarik gabe, Clevesko jaunak ikusi zuen pertsona hura. Madame jaun harengana itzuli eta esan zion, baldin biharamunean etxera etorri nahi bazuen, hain hunkiturik utzi zuen edertasun hura emango ziola ikustera. Hala, bada, hurrengo egunean Chartresko andereñoa agertu zen. Imajina litezkeen txera samur guztiekin egin zioten harrera erreginek, eta halako mirespena eskaini zion mundu guztiak, losintxak baizik ez baitzituen aditzen bere inguruan. Halako umiltasun xaloaz beretzen zituen, iduri zuen ez zituela ulertzen, edo gutxienik, ez zutela hunkitzen. Berehala

joan zen erregeren arreba Madamerengana. Printzesa hark, beraren edertasuna goretsi ondoren, Clevesko jaunarengan piztu txundidura azaldu zion. Une bat geroago sartu zen printze hura:

— Zatoz —esan zion andereak— eta ikus, ez al dudan agindutako hitza bete, eta Chartresko andereñoa ikustera eman, ez al dizudan bila zenbiltzan edertasun hori ikusteko parada eskaini. Eskertu iezadazu, bederen, berari diozun mirespena jakitera eman izana.

Clevesko jauna poztu egin zen, zeren ikusi baitzuen, hain maitagarria egin zitzaion pertsona haren dohainek ez ziotela ezertxo ere zor zeukan edertasunari. Andereñoarengana hurbildu, eta arren eskatu zion oroit zedila berak agertu ziola lehenik bere mirespena, eta ezagutu gabe ere, zor zitzaizkion errespetuzko eta estimuzko sentimendu guztiak eduki zituela beraren alde.

Guiseko zalduna eta Clevesko jauna, biak lagunak izaki, elkarrekin irten ziren Madameren etxetik. Lehenik, Chartresko andereñoa goretsi zuten mugarik gabe. Azkenik, ohartu ziren sobe-
ra goretsia zutela, eta bata zein bestea, gogoan

zerabiltena esatetik baratu ziren, baina hurrengo egunetan, behartuak sentitu ziren hartaz mintzatzerarekin topo egin zuten leku guztietan. Edertasun iritsi berria elkarrizketa guztien gaia izan zen luzaroan. Laudorio handiak egin zizkion erreginak, eta ez-ohiko begiramena agertu zuen harekiko. Dofin erreginak bere begikoe-tako bat bihurtu zuen, eta Chartreseko andeari erregutu zion, otoi, sarritan ekar zezala etxera. Madameek, erregeren alabek, norbait bidali ohi zuten haren bila, beren dibertimendu guztietan parte har zezan. Azken batean, Valentinoisko andreak ez beste gorte guztiak maitatzen eta goresten zuen. Gauza ez zen edertasun hark itzal egiten ziola andere hari. Esperientzia aski luze batek erakutsi zion ez ziola zertan beldur izanik erregearekiko kontuetan, baina alaba baten ezkontzaren bitartez Chartresko bidamoaren berarekin lotu zedin nahi izan zuenean, hura erreginarekin uztartu zenez gero, halako gorrotoa hartu zion bidamo hari, ezen ezin baitzeza-keen begi onez ikus haren izena zeraman edota haren adiskidantza zuen inor.

Clevesko printzea itsutuki maitemindu zen Chartresko andereñoaz, eta gartsuki desiratu zuen harekin ezkontzea, baina beldur zen Chartresko anderearen urguilua mintzeaz, alaba leinu bateko lehen-semea ez zen gizon baten esku uztean. Haatik, hain zen handia leinu hura, eta Euko kondea —leinu hartako lehen-semea— erregeren etxetik hain hurbil zegoen pertsona batekin lotua zegoen, ezen areago baitzen amodioak sentiarazi ohi duen herabetasuna, ezen ez benetako arrazoi bat, Clevesko jaunaren beldurrak sortu zituen. Lehiakide ugari zeuzkan, ordea: Guiseko zalduna —zuen etorkiagatik, zeuzkan merezimenduengatik eta erregeren faboreak haren leinuari eman distiragatik— iruditzen zitzaion beldurgarriena. Printze hura ere Chartresko andereñoaz maitemindua zegoen hura ikusi zuen lehenengo egunetik, eta ohartua zegoen Clevesko jaunaren amodioaz, Clevesko jauna ere harenaz ohartua zegoen bezalaxe. Adiskideak izan arren, biek jomuga bera edukitzeak sortu urruntasunak ez zien utzi elkarri azalpen bat ematen, hoztu egin zen haien arteko adiskidetasuna, eta ez zuten indarrik eduki

gauzak argitzeko. Chartresko andereñoa lehenik ikusteko zoria Clevesko jaunari egokitu izana zorionaren iragarpen iruditzen zitzaion, eta nola-baiteko abantaila ere ematen zion bere lehiakideen aldean, baina eragozpen gaitzak iragartzen zituen bere aita Neversko dukearen aldetik: duke hark harreman hertsia zuen Valentinoisko dukesarekin, dukesa bidamoaren etsaia zen, eta arrazoi hori aski zitzaion Neversko dukeari, semeak haren iloba gogoan har zezala eragozteko.

Chartresko andereak, zeinak hainbesteko ardura hartu baitzuen alabaren gogoan bertutea txertatzen, ez zituen ardura horiek eten hain beharrezkoak ziren eta hainbeste adibide arriskutsu zeuden toki hartan. Handinahia eta galaitasuna gorte hartako arima ziren, eta orobat jabetu ziren hala gizasemeez nola emakumeez. Hainbeste irabazi nahi eta hainbeste ezkutuko asmo zeuzkaten, eta damek ere halako parte-hartzea zuten hartan, ezen amodio kontuak beti nahasturik baitzeuden aferekin, eta aferak amodioarekin. Inor ez zegoen lasai edo axolagabe; denek desio zuten gora egitea, maitagarri iza-

tea, zerbitzu edo kalte egitea. Ez zekiten zer zen asperkizuna, ez eta aisia ere, eta beti zeuden plazerretan edo azpijokoetan nahasturik. Dama bakoitzak bazuen nori erakutsi bere atxikimendua: erreginari, dofin erreginari, Nafarroako erreginari, erregeren arreba Madameri edo Valentinoisko dukesari. Zaletasunek, komenentziazko arrazoiek edo izaera-kidetasunek sortzen zituzten atxikimendu horiek. Lehen gaztetasuna iragana zutenak eta bertute zorrotzago bat erakusten zutenak, erreginarekin bat eginik zeuden. Gazteagoak zirenek eta poz-atseginak eta galaitasuna bilatzen zutenek, aldiz, dofin erreginari egiten zioten gorrea. Nafarroako erreginak bere kuttunak zeuzkan; gaztea zen eta bazuen boteririk bere senar erregearengan. Kondestablearekin elkartu zitzaion senarra, eta ospe handia bereganatua zuen hari esker. Madame, erregeren arreba, ederra zen oraindik, eta dama ugari erakartzen zuen ingurura. Valentinoisko dukesak, begiz onesten zituen guztiak zeuzkan aldean, baina emakume gutxi zituen gogoko, eta haren kutuntasuna eta konfiantza zuten batzuk salbu, eta haren antzeko izakera zuten batzuk

izan ezik, ez zuen inor hartzen etxean, erregina-rena bezalako gorte bat edukitzea laket zuen egunetan ez bazen.

Taldetxo horiek guztiak elkarrenganako ondamuz eta bekaizkeriaz beterik zeuden. Are talde bereko partaide ziren damek ere jelosiaz begiratzen zioten elkarri, zela faboreagatik, zela maitaleengatik. Handinahia eta gorannahia sarritan aurkitzen ziren garrantzi gutxiagoko —baina ez horregatik nabarmentasun gutxiagoko— beste gurari horiei atxikiak. Beraz, bazen gorte hartan durduzarik gabeko halako asaldura bat, oso atsegina bilakarazten zuena, baina halaber oso arriskutsua pertsona gazte batentzat. Chartresko andereak bazekusan arrisku hori, eta bere alaba arrisku hartatik nola begira zezakeen beste pentsakizunik ez zuen gogoan. Erregutu zion, ez ama batek bezala, baizik lagun batek bezala, kontatzen zizkioten galai-kontu guztien isilmandatua egin ziezaiola, eta berak zin egin zion, gazte denboran sarritan deserosoak zaizkigun gauzetan zuzentasunez jokatzeko lagunduko ziola.

Guiseko zaldunak halako neurrian zituen Chartresko andereñoari buruzko sentimendu eta asmoak ezagutzera eman, ezen denek jakin baitzuten horren berri. Halere, eragozpenak baizik ez zituen ikusten desio hartan; ongi zekien ez zela inondik ere Chartresko andereñoari komeni zitzaion senargaia bere gizarte mailari eusteko zeuzkan ondasun apurrengatik, eta ongi zekien ere bere anaiek ez zioketela onetsiko harekin ezkon zedin, bigarren-semeen ezkontzek familia handiei ekarri ohi dieten galeren beldurrez. Lorraineko kardinalak laster ikusarazi zion ez zegoela uste okerrean. Sutsuki gaitzetsi zion Chartresko andereñoaren alde agertu atxikimendua, baina isildu egin zizkion, halere, benetako arrazoiak. Kardinal hark gorroto zion bidamoari, eta artean ezkutuan gorde bazuen ere, gerora eztanda egin eta dena jakin ahal izan zen. Anaia-ri beste edozein bategitetan sartua ikustea onetsiko ziokeen, baina ez bidamo harenean, eta hain ahots goran aldarrikatu zuen zenbateraino zuen ekintza hura gaitzesten, ezen arras mindu baitzuen Chartresko andereñoa. Andereño hark ahalegin handiak egin zituen frogatzen Lorraine-

ko kardinalak ez zuela zertan beldur izanik, hain zuzen ere, berak ere ez zuelako ezkontza hura desiratzen. Jokaera hari berari heldu zion Bida-moak, baina Chartresko andereñoak baino bizi-kiago deitoratu zuen Lorraine kardinalaren auzi hura guztia, zeren berak hobeto ezagutzen baitzituen haren benetako arrazoiak.

Clevesko printzeak bere amodio-jaiduraz eman zituen agerbideak ez ziren Guiseko zaldu-narenak baino ezkutuagoak izan. Neversko dukeak atsekabe handiz jakin zuen atxikimendu haren berri. Uste izan zuen, halere, semearekin mintzatzea aski izango zela haren jokabidea aldarazteko, baina txoil harritia geratu zen semeak Chartresko andereñoarekin ezkontzeko asmo sendoa zuela ikusi zuenean. Xede hura arbuiatu zuen, sumindu ere egin zen, eta hain gutxi ezkutatu zuen bere sumindura, ezen haren arrazoa supituan zabaldu baitzen gorte guztira, eta are Chartresko anderearenganaino ere iritsi zen. Andere hark ez zuen sekula zalantzan jarri Neversko jaunak bere semearentzako abantaila bat bezala ikusiko zuenik beraren alabarekin ezkontzea, eta harritu egin zen, Clevesko eta

Guiseko leinuek elkartze hura desiratu behar bidean, beldur ziotela ikustean. Horrek sortu zion amorruek alabarentzat etekin on bat bilatzera bultzatu zuen, haren gaineratik zeudela uste zutenen gaineratik jarriko zuena. Oro azterturik, dofin printzea, Montpensier dukearen semea, jo zuen begiz. Ezkontzeko adinean zegoen, eta hura zen gortean zeudenetatik aukerarik onena. Chartresko anderea adimen handiko pertsona zenez, bidamo itzaltsuaren laguntza ere bazue- nez, eta gainera, haren alaba benetan etekin bikaina zenez, halako trebetasunez eta halako arrakastaz ahalegindu zen, ezen bai baitzirudien Montpensierko jaunak ezkontza hura irrikatzen zuela, eta ez zirudien hartarako zailtasunik aurki zitekeenik.

Bidamoak, halere, Anvilleko jaunak dofin erreginari zion begiruneaz jakitun, uste izan zuen beharrezkoa zela printzesa hark haren gaineratik zeuden boterea erabiltzea Chartresko ande- reñoaren alde deliberatzera bultzatzearen, bai erregeren aurrean eta bai Montpensierko prin- tzearen aurrean ere, zeina haren lagun mina bai- tzen. Bidamoak dofin erreginarekin hitz egin

zuen, eta hark atsegin ez onartu zuen biziki maite zuen pertsona hari gorapena ekar diezaiotkeen auzi batean parte hartzea. Halaxe aitortu zion bidamoari, eta ziurtatu zion, Lorraineko osaba kardinalarentzat oso gauza ezatsegina egingo zuela ziur jakin arren, pozik garaituko zituela gogoeta horiek guztiak, zeren bai baitzeuzkan hartaz kexu izateko arrazoiak, egun oroz erreginaren interesak defendatzen zituelako beraren interesen gainera.

Pertsona adeitsuak beti pozez egon ohi dira estakuru batek beren maiteekin hitz egiteko aukera eskaintzen dienean. Dofin andereak, bidamoak utzi bezain laster, agindu zion Chastelarti, Anvilleko jaunaren begikoenari, zeina bere nagusiak andere hari zion maitasunaren jakitun baitzen, joan zekiola beraren partez esatera gau hartan bertan erreginaren etxean egoteko. Chastelartek amultsutasun eta begirune handiz jaso zuen egiteko hura. Aitoren seme hura Dauphineko etxe on batekoa zen, baina bere eratsutasun eta merezimenduek, zeukan jatorriaren gainera jartzen zuten. Gorteko jaun handi guztiek beren etxeetan hartu eta abegi on egiten

zioten, eta Montmorencyko leinuaren faboreek Anvilleko jaunarekin uztartu zuten bereziki. Gizon lerdena zen, era guztietako gorputz-jardueretan trebea, kantari zolia, bertsoak ere egin ohi zituen, eta halako izaera xalo eta suharra zuen, eta hain gogokoa zuen Anvilleko jaunak, ezen dofin erreginari zion maitasunaren isilmandatari egin baitzuen. Isilmandatu horrek printze-sarengana hurbiltzen zuen, eta hain zuzen ere, sarritako ikustaldi horiek eginez hasi zuen, lehenik arrazoiak gabetu, eta azkenik, bizia bera ere edeki zion zorigaiztoko amodio hura.

Anvilleko jaunak ez zuen hutsik egin eta erreginaren etxera agertu zen gauean. Pozik zegoen dofin andereak desio zuen zerbaitetan lan egiteko hautatu zuelako, eta zin egin zion zorrotz beteko zituela haren manuak. Baina Valentinois-ko andereak, ezkontza haren xedeaz oharturik, halako arduraz ekin zion eta halako eran zuen errege jakinaren gainean jarri, ezen, Anvilleko jauna mintzatu zitzaionean, erregek aditzera eman baitzion ez zuela halakorik onetsiko, eta orobat agindu zion huraxe esan ziezaiola Montpensierko printzeari ere. Aise igar zitekeen nola-

koak izan ziren Chartresko anderearen senti-
menduak hainbeste gutiziatu zuen gauza bat
eragotzi ziotenean, eta halako porrot batek
haren arerioei horrenbesteko abantaila eman
eta haren alabari hain kalte handia egiten zio-
nean.

Dofin erreginak berebiziko samurtasunez
aitortu zion Chartresko andereñoari nolako atse-
kabea zeukan alferrikako gertatu izanagatik:

— Ikusten duzu —esan zion—, hala-holako
boterea dudala; erreginak eta Valentinoisko
dukesak hainbesteko hegigoa didate, ezen
nekez geratuko baitira, beren kabuz edo beren
menpean daudenen bidez, nik desio ditudan
gauza guztiak eragozten saiatu gabe. Alabaina
—gehitu zuen—, sekula ez dut pentsatu horien
onuran baizik. Nire ama erreginaren amoreaka-
tik baizik ez didate gorroto, behinola ezinegona
eta jelsia sortu zielako. Errege hartaz maite-
mindu zen, are Valentinoiseko andereaz baino
lehenago, eta ezkon-bizitzako lehen urteetan,
seme-alabarik eduki aurretik, eta nahiz dukesa
maite izan, bazirudien ezkontza hura urratzeko
deliberoa hartua zuela nire ama erreginarekin

ezkontzaz batzeko. Valentinoiseko andereak, erregek lehendik ere maite izan zuen emakume baten beldur baitzen, eta haren edertasunak eta adimenak bere faborea urri ziezaioketenez gero, bat egin zuen kondestablearekin, hark ere ez baitzuen desio errege Guiseko jaun-andereen arreba batekin ezkon zedin. Bien artean errege zenduaren gogoia limurtu zuten, eta hark Valentinoiseko dukesa heriotzaraino gorrotatzen bazuen ere, erregina laket zuenez gero, haiekin bat saiatu zen erregek ezkontza hura desegin zezala eragozten. Azkenik, nire ama erreginarekin ezkontzeko asmoa haren burutik erabat ezabatzearen, nire amaren ezkontza apailatu zuten Eskoziako erregearekin, erregeren arreba Magdaleineren senar alargunarekin, eta halaxe egin zuten, hura zelako halako hitzarmen bat gauzatzeko gertuena, eta zapuztu egin zizkioten Ingalaterrako erregearekin eginak zituen konpromisoak, zeinak sutsuki irrikatzen baitzuen. Gutxik egin zuen zapuzte horrek bi erregeen arteko haustura eragin ez zuenean. Henri VIII.a ezin zitekeen kontsola nire ama erreginarekin ezkondu ez izanaz, eta Frantziako hainbat printzesa

proposatu bazizkioten ere, berak beti zioen inork ez zuela kendua ziotena sekula ordezkatu. Egi-egia zen nire ama erregina edertasun betegi-na zela, eta orobat gauza azpimarragarria zen, Longuevilleko duke baten alarguna izanik, hiru erregek desiratu zutela harekin ezkontzea, baina bere patu gaiztoak horien artetik ezdeusena eman dio, eta ezbeharrak baizik aurkitu ez dituen erreinu batean jarri. Haren antza dudala diote; beldur naiz haren patu dohakabeagatik ote dudan antza, eta zorionaren atarian nagoela irudituagatik ere, ezin sinets nezake halakorik goza nezakeenik.

Chartresko andereñoak esan zion erreginari hain zirela funsgabeak ondikozko susmo haiek, ezen ez baitzituen denbora luzez berekin edukiko, eta ez zuela zertan uste izanik, aieru haiek iragartzen zuten zoriona edukiko ez zuenik.

Ez zen inor gehiago menturatu Chartresko andereñoa gogotan hartzera, horrek errege gaitziarazi zezan beldurrez, edo odol garbiko printze bat espero izan zuen pertsona batengandik halakorik lortzea ezinezkoa zela etsita. Horrelako gogoetek ez zuten, halere, Clevesko jauna gibe-

lerarazi. Haren aita Neversko dukearen heriotzak, orduantxe gertatu berria baitzen, bere amodio-grinari jarraikitzeo askatasun osoa eman zion, eta dolu-egunak iragan bezain laster, Chartresko andereñoarekin ezkontzeko moduari buruzko pentsakizunek hartu zuten osoki. Dohatsu sentitzen zen, gertatu berria zenak gainerako hautagai guztiak urundu eta, ia segur, ezezkorik ezin esan ziezaiokeen garai batean egin zezakeelako proposamen hura. Zoriona gozakaizten zion gauza bakarra, ordea, andereño hari gustagarri ez izatea zen, eta nahiago zuen hari laket izateak emango ziokeen zoriona, maitatua izan gabe harekin ezkontzeko ziurtasuna baino.

Jeloskor samar sentiarazi zuen Guiseko zaldunak, baina jeloskortasun hura printze haren merezimenduetan oinarritua zegoenez, Chartresko andereñoaren ezein ekintzatan bainoago, Clevesko jaunak jakin nahi izan zuen, bakar-bakarrik, ea Chartresko andereñoari buruz zeuzkan xedeak onetsiak izango zirela pentsatzeko bezain zoriontsu izan al zitekeen. Erreginen egoitzetan edo bileretan baizik ez zuen ikusten, eta zaila gertatzen zitzaion harekin buruz buruko

elkarrizketarik izatea. Halere, aurkitu zuen horretarako bidea, eta bere asmoez eta amodioaz mintzatu zitzaion, imajina daitekeen begirunerik handienaz. Clevesko jaunak berarekiko zeuzkan sentimenduak zeintzuk ziren jakinaraztera presatu zuen, eta esan zion, berak harekiko zeuzkanak halako gisa batekoak zirela, ezen betiko dohakabe egingo baitzuen haren ama agurgarriaren borondatea halabeharrez baizik obeditzen ez bazuen.

Chartresko andereñoa, oso bihotz zintzoa eta ona zuenez, zinez hunkitu zuen Clevesko printzearen jokaerak, eta orobat gorazarrez bete zuen. Esker on horrek eztitasun kutsu bat zemaioten haren erantzun eta hitzei, eta hori aski izan zen printzea bezain itsutuki maitemindutako gizon batengan itxaropena pizteko, eta halatan, bere desioak hein batean gauzatuak ikusteak gogobeterik utzi zuen Clevesko jauna.

Chartresko andereñoak elkarrizketa haren berri eman zion amari, eta Chartresko andereak esan zion Clevesko jaunak halako prestutasuna eta dohain onak zeuzkala, eta halako zuhurtzia erakusten zuela bere adinerako, ezen, harekin

ezkontzearen aldeko isuria sentitzen bazuen, berak pozik onetsiko zukeela. Chartresko andereñoak ihardetsi zuen berak ere dohain on berberak igarri zizkiola eta beste edonorekin baino gogotsuago ezkonduko zela harekin, baina aldiz, ez zuela amodiozko isuri berezirik sentitzen haren alde.

Biharamunean, printze hark mandatari bat igorri zuen Chartresko andereari hitz egitera. Andere hark, egin zitzaion proposamena jaso zuen, eta, alaba Clevesko printzearen esku utziz, ez zuen beldurrik izan ezin maita zezakeen senar bat emango zionik. Hitzartu zituzten baldintzak, hitz egin zioten erregeri, eta mundu guztiak jakin zuen ezkontza haren berri.

Clevesko jauna dohatsua zen, guztiz pozik egotera iritsi gabe. Atsekabe handiz zekusan Chartresko andereñoaren sentimenduak ez zihozazela estimuaz eta esker onaz harantzago, eta ezin zezakeen espero sentimendu adikorrago batzuk ezkuta zitzakeenik, zeren beren arteko harremanak bide ematen baitziren halako sentimenduak elkarri agertzeko, Chartresko andereñoaren umiltasun apartekoa mindu gabe. Ia ez

zen egunik izaten, Clevesko jaunak kexarik adierazi gabe.

— Ba al liteke —esaten zion—, ni zoriontsu ez izatea zurekin ezkondurik? Halere, egia da ez naizela. Nirekiko duzun ontasun horrek ezin nazake gogobete. Ez ezinegonik, ez kezkarik, ez nahigaberik duzu. Nire amodiozko jaidurak ez zaitu hunkitzen, ez bederen zure fortunaren abantailen gainean —ezen ez zure izaeraren xarman— bermatutako lotura batek baino gehiago.

— Bidegabeak dira zure kexak —erantzun zion Chartresko andereñoak—; ez dakit zer desira dezakezun egiten dudanaz harantzago, eta uste dut, prestutasunez, ez zaidala zilegi besterik egin dezadan.

— Egia da —ihardetsi zion Clevesko jaunak—, zenbait agerbide eman dizkidazula, eta halaber, pozik nengokeela baldin horien atzean beste zerbait balego. Baina ez da prestutasuna atxikita zauzkana, horrexek eginarazten baitizu egiten duzuna. Ez dut zure borondatea eta ez zure bihotza ere erdiratzen, eta nire presentziak, ez plazerrik ez kezkarik dizu sortzen.

— Ez duzu ukatzerik —berrekin zion Chartresko andereñoak— zu ikustekak pozten ez nauenik, eta hain sarritan naiz zu ikusiz lotsagorritzen, ezin uka baitezakezu zure ikustaldiak artegarazten ez nauenik.

— Zure gorritasunaz den bezainbatean, ez nago oker —ihardetsi zuen—, umiltasunezko sentimendua baita, eta ez zure bihotzaren mugida, eta ez naiz horretaz prezatzen behar dudana baino areago.

Chartresko andereñoak ez zekien zer ihardetsi, beraren ezagutzen gaintetik baitzeuden halako zorrotasunak. Clevesko jaunak argi zekusan zeinen urrun zegoen Chartresko andereñoa bera gogobete zezaketen sentimenduak edukitzetik, eta are iruditzen zitzaion ulertezinak zitzaizkiola hari.

Guiseko zalduna bidaia batetik itzuli zen ezteiak egin baino egun batzuk lehenago. Chartresko andereñoarekin ezkontzeko xede hartan hainbeste oztopo gaindiezin ikusi zituenez gero, ezin zezakeen iguriki halakorik lortzea, baina halere, nabarmenki mindu zen beste baten emazte bilakatuko zela ikustean. Nahigabe

horrek, alabaina, ez zuen haren amodio grina jabaldu, eta ez zuen ere hargatik gutxiago maite izan. Chartresko andereñoak ezagutzen zituen printze hark berari buruz izan zituen sentimenduak. Itzuleran jakinarazi zion bera zela haren hazpegietan igar zitekeen berealdiko tristeziaren arrazoia. Guiseko zaldunak hainbeste merezimendu eta hainbeste xarma zeuzkan, zail baitzen hura dohakabe egin eta errukirik ez sentitzea. Hala, bada, ezin izan zuen etsi errukirik agertu gabe, baina erruki horrek ez zizkion beste sentimendu batzuk ernarazi. Amari azaldu zion nolako atsekabea sortzen zion printze haren saminak.

Chartresko andereak alabaren zintzotasuna miresten zuen, eta miretsi ere, arrazoiz miresten zuen, inork ez baitzuen inoiz hain zintzotasun handirik eta hain berezkorik izan, baina ez zuen gutxiago miresten haren bihotzak artean hunkigabe irautea, are eta gehiago, ikusirik Clevesko printzeak ez zuela artean hunkitu, ez besteek baino gehiago. Arrazoi horregatik eginahal handiak egin zituen alabak senarrarekin bat egin eta konpreni zezan zenbat zor zion hari, ezagutu

baino lehenago ere erakutsi zion lehiagatik eta gainerako emaztegai guztiak baino nahiago izanik frogatu zion amodioagatik, bera gogotan hartzera inor menturatzen ez zen garai batean.

Azkenik burutu zen ezkontza hura. Louvren egin ziren ospakizunak, eta arratsean, errege-erreginak Chartresko anderearen etxera etorri ziren afaltzera, gorte guztiarekin batera, eta han, arrandia goresgarri batez egin zieten harre-
ra. Guiseko zalduna ez zen ausartu besteetatik bereiztera eta ospakizun haietara ez agertzera, baina hainbesteraino gailendu zitzaion tristezia, ezen erraza baitzen horretaz ohartzea.

Clevesko jaunak ez zion antzeman Chartresko andereñoari, hark bere izena aldatzearekin batera, sentimenduak ere aldatu zituenik. Haren senarra izateak eskubide handiagoak ematen zizkion, baina horrek ez zion inolako lekurik eman emaztearen bihotzean. Horren medioz, haren senarra izan arren ere, haren maitale izaten segitu zuen, beti bazuelako zer desiratua haren jabetzaz gaindi, eta nahiz elkarrekin ezin hobeto bizi, senarra ez zen guztiz zoriontsua. Bere zoriona aztoratzen zion bortxazko eta ego-

nezinezko grina bat sentitzen zuen barrenean emazteari buruz. Jeloskortasunak ez zuen lekurik aztoramen hartan; izan ere, sekula ez da senarrik izan jelsia sentitzetik hain urrun, ez eta sekula emazterik hori sentiaraztetik ere. Nolanahi ere, Chartresko andereñoa, gortearen erdian zegoenean, besteen begiradapean aurkitzen zen. Egunero joaten zen erreginengana eta Madamerengana. Gizon gazte galai guztiek ikusten zuten haren etxean edo Neversko duke haren ezkon-anaiarenean, zeinak mundu guztia-arentzat zabalik baitzeuzkan ateak. Baina haren eiteak hain begirune handia iradokitzen zuen eta hain urrun zirudien galaikeria orotatik, ezen, Saint-Andre mariskala, erregeren faboreek urgatzia eta izaeraz bipila izanagatik ere, haren edertasunaz hunkiturik geratu zenean, ez baitzen ausartu horren frogak ematera arreten eta adei-erakutsien bidez baizik. Beste asko ere egoera berean zeuden, eta Chartresko andereak, gainera, halako jokabidea gehitzen zion alabaren zuhertasunari, hain gertutik jarraikitzen zion prestutasunari, ezen pertsona eskuragaitza bailitzan agertaraztea lortu baitzuen.

Lorraineko dukesa, bakea bilatzeko ahalegi-
nean, beraren seme Lorraineko dukea ezkon
zedin saiatu zen. Ezkontza, Frantziako Claude
anderearekin, hots, erregeren bigarren alabare-
kin adostu zuten, eta ezteiak, otsaila alderako
finkatu zituzten.

Bizkitartean, Nemoursko dukea Bruselan
geratu zen, Ingalaterrari buruzko xedeek osoki
hartua eta beretua zutelarik. Maiz jasotzen edo
igortzen zuen hara posta. Itxaropenak handituz
zihoazen egunetik egunera, eta azkenik, Ligne-
rollesek mandatari bat igorri zuen harengana,
esatera ordu zela hain ongi hasitako hura bera-
ren presentziaz gauza zezan. Bere omenari
esker bakarrik erregetzaraino iritsia zen gizon
gazte handinahi batek senti zezakeen arraitasun
guztiarekin jaso zuen berri hura. Bere izpiritua
oharkabean ohitu zen fortuna haren handitasu-
nera, eta hasieran ezin erdiets zezakeen gauza
zelakoan baztertu bazuen ere, eragozpenak eza-
batuak ziren haren adimendutik eta ez zuen jada
oztoporik ikusten.

Mandatari bat bidali zuen agudo Parisa, segi-
zio bikain bat prestatzeko beharrezko agindu

guztiak ematera, Ingalaterrara bultzatzen zuen xedearen konformidade bereko distira batez ager zedin han, eta bera ere, bide batez, gortera itzultzera presatu zen, Lorraineko jaunaren ezkontzan izateko asmotan.

Eztei bezperan iritsi zen; eta iritsitako gau hartan bertan, erregeguna jo zuen bere asmoaren egoeraz kontu ematera, eta egiteko zuenaz aginduak eta aholkuak jasotzera. Gero, erregingana joan zen. Clevesko anderea ez zegoen han, eta hortaz, printzesa hark ez zuen ikusi eta ez zuen jakin iritsi zenik ere. Mundu guztiari entzuna zion, gortean zeudenen artetik printze hura zela ederrena eta atseginena, eta dofin andereak, batez ere, halako moduz marraztua zion eta hainbeste aldiz hitz egin zion hartaz, ezen jakinmina piztu baitzion, eta are hura ikusteko halako ezinegon bat.

Clevesko andereak etxean igaro zuen ezteiegun osoa, arratsean Louvren egitekoa zen balserako eta oturuntzarako apailatzen. Iritsi zenean, haren edertasuna eta dotorezia miretsi zuten denek. Balsa hasi eta Guiseko jaunarekin dantzanari zelarik, zurrumurru handia sortu zen

ate aldera, norbait sartu eta lekua egin izan baliote bezala. Clevesko andereak orduantxe amaitu zuen dantzatzen, eta dantzarako hartu nahi zuen lagun baten begiak bilatzen ari zen bitartean, erregek dei egin zion iritsi berria har zezan. Itzuli eta Nemoursko jauna baizik ezin izan zitekeela iruditu zitzaion gizon bat ikusi zuen lehenik, eserleku batzuen gainetik heldu zelarik dantzan ari ziren lekura. Printze hura hain ongi zegoen egina, zail baitzen harrিতua ez gertzea inoiz ikusi gabea izanez gero, eta batik bat arrats hartan, apaintzen jarri zuen ardurak ederragotu egiten baitzuen berez zuen distira, baina zail zen, hein berean, Clevesko anderea lehenbiziko aldiz ikustean harenganako liluramendu handi bat ez sentitzea.

Nemoursko jauna halako moduz txunditu zuen haren edertasunak, ezen, haren hurbilean izan zenean eta hark begirunezko agurra egin zionean, ezin izan baitzuen bere mirespenaren frogak agertzea eragotzi. Dantzan hasi zirenean, laudoriozko marmar bat hedatu zen aretoan. Errege-erreginak oroitu ziren haiek ez zutela inoiz elkar ikusi, eta bitxi iritzi zioten ezagutu

aurretik elkarrekin dantzan ikusteari. Amaitu zutenean beren ondora deitu zituzten, bietako inori solas egiteko astirik eman gabe, eta galde-tu zieten, ea ez al zuten nortzuk ziren jakin gogorik, eta ea ez al zuten susmorik.

— Nitaz den bezainbatean, Madame —esan zuen Nemoursko jaunak—, ez dut zalantza izpirik, baina Clevesko andereak ez dituenek nik hura ezagutzeko ditudan arrazoi berberak ni nor naizen jakiteko, plazer nuke Maiestate horrek nire izena hari jakinarazteko ontasuna balu.

— Nago —esan zuen dofin andereak—, zuk harena bezain ongi dakiela hark ere zurea.

— Ziurtatzen ahal diot, Madame —ihardetsi zuen Clevesko andereak, zeinak doi bat aztortua baitzirudien—, ezin dezakedala jakin berorrek uste duen bezain ongi.

— Aski ongi dakizu —erantzun zuen dofin andereak—, eta losintxa kutsu bat igar dezaket inoiz ikusi gabe ezagutzen duzula aitortu nahi ez horretan.

Erreginak solasaldi hura eten zuen balsari jarraipena emateko eta Nemoursko jaunak dofin erregina hautatu zuen. Printzesa hura edertasun

betegina zen, eta halaxe agertu zen Nemoursko jaunaren begietara Flandesera joan baino lehenago ere, baina arrats guztian, Clevesko anderea baizik ez zezakeen mirets.

Guiseko zalduna, zeinak egun oroz laudorioak egiten baitzizkion Clevesko andereari, haren oinetara makurtua zegoen, eta gertatu berria zenak oinaze mingotsa sentiarazi zion. Nemoursko jauna Clevesko andereaz maitemintzera bultzatuko zuen patuaren iragarpen bat bezala zekusan, eta zela haren begitartean kezka bat igarri zuelako, edo zela jelsiak Guiseko zaldunari egia zenaz harantzagoko gauzak ikusarazi zizkiolako, uste izan zuen printze haren ikustaldiak zinez hunkitu zuela Clevesko anderea, eta ezin izan zuen esan gabe gorde Nemoursko jauna arras zoriontsua zela, galaitasunetik eta ohizkanpokotik sobera zuen abentura baten bitartez egin zituelako harekiko lehen ezaupideak.

Clevesko anderea etxera itzuli zen, balsean gertatu zenaz gogoia hain betea, ezen, arrunt berandu izanagatik ere, amaren gelara joan baitzen horren berri ematera. Halako moldez gorai-

patu zuen Nemoursko jauna, ezen Guiseko zaldunak izan zuen pentsakizun bera etorri baitzitzaien Chartresko andereari ere.

Biharamunean egin ziren ezteietako ospakizunak. Clevesko andereak hain eite eta ibilera goresgarriak ikusi zituen Nemoursko dukearengan, are eta liluratuago utzi baitzuten.

Ondoko egunetan, dofin erreginarenean ikusi zuen, erregerekin pilotan jolasten. Ikusi zuen zinta-karreretan eta hizketan ere entzun zuen, baina beti gainerako guztietatik hain gora gailentzen eta, nonahi egonik ere, hizketaren hain jabe ikusi zuen, bai haren gorputz-eiteagatik eta bai haren adimenaren xarmagatik ere, ezen denbora gutxian sekulako zirrara eragin baitzion bihotzean.

Egia da, orobat, Nemoursko jaunak ere haren aldera isuri bortitz bat sentitzen zuenez, amodioaren lehen desirak eragiten duten ezintasun eta alaitasun hori kutsatuz, usatu ohi zena baino askozaz maitakorragoa agertzen zela, eta horrela, sarritan elkar ikusiz, eta gortean zeuden pertsonarik ederrenak zirela ere igarriz, zail zen

elkarrenganako onirizpen hondogabe bat ez sentitzea.

Valentinoisko dukesa plazer mota guztietara azaldu ohi zen, eta erregek, bere amodio jaiduraren hastapenetan izandako bizitasun eta ardurara berak eskaintzen zizkion. Clevesko anderea hogeita bost urtetik aurrera emakume bat ezin maita daitekeela uste den adin horretan zegoen, eta harridura handiz zekusan erregek dukesa hari zion atxikimendua, zeina ordurako amona baitzen eta berrikitan ezkondu baitzizaion biloba. Maiz hitz egiten zion hartaz Chartesko andearari:

— Ba al liteke, Madame —esaten zion—, errege hain aspalditik maitemindurik egotea andere horretaz? Nola lotu ahal izan zaio bera baino askozaz adintsuagoa den pertsona bati, haren aitaren maitale izandako bati, eta oraino beste askorena ere badenari, entzun dudan gisaz?

— Egia da —erantzun zuen—, erregeri atxikimendu hori ez diola ez Valentinoisko anderearen merezimenduak eta ez leialtasunak piztu, eta ez iraunarazi ere, eta hain zuzen ere, ez du aitzaikiarik horretan, zeren eta emakume horrek bere

leinargiari gatzetasuna eta edertasuna gehitu izan balio, baldin inoiz inor maitatu ez izanaren merezimendua ukan izan balu, baldin errege leialtasun erabatekoaz maitatu izan balu, baldin harekiko harremanagatik soilik maitatu izan balu, handitasun edota aberaspide asmorik gabe, eta erregerentzat onestak eta atseginak diren gauzetarako baizik ez erabiliz bere boterea, aitortu beharra genuke nekeza litzatekeela andere horrekiko duen atxikimendu handiagatik printzea ez gorestea. Baldin ez banu beldurrik — segitu zuen Chartresko andereak— nigatik ere nire adineko emakume guztiengatik esan ohi dena esan dezazun, alegia, biziki maite dutela beren garaiko historiak kontatzea, erakutsiko nizuke nolakoak izan ziren erregek dukesa honen alde duen isuriaren hastapenak, eta errege zenduaren gorteko hainbat gauza ere bai, egun oraindik ere gertatzen direnekin zerikusi handia dutenak.

— Iraganeko historiak errepikatzea salatzetik urrun —berrekin zion Clevesko andereak—, kexu naiz, Madame, ez didazulako egungoei buruzko ezagutzarik eman, eta ez didazulako gorteko

harreman eta gurari desberdinei buruzko jakintzarik eskuratu. Hain zaizkit ezezagunak, uste bainuen, duela egun gutxi arte, kondestable jauna akort zela erreginarekin.

— Egiaz oso bestelako iritzia zenuen —ihardetsi zion Chartresko andereak—. Erreginak gorroto dio kondestableari, eta inoiz horretarako egokieran gertatzen bada, ongi baino hobeto jakingo du hark horren berri. Erreginak badaki sarritan esana diola erregeri haren seme-alaba guztietatik isilekoek baizik ez dutela haren antzik.

— Inoiz ez nuke horrelako hegigorik sumatuko —eten zuen Clevesko andereak—, ikusirik kondestablea giltzapean egon zen bitartean erreginak hari idazten jartzen zuen arreta, itzuleran aitortu dion poza, eta nola deitzen dion beti «ene adiskidea», erregeri bezalaxe.

— Baldin itxuren gainean eraikitzen badituzu zure epaiak —ihardetsi zuen Chartresko andereak—, oker zara sarritan ibiliko, dirudien hori ia inoiz ez baita egia izaten. Baina Valentinoisko anderearengana itzuliz, badakizu Diane Poitiersko duela hark izena. Haren etxea itzal handikoa

duzu, antzinako Akitaniako dukeen etorkikoa, haren amona Louis XI.aren isileko alaba izan zen, eta haren leinuari handitasuna baizik ez dario. Saint-Vallier, haren aita, entzuna izango duzun Bourbongo kondestablearen auzian nahastua ibili zen. Lepoa moztuta hiltzera zigortu eta urkamendira eraman zuten. Haren alabak, edertasun miresgarrikoa eta ordurako errege zenduaren begikoa izaki, saiatuaren saiatuaz — nik ez dakit zein bidetatik—, aitaren bizia salbatzea lortu zuen. Heriozko kolpea eman hurrenez hurren adierazi zioten grazia, baina halako neurrian jabetu zitzaion izua, jada ez zuen ezaguera-rik gehiago izango, eta egun batzuk geroago hil zen. Haren alaba erregeren maitale gisa agertu zen gortean, baina Italiako bidaiak eta printzearen gartzelaldiak maitasun hura eten zuten. Errege Espainiatik itzuli zenean, Madame Erreginordea haren bila Baionara hurbildu eta berekin eraman zituen alaba guztiak, horien artean Pisseleuko andereñoa zegoelarik, gerora Etampesko dukesa izan zena. Hartaz maitemindu zen errege. Jaiotzaz, adimenez eta edertasunez Valentinoisko anderearen azpitik zegoen, eta

gaztetasun handi bat izan ezik, ez zion hari zorrik ezertan. Askotan entzuna diot Diane Poitierskoa ezkondu zen egun berean jaio zela. Hegigoak esanarazten zion hori, eta ez egiak, zeren oso oker nengokeen baldin Valentinoisko dukesa ez balitz Brezeko jaun eta Normandiako seneskal handia izan zenarekin ezkondu, errege Etampesko andereñoaz maitemindu zen garai bertsuan. Sekula ez da izan bi emakume haien artekoa bezain hegigo handirik. Valentinoisko dukesak ezin ziezaiokeen barka Etampesko andereak erregeren maitale titulua kendu izana, eta Etampesko andereak, berriz, jeloskortasun bortitza zion Valentinoisko andereari, erregek oraindik hartu-emanen bat gorde zuelako harekin. Printze hark ez zien erabateko leialtasuna bere maitaleei; beti bat izaten zen titulua eta ohoreak biltzen zituena, baina «lagunarte txiki-ko» damak zeritzenek elkarren artean txandakatzuten zuten, noiz batek noiz besteak. Erregeren seme dofina Tournonen hildakoan, ustez pozoturik, bihozmin handi batek kolpatu zuen. Egun erreinatzen duen haren bigarren semeari ez zion txera eta kutuntasun berbera, eta ez zion ikus-

ten ez adorerik eta ez kemenik aski. Egun batez, Valentinoisko andereari horretaz kexuka ari zitzaiolarik, hark esan zion bereganako maitemina ernarazi nahi ziola, biziagoa eta atseginagoa bihur zedin. Bai eta lortu ere, ikus dezakezun moduan; badira hogeitau urte baino gehiago amodiozko grina horrek dirauela, eta ez denborak ez eragozpenak aztoratzerik izan dute.

Errege zendua horren aurka agertu zen lehenik, eta zela artean jeloskor egoteko bezain maitemindua zegoelako Valentinoisko andereaz, edo zela horretara bultzatu zuelako Etampesko dukesak, zeinari nahigabe handia sortu baitzion dofin jauna beraren etsaiaz zaletua egoteak, egia da maitasun hark halako amorrua eta halako nahigabea sortu ziola, ezen egun oroz ematen baitzituen horren agerbideak. Haren semeak ez zion beldurrik ez haren amorruari ez haren hisiari, eta deusek ez zezakeen derrigortu atxikimendu hura jabaltzera edo ezkutatzera. Hura jasatera ohitzea beste aukerarik ez zeukan erregek. Haren xedeei aurka egite horrek are gehiago urrunarazi zuen berarengandik, eta bere hirugarren seme Orleansko dukearengana zuen hur-

bildu. Printze hura gazte lerdena zen, ederra, adorez eta handinahiz betea, baretu beharreko gaztetasun sutsua zuen, eta gorapen handiko printze bilakatuko zen, baldin adinak adimena argitu izan balio.

Dofinak zeukan premu izaera horrek, eta erregek Orleansko dukearen alde zuen faboreak, nolabaiteko ondamua sortua zuten bien artean, gorrotoraino zihoana. Ondamu hori haur denboratik zetorkien, eta horretan iraun zuen beti. Enperadorea Frantziatik igaro zenean, lehentasun erabatekoa eman zion Orleansko dukeari dofin jaunaren gaintetik, eta horrek hain sutsuki mindu zuen, ezen, enperadorea Chantillyn zela, hura atxilotzera behartu nahi izan baitzuen kondestablea, erregeren aginduari itxaron gabe. Kondestable jaunak ez zuen hura bete nahi izan. Erregek, horren ondorioz, semearen aholkuari jarraiki ez izana gaitzetsi zion, eta arrazoi horrek parte handia izan zuen, gortetik urrunarazi zutenean.

Bi anaien arteko zatiketa hark, Orleansko dukearen sustengua erdiesteko asmoa ekarri zion Etampesko dukesari, modu hartan errege-

ren aurrean haren babesa izango baitzuen Valentinoisko anderearen aurka. Eta lortu ere lortu zuen. Printze hura, Etampesko dukesaz maitemindurik egon gabe ere, haren faboretan jokatu zen, dofina Valentinoisko anderearen faboretan jokatu zen bezalaxe. Horrek, imajina ditzakezun bi alderdietan zatitu zuen gordea, baina azpijoko horiek ez ziren emakumeen arteko liskarretara soilik mugatu.

Enperadoreak, Orleansko dukeari betidanik adiskidetasuna gorde izan zionez gero, askotan adierazi zion Milango dukerria itzuliko ziola. Bakearen ondoren egin ziren proposamenetan, iradoki zion hamazazpi probintzia emango zizkiola, eta bere alabarekin ezkonaraziko zuela. Dofin jaunak, haatik, ez zuen desiratzen ez bakea eta ez ezkontza hura ere. Betidanik lagun handia izan zuen kondestable jaunaz baliatzen zen ikusarazteko erregeri zeinen garrantzitsua zen beraren ondorengoari Orleansko dukea bezain anaia ahaltzu bat ez ematea, enperadorearen elkartasuna izateaz gain, haren esku hamazazpi probintziaren jabetza zeukanean. Kondestable jaunak, beraz, bat egin zuen dofin

jaunaren sentimenduekin, are eta gehiago Etampesko anderearen kontrakoak izanik, zeina beraren etsai aitortua baitzen hura, eta Orleansko duke jaunaren gorapena desiratzen baitzuen sutsuki.

Dofin jauna, bien bitartean, erregeren armada ari zen gidatzen Champagnen, eta halako heinean murriztu zuen enperadorearena, ezen zeharo suntsituko baitzuen, baldin eta Etampesko dukesak, abantaila handiegiak izateak enperadorearen eta Orleansko dukearen arteko bakea eta egiunea deuseztu zitzan beldurrez, ez balitu etsaiak ezkutuan oihartarazi, Epernay eta Chateau-Thierry ustekabeen beren menpe har zitzatela esanez, hornigaiez mukuru zeudelarik. Halaxe egin zuten, eta horri eskerrak salbatu zuten beren armada osoa.

Dukesa hark ez zuen luzaroan gozatu bere traizioaren arrakasta. Handik gutxira, Orleansko duke jauna hil zen Farmoutierren, gaitz kutsakor batek jota. Gorteko emakume ederrenetako bat maite zuen, eta hark ere maite zuen bera. Ez dizut haren izena aipatuko, harrezkero halako zuhurtziaz bizi izan delako eta halako arduraz

ezkutatu duelako printze hari zion maitasuna, ezen ongi merezi baitu bere omena gorde diezaiozun. Halabeharrez, Orleansko jaunaren heriotzaren berria jakin zuen egun berean jaso zuen bere senarrarena ere, eta hala, beraz, aitzakia hori baliatu zuen bere benetako samina ezkutatzeko, bere burua horretara hertsatu beharrik izan gabe.

Errege ez zen denbora luzean bizi izan seme printzearen heriotzaz gero. Bi urte geroago hil zen. Tournongo kardinalaz eta Annebaulteko almiranteaz zerbitza zedila gomendatu zion dofinari, eta ez zion hitzik ere egin kondestable jaunaz, zeina garai hartan Chantillyra baztertua baitzegoen. Halere, erregeren semeak egindako lehen gauza, hari berriz deitzea izan zen, eta bere aferen gobernua hari ematea.

Etampesko anderea egotzia izan zen, eta etsai ahalguztidun batengandik espero zitzakeen tratu txar guztiak jaso zituen. Valentinoisko dukesa konplutuki mendekatu zen dukesa hartaz eta gaitziarazi zuten guztiez. Erregeren gogoan zuen botereak, hura dofin zen garaian baino are erabatekoagoa zirudien. Hamabi urte dira prin-

tzea erreinatzen ari dela, eta andere hori gauza ororen jabe bakarra duzu; bera arduratzen da karguez eta aferez, eta berak iraitzi ditu Tour-nongo kardinala, Olivier kantzilerra eta Villeroy. Erregeri jokaera horri buruzkoan argi egin nahi izan diotenak, galdu egin dira langintza horretan. Taixeko kondeak, artilleriako maisu handi hark, zeinak ez baitzion txerarik izan sekula, ezin izan zituen haren amodio kontuak aipatu gabe utzi, eta batik bat, Brissaceko kondeari buruzkoa, zeinari lehendik ere jelsia handia izan baitzion erregek. Dukesak, haatik, halako abilezia erakutsi zuen, ezen Taixeko kondea zorigaitzean erori baitzen; kargua kendu zioten, eta, ia sinestezina dena, Brissaceko kondeari ematea lortu zuen kondesak, eta Frantziako mariskal egin zuen segidan. Halere, halako heinean handitzen erregeren jelsia, ezen eramanezina egin zitzaion mariskal hura gortean egotea. Baina jelsia hori, gainerako guztiengan garratza eta bortxazkoa bada ere, ezta eta emea da haren-gan, bere maitaleari dion begirune hondarga-beagatik. Eta horrexegatik, Piemonteko gober-nua emango ziolako estakuruaz baizik ez zen

ausartu bere aurkaria urruntzera. Hainbat urte egin ditu han. Joan den neguan itzuli zen, gudarosteak eta berak gidatzen zuen armadarako zenbait gauza beharrezko eskatzera zetorrela aitzakia harturik. Valentinoisko anderea berriro ikusteko gogoak eta hark ahantziko ote zuen beldurrak parte handia izan zuten, nonbait, bidaia hartan. Erregek hoztasun handi batez egin zion harrera. Guiseko jaun-andereak, zeintzuk, gogoko ez izan arren, ez baitziren ausartzen hori aitortzera Valentinoisko anderearen amorekatik, Bidamo jaunaz baliatu ziren, haren etsai amorratuaz, eskatzera etorria zen oro lor zezala eragozteko. Ez zen zaila hari kalte egitea: erregek gorroto zion, eta haren presentziak ezin gonaz betetzen zuen. Beraz, itzultzera hertsatu zuten, hark bere bidaiari ezein etekinik atera gabe, salbu eta Valentinoisko anderearen bihotzean ezaldi hura itzaltzen hasi zen sentimenduak berpiztea. Erregek jelskor egoteko beste arrazoi batzuk ere izan ditu, baina, edo ez ditu ezagutu, edo ez da horiei buruz kexu egitera ausartu.

— Ez dakit, alaba maitea —gehitu zuen Char-tresko andereak—, ez ote zaizun irudituko jakin nahi zenituenak baino gauza gehiago kontatzen ari naizen.

— Oso urrun nago, Madame, kexu hori egite-tik —ihardetsi zuen Clevesko andereak—, eta, gogaituko zaitudalako beldurragatik ez balitz, ezezagunak zaizkidan xehetasun gehiago ere eskatuko nizkizuke oraino.

Nemoursko jaunak Clevesko andereari zion zaletasuna hasiera berri hartan hain izan zen bortxazkoa, ezen, maite izan zituen eta, andere haren ezaldian, berarekin hartu-emanen ibili ziren emakume guztienganako estimua eta oroi-tzapena ere ezabatu baitzion. Emakume haieki-ko lotura hausteko aitzakia baten bila ez saia-tzeaz gain, ez zuen nekerik hartu haien kexuak entzuteko, ez eta haien ahakarrei erantzuteko ere. Dofin andereak, zeinaren alde pasiozko sen-timendu biziak ukan baitzituen, ezin izan zuen hura bere bihotzean atxikita eduki Clevesko anderearen kontra. Ingalaterrarako bidaiari buruz zuen urduritasuna baretzen hasia zitzaion, eta irteerarako beharrezkoak ziren gauzak jada

ez zituen hain sutsuki presarazten. Dofin erregi-
narenera maiz joan ohi zen, Clevesko anderea
ere maiz joaten zelako hara, eta ez zitzaion
axola izan berak erreginaren alde zituen senti-
menduez jendeak uste zuena imajinatzea. Cle-
vesko anderea hain sari preziatua iruditzen
zitzaion, erabaki zuen nahiago zuela hari bere
amodio grinaren aztarnarik ez ematea, jendau-
rrean ezagutzera ematera arriskatzea baino.
Chartresko bidamoari ere ez zion hitzik esan har-
taz, bere adiskide mina izan arren eta hari zer
ezkutaturik ez eduki arren. Hain jokaera zuhurra
agertu zuen eta halako arduraz begiratu zen har-
tatik, inork ez baitzuen susmatu ere egin, Guise-
ko zaldunak izan ezik, Clevesko andereaz maite-
mindua zegoenik. Eta Clevesko andereari berari
ere zail izango zitzaion horretaz ohartzea, baldin
eta berak ere hari zion amodio isuriak ez balio
haren ekintzetan arreta berezi bat jartzera bul-
tzatu, zalantza egiteko biderik ematen ez ziona.

Clevesko andereak printze hari buruzko sen-
timenduez pentsatzen zuena amari esateko
orduan, ez zuen bere baitan gertuera on bera
aurkitu nola izan baitzuen beste ezkongaez min-

tzatzean. Hura ezkutatzeko asmo sendorik ez bazuen ere, ez zion hartaz hitzik egin. Baina Chartresko andereak sobera ongi ikusten zuen hori, alabak hari zion amodiozko isuria bezain ongi. Ezagutza horrek min nabarmena eragin zion. Argi zekusan zein eratako arriskuan egongo pertsona gazte hura, baldin Nemoursko jauna bezalako gizon zaildu bat hartaz maitemintzen bazen, bere alabak hari ere zaletasuna zionean. Egun batzuk geroago gertatu zen gauza batek egiaztatu zizkion maitasun hartaz zeuzkan susmoak.

Saint-Andreko mariskalak, une oro bere handitasuna nabarmenarazten saiatzen zelarik, erregeri erregutu zion, etxea erakutsiko ziolako aitzakian —orduantxe amaitu berria—, mesedez ohorea egin eta etor zedila beraren etxera erreginekin batera afaltzera. Mariskal hura oso pozik zegoen ugaritasuneraino iristen zen diru-xahutze harrigarri hura Clevesko anderearen begien aurrean erakus zezakeelako.

Afari hartarako hautatu zutena baino egun batzuk lehenago, dofin erregea, oso osasun gaiztokoa baitzen, gaizkitu egin zen, eta ez zuen inor

ikusi nahi izan. Erreginak, haren emazteak, egun osoa eman zuen haren aldamenean. Arratsean, hobeto zegoenez, gelaitzinean zeuzkan pertsona prestu guztiei sartzeko esan zien. Dofin erregina bere gelara joan zen, eta han, Clevesko anderea eta kutuntasunez hurbilenak zituen beste dama batzuk aurkitu zituen.

Aski berandu zenez, eta apailatu gabe zegoenez artean, dofin anderea ez zen erreginaren-gana joan. Jakinarazi zien ez zuela inor ikusi nahi, eta bere harribitxiak ekarrarazi zituen, Saint-Andre mariskalaren balserako aukeraketa egin eta Clevesko andereari haietako batzuk emateko, lehendik agindua zion bezala. Zeregin hartan zebiltzalarik, Condeko printzea iritsi zen. Bere prestutasunak sarrera-ate guztiak zabal-tzen zizkion. Dofin erreginak esan zion beraren senar erregeandik zetorrela noski, eta han zertan ari ziren galdegin zion.

— Eztabaidan ari dira Nemoursko jaunarekin, Madame —erantzun zion—, eta hark, hain gartsuki eusten dio defendatzen duen auziari, bera-ri dagokion gai bat baizik ezin baitaiteke izan. Nago baduela maitalaren bat, balsean dagoe-

nean ezinegona sortzen diona, gauza gogaikarri-
tzat baitauka pertsona maitatua halakoetan
ikustea.

— Nola! —berrekin zion dofin andereak—,
Nemoursko jaunak ez duela nahi beraren maite-
ñoa balsean egon dadin? Uste nuen senarrek
desira zezaketela beren emazteak halakoetan ez
egotea, baina maitaleek! Ez nuen sekula pentsa-
tuko sentimendu hori edukitzen ahal zutenik.

— Nemoursko jaunak uste du —iharduki zuen
Condeko printzeak—, maitaleentzat gauzarik
gogaikarriena dela balsa, maitatuak izan nahiz
ez izan, eta luzaroan penaturik egon ohi direla
gutxiago maite dituztelako beldurrez. Ez omen
dago emakumerik bere apaintasunarekiko kez-
kak maitalearen oroitzapena ezabatzen ez dio-
nik, guztiz irentsita baitauzka horrek, eta ardura
handia hartzen dutela dio, maite dutenentzat ez
ezik, mundu guztiarentzat apaintzen. Balsean
daudelarik, so egiten dieten guztien gogoko
agertu nahi izaten omen dute. Beren edertasu-
naz pozik direnean, berriz, bozkario batek bete-
tzen dituela, nahiz horretan beren maitaleek
zeresan handirik izan ez duten. Orobat dio, mai-

tatua ez izatera, are gehiago sofritzen dela maittea bilkura batean ikusirik; zenbatenaz miretsia-goa den hura jendaurrean, hainbatenaz dohaka-beagoa baita maitatua ez izateaz. Beti beldurrez izan ohi garela haren edertasunak ez ote duen geurea baino maitasun dohatsuago bat ernaraziko. Uste du, azken batean, maitalea balsean ikustea bezalako sofrimendurik ez dagoela, salbu eta hura han dagoela jakin, eta norbera bertan ez egotea.

Condeko printzearen hitzak adituko ez balitu bezala egiten zuen Clevesko andereak, baina arreta handiz entzuten zion, ordea. Aise igarri zuen zer parte betetzen zuen berak Nemoursko jaunak azaldutako iritzian, eta batik bat, maitalearekin balsean egon ezinaren nahigabeaz zioen hartan, zeren hark ez baitzuen joaterik izango Saint-Andre mariskalenera, erregek Ferrarako dukearen bila igorri zuelako.

Dofin erreginak barre egiten zuen Condeko printzearekin batera, eta ez zuen onesten Nemoursko jaunaren iritzia.

— Kasu batean bakarrik, Madame —esan zion printze hark— onartuko du Nemoursko jaunak

beraren maitalea balsera joan dadin, hots, berak ematen duenean. Eta dio, ezen, iragan urtean, Berorren Maiestatearen omenez horietako bat eman zuenean, mesedetzat hartu zuela beraren maitalea hara joatea, berorri atzetik jarraikitzeke joan zela zirudien arren. Maitaleari mesede bat egitea izango dela beti hark antolaturiko jolasaldi batean parte hartzera joatea, eta halaber, gauza atsegina dela maitalearentzat, gorte guttia bildua dagoen leku batean jaun eta jabe gisa eta ohorezko eginbideetan prestuki jokatzeko ikustea beraren maiteñoak.

— Nemoursko jaunak arrazoi zuen —esan zuen dofin erreginak irribarrez—, beraren maiteñoa balsera joan zedila onartzean. Artean hain zen handia maila hori zuten emakumeen kopurua, haiek etorri ez balira, oso jende gutxi izango baitzen.

Condeko printzea Nemoursko jaunak balsari buruz zeuzkan iritziak kontatzen hasi orduko, Clevesko andereak gogo handia sentitu zuen Saint-Andre mariskalarenera ez joateko. Bera maite zuen gizon baten etxera zertan joanik ez zeukalako iritzia aise jabetu zitzaion, eta lasai

geratu zen, egokitasunak estakuru bat eman zionean Nemoursko jaunak mesedetzat zeukan hura egiteko. Halere, berekin eraman zuen dofin erreginak emaniko edergarria, eta arratsean, amari erakutsi zionean, esan zion ez zuela hura erabiltzeko gogorik, zeren Saint-Andre mariskalak hainbesteko ardura hartu baitzuen berari atxikia zegoela iduriarazten, ez baitzuen zantzarik egiten erregeren omenez eman behar zuen jolas-ekitaldi hartara bera azalduko zela sinestarazi nahiko zuela, eta orobat, haren etxe-ko ohoreak egiteko aitzakian, eragozgarri izan lekizkiokeen zenbait ardura eskainiko zizkiola.

Chartresko andereak kontra egin zion denbora batez alabaren iritzitari, bitxi samar iritziko balio bezala eginez, baina alabak gogor egiten ziola ikusirik, amore eman eta esan zion, beharrezkoa zela gaixo iduri egin zezan, hara ez joateko aitzakia bat nahi bazuen, zeren bestela, ez baitzituzten onetsiko hori eragozten zioten zinezko arrazoiak, eta gainera, jendeak susmorik har zezala eragotzi behar zuen. Clevesko andereak gogo onez onartu zuen zenbait egun amaren etxean egitea, Nemoursko jauna egongo ez

zen leku batera ez joatearren. Eta Nemoursko jauna abiatu zen, Clevesko anderea balsera ez zela joango jakitearen plazerra dastatu gabe.

Bals-egunaren biharamunean itzuli zen Nemoursko jauna. Jakin zuen Clevesko anderea ez zela han izan, baina nola ez baitzekien dofin erregearenean izandako elkarrizketa hura haren aurrean berresan zutenik, aski urrun zegoen hari balsera joatea eragotzi ziola jakiteak emango liokeen zoriona edukitzetik.

Biharamunean, erreginarenean dofin ande-rearekin hizketan ari zela, Chartresko eta Clevesko andereak iritsi eta printzesa harengana hurbildu ziren. Clevesko anderea narras jantzita zihoan, gaizkiturik egondako norbaiten gisara. Haren begitartea, ordea, ez zetorren bat janzke-rarekin.

— Hain ederra zaude —esan zion dofin ande-reak—, ez bainuke sinetsiko gaixo egon zarenik. Esango nuke Condeko printze jaunak, Nemoursko jaunak balsari buruz duen iritzia azaldu dizu-nean, konbentziarazi egin zaituela mesede bat egingo zeniokeela Saint-Andre mariskalari haren

etxera joanez gero, eta horrexek eragotzi dizula bertara joatea.

Clevesko anderea lotsagorritu egin zen dofin andereak hain zehatz igarri zuenagatik, eta, igarri zuenari buruz, Nemoursko jaunaren aurrean esaten ari zenagatik.

Chartresko Andereak orduantxe ikusi zuen zergatik ez zuen beraren alabak balsera joan nahi izan. Eta Nemoursko jaunak ez zezan berak bezain argi suma, hitza hartu, eta egiantzekoa zirudien doinu batez:

— Ziurta diezaioket, Madame —esan zion dofin andereari—, nire alabak merezi duena baino ohore handiagoa egiten diola Berorren Maiestateak. Benetan gaixo zegoen, baina uste dut, baldin ez banio debekatu, ez zukeela galduko berorri jarraikitzeke eta zegoen bezain beluri agertzeko aukera hori, bart arratseko jaialdian izandako gauza bikain guztiak ikusteko gozame-na edukitzearren.

Dofin andereak sinetsi egin zuen Chartresko andereak zioena, eta Nemoursko jauna arrunt nahigabetu zen egiantz kutsu bat igarri zuelako hartan. Ordea, Clevesko anderearen gorritasu-

nak pentsarazi zion dofin andereak esan berri zuena ez zegoela egiatik hain urrun. Hasieran Clevesko andereari desplazzer egin zitzaion Nemoursko jauna ohartzea Saint-Andre mariskalaren etxera joan ez izanaren arrazoia bera izan zela, baina nolabaiteko atsekabea sentitu zuen berehala, amak erabat ezabatu ziolako pentsakizun hura Nemoursko jaunari.

Cercampeko biltzarra etenda geratu bazen ere, bake-negoziaketek aurrera segitu zuten, eta gauzak gertatu ziren moduagatik, otsailaren hondar aldera berriz bildu ziren Cateau-Cambresis hirian. Diputatu berberak itzuli ziren, eta Saint-Andre mariskala kanpoan zenez, arerio beldurgarrietik libratu zen Nemoursko jauna, bai Clevesko anderearengana hurbiltzen zirenei behatzean jartzen zuen arretagatik, bai emakume harengan egin zitzakeen aurrerapenengatik.

Chartresko andereak ez zion alabari ikusarazi nahi izan printze haren alde zeuzkan sentimenduak ezagutzen zituenik, alabak esan nahiko lizkioken gauzetan susmorik har zezan beldurrez. Egun batez printze hari buruz mintzatzen hasi zitzaion. Gauza on asko esan zizkion, baina

laudorio pozoitu ugari ere tartekatu zituen hura amoragaitza zelako ziurtasunaren gainean, eta emakumeekiko hartu-emana harentzat, atxiki-mendu sakon bat baino areago, plazerra baizik ez zelako ustearen gainean.

— Nolanahi ere den —gehitu zuen—, susmoa zabaldu da maitasun handia diola dofin erreginari. Harengana oso maiz joaten dela ere ohartua nago, eta gomendatzen dizut, ahal duzun heinean, hari hitz egiteari uko egin diezaiozula, buruz buru batez ere, zeren, dofin andereak zurekiko izan duen jokaera ikusirik, laster esan baitezakete horien bien isilmandataria zarela, eta badakizu zenbateraino den desatsegina halako ospea. Nire iritzia nahi baduzu, esames horrek iraun artean gutxixeagotan joan beharko zenuke dofin anderearenera, amodiozko abenturatan nahastua aurki ez zaitezten.

Clevesko andereak ez zuen inoiz deus ere entzun Nemoursko jaunaren eta dofin anderearen artekoaz, eta hain harrিতua geratu zen amak esan zionaz, eta hain garbi ikusi uste izan zuen zein neurritaraino tronpatu zen printzearen iritziei buruzko gauza guztietan, ezen aurpegiaren

eitea bera ere aldatu baitzitzaion. Chartresko anderea horretaz ohartu zen, baina une hartan jende piloa sartu zen gelara, eta Clevesko anderea etxera joan eta bere gelan bakartu zen giltzapean.

Ezin adieraz daiteke nolako oinazea sentitu zuen jakin zuenean, amak esan berria zuenaren ondotik, nolako atxikimendua ari zitzaion barruan ernatzen Nemoursko jaunaren alde. Artean ez zen ausartu bere buruari halakorik aitortzera. Orduantxe ikusi zuen harengana zeuzkan sentimenduak Clevesko jaunak hainbestetan eskatu zizkionak berberak zirela, eta ikusi ere zuen zenbateraino zen ahalkegarri, horrelako sentimenduak hainbeste merezi zituen senarraren alde ez, baizik beste norbaiten alde edukitzea. Zauritua eta aztoratua sentitu zen, beldurturik Nemoursko jaunak ez ote zuen dofin anderearen isilmandatari gisa erabiliko, eta pentsakizun horrek deliberarazi zuen Chartresko andereari oraindik esan ez ziona kontatzera.

Biharamun goizean haren logelara joan zen bere erabaki hura gauzatzeko asmoz, baina sukar pixka bat zuela aurkitu zuen Chartresko

anderea, eta ez zion deus ere esan nahi izan. Ondoezak hain gauza gutxia zirudenez, Clevesko andereak ez zion ukorik egin afalostean dofin anderearen etxera joateari. Printzesa hura bere gelan zegoen beste bizpahiru damekin batera, denak ere haren kutuntasun handienekoak.

— Nemoursko jaunaz ari ginen hizketan — esan zion erreginak, hura sartzen ikusi zuenean—, Bruselatik itzuliz geroztik zein aldatua dagoen miretsirik. Hara joan aurretik maitale kopuru amaigabea zuen, eta hori akatsa zen harengan, zeren ardura berak baitzeuzkan hala merezimenduak zituztenekin nola ez zituztenekin. Itzuli denez geroztik, ordea, ez ditu ezagutzen ez batzuk ez besteak. Sekula ez du izan hain aldaketa larririk. Nago umorea bera ere aldatu zaiola, eta ez dagoela ohi bezain alai.

Clevesko andereak ez zuen deus ihardetsi, eta ahalkez pentsatzen zuen ezen bereganako maitasunaren agerbidetzat hartuko zukeela printze haren mudantzaz zioten guztia, begiak ireki izan ez balizkiote. Nolabaiteko mingostasuna sentitu zuen dofin anderearekiko, horren arrazoiak aurkitu nahian bezala eta egia inork baino

hobeki ezagutzen bide zuen gauza batez harri-
tua zekusalako. Ezin izan zuen etsi hari gauza
bat aitortu gabe, eta gainerako damak joan zire-
nean, harengana hurbildu eta, ahopean, esan
zion:

— Nitaz ari al zen, Madame, arestian mintza-
tu denean? Ezkutatu egin nahi al dit berori izan
dela Nemoursko jaunaren jokabidea aldarazi
duena?

— Bidegabea zara —esan zion dofin ande-
reak—, ongi dakizu ez dudala zuretzat zer ezku-
taturik. Egia da, hala uste dut bederen,
Nemoursko jaunak, Bruselara joan aitzin, maite
ninduela aditzera emateko asmoa izan zuela,
baina, itzuli ondoren, ez zait inondik ere iruditu
orduko gauzez oroitzen denik, eta aitor dut jakin-
minez nagoela zerk aldarazi duen. Aski zaila
izango da —gaineratu zuen— mataza hori nik ez
askatzea; Chartresko bidamoa, haren lagun
mina, nolabaiteko begirunea didan pertsona
batez maitemindurik dago, eta bitarteko horre-
zaz baliaturik, aldaketa hori zerk eragin duen
jakin ahal izango dut.

Dofin anderea, Clevesko anderea konbentzia-razi zuen hizketa-doinu batez mintzatu zitzaion, eta hura guztia gorabehera, arestian egondakoa baino egoera lasaiago eta eztiago batean aurkitu zen.

Amaren etxera itzuli zenean, utzi zuenean baino askozaz okerrago zegoela jakin zuen. Sukarra areagotu egin zitzaion, eta ondoko egunetan halako neurriraino igo zitzaion, iduri zuen kontuan hartzeko gaixotasuna izango zela. Clevesko anderea izugarrizko saminaldi batean erori zen, eta ez zen deusetarako irteten amaren logelatik. Clevesko jaunak ere hantxe igaro zituen egun gehienak, bai Chartresko andereari zion estimuagatik, bai emazteari tristeziari eror zedila eragozteagatik, baina bai eta ere, hura ikusteko plazerragatik, ez baitzen inondik ere urritu hari zion maitasuna.

Nemoursko jaunak, betidanik adiskidetasun handia izan baitzion Clevesko jaunari, atergabe aitortu zion sentimendu hura Bruselatik itzuli zenez geroztik. Chartresko anderearen gaixoaldian, printze hark askotan aurkitu zuen Clevesko anderea ikusteko parada, haren senarra topatu

nahi zuela edo txango bat egitera haren bila zetorrela iduri eginez. Han ez zegoela ongi zekien orduetan ere bilatzen zuen, eta zain egongo zelako aitzakian, Chartesko anderearen gelaitzinean geratzen zen, non pertsona prestu ugari baitzeuden beti. Clevesko anderea sarritan etorri ohi zen hara, eta samindurik egon arren, Nemoursko jaunari ez zitzaion iruditzen, haatik, gutxiago ederra zenik. Ikusarazten zion nolako kezka sortzen zion haren saminak, eta hain doinu eztaiz eta hain otzanaz mintzatzen zitzaion, aise konbentziarazi baitzuen ez zela dofin anderea berak maite zuena.

Ezin zezakeen eragotzi haren behakoak sortzen zion urduritasuna, ez eta hura ikusteak sortzen zion plazerra ere, baina ikusten ez zuenean eta haren behakoan aurkitzen zuen xarma hura maitasun-grinen hastapena zela pentsatzen zuenean, gutxik egiten zuen gorroto ziola uste izateko, pentsakizun horrek sortarazten zion oinazeagatik.

Chartresko anderea hainbeste gaizkitu zen, ezen haren biziak etsitzen hasi baitziren. Zetorkion arriskuaz medikuek esan ziotena, bere ber-

tutearen eta bere errukiaren pareko adore batez onartu zuen. Handik irten zirenean, bakarrik utz zezatela eta Clevesko andereari dei ziezaiotela agindu zuen.

— Bereizi beharra dugu, alaba maitea —esan zion eskua luzatuz—. Ni joandakoan aurkituko dituzun arriskuek eta nitaz duzun beharrak, areagotu egiten didate zu uzteak sortzen didan bihozmina. Nemoursko jaunari amodiozko isuria diozu. Ez dizut eskatzen aitor diezadazunik; jada ez naiz zure zintzotasunaz baliatzeko eta zu gidatzeko gauza. Denbora luzea da amodio horretaz ohartua naizela, baina ez dizut horretaz lehenago hitz egin nahi izan, zerori ohartarazteko beldurrez. Aski eta sobera ezagutzen duzu orain. Amildegiaeren ertzean zaude. Izugarritzko ahaleginak eta indarrak egin beharko dituzu horri eusteko. Pentsa ezazu zenbat zor diozun zure senarrari, pentsa ezazu zenbat zor diozun zeure buruari ere, eta pentsa ezazu, zeure kabuz erdietsia duzun eta hainbeste irrikatu dudan izen on hori galduko duzula. Izan indar eta adore, ene alaba, aldendu zaitez gortetik, bultza ezazu senarra norabait eraman zaitzan. Ez beldurrik

izan erabaki zorrotzegiak edo zailegiak hartzeari, diren izugarrienak irudituagatik ere hasieran, gorteiatzearen zorigaitzak baino eztiagoak izango baitira horien ondorioak. Zure bertuteaz eta zure betekizunaz beste arrazoirik baldin badago nik desio dudana egitera behar zaitzakeenik, esango nizuke, mundu honetatik joatean espero dudan zoriona aztora dezakeen ezer baldin badago, zu ere, gainerako emakumeak bezala, horretan erortzen ikustea litzatekeela, baina zorigaitz horrek iritsi behar baldin badu, atseginez onartuko dut heriotza, horren lekuko izan ez nadin.

Clevesko anderea malkotan urtu zen amaren esku gainean, zeina bereen artean estutzen baitzuen, eta Chartresko andereak, bera ere hunkiturik sentitzean:

— Adio, alaba maitea —esan zion— amai dezagun batari nahiz besteari hain erdiragarria zaigun elkarrizketa hau, eta oroit zaitez, ahal baduzu, esan berri dizudan horretaz guztiaz.

Hitz horiek esandakoan beste aldera jiratu zen, eta andere-lagunei dei ziezaiela agindu zion alabari, ez baitzion gehiago entzun eta hitz egin

nahi. Clevesko anderea amaren logelatik irten zen imajina litekeen egoeran, eta Chartresko andreak, heriotzarako prest egotea baizik ez zuen beste burutapenik izan. Bi egun gehiago bizi izan zen, eta egun horietan, ez zuen alaba berriz ikusi nahi izan, zeina munduan zuen lokarri bakarra baitzen.

Clevesko andreak izugarrizko samina sentitzen zuen. Senarrak ez zuen unetxo bat ere bakarrik uzten, eta Chartresko andreak azken hatsa eman orduko, landara eramane zuen, haren oinazea are gehiago garrastu baizik egiten ez zuen leku hartatik urrunarazteko. Inoiz ez da halako saminik ikusi; samurtasunak eta esker onak parterik handiena eduki arren, Nemoursko jaunaren aurka defendatzeko bere amaz zeukan beharrak ez zion uzten halakorik sobera edukitzen. Bere baitara abandonaturik egoteak dohakabe sentiarazi zuen denbora hartan doi-doi zen bere sentimenduen jabe, eta irrikaz desiratzen zuen kontsolatu eta zuzpertzeko zuen norbait aldean edukitzea. Clevesko jaunak berarekiko zuen jokabideak sekula baino indar gehiagoz desiarazten zion hari zor zion ezertan hutsik ez

egitea. Lehenago inoiz aitortu ez zion bezalako laguntasuna eta samurtasuna erakusten zion senarrari, ez zuen nahi inondik ere utz zezan, eta iruditzen zitzaion harekin lotuz gero, Nemoursko jaunarengandik begiratuko zuela senarrak.

Printze hura, landara etorri zen Clevesko jauna ikustera. Bere ahal guztiak egin zituen Clevesko andereari ere bisita egiteko, baina hark ez zion harrerarik egin nahi izan, eta nola bai baitzekien maitagarria baizik ezin ziezaiokeela iritzi, bere buruari hura ikustea debekatzeko eta, horretarako egokiera zuen guztietan, hura saihesteko erabaki sendoa hartu zuen.

Clevesko jauna Parisa etorri zen gorteko eginkizunak betetzera, eta emazteari hitz eman zion biharamunean bertan itzuliko zela. Halere, egun bat geroago baizik ez zen itzuli.

— Zure zain egon nintzen atzoko egun osoan —esan zion Clevesko andereak, hura iritsi zenean—. Agirika egin behar dizut agindu zenidan ordurako ez etortzeagatik. Badakizu nagoen egoera honetan beste saminaldi bat senti baneza, Tournongo anderearen heriotza litzatekeela hori, zeinaren berri gaur goizean jakin baitut.

Berdin hunkituko nindukeen, inondik ezagutu ez banu ere. Urrikgarria baita beti hura bezalako emakume gazte eta eder bat bi egunetan hiltzea, baina, gainera, munduan gogokoen nituen pertsonetako bat zen, eta hainbat zentzu nola merezimendu zuela zirudien.

— Arrunt atsekabetzen nau atzo ez itzuli izanak —erantzun zuen Clevesko jaunak—, baina hain beharrezkoa nintzaion dohakabe baten kontsolamenduari, ezinezkoa gertatu baitzait hura uztea. Tournongo andereaz den bezainbatean, aholku egiten dizut ez zaitezten hartaz nahigabeturik egon, emakume zentzudun eta zure estimuaren duin den bat bezala deitoratzen baldin baduzu bederen.

— Harritu egiten nauzu —berrekin zion Clevesko andereak—, sarritan entzuna baitizut gortean ez zela emakumerik estimatzenago zenue-nik.

— Egia da —ihardetsi zuen—, baina emakumeak ulertezinak dira, eta ikusten ditudanean, hain zoriontsu sentitzen naiz zu zauzkadalako, ez bainuke jakingo nire zoriona behar beste goresten.

— Naizena baino gehiago nauzu estimatzen —iharduki zion Clevesko andereak, hasperen eginez—, eta oraindik ez da ordu zure duin naitzenik senti dezazun. Erakutsi iezadazu, arren eskatzen dizut, zerk etsiarazi zaituen Tournongo andereaz.

— Aspaldi da etsia nagoela —erantzun zuen—, eta Sancerreko kondea maite zuela daki-dala, zeinari ezkontzeko itxaropena emana baitzion.

— Ez dezaket sinets —eten zion Clevesko andereak—, Tournongo andereak, alargundu zenetik ezkontzari erakutsi izan dion urruntasunagatik eta sekula berriro ezkonduko ez zela jendaurrean egin izan dituen adierazpenengatik, Sancerreri itxaropenik eman dionik.

— Hari baizik eman ez balio —erantzun zuen Clevesko jaunak— ez genukeen zertaz harriturik, baina harrigarriena da aldi berean Estoutevilleri ere eman diola. Oraintxe kontatuko dizut historia hori guztia.

BIGARREN ZATIA

«Zuk badakizu nolako adiskidetasuna diogun Sancerrek eta biok elkarri. Halere, duela bi urte inguru, Tournongo andereaz maitemindu, eta arta handiz ezkutatu zidan hori, gainerako guztiei bezalaxe. Aski urrun nintzen horrelako deus susmatzetik. Tournongo anderea senarraren heriotzaz ezin kontsola zitekeela zirudien oraindik, eta bakartasun biluzian bizi zen. Sancerren arreba zen hark ikusten zuen ia pertsona bakarra, eta haren etxean maitemindu zen Sancerrez.

»Louvren komedia bat jokatu behar zuten gau batez, hasteko soilik errege eta Valentinoisko anderearen zain zeudelarik, Valentinoisko anderea gaizkitua zela esatera etorri ziren, eta errege ere ez zela etorriko. Jendeak berehala pentsatu zuen erregerekin izandako liskarren bat izango zela dukesaren eritasun hura. Bage-nekien nolako jelsia izan zion erregek Brissaceko mariskalari hura gortean izan zen bitartean, baina Piemontera itzulia zen zenbait egun lehe-

nago, eta ezin genezakeen imajina haserraldi haren arrazoia.

»Sancerrerekin horri buruz solasean ari nintzelarik, Anvilleko jauna sartu zen aretoan, eta ahapetik esan zidan, saminezko eta amorruzko egoera urrikalgarri batean zela errege; egun batzuk lehenago, Brissaceko mariskala zela-eta izandako liskarraren ondoren, Valentinoiseko anderearen eta bien artean bakezkoak egin zituztelarik, erregek eraztun bat eman omen zion opari gisa, bai eta eramateko eskatu ere, baina Valentinoisko anderea komediara etortzeko apaintzen ari zen bitartean, erregek igarri zion ez zeramala eraztun hura, eta horren arrazoia galdegin zion. Ez edukitzeak harriturik utzi omen zuen dukesa. Bere gelariei eskatu zien, baina haiek, zoritxarrez, edo ongi irakatsiak izan ez zirelako agian, ihardetsi zuten bazirela lauzpabost egun ez zutela eraztuna ikusi.

«Denbora hura zen, hain justu —segitu zuen Anvilleko jaunak—, Brissaceko mariskala handik irten zela, eta erregek ez zuen zalantzarik egin, Valentinoisko andereak, agur esatearekin batera, eraztuna eman ziola. Pentsakizun horrek hain

bortizki berpiztu zion jeloskortasuna, artean ere erabat itzali gabea, ezen ohi ez bezala sumindu baitzen, eta mila gaitzespen egin zizkion. Bere gelara joana duzu berriki, atsekabetua oso, baina ez dakit ez ote den gehiago Valentinoisko andereak eraztuna sakrifikatu duela uste duela-ko, ala den beraren amorruek dukesa nahigabebetuko ote zuen beldur delako».

»Anvilleko jaunak berri hura kontatzez amaitu orduko, Sancerrerengana hurbildu nintzen, hura ere jakinaren gainean jartzera. Adierazi nion orduantxe fidatu berria zidatela sekretu hura, eta beraz, beste inori kontatzea debekatzeko niola.

»Biharamunean, nire ezkon-arrebaren etxera joan nintzen goiz-goizetik. Tournongo anderea topatu nuen ohearen burualdean. Hark ez zuen gogoko Valentinoisko anderea, eta ongi zekien nire ezkon-arrebak ere ez zuela horretaz loriaitzeko motiborik. Sancerre, komediatik irten ondoren, Tournongo anderearen etxean izana zen, nonbait. Erregeren eta dukesaren arteko eskatima jakinarazi zion emakume hari, eta Tournongo anderea nire ezkon-arrebari konta-

tzera etorria zen; jakin gabe, edo pentsatu ere gabe, nerau nintzela haren maitalea jakinaren gainean jarri zuena.

»Nire ezkon-arrebarengana hurbildu nintzen bezain laster, Tournongo andereari esan zion niri ere esan ziezadakeela berari kontatu berria ziona, eta Tournongo anderearen baimenaren zain egon gabe, nire ezkon-arrebak berak kontatu zidan, hitzez hitz, nik Sancerreri aurreko arratsean esan niona. Pentsa dezakezu zein txunditurik geratu nintzen. Tournongo andereari so egin, eta aztoratua zegoela iritzi nion. Aztora-mendu hark susmoren bat piztu zidan, izan ere, Sancerreri baizik ez bainion kontatu, eta hark komediatik irtetean utzi ninduen, horretarako arrazoirik eman gabe. Oroitu nintzen Tournongo anderea neurritz gain gorai patzen entzuna nuela inoiz. Gauza horiek guztiek zabaldu zizkidaten begiak, eta ez zitzaidan nekeza gertatu asma-tzea andere hura gorteiatzen zuela, eta ni utzi ondoan, hura ikustera joana zela.

»Abentura hura ezkutatzen zidala jakiteak hainbeste mindu ninduen, ezen hainbat eta hainbat gauza esan bainion Tournongo andereari,

egin berria zuen arinkeria hartaz ohartarazi zutenak. Zalgurdiraino lagundu eta adierazi nion, uztearekin batera, neuretzat nahiko nukeela erregeren eta Valentinoisiko anderearen arteko eskatima kontatu zionaren zoriona.

»Bet-betan, Sancerreren bila jo nuen. Agiraka egin, eta esan nion ezagutzen nuela Tournongo andereari zion zaletasuna, nahiz ez nion aipatu nola jakin nuen. Berak aitortu behar izan zidan. Segidan, jakinarazi nion nola izan nuen horren ezagutza, eta hark, beren abenturaren xehetasunak azaldu zizkidan. Esan zidan, etxeko gazteena izan arren, eta hain etekin ona irrikatzetik aski urrun egonagatik ere, harekin ezkontzeko erabakia hartua zuela. Ezin liteke egon ni nengoen baina harrituago. Ezkontza hura lehenbailehen gauza zezala esan nion Sancerreri, zeren edozer itxaron baitzitekeen jendearen begietara egiatik hain urrun zegoen antzezki zuna jokatzeko abilezia izan zuen emakume batengandik. Tournongo anderea benetan dolaturik egona zela ihardetsi zidan, baina berak harengana izan zuen amodiozko isuriak dolu hura gaitzen lagunduzion arren, hari ezinezkoa zitzaioela bat-

batean halako aldaketa handi bat ezagutzera ematea. Beste hainbat arrazoi ere azaldu zizkidan hura desenkusatzeko, zenbateraino maitemindua zegoen ikusarazi zidatenak. Ziurtatu zidan baimena lortuko zuela harengandik bien arteko amodioa ezagutuz nezan, zeren, izan ere, Tournongo anderea izan baitzen amodio horren jakinaren gainean jarri ninduen. Hala, bada, horretara bultzatu zuen, nahiz neke handiz, eta nik, berehala aurrerapen handiak egin nituen haien kutuntasunean.

»Ez dut sekula ikusi bere maitalearekiko hain jokabide zintzoa eta atsegina agertu duen emakumerik. Alabaina, oraindik dolaturik agertzeko fazak kezkarazi egiten ninduen une oro. Sance-rre hain zegoen maitemindua eta pozik berarekin zuen jokaeragatik, ez baitzen ausartzen beren arteko ezkontza gauza zezaten presatzera, beldurrez ez ote zuen uste izango interesagatik desiratzen zuela, benetako maitasun bategatik baino gehiago. Nolanahi ere, gai horretaz mintzatu zitzaion, eta bazirudien ezkontzera deliberaturik zegoela. Ordu arte bizi izan zeneko bakardade hura uzten eta jendartera itzultzen

ere hasia zen. Nire ezkon-arrebaren etxera etorri ohi zen gortearen zati bat bertan aurkitzen zen orduetan. Sancerre inoiz gutxitan baizik ez zen etortzen, baina arratsero han zirenek eta sarritan ikusten zutenek, zinez maitagarria irizten zioten emakume hari.

»Bere bakardade hura uzten hasi eta denbora gutxira, Sancerrek nolabaiteko hoztasuna igarri uste izan zuen andere hark zion maitasunean. Maiz hitz egin zidan horretaz, haren kexuei inolako funtsik eman ez nien arren. Baina, azkenik, nola esan baitzidan beren arteko ezkontza finkatu behar bidean, antza urruntzen ari zela, sinesten hasi nintzen ez zuela oker egiten hartaz kezkatzean. Ihardetsi nion ezen, Tournongo anderearen maitasun-grinak bi urte iraun ondoren orain urritua bazegoen ere, ez zegoela horretaz zertan harriturik; ezen, urritua ez egonagatik ere, amodio hura ez baldin bazen ezkontzera behartzeko bezain indartsua, ez zuela hargatik arranguraz egon beharrik. Ezkontza hark, jendearen begietara, oso kalte handia egingo ziola Tournongo andereari, ez bakarrik bera nahikoa etekin ona ez zelako harentzat, baizik eta haren

omenari ekarriko zion kalteagatik ere, eta beraz, berak desira zezakeen gauza bakarra, hark iruzurrik ez egitea eta sasi-itxaropenik ez ematea zela. Esan nion orduan, baldin eta hark ez bazuen ezkontzeko adina indar, edo beste norbait maite zuela aitortzen bazion, ez zuela zertan samurturik, ez eta kexaturik ere, baizik eta estimua eta onespina ukan behar ziola.

«Neronentzat hartuko nukeen aholkua eman-go dizut —esan nion—, zeren zintzotasunak halako heinean hunkitzen bainau, uste baitut nire maitaleak eta are nire emazteak ere aitortuko balit beste norbait laket zaiola, mindu egingo nintzatekeela, baina ez nintzatekeela ordea suminduko. Maitalearen edo senarraren pertsonaia utzi, eta hari aholku ematen eta errukia agertzen saiatuko nintzateke».

Hitz horiek gorritu egin zuten Clevesko anderea, eta aurkitzen zen egoerarekin halako antzekotasuna igarri zion hari, ezen ustekabean harrapatu baitzuen, eta luzaz bere onera etorri ezinik eduki zuen asaldura batek astindu zuen.

«Sancerrek Tournongo anderearekin hitz egin zuen —segitu zuen Clevesko jaunak—. Nik

aholkatu guztia azaldu zion, baina andere hark, halako arduraz lasaitu zuen, eta hain zirudien mindua susmo haiekin, guztiz ezabatu baitzizkion haiek denak. Emakume hark, halere, Sancerrek egin beharreko bidaia ustez nahikoa luze baten ondorenera arte gibelatu zuen beren arteko ezkontza, baina hain ongi jokatu zen Sancerren irteera arte, eta hain zirudien samindua, uste izan bainuen, Sancerrek bezain ongi, zinez maite zuela. Hiru hilabete inguru dira hura partiturik, eta haren ezaldian, gutxitan ikusi dut Tournongo anderea. Izan ere, osoki zeuretzat hartua eduki nauzu, eta Sancerre laster itzultzekoa zela baizik ez nekien.

»Herenegun, Parisa iristean, jakin nuen Tournongo anderea hila zela. Sancerren etxera mandatari bat igorri nuen haren berri ba ote zekiten jakitera. Bezperan iritsia zela ziurtatu zidaten, Tournongo anderearen heriotza-egunean hain justu. Bet-betan joan nintzaion ikustera, zein egoeratan aurkituko nuen jabeturik, baina haren samindurak mukuru gainditu zuen imajinatu nuena.

»Inoiz ez dut ikusi hain oinaze sakonik, ez eta hain samurrik ere. Ikusi ninduen une berean besarkatu ninduen, malkotan urturik: «Ez dut gehiago ikusiko —esan zidan—, ez dut gehiago ikusiko, hilik dago! Ez nintzen haren duin, baina berehala jarraikiko diot».

»Horren ondotik, isildu egin zen, eta gero, aldian aldian, gauza bera errepikatuz beti («Hila dago, eta ez dut berriro ikusiko!»), oihuka eta negar-zotinka hasten zen osterera, eta zentzua galdua zuen gizon baten antzera ibili zen. Esan zidan bere ezaldian ez zuela sarritan haren gutunik jaso, baina horrek ez zuela harritzen, zeren ongi ezagutzen baitzuen andere hura, eta baze-kien zer neke ematen zion gutunak idaztera menturatzeak. Ez zuen zalantzarik egiten bere-ekin ezkonduko zela itzultzen zenean. Inoiz izan den pertsonarik maitagarriena eta leialena bailitzan behatzen zion, eta hark samurki maite zuela eta berarekin betiko elkartuko zela uste zuen une batean galdu zuen. Pentsakizun horiek guztiek bihozmin bortitz batean hondoratu zuten. Horrek, guztiz abaildurik utzi zuen, eta,

aitor dut, hunkiturik sentitu nintzen beste erre-
mediorik gabe.

»Hantxe utzi behar izan nuen, halere, errege-
gana joateko. Zin egin nion berehala itzuliko nin-
tzela. Itzuli ere itzuli nintzen, eta sekula ez naiz
hain harritua geratu, utzi nuenaz hain bestelako
egoera hartan aurkitu nuenean bezala. Zutik
zegoen bere gelan, aurpegiera haserrekor batez,
noiz batetik bestera ibiliz, noiz geldituz, bere
senetik aterea balego bezala. «Zatoz, zatoz —
esan zidan— zatoz munduko gizonik etsituena
ikustera. Arestian nintzena baino mila aldiz atse-
kabeagoa bainaiz, eta Tournongo andereaz jakin
berri dudana, haren heriotza bera baino okerra-
goa baita».

»Uste nuen oinazeak osoki aztoraturik zuela,
eta ez nuen imajinatzen ahal zer gauza okerra-
gorik izan zitekeen maite dugun eta maite gai-
tuen emakume baten heriotza baino. Esan nion,
haren samindurak muga bat izan zuen bitartean
onetsi niola halakorik, eta neronek ere bat egin
nuela horretan berarekin, baina ez niola errukirik
izango baldin etsipenean erortzen eta zentzua
galtzen bazuen.

«Zoriontsua izango nintzateke oso, baldin zentzua eta bizia bera ere galdu izan banitu — egin zuen oihu—. Tournongo anderea desleiala zitzaidan, eta haren heriotzaren berri izan dudan biharamunean ezagutu ditut haren desleialtasuna eta traizioa, sekula inork sentitu duen oinazetik bizienera eta maitasunik samurrenek nire gogoan menderatua eta erdiratua duten une batean, hain justu. Inoiz izan den gauzarik beteginena eta niretzat akasgabeena balitz bezala haren oroitzapena bihotzean txertaturik daukadan une batean ohartu naiz tronpatua izan naitzela eta hark ez duela merezi deitore egin diezaiodan. Dena dela, leiala izan balitzait bezala nau haren heriotzak samintzen, eta hil ez balitz bezala dut haren desleialtasuna sentitzen. Aldaketa hori haren heriotza baino lehen ezagutu izan banu bederen, jelskortasunak, suminak eta amorruak guztiz hartuko ninduketen, eta nolabait ere sorgortu, haren galerak sortu didan oinazearen aurka, baina ezin kontsola naitekeen eta ezin gorrota dezakedan egoera batean nago».

»Igar dezakezu zenbateraino harritu ninduen Sancerre esaten ari zitzaidanak. Galdetu nion ea nola jakin zuen esan berria zidana. Azaldu zidan nola, ni haren gelatik irten eta berehala, Estouville etorri zitzaion ikustera, zeinak ez baitzekien deus Tournongo andereari zion maitasunaz, beraren lagun mina izan arren. Esan zidan eseri aurretik ere aieneka hasi zitzaiola, eta barkamena eskatzen ziola jakitera emango zion hura ezkutatu izanagatik. Erruki zedila eskatzen zion, bere bihotza irekitzera zetorkiolako, eta Tournongo anderearen heriotzagatik munduko gizonek nahigabetuena zekusalako bere aurrean.

«Izen horrek —esan zidan Sancerrek— hain ustekabea harrapatu ninduen, nire lehen bultzada hura baino nahigabetuagoa nintzela esatea izan baitzen, baina ez nuen indarrik izan, ordea, hartaz mintzatzeko. Hizketan segitu zuen, eta esan zidan bazirela sei hilabete hartaz maitemindurik zegoela; beti nahi izan zidala esan, baina hark berariaz eta halako aginpidez debekatu ziola, ez baitzen ausartu desobeditzera; laket izan zitzaion unetik bertatik maite izan zuela, mundu guztiari ezkutatu ziotela beren

maitasuna, inoiz ez zela jendaurrean haren etxean izan, senarraren heriotzaz kontsolatzeko plazerra ukan zuela, eta azken batean, andere hura hil zen denbora hartan elkarrekin ezkontzekotan zirela, baina ezkontza hark, maitasunezko grinaren ondorio zena, obligazioaren eta menezkotasunaren ondorio iduri zezakeela; eta orobat, haren aitaren gogoia limurtua zuela, ezkontzeko agindua eman zezan, hartara ez baitzen haren jokaeran aldaketa nabarmenegia gertatuko, berriro ezkontzetik hain urrun egon ondoren».

«Estouteville mintzatu zitzaidan bitartean —esan zidan Sancerrek— fede eman nien haren hitzei, egiantzekoak iruditu zitzaizkidalako, eta Tournongo anderea maitatzen hasi omen zen garai hura, hain justu, mudatua zela iruditu zitzaidan garaia zelako. Baina une bat geroago, gezurtizat jo nuen, edo amesletzat bederen. Hari esateko puntuan egon nintzen, baina gero, gauzak argi ziezazkidala nahi izan nuen, eta galderak egin nizkion, nire zalantzak ikusarazi... Azken batean, hainbeste ahalegindu nintzen nire zorigaitzaz ziur egoteko, galdetu ere egin baitzidan ea ezagutzen al nuen Tournongo anderea-

ren idazkera. Ohe gainean jarri zizkidan haren lau gutun eta argazki bat. Une hartantxe, nire anaia sartu zen. Estoutevillek hain zeukan malkoz betea bere begitartea, irten beharrean aurkitu baitzen halakorik ez ikustera emateko. Esan zidan gauean itzuliko zela utzitakoaren bila, eta nik, anaia irtenarazi nuen, gaizkiturik nengoelako aitzakiaz. Izan ere, utzi zizkidaten gutun haiek ikusteko irrikaz nengoen, Estoutevillek arestian esandako guztia gezurtatuko zidan zerbait aurkituko nuelakoan. Baina, ondikotz! Zer ez nuen han aurkitu! Nolako samurtasuna! Nolako zinegi-teak! Nolako ezkon-agintzak! Nolako gutunak! Sekula ez dit niri halakorik idatzi. Hortaz —gaineratu zuen—, aldi berean dastatu nituen heriotzaren oinazea eta desleialtasunarena. Sarritan parekatuak izan diren bi gaitz dituzu horiek, baina inoiz ez ditu pertsona berak aldi berean sentitu. Aitor dut, nire ahalkerako, gehiago sentitzen dudala haren galera ezen ez haren mudantza. Ezin dezaket errudun gisa juzka, ez haren heriotza onartzeko heinean bederen. Bizirik balego, plazer nuke hari gaitzespenak egin eta mendeku hartzea, egin bidegabekeria ikusa-

raziz. Baina ez dut gehiago ikusiko —berrekin zion—, ez dut berriro ikusiko. Zorigaitz hori, denik eta zorigaitzik handiena duzu. Bizia itzuli nahiko nioke nirearen truke. Nahi ezinezkoa, ordea! Itzuliko balitz, Estoutevillerentzat biziko bailitzateke. Zeinen zorientzua nintzen atzo! —egin zuen oihu—. Munduko gizonik atsekabetuena nintzen, baina nire atsekabea arrazoizkoa zen, eta nolabaiteko eztitasuna aurkitzen nuen pentsatuz ez nuela sekula nire burua kontsolatu beharrik izango. Gaur, aldiz, bidegabeak dira nire sentimendu guztiak; benetako amodio isuri bati zor niokeen oinazeko eskaintza bera egiten diot irudizko amodio bati. Ez dezaket gorrota eta ez maita haren oroitzapena. Ezin naiteke kontsola, ez eta nahigabetu ere. Bederen —esan zidan, bat-batean nigana itzuliz— mesede egizu, otoi eskatzen dizut, ez dezadan sekula Estouteville ikus. Haren izen soilak izuikara eragiten dit. Badakit, ongi jakin ere, ez dudala inolako arrazoirik hartaz kexu izateko; errua nirea izan da Tournongo anderea maite nuela ezkutatzegatik. Hark jakin izan balu ez zen harekin lotuko ziurrenik, eta hura ere ez zitzaidan desleiala

izango. Bila etorri zitzaidan bere oinazea kontatzera. Errukia piztu zuen nigan. Arrazoiz piztu ere! —egin zuen oihu—. Tournongo anderea maite zuen, hark ere bai bera, eta ez du gehiago ikusiko. Ohartzen naiz, ordea, ezinezkoa izango zaidala harenganako gorrotorik ez sentitzea. Eta berriro eskatzen dizut, arren, ahal duzuna egin dezazula nik berriro ikus ez dezadan».

»Sancerre negarrez hasi zen kolpetik, Tournongo anderea deitoratuz, hari hitz eginez eta munduko gauzarik samurrenak esanez. Halere, berehala itzuli zen gorrotora, kexuetara, gaitzespenetara eta haren aurkako biraoetara. Hain bortxazko egoeran ikusirik, ohartu nintzen beste norbaiten sorospena ere beharko nuela haren gogoia baretzen laguntzeko. Mandatari bat bidali nuen haren anaiaren bila, erregerenean utzi bainuen arestian. Hura sartu aurretik, gelaitzinerira irten nintzaion mintzatzera, eta Sancerre zein egoeratan aurkitzen zen azaldu nion. Beharrezko aginduak eman genituen Estouteville gehiago ikus ez zezan, eta gauaren zati bat eman genuen hura arrazoibidean sar zedin eginahalean. Gaur goizean are atsekabetuago aurkitu dut. Anaia

lagun egiten geratu zaio, eta ni zure ondora itzuli naiz.»

— Ezin liteke egon nagoena baino harrituago —esan zuen orduan Clevesko andereak—. Ez nuen uste Tournongo anderea gauza zenik inor maitatu, eta gero, hari iruzur egiteko.

— Artezia eta itxurakeria —berrekin zion Clevesko jaunak— ez dira sekula iritsi andere hark eramán dituen mailaraino. Ohar zaitez, Sancerrek berarentzat aldatua zela uste izan zuenean, zinez zegoela aldatua, ordurako jada hasia baitzen Estouteville maitatzen. Tournongo andereak esan zion berak kontsolatzen zuela senarraren heriotzaz eta bera zela bakardade handi hura uztearen arrazoa, eta Sancerri iruditu zitzaion gu biok hartu erabakia zela horren zergatia, alegia, hark ez zuela jadanik atsekabetua agertu behar gehiago. Tournongo andereak, beren arteko hartu-eman hura ezkuta zezala onartarazi zion Estoutevilleri, eta bidenabar, aitaren aginduz ezkontzera behartua zegoelako itxurak egin zitzala, andere hark bere izen onari zion errespetuaren ondorioa balitz bezala. Eta aldiz, Sancerre abandonatzeko baizik ez zen,

hark zertaz kexaturik izan ez zezan. Beharrezkoa da, beraz, ni berriro hara itzul nadin —segitu zuen Clevesko jaunak— dohakabe hori ikustera, eta uste dut beharrezkoa dela orobat, zu ere Parisa itzul zaitezten. Ordu da jendea ikus dezazun, eta ukorik ezin egin diezaiokezun bisitari kopuru amaigabe hori etxean har dezazun.

Clevesko andereak ontzat hartu zuen itzul-tzea, eta biharamunean bertan itzuli zen. Nemoursko jaunaz zen bezainbatean, Clevesko anderea inoiz baino are lasaiago aurkitzen zen. Chartresko andereak hiltamuan esandako guztiak eta haren heriotzaren oinazeak sorgortasun bat sortua zioten bere sentimenduetan, eta horrek, guztiz ezabatuak zeudela sinestarazi zion.

Iritsi zeneko arratsean bertan, dofin anderea etorri zitzaion ikustera, eta haren doluan izan zuen parte aitortu ondoren, esan zion, pentsakizun triste haiek urruntze aldera, ezaldi hartan gortean gertatutako gauza guztiak nahi zizkiola erakutsi. Isilpeko gauza asko kontatu zizkion berehala.

— Baina, batez ere, irrikaz nago zuri kontatzeko —gaineratu zuen— Nemoursko jauna itsutuki maitemindua dagoela, eta adiskiderik minek ere, haren ezkutukoen berri jakin ez, eta gainera, ezin asma dezaketela nor izan daitekeen haren maiteñoa. Maitasun hori, alabaina, hain da indartsua, koroa baten itxaropena gutxiestera, edo hobeto esan, abandonatzera eraman baitu.

Dofin andereak berehala azaldu zuen Ingalaterran gertatua.

«Anvilleko jaunak esanda jakin dut —segitu zuen— esan berri dizudana. Gaur goizean kontatu dit nola Nemoursko jaunaren bila irten zitezela agindu zuen bart erregek, Lignerollesen gutun batzuei buruz hari hitz egiteko asmoz, zeinak, Ingalaterratik itzultzeko eskaerarekin batera, erregeri idatzi baitio jada ezin desenkusa deza keela Nemoursko jaunaren atzerapena Ingalaterrako erreginaren aurrean; erregina hura gaitzitzen hasia dagoela, eta oraindik baiezkorik eman ez badu ere, nahikoa esan duela bidaia bat egingo menturarazteko. Erregek Nemoursko jaunari irakurri dio gutun hori, eta hark, seriooki hitz egin ordez, hastapenetan egin zuen moduan,

barre, txantxa, eta trufabesterik ez du egin Lignerollesen itxaropenen bizkarretik. Hark esana da, baldin Ingalaterrara joatera menturatuko balitz erreginaren ustezko senargai bezala, horren arrakastaz ziur egon gabe, Europa guztiak gaitzetsiko liokeela bere ausarkeria.

»Bidenabar, iruditzen zait —gehitu zuen Nemoursko jaunak— alferrik galduko nukeela nire denbora, baldin orain egingo banu bidaiari hori, Espainiako erregea erregina horrekin ezkontzeko eginbideetan dabilenean. Menturaz ez zen aurkari beldurgarria izango gorteatze kontua balitz soilik, baina uste dut, ezkontza bat tarteko denean, Berorren Maiestateak ez didala gomendatuko harekin lehian hasterik».

«Oraingo honetan gomendatuko nizuke —berrekin zion erregek—, baina ez zenuke hari lehian zer irabazirik. Badakit beste pentsakizun batzuk darabiltzala, eta, ibiliko ez balitu ere, hain egoera txarrean irten zen Marie erregina Espainiako uztarritik, sinestezina baita haren ahizpak berriro hara itzuli nahi izatea, eta elkarrekin batera dauden hainbeste koroen distirak liluratzeara».

«Baldin distira horrek ez balu liluratuko — ihardetsi zion Nemoursko jaunak—, irudi luke maitasunean zoriontsu bizi nahiko lukeela. Milord Courtenay maitatua du lehendik; badira zenbait urte horretaz. Marie erreginak ere maite izan zuen, eta harekin ezkonduko zen, Ingalaterra guztiaren onespenez, jakin ez balu Elisabeth ahizparen gaztetasunak eta edertasunak gehiago hunkitzen zutela erreinatzeko itxaropenak baino. Berorren Maiestateak badaki hark bi horiengana sentitu zuen jelsiazko oldarrak bulztaturik, presondegian sartu zituela bi-biak, ondoren Milord Courtenay erbesteratu zuela, eta azken buruan, Espainiako erregearekin ezkontzera deliberatu zela bera. Uste dut Elisabethek, egun tronuan ezarria baitugu, laster deituko duela milord hori bere ondora, eta jada lehendik maitatu duen gizon bat aukeratuko duela, oso atsegina bera, berarengatik hainbat eta hainbat sofrimendu pasea, eta ez inoiz ikusi ez duen besteren bat».

«Zure iritzikoa nintzateke —erantzun zion erregek— baldin Courtenay oraindik bizirik balego, baina jakin dut, eta badira zenbait egun

horretaz, Paduan hil dela, non atzerriratua baitzeukaten. Argi dakusat —gehitu zuen, Nemoursko jaunari agur esanez— beharrezkoa dela zure ezkontza dofin jaunarena balitz bezala prestatzea, eta enbaxadoreak bidaltzea Ingalaterrako erreginaren ezteietara».

»Anvilleko jauna eta Bidamo jauna, horiek ere erregeren etxean baitzeuden Nemoursko jaunarekin batera, etsirik zeuden Nemoursko jauna menderatua daukan maitasun hori bera ez ote den hain xede handiosetik urrunarazten duena. Bidamoak, zeinak beste inork baino hurbilagotik jarraikitzen baitio, Martiguesko andearari adierazi dio hainbeste aldatu dela printze hori, jada ez baitu ezagutzen, eta gehiena txunditzen duena inolako hartu-emanetan ez ikustea dela, ez eta ezkutatzen den ordu jakinik ere, eta horregatik uste du, ez duela inolako hartu-emanik maite duen pertsonarekin, eta horrexek bilakarazi duela Nemoursko jauna hain ezezagun, berak dion maitasuna bihurtzen ez dion emakume bat maite duelako, hain zuzen.»

Nolako pozoia Clevesko anderearentzat dofin anderearen hizketaldia! Nola ez zuen, bada,

bere burua ikusiko izen ezagunik gabeko pertsona hartan, eta nola ez zen sentituko, bada, esker onez eta samurtasunez hunkitua, jakinik beraren bihotza erdiratua zuen printze hark, susmagarri ezin gerta zekiokkeen bide batetik, berarenganako amodioa ezkututzen ziola mundu guztiari, eta berarenganako maitasunagatik uko egiten ziola koroa baten itxaropenari? Halatan, ezin adieraz liteke, ez zer sentitu zuen, eta ez nolako asaldura jabetu zitzaion ere. Dofin andereak arretaz behatu izan balio, aise igarriko zuen esan berriak zizkion gauzak ez zitzaizkiola axolagabe. Baina nola ez baitzuen egiaren inolako aierurik, solasari lotu zitzaion berriro, horri buruz inolako gogotarik egin gabe.

— Anvilleko jaunak —gaineratu zuen—, zeinak, esan berri dizudan legez, xehetasun oro eman baitit, bera baino jakitunago irizten dit. Halako iritzi ona du nire xarmez, ezen etsia baitago Nemoursko jaunarengan hain aldaketa handiak eragin ditzakeen pertsona bakarra nerau naizela.

Dofin andereak esandako azken ele horiek, une batzuk lehenago eragin zioten ez bezalako aztoramena sortu zioten Clevesko andereari.

— Aise aski bil ninteke nerau ere Anvilleko jaunaren iritzira —ihardetsi zuen—, izan ere, bistakoa baita, Madame, berori bezalako printzesa batek baizik ezin dezakeela Ingalaterrako erregina errefusatzera eragin.

— Aitortuko nizuke baneki —iharduki zion dofin andereak—, eta jakingo nuke egia balitz. Gisa horretako grinak ez zaizkio itzurtzen eragin dituenari, berauek baitira lehenak konturatzen. Nemoursko jaunak sekula ez dit zenbait arraitasun arin baizik agertu, baina halere, hain alde handia dago oraindano niregana izan duen jokaeraren eta orain duenaren artean, ezen argi erantzun baitiezazuket ni ez naizela, inondik ere, Ingalaterrako koroari dion axolagabekeriaren arrazoia.

Zure ondoan airean joaten zait gogoia —gehitu zuen dofin andereak— eta ahaztu egiten zait Madame ikustera joan beharra dudala. Badakizu bakea gauzatzear dagoela, baina ez dakizu Espainiako erregeak ez duela ezein artikulu

onartu nahi izan, printzesa horrekin bera ezkontzeko baldintzapean izan ezik, eta ez don Carlos bere seme printzea. Errege, horretara deliberatu aurretik, guztiz atsekabetu da, baina azkenean onetsi du, eta oraintxe joana da Madamerengana, berri hori jakinaraztera. Bihozmindurik dagoelakoan nago, Espainiako erregearen adin eta umoreko gizon batekin ezkontzea ez baita gauza atsegingarria, batik bat harentzat, zeinak lehen gaztetasunaren xalotasun guztiari edertasuna eransten baitio, eta ikusi gabe ere, zaletasuna izan dion printze gazte batekin ezkontzeko irrikaz baitzegoen. Ez dakit desiratzen duen menekotasun guztia aurkituko duen erregek haren gan. Hura ikus dezadala agindu dit, badakielako hark maite nauela, eta uste duelako botererik izan dezakedala haren gogoan. Ondoren, beste bisitaldi bat egingo dut aski desberdina. Eleketa alaian aritzera joango naiz erregeren arreba Madamerengana. Dena erabakita dago Saboiako jaunarekin ezkon dadin. Hura hementxe izango da denbora gutxi barru. Printzesa honen edadeko inor ez da sekula hain pozez beterik egon ezkonduko dela eta. Inoiz ikusi ez den edertasun

eta handitasun batez agertuko da gortea, eta atsekabeturik bazaude ere, beharrezkoa zaigu etor zaitezten, atzerritarrei hala-holako edertasunik ez dugula ikusarazten laguntzera.

Hitz horien ondoren, dofin andereak agur esan zion Clevesko andereari, eta biharamunean, mundu guztiak jakin zuen Madameren ezkontzaren berri. Hurrengo egunetan, errege-erreginak Clevesko anderea ikustera joan ziren. Nemoursko jaunak, zeinak sekulako egonezinez iguriki baitzuen haren etorrera eta sutsuki desiratzen baitzuen lekukorik gabe hitz egin ahal izatea, mundu guztia irtenik inor gehiago etorriko ez bide zen ordura arte itxaron zuen haren etxera joateko. Halaxe, bere asmoak burutu, eta azken bisitariak irteten ari zirela iritsi zen bera.

Printzesa ohean zegoen etzanda, bero egiten zuen, eta Nemoursko jaunaren ikustaldiak gorritasun bat eragin zion, haren edertasuna inondik ere urritu ez zuena. Nemoursko jauna aurrez aurre eseri zitzaion, zinezko amodioek sortu ohi duten uzkur tasun eta herabetasunaz. Denbora batez egon zen hitzik egin ezinik. Clevesko anderea ere hura bezain uzkur zegoen, eta halatan,

denbora luzez gorde zuten isiltasuna. Azkenik, Nemoursko jaunak hizketari ekin, eta zenbait konplimendu egin zizkion haren atsekabeari. Clevesko anderea, gai hari buruzko elkarrizketa-rekin segitzeari eder iritzirik, luzaz mintzatu zitzaion eduki berri zuen galeraz, eta azkenik esan zion, denborak bere oinazearen bortxa gutxitu liezaiokeen arren, hain bihotzondoko larria geratuko zitzaiola betiko, ez baitzen sekula lehengo bera izango beraren umorea.

— Atsekabe handiek eta maitasun grina bortitzek —iharduki zuen Nemoursko jaunak— aldaketa handiak eragin ohi dituzte gogoan; nitaz den bezainbatean, Flandesetik itzuli naizenez geroztik, ez dut neure burua ezagutzen. Jende askok igarri du aldaketa hori, eta dofin andereak berak ere horretaz hitz egin zidan atzo.

— Egia da —erantzun zuen Clevesko andereak— hark igarri duela, eta uste dut entzuna diodala zerbait horri buruz.

— Ez zait desplazatzen, Madame —segitu zuen Nemoursko jaunak— hura horretaz ohartu izana, baina nahiago nuke ez baledi hura bakarria izan horretaz ohartua. Zenbait pertsonaren aurrean

ez gara ausartzen geure amodioaren agerbiderik ematen axolagabeak zaizkien gauzen bidez baizik, eta maite ditugula aditzera ematera ausartzen ez garenez, nahi izaten dugu ikus dezatela, bederen, ez dugula nahi beste inork maita gaitzan. Nahi izaten dugu jakin dezatela ez dagoela edertasunik, zeinahi mailatakoa ere, axolagabeziaz baizik behatuko ez diogunik, eta halaber, ez dagoela erdietsi nahi dugun koroarik, haiek berriro gehiago ez ikuste aldera. Emakumeek — segitu zuen—, berengana dugun amodiozko isuria juzkatzean, kontuan izan ohi dute zenbateko arta hartzen dugun berei laket izaten edo beren lagunartea bilatzen, baina ez da gauza zaila haien bila ibiltzearen plazerrera abandonatzea. Zailena, aitzitik, horretatik ihes egitea da, haien alde ditugun sentimenduak jendeari eta are haiei ere agertarazteko beldurrez. Eta benetako atxikimendu bat are hobeki adierazten duen zera, izan garenaren guztiz bestelako bilakatzea da, eta inolako handinahirik edota plazerrik ez izatea, bizitza guztian bataren nahiz bestearen atzetik ibili ondoren.

Clevesko andereak ongi baino hobeto ulertzen zuen hitz horietan zeukan partea. Iruditzen zitzaion erantzun egin behar ziela, eta halakorik ez paira. Iruditzen zitzaion, orobat, ez zituela entzun behar, ez eta aditzera eman behar ere berari zuzenduak bailiran hartzen zituenik. Uste zuen hitz egin behar zuela, eta uste zuen ez zuela deus esan behar. Nemoursko jaunaren solasa atsegingarria eta iraingarria zitzaion hein berean. Dofin andereak pentsarazi zion guztia-
ren berrespena zekusan hitz haietan; adeitasu-
netik eta begirunetik zerbait bazutela iruditzen zitzaion, baina aldi berean ausarkeriatik zerbait eta adigarritik aski ere bai. Clevesko andereak printze haren aldera zuen isuriak, ezin menderatuzko asaldura eragiten zion. Izan ere, atsegin dugun gizon baten hitzik ilunenek aztoramen handiagoa eragin ohi digute, atsegin ez dugun gizon baten aitormen irekienek baino. Hala bada, zer ihardetsi ez zekiela geratu zen, eta Nemoursko jauna haren isiltasunaz ohartuko zen, zeinak ez baitzion aieru txarrik sortuko segur, baldin eta Clevesko jaunak elkarrizketa hura eta bisita bera ere bukarazi ez balitu.

Printze hura Sancerreren berriak kontatzen zetorkion emazteari, baina Clevesko andereak ez zuen jakinahi berezirik abentura haren jarraipenaz. Hain zegoen aztoratua gertatu berria zenaz, nekez ezkuta baitzezakeen bere gogoaren kezagarria. Gogoeta egiteko aske sentitu zenean, argi ikusi zuen zein erraturik zegoen, Nemoursko jauna axolagabea baizik ez zitzaiola uste izanik. Nemoursko jaunak esan berri zionak, hark iguriki zezakeen zirrara guztia eragin zion, eta halaber, haren amodioaz guztiz konbentziaz. Printze haren ekintzak ongiegi lotzen zitzaizkien hitzei, eta ez zioten zalantzarako biderik uzten printzesa hari. Clevesko anderea, harrezkero, ez zen loriatuko gehiago maiteko ez zuenik, eta inoiz horren agerbiderik ez ematea desiratu zuen soilik. Langintza zaila zen ordea, dagoeneko ezagutzen baitzituen horren nekeak. Bazekien hori erdiesteko bide bakarra printze haren presentzia saihestea zela, eta doluak ohi baino bakartiago bizitzeko modua eskaintzen zionez, estakuru horrezaz baliatu zen hark ikus zezakeen lekuetara gehiago ez joateko. Hala, beraz, tristezia sakon batek kolpatu zuen; ama-

ren heriotzak zirudien horren arrazoia eta ez zuten beste arrazoirik bilatu.

Nemoursko jauna etsia zegoen ez zuela andere hura ia inoiz gehiago ikusiko, eta jakinik ez zuela aurkituko gorte osoa egon ohi zen ezein bilkura eta dibertimendutan, bera ere ezin zitekeen delibera haietan agertzera. Ehizarako zale-tasun handi baten itxurak egin zituen, eta erreginen etxeetan bilkurak egiten ziren egunetan ehizaldiak prestatzen zituen. Erialdi arin bat aitzakiatzat baliatu zuen etxean geratzeko, eta, bidenabar, Clevesko anderea agertuko ez zela ongi zekien leku guztietara ez joateko.

Clevesko jauna ere denbora bertsuan eritu zen gutxi gora-behera. Emaztea ez zen haren gelatik irten erialdiak iraun zuen bitartean, baina onera egin eta jendea ikusten hasi zenean — horien artean Nemoursko jauna, zeinak, atsegina izateko estakuruaz, hantxe ematen baitzuen egunaren zatirik handiena—, Clevesko andreak uste izan zuen ez zuela leku hartan gehiago egotterik. Hura etorri zen lehen egunetan, ordea, ez zuen handik irteteko indarrik izan. Denbora luzeegi zen hura ikusi gabe, ikusi nahi ez izatera

deliberatzeko. Printze hark, gai orokorreari buruzkoa zirudien hizketa modu batez, nahiz Clevesko andereak ongi konprenitzen zuen —bazuelako zerikusirik hark etxean esan zionarekin—, modua aurkitu zuen Clevesko andereari aditzera emateko amets egitera joaten zela ehizara, eta ez zela bilkuretara joaten bera ez zelako halakotetan izaten.

Clevesko andereak, azkenik, senarraren gelatik irteteko deliberoa hartu zuen, Nemoursko jauna han aurkituz gero. Alabaina, izugarrizko bortxa batez baizik ez zuen lortu. Printze hark argi ikusi zuen, halere, ihesean zebilkiola, eta hagitz hunkitu zuen horrek.

Clevesko jaunak ez zion kontu gehiegirik egin emaztearen jokabideari hasieran, baina ohartu zen azkenik hark ez zuela bere gelan egon nahi izaten jende ugari zenean. Horretaz mintzatu zitzaion, eta emazteak ihardetsi zion ez zuela uste, egokitasunez, arratsero gorteko pertsona gazteenekin elkartzea komeni zitzaionik. Ordu arte ohi zuena baino bizimodu bakartiagoa eramatea ontzat eman zezala eskatzen zion, zeren bertuteak eta amaren presentziak gauza gehiegi

onetsi baitzituzten, beraren edadeko emakume batek ezin eraman zitzakeenak.

Clevesko jaunak, zeina ez-titasun eta begirune handiz jokatzeko baitzen eskuarki bere emaztearekin, ez zuen jokaera hura agertu orduan, eta esan zion ez zuela inola ere nahi jokabidez alda zedin. Clevesko anderea esateko puntuan egon zen zurrumurrua zabaldu zela jendartean Nemoursko jauna beraz maitemindurik zegoela, baina ez zuen haren izenik aipatzeko indarrik izan. Ahalketu zen, halaber, sasi-arrazoi batez baliatu nahi izan zuelako, eta berari buruz hain iritzi ona zuen gizon bati egia desitxuratu nahi izan ziolako.

Zenbait egun geroago, zirkuluaren garaian, erreginarenean zegoen errege. Horoskopoez eta iragarpenez ari ziren solasean, eta iritzi kontra-jarriak zituzten halakoei zor zitzaizkien sinesmenaren gainean. Erreginak fede handia ematen zien; haren iritziak, hainbeste gauza iragarri ondoren hainbeste ziren gertatuak, ezen ezin duda baitzitezkeen ziurtasunik ez zegoela zientzia hartan. Beste batzuek zioten, aldiz, iragarpen kopuru amaigabea eginagatik ere, hain gutxi zirela egia

bilakatu, ezen argi ikus baitzitekeen halabehar-
raren fruitu baizik ez zirela.

— Behinola, jakinmin handia izan nuen etor-
kizunaz —esan zuen erregek—, baina hainbeste
gauza faltsu eta hain egiantza gutxiko esan diz-
kidate, etsirik bainago ez dagoela deus ziurtasu-
nez jakiterik. Duela zenbait urte, gizon bat etorri
zen hona, astrologia gaietan entzute handikoa.
Mundu guztia joan zitzaion ikustera. Ni ere joan
nintzen besteak bezalaxe, baina nor nintzen
azaldu gabe, eta Guiseko eta Escarsko jaunak
eraman nituen neurekin. Aurretik pasatzeko
esan nien. Astrologoa, alabaina, nigana zen
lehenik zuzendu, beste bien nagusi juzkatu
banindu bezala. Menturaz ezagutzen ninduen.
Nolanahi ere den, gauza bat esan zidan, nire
ezagutzarik ez zuela konbentzitu ninduena. Ira-
garri zidan dueluan hilko nindutela. Gero, Guise-
ko jaunari esan zion gibeletik hilko zutela, eta
Escarsi, zaldi batek burua hautsiko ziola ostikoz.
Iragarpen hark mindu egin zuen Guiseko jauna,
ihes egiteaz salatu izan balute bezala. Escars ez
zen batere poztu jakin zuenean hain istripu zori-
gaiztoko batez amaituko zuela bizitza. Azke-

nean, arras muzindurik irten ginen hirurak astrologoarenetik. Ez dakit zer gertatuko zaien Guiseko jaunari eta Escarsi, baina ez dirudi, inondik ere, ni dueluan hilko naizenik. Bakea egin dugu orain berriki Espainiako erregeak eta biok, baina egin ez bagenu ere, ez dut uste gudukatuko ginatekeenik, edota desafiatuko nukeenik, nire aita errege zenak Carlos V.a desafiatu zuen bezala.

Erregek iragarri zioten zorigaitzaren berri eman zuenean, astrologiaren alde zeudenek bertan behera utzi zuten horren aldezpena, eta ados etorri ziren ez zitzaiola inolako sinesterik eman behar.

— Nitaz den bezainbatean —esan zuen ahots goran Nemoursko jaunak—, mundu osoan halako sinesteei gutxien zor dien gizona nauzue —eta Clevesko anderearengana jiratzuz, aldameanean baitzeukan—: iragarri didate —esan zion ahapetik— zorientsu izango nintzela maitasunik bortitzena eta adeitsuena izango diodan pertsonaren ontasunei esker. Zerorrek juzkatzen ahal duzu, Madame, iragarpenak sinetsi behar ditudanentz.

Dofin andereak, zeinak uste izan baitzuen, Nemoursko jaunak ahots goran esan zuenaren kariaz, egindako iragarpen faltsuren bat-edo zatekeela ahapean zioena, galdegin zion printze hari ea zer zen Clevesko andereari esan berri ziona. Hain gogo biziko pertsona izan ez balitz, harri eta zur utziko zukeen galdera hark, baina solasari deblauki berrekin, eta:

— Esaten nion, Madame —ihardetsi zuen—, iragarpenek hain fortuna handira nautela goratzen, ez bainintzateke ausartuko halakorik desiratzera ere.

— Baldin iragarpen hori besterik ez badizute egin —iharduki zion dofin andereak irribarrez—, eta Ingalaterrako afera gogoan dudalarik, gomendatuko dizut ez dezazula arbuia astrologiaren izen ona, arrazoiak aurki baititzakezu horren alde agertzeko.

Clevesko andereak ongi ulertu zuen zer esan nahi zuen dofin andereak, baina ongi zekien, halaber, Nemoursko jaunak adierazi nahi izan zuen fortuna hura ez zela Ingalaterrako errege izatea.

Nola denbora luzea igaro baitzen Clevesko andereari ama hil zitzaionetik, beharrezkoa zen jendartean agertzen hastea, eta gorteko eginbideak ohi zituen moduan betetzea. Dofin anderearen etxean ikusi ohi zuen Nemoursko jauna. Clevesko jaunaren etxean ere ikusten zuen, sarritan etortzen baitzen hara, bere edadeko beste zenbait pertsona presturekin batera, gehiegi ez nabarmentzearren. Baina Clevesko andereak aztoraturik baizik ezin zezakeen ikus, eta hark aise aski igartzen zion hori.

Haren behakoa saihesten eta beste edonori baino gutxiago hitz egiten hainbat neke hartuagatik ere, barne-mugida batek eraginda zenbait gauza itzuri zitzaizkion, zeintzuek printzeari pentsarazi baitzioten bazuela tokitxoren bat Clevesko anderearen bihotzean. Hain ernea ez zen beste edozein gizon ez zatekeen horretaz ohar-tuko menturaz, baina printze hura, hainbeste aldiz izan zen ordurako maitatua, zail baitzen hark ez jakitea noiz maite zuten. Argi zekusan Guiseko zalduna beraren aurkaria zela, eta beste printze hark ere bazekien Nemoursko jauna halaxe zela berarentzat. Gortean egia ezagutzen

zuen gizon bakarra zen hura. Zeuzkan interesek besteak baino begizoliago bilakatu zuten. Horrela, beren sentimenduez zuten elkar ezagutzak, halako garratzasun bat eragiten zien, gauza guztietan suma zitekeena, nahiz ez ziren iritsi liskar batean lehertzera. Hala eta guztiz ere, elkarren kontra zeuden gauza guztietan. Beti kontrako alderdietan egongo ziren zinta-karreretan, borrokaldietan, oztopo-lasterketetan eta erregek parte hartzen zuen dibertimendu guztietan, eta hain zen handia elkarri zioten ondamua, ezin baitzitekeen inola ere ezkuta.

Clevesko andereari sarritan etortzen zitzaion gogora Ingalaterrako afera. Iruditzen zitzaion Nemoursko jaunak ezingo ziela buru egin erregeren aholkuei eta Lignerollesen eskariei. Clevesko andereak kezka zekusan Lignerolles oraindik itzuli gabea zela, eta egonezinez igurikitzen zuen haren etorrera. Haren mugimenduak segitu izan balitu, arta handiz jakingo zituen afera haren nondik norakoak oro, baina jakinmina eragiten zion sentimendu horrek berak, hori ezkutzera hertsatzen zuen, eta Elisabeth erreginarenean edertasunaz, adimenduaz eta umoreaz landa, ez

zuen besterik jakin. Haren potret bat eraman zuten behin erregerenera, desio zukeena baino ederragoa iritzi ziolarik, eta ezin izan zuen etsi ederragotua zegoela esan gabe.

— Ez dut hala uste —ekin zion dofin andereak, hura ere hantxe baitzegoen—; printzesa horrek fama du ederra dela eta ohikoa baino askoz gorago dagoen adimena duela, eta ongi dakit hori, eredutzat jarri izan didatelako bizitza guztian. Maitagarria behar du izan, baldin bere ama Bolenako Anaren antzik badu. Emakume batek inoiz ez du hark adina xarma eta lilura izan, ez izaeran eta ez jokaeran ere. Entzuna dut haren begitarteak bazuela zerbait bizigarri eta bereizgarri, eta ez zuela gainerako edertasun ingelesen inolako antzik.

— Iruditzen zait, halaber —berrekin zion Clevesko andereak—, Frantzian sortua zela esan izan dutela.

— Hala uste dutenak erraturik daude —erantzun zuen dofin andereak—. Bi hitzetan kontatuko dizut haren historia:

«Ingalaterrako etxe on batean sortu zen. Henri VIII.ak haren ama-ahizpak maitatu zituen,

eta susmoa ere izan dute haren alaba ez ote den. Henri VII.aren arrebarekin, Louis XII.aren emazte izango zenarekin, etorri zen hona. Printzesa gazte eta atsegin hark atsekabe handia hartu zuen, senarra hil ondoren Frantziako gor-tea utzi behar izan zuenean, baina Bolenako Ana ezin izan zen partitzera deliberatu, bere ande-rearen gurari berak eduki arren. Errege zendua hartaz maitemindurik zegoen, eta Claude erregi-naren ohorezko andere-lagun bezala geratu zen. Erregina hura hil eta gero, erregeren arreba Mar-guerite andereak —Alençongo dukesa, eta gero-ra Nafarroako erregina izan zenak, zeinari buruz-ko ipuinak ikusiak izango baitituzu—, bere ondo-ra deitu zuen, eta printzesa haren aldamenean, erlijio berriaren hastapenak ikasi zituen. Ingala-terrara itzuli zen geroago, eta han, mundu guz-tia liluratu zuen. Herri guztiek gogoko dituzten frantses jokamoldeak agertzen zituen: ongi abesten zuen eta miresgarriki dantzatzen zen. Aragoako Katalina erreginaren ohorezko andere-lagun izendatu zuten, eta errege Henri VIII. zora-menez maitemindu zen hartaz.

»Wolseyko kardinalak, haren begikoa eta lehen ministro zenak, aitasantutza lortzea irrikatu zuen, baina nonbait, enperadorearekin pozik izaki ez —ez baitzion sustengurik eman asmo horretan—, mendeku hartzea erabaki zuen, eta bidenabar, haren errege eta nagusiak Frantziarekin bat egin zezala lortzea. Henri VIII.ari sinestarazi zion enperadorearen izebarekin gauzatu ezkontza hura baliogabea zela, eta Alençongo dukesarekin ezkontzea proposatu zion, zeinaren senarra orduantxe hil berria baitzen. Bolenako Anak, goranahi handiak zeuzkanez, erregetzara gidatuko zuen bide bat bezala zekusan dibortzio hura. Lutherren erlijioaren hastapenak ematen hasi zitzaion Ingalaterrako erregeari, eta Erroman Henriren dibortzioa faboratzera bultzatu zuen errege zendua, modu horretan Alençongo anderearekin ezkonduko zela espero baitzuen. Wolseyko kardinalak, beste estakuru batzuk baliatuz, Frantziara bidal zezatela erdietsi zuen, afera hori bideratzera, baina haren nagusiak ez zuen onartu halako proposamenik egin zedin, eta agindu bat bidali zuen Calaisera, ezkontza horren gainean hitzik ere ez zezatela egin.

»Frantziatik itzuli zenean, erregeren gisako ohoreekin egin zioten harrera Wolseyko kardinalari. Erregeren ezein begikok ez ditu inoiz harrokeria eta handikeria hain gora eraman. Berak apailatu zuen bi erregeen arteko elkarrizketa, eta egin, Boulognen egin zen. François I.ak Henri VIII.ari eskua luzatu zion, baina hark ez zuen hartu nahi izan. Egundoko arrandiaz egin zuten elkarrekiko lehen hartu-emanak, eta berentzat eginarazi zituzten janzkiak bezalakoak trukatu zituzten. Oroitzen naiz entzun izana nola errege zenduak Ingalaterrako erregeari bidali zizkionak karmin koloreko satinezkoak ziren, triangeluan apain-apain jarriak eta perla eta diamantez josiak, bai eta belus txuriko jantzi bat ere, urrez bordatua. Boulognen zenbait egun egin ondoren, Calaisera itzuli ziren berriro. Bolenako Anak Henri VIII.aren hartu zuen ostatu, erregina baten pareko handitasunez, eta François I.ak ere, benetan hala balitz bezalako opariak egin eta ohore berberak eskaini zizkion. Azkenik, bederatzi urteko amodio baten ondoren, harekin ezkondu zen Henri, beraren lehen ezkontza desegin zedin itxaron gabe, zeina aspaldidanik

eskatua baitzuen Erroman. Aita santuak haren kontrako eskumikuak bota zituen berehala, eta Henri, hainbestera sumindu zen, ezen, erlijio buru gisa agerturik, dakusazun zorigaiztoko mudantza horretara bultzatu baitzuen Ingalaterra osoa.

»Bolenako Anak ez zuen luzaroan dastatu handitasun hura. Izan ere, Aragoako Katalina hildakoan handitasun hura sendotua zuela uste izan bazuen ere, halako egun batez, beraren anaia Rocheforteko bizkondeak antolatzen zituen zinta-karreretara gorte guztiarekin batera joana zelarik, hain jelsia bortitzak kolpatu zuen errege, ezen brastakoan alde egin baitzuen ekitaldi haietatik, eta Londresa itzuli zenean manatu zuen erregina, Rocheforteko bizkondea eta printzesaren maitale nahiz isilmandataritzat zeuzkaten beste guztiak atxilotu zitzatela. Jeloskortasun hura orduantxe jaioa zela zirudien arren, bazen zenbait denbora Rocheforteko bizkondesak kezka hori sortua ziola, zeinak, senarrak erreginarekin zuen lotura hertsia jasan ezinik, erregeri ikusarazi baitzion adiskidetasun horrek zuela hobena, eta horrela, printze hark,

zeinak Jeanne Seymour ere maite baitzuen bestalde, Bolenako Anarekikoak egiteaz beste desiorik ez zuen izan. Hiru aste baino lehen, erregina horren eta haren anaiaren epaiketa egin zedila manatu zuen, horiei lepoa moztu, eta Jeanne Seymourekkin ezkondu zen bera. Anitz emakume izan zituen ondoren, batzuk arbuia edo besteak erail zituenak, eta horien artean, Catherine Howard, Rocheforteko kondesaren isilmandataria izan zena, eta harekin batera lepoa moztuz hil zuena. Bolenako Anari egotzi zizkioten krimen berberengatik zigortu zuten hura ere, eta Henri VIII.a, berriz, ikaragarritzko loditasun batek itota hil zen.»

Dofin anderearen kontakizuna aditzen egon ziren dama guztiek eskerrak eman zizkioten Ingalaterrako gorteari buruz hain irakaspen onak emateagatik, bai eta, besteak beste, Clevesko andereak ere, zeinari ezinezkoa izan zitzaion Elisabeth erreginari buruzko hainbat galdera egin gabe etsitzea.

Dofin erreginak gorteko emakume eder guztien potret txikituak eginarazten zituen, bere ama erreginari bidaltzeko. Clevesko andereare-

na amaitu zuten egunean, Dofin anderea haren etxera joana zen arratsaldea igarotzera. Nemoursko jaunak ez zuen hutsik egin, eta hantxe zegoen bera ere. Ez zuen aukerarik galtzen Clevesko anderea ikusteko, nahiz ez zuen aditzera ematen, haatik, horren bila zebilenik. Hain zegoen ederra egun hartan, orduantxe maite-minduko zatekeen, lehendik egon ez balitz. Ez zen ausartzen, halere, begiak harengan landaturik edukitzera hari orrazketan zebilzkion bitartean, eta beldur zen hari so egoteak sortzen zion plazerra sobera nabarmendu zekion.

Dofin andereak emaztearen potret txiki bat eskatu zion Clevesko jaunari, amaitzen ari ziren beste haren ondoan ikusteko asmoz. Mundu guztiak bere iritzia eman zuen batari nahiz besteari buruz, eta Clevesko andereak agindu zion margolariari, aurkeztu berria zuten hartan berregoki zezala zertxobait beraren orrazkera. Margolariak, esana betez, potret hura zegoen zorrotik atera eta, haren gainean lan egin ondoren, mahaian jarri zuen berriro.

Denbora luzea zen Nemoursko jaunak desiratzzen zuela Clevesko anderearen potreta eduki-

tzea. Clevesko jaunak zeukana ikusi zuenean, ezin eutsizko gogoia sentitu zuen samurki maitatua sentitzen zen senar baten eskuetatik hura ebasteko, eta pentsatu zuen, leku hartan zeuden pertsona guztien artetik, ez ziotela beste inori baino susmo gehiago hartuko berari.

Dofin anderea ohean zegoen eseria, eta aha-petik ari zitzaion Clevesko andereari, zeina haren aurrean baitzegoen zutik. Clevesko andereak, erdi irekiak zeuden errezelen artetik, Nemoursko jauna hauteman zuen, ohearen oinetan zegoen mahaiaren kontra zuelarik bizkarra, eta ikusi zuen, burua itzuli gabe, zerbait hartzen zuela abilki mahaiaren gainetik. Ez zitzaion zail gertatu beraren potreta zela asmatzea, eta hain asaldatu zen, ezen dofin anderea ohartu baitzen ez zitzaiola entzuten ari, eta zeri behatzen zion galdegin zion ahots goran. Hitz horiek entzutean, itzuli egin zen Nemoursko jauna. Clevesko anderearen begiak topatu zituen, berarengan finkatuak artean, eta uste izan zuen bazitekeela egin berri zuena hark ikusi izana.

Clevesko anderea aztoratua zegoen oso. Arrazoiak potret hura eskatzeko agintzen zion,

baina publikoki eskatzea, printze hark berareki-ko zituen sentimenduak mundu guztiari jakinaraztea zen, eta bakarka eskatzea, berriz, hark zeukan amodio grinaz mintzatzera bultzatzea ia. Azkenik pentsatu zuen hobe zela gauzak bere kasa joan zitezen uztea, eta asko poztu zen hari mesede bat egiten ziolako, egiten zionik ere hark jakin gabe. Nemoursko jaunak, Clevesko anderearen aztoramenaz oharturik eta horren arrazoia ere erdi igarririk, hurbildu eta, ahapetik, esan zion:

— Ikusi baduzu zer egitera ausartu naizen, joka ezazu arren ontasunez, Andere, eta utzi iezadazu sinesten ez duzula horren ezagutzarik. Ez naiz ausartzen besterik eskatzera.

Eta hitz horiek esan eta gero, urrundu egin zen, erantzun zezan itxaron gabe.

Dofin anderea etxetik irten zen osteratxo bat egitera, dama guztiek atzetik jarraika zituelarik, eta Nemoursko jauna bere etxera bakartu zen, Clevesko anderearen potreta edukitzearen zoriona jendaurrean ezin eramanez. Halako maitasun batek sentiaraz dezakeen atseginik biziena sentitzen zuen; izan ere, gorteko pertsonarik maita-

garriena maite zuen, hark ere maite zezala lortu zuen, hark kontra egin arren, eta haren ekintza guztietan, lehen gaztetasunaren lañotasunean amodioak eragiten duen artegatasun eta aztoramen hori zekusan.

Gauean potret haren bila ibili ziren arta handiz. Hark egon behar zuen kaxa aurkitua zuteenez, ez zuten susmatu ebatsia izan zela, eta nonbait halabeharrez eroria zatekeela uste izan zuten. Galera hark Clevesko jauna nahigabetu zuen, eta haren bila alferrik ibili ondoren, emazteari esan zion, baina halakorik pentsatzen ez zuela ikusarazteko moduan, zalantzarik gabe maitale ezkuturen bat eduki behar zuela, eta hari eman ziola potret hori, edo hark ebatsi zuela bestela, maitale bat baizik ezin zitekeelako poztu kaxarik gabeko margolan hura edukirik.

Hitz horiek, nahiz barrezka esan zituen, zirra bizia eragin zuten Clevesko anderearen izpiritan, eta kezkaz bete zioten gogoia. Gogoeta egin zuen Nemoursko jaunaren aldera bultzatzen zuen amodio isuriaren bortxaz. Ohartu zen jada ez zela jabe ez bere hitzez, eta ez bere begitarteaz ere. Oroitu zen Lignerolles itzulia zela:

harrezkero ez zion zertan beldurrik izanik Ingala-
terako aferari, dofin anderearen gaineko sus-
morik ere ez zuen, baina, azken batean, haren-
gandik babestuko zuen deus ere ez zeukan, eta
beraz, urrunduz baizik ezin zitekeen seguru
egon. Baina nola ez baitzen gauza handik urrun-
tzeko, larritasun handi batean aurkitzen zen,
harentzat ezbehar handiena bide zen horretan
erortzeko zorian; hots, Nemoursko jaunari zion
amodio isuria ikusarazteko zorian. Chartresko
andereak hiltamuan esan zizkion gauza guztiez
oroitu zen, eta, halaber, galaikerien itsasoan
barreneratu baino lehen era guztietako arretak
—izan zitezkeen zailenak izanik ere— har zitzan
emandako aholku guztiez. Gogora etorri zitzaion
Clevesko jaunak, Tournongo andereaz mintzo
zelarik, zintzotasunari buruz azaldu ziona. Irudi-
tu zitzaion Nemoursko jaunaren alde zuen amo-
dio hura aitortu behar ziola. Pentsakizun horrek
luzaz kezkatu zuen; ordea, segituan, halako kez-
karik eduki izanaz harriturik, erokeriatzat jo
zuen, eta zer hauta egin ez jakitearen harrak
ausiki zuen berriro.

Bakea sinaturik zegoen. Elisabeth anderea, horren aurka gogor lehiatu arren, azkenik deliberatua zen bere aita erregeri obeditzera. Albako dukea izendatu zuten errege katolikoaren ize-nean harekin ezkontzera etortzeko, eta aurki behar zuen iritsi. Saboiako dukea ere itxaroten zuten, erregeren arreba Madamerekin ezkontzera baitzeturren eta haren ezteiak ere aldi berean egitekoak baitziren. Eztei horiek ospe handitan egitea —gortearen zuzentasuna eta handitasuna nabarmenaraziko zuten libertimenduen bidez— besterik ez zuen desio erregek. Dantza eta komedia mailan egin zitezkeen gauzarik handienak proposatu zituzten, baina erregek arruntegiak iritzi zien libertimendu horiei, eta distira handiago batekoak nahi izan zituen. Zaldungudu bat egitea erabaki zuen, non atzerritarrak gonbidatu eta jende xehea ikusle izan baitzitezkeen. Printze eta jaun gazte guztiak atseginez bildu ziren erregeren nahira, eta batez ere, Ferrarako dukea, Guiseko jauna eta Nemoursko jauna, zeintzuk aise gailentzen baitzitzaizkien beste guztiei era horretako jardueretan. Horie-

xek hautatu zituen erregek, zaldun-guduko lau lehiaburu izateko.

Erresuma guztira aldarrika iragarri zuten ekainaren 15az geroztik Parisko hirian iragaitza zabalduko zutela, Berorren Maiestate Txit Kristauak nola Ferrarako duke Alphonse Estekoak, Guiseko duke François Lorrainekoak eta Nemoursko duke Jacques Saboiakoak hala manaturik, menturazale guztien kontra defendatzeko, eta lehen borrokaldia zaldiz izango zela gudatokian, bi saiotan, lau lantza-kolpetara, eta beste bat gehiago damen alde; bigarren borrokaldia, ezpata-kolpez, buruz buru nahiz binaka, gudazelaiko buruek erabakitzen zuten bezala; hirugarren borrokaldia oinez, hiru astamakil-kolpe eta sei ezpata-ukalditara. Halaber, lehiaburuek hornituko zizkietela lantzak, ezpatak eta astamakilak, erasotzaileek aukeratu bezala, eta, lasterka zihoazelarik, inork zaldi bati emanaz gero, lehiatik kanporaraziko zutela. Lau gudazelaiko buru izango zirela aginduak emateko, eta lantza gehien hautsi eta borrokan hobekien aritutako erasotzaileek sari bat jasoko zutela, horren balioa epaileek ezkutuan gordeko zutelarik. Era-

sotzaile guztiek, frantziarrek nahiz atzerritarrek, gudazelaiaren mutur batean mailaditik zintzilik egongo ziren ezkutuetako bat edo batzuk, auke-
ran, ukitu beharko zituztela. Armada-buru bat aurkituko zutela han, eta hark egingo ziela kasu, zeukaten mailaren eta ukitu ezkutuen arabera erroldatuz. Erasotzaileak beharturik egongo zire-
la beren ezkutu eta armak eramango zituen aito-
ren semeren bat bilatzera, hark mailaditik eseki zitzan haien arma eta ezkutuak, zaldun-gudua hasi baino hiru egun lehenago, eta hala ez bazen, ez zietela harrerarik egingo lehiaburuen baiespenik gabe.

Gudazelai handi bat eraiki zuten Bastillatik hurbil, Tournellesko gaztelutik hasi, Saint-Antoine kalea gurutzatu eta erregeren zalditegiraino zihoana. Bi saihetsetan mailadiak eta jarlekuak zeuden, eta halaber, galeria gisako batzuk eratzten zituzten zenbait gelatxo estali, begien betegarri, eta horietan, pertsona kopuru amaigabea bil zitekeen. Harrezkero, printze eta jaun guztien ardura bakarra beharrezko aginduak ematea izan zen, hala jendaurrean distiraz agertzeko, nola, bai eta ere, beren guda-ikur eta ezauga-

rrietan beren maiteñoen aipamena egingo zuen gauza adeitsuren bat gehitzeko.

Albako dukea iritsi baino zenbait egun lehenago, erregek pilota partida bat jokatu zuen Nemoursko jaunarekin, Guiseko zaldunarekin eta Chartresko bidamoarekin. Haiek jokatzeko ikustera joan ziren erreginak, atzetik dama guztiak jarraika zihoazkiela, eta besteak beste, Clevesko anderea. Partida amaitu eta gero, pilotalekutik irteten ari zirenean, Chastelart dofin erreginagana hurbildu eta esan zion halabeharrak maitasunezko gutun bat utzi berria zuela beraren eskuetan, Nemoursko jaunaren sakeletik eroria. Erregina horrek, zeina beti jakinminez egoten baitzen printze hari zegozkion gauza orotan, gutun hura eman ziezaiola eskatu zion Chastelarti. Dofin anderea, hura hartu, eta berehala abiatu zen erregina bere amaginarrebaren bila, zeina erregerekin baitzihoan gudazelaiko lanak ikustera. Han denboratxo bat eman ondoren, aspaldi ez zela erosaraziak zituen zenbait zaldi ekartzeko agindu zuen erregek. Artean hezi gabeak, zaldi gainera igo nahi izan zuen, eta atzetik joan zitzaizkion guztiei ere igotzeko

manatu zien. Erregek eta Nemoursko jaunak suharrenak hautatu zituzten. Zaldi haiek, ordea, elkarrengana oldartu ziren. Nemoursko jaunak, errege kolpatzeko beldurrez, atzerantz egin zuen bortizki, eta zaldien hezilekuko zutoin baten aurka jotzeraino gidatu zuen zaldia, halako bortxaz, ezen astinduak kordokarazi egin baitzuen. Lasterka joan ziren harengana, eta larriki zauritua zegoela uste izan zuten. Clevesko andereak, besteek uste izan zutena baino zaurituago iritzi zion. Harenganako ardurek halako heinean erdiratu eta asaldu zuten, ez baitzen kezkatu aztoramen hura ezkutatzear. Erreginekin batera harengana hurbildu zen, eta halako aurpegiera zurbil batez hurbildu ere, ezen Guiseko zalduna bezain ernea ez zen beste edozein ere ohartuko baitzatekeen horretaz. Halatan, Guiseko jaunak aise igarri zion asaldura hura, eta arta gehiago jarri zuen Clevesko anderea aurkitzen zen egoeran ezen ez Nemoursko jaunarenean. Printzeak hartu kolpeak hain zorabio larria eragin zion, denbora batez eduki baitzuen burua heltzen zioten eskuen gainean bermaturik. Burua altxatu zuenean, Clevesko anderea ikusi zuen lehenik.

Andere haren aurpegian antzeman zuen nolako errukia sentitzen zuen beraren alde, eta berak ere, zein hunkitua zegoen jakitera emateko modu batez behatu zion. Berehala, eskerrak eman zizkien erreginei, erakutsi zioten ontasunagatik, eta haien aurrean aurkitu zen egoeragatik desenkusatu zen. Erregek atsedean hartzeratzen zedila agindu zion.

Clevesko anderea, hartutako izualdia pasa eta oneratu zenean, berehala gogoeta egiten hasi zen larrialdi hartan eman zituen agerpideen gainean. Guiseko zaldunak ez zion denbora luzean utzi, ordea, hartaz inor konturatu ez zelako itxaropena edukitzen. Eskua luzatu zion guda-zelaitik kanpora eramateko.

— Nemoursko jauna baino errukarriago nauzu nerau, Madame —esan zion—. Barka ieza-dazu zugana dudan begirune hondogabea une batez ahanzten badut, eta ikusi berri dudan horrek sentiarazi didan oinaze sakona zure begietara agertzen badut. Zuri mintzatzeko adina ausardia hartzen dudan lehen aldia da, eta azkena ere izango da. Heriotzak, edo betiko urruntzeak bederen, jada gehiago ezin bizi naite-

keen leku batetik baztertuko naute, zeren zuri behatzera ausartzen diren guztiak ni bezain dohakabeak zirela sinestearen kontsolamendu tristea galdu baitut.

Clevesko andereak hitz lardaskatu batzuekin baizik ez zuen erantzun, Guiseko zaldunaren hitzek zer esan nahi zuten ulertu ez balu bezala. Beste garai batean iraintzat hartuko zukeen beraren alde zituen sentimenduez hitz egin izan balio. Une hartan, aldiz, berak Nemoursko jaunaren alde zeuzkanez hura ohartarazi izanaren atsekabea baizik ez zuen sentitzen. Guiseko zalduna hain zegoen konbentziturua eta hain oinazeturua, egun hartatik bertatik erabaki baitzuen inoiz ez pentsatzea Clevesko andereak maitatuko zuela. Baina hain zaila eta hain loriatsua zeritzan langintza hura albora uzteko, besteren bat beharko zuen, haren handitasunak arduraturik edukiko zuena. Rodas menderatzeko gogoia egin zitzaion. Lehendik ere izan zuen asmo hori. Eta gaztetetasunaren lorean, mende hartako printze handienetako baten sona erdietsi zuen unean Heriok mundutik eraman zuenean, bizia galtzeak sortu zion atsekabe bakarra hain asmo ederra

gauzatzerik ez izana iruditu zitzaion, segurtzat baitzeukan horren arrakasta, hartuak zituen arta guztiei esker.

Clevesko anderea gudazelaitik irten ondoren erreginaren etxera joan zen, gertatutakoa gogotan katigaturik. Nemoursko jauna geroxeago iritsi zen, arropa bikainez jantzia, jazotako ezbehar hura sentitzen ez zuen gizon baten moduan. Ohi baino alaiago zirudien, eta ikusi uste zuenak sortu arraitasunak aire bat zemaion, bere berezko xarma areagotzen ziona. Mundu guztia harri eta zur geratu zen sartu zenean, eta denek galdengin zioten bere egoeraz, Clevesko andereak izan ezik, zeina tximiniaren aldamenean egon baitzen, hura ikusi izanaren aztarnarik eman gabe. Errege, zegoen gelatxotik irten, eta, besteek inguratua zutela ikusirik, bere ondora deitu zuen, izandako abenturaz mintza zekion. Nemoursko jaunak, Clevesko anderearen ondoondotik igarotzean, honela esan zion ahapetik:

— Zure errukiaren agerbideak jaso ditut gaur, Madame, baina ez dira izan inork baino gehiago merezi ditudan era horretakoak.

Clevesko andereak garbi sumatzen zuen printze hura jada ohartua zela nolako samurtasunez jokatu zen arestian, eta haren hitzek erakutsi zioten ez zebilela oker. Jada bere sentimenduak ezkutatzeko gauza ez zela ikustea eta Guiseko zaldunari horiek agertu izana, mingarria zitzaion oso. Asko sofritzen zuen, halaber, Nemoursko jaunak ere ezagutzen zituelako, baina azken oinaze hori ez zen hain erabatekoa, eta, nolabait ere, eztitasun batez nahastua zegoen.

Dofin erregina, zeinak jakinmin handia baitzuen Chastelartek eman gutunak zer zioen ikusteko, Clevesko anderearengana hurbildu zen:

— Zoaz gutun hau irakurtzera —esan zion—. Nemoursko jaunari zuzendua dago, eta, itxura guztien arabera, beste maitale guztiengandik urrundu duen maiteño horrena duzu. Ezina bazaizu orain irakurtzea, gorde ezazu. Zatoz arratsean nire logelara. Orduan itzuliko didazu, eta esango didazu idazkera hori ezagutzen al duzun.

Hitz horiek esan ondoren, dofin andereak Clevesko anderea utzi zuen, hain harriturik eta hala-

ko txundidura batean utzi ere, ezen luzaz egon baitzen bere lekutik ezin mugiturik. Ezinegonak eta asaldurak hartua zuten osoki, eta, beraz, ez zitzaion zilegi erreginarenean gehiago egotea. Etxera joan zen handik, nahiz hura ez zen etxera biltzen zen ohiko ordua. Esku dardarti batez eusten zion gutunari. Hain nahasian zeuzkan bere pentsakizun guztiak, ez baitzuen bakar bat ere garbi bereizten; inoiz sentitu ez zuen bezalako oinaze pairaezin eta ezezagun batek inarros-ten zion barrua. Bere gelatxoan aurkitu zen bezain laster, gutuna ireki, eta ondokoa irakurri zuen:

GUTUNA

Sobera maite izan zaitut igar diezadakezun mudantza nire aldakortasunaren fruitu izan dai-tekeenik sinesteko. Jakinarazi nahi dizut zure fideltasun eza dela horren arrazoia. Harriturik egongo zara, noski, zure fideltasun ezaz mintzo natzaizulako; izan ere, hain trebeki ezkutatu baitidazu, eta nik ere hainbesteko arta hartu baitut hori nekiela zuri ezkututzen, arrazoiz harrituko

zara nik hori ezaguna nuela jakitean. Nerau ere harriturik nauka zuri deus jakiteko zirriturik utzi ez izanak. Inoiz ez da nirea bezalako oinazerik izan. Uste nuen bortxazko amodio bat sentitzen zenuela nire alde; nik ez dizut ezkutatu zugana sentitzen nuena, baina bere zabaltasun osoan agertu dizudan une batean jakin dut iruzur egiten zenidala, beste norbait maite zenuela, eta, itxura guztien arabera, maiteño berri horren mesederako sakrifikatu behar ninduzula. Zintakarreraren egunean jakin nuen, eta horixe izan zen ni hara ez joatearen arrazoia. Gaixo iduri egin nuen nire gogoaren nahasmendua ezkutatzearen, baina zinez nintzen gaixotu, nire gorputzak ez baitzuen halako zartada bortitzik jasaten ahal. Hobera egiten hasi nintzenean, aldiz, oso gaixo nintzelakoa egin nuen berriro, zu gehiago ez ikusteko eta zuri gehiago ez idazteko estakurua edukitzearen. Astia hartu nahi izan nuen zurekin nola jokatu behar nuen deliberatzeko. Hogeia aldiz hartu eta ezabatu nituen, atzera, erabaki berberak, baina azkenik, nire oinazea ikusteko duin ez zinela iritzirik, horrelakorik ez agertzera deliberatu nintzen. Zure

urguilua kolpatu nahi izan nuen, nire amodioa bere kabuz jabaltzen zela ikusarazi, modu horretan, zuk eragindako sakrifizioaren prezioa gutxituko nuelakoan. Ez nizun eman nahi izan, beraz, zenbat maite zintudan erakusteko aukerarik, besteen aurrean are maitagarriago ager ez zintezten. Gutun epel eta ilaunak idaztea erabaki nuen, zure maitasuna eskaintzen zenionaren gogotik artean ere maite zintudala ezabatzeko. Ez nuen nahi hura nire gainetik gailentzen zela nekienik jakin zezan, ez eta haren garaipena are gehiago handitu zedin ere nire etsipen eta gaitzespenen bidez. Uste nuen ez zintudala nahikoa zigortuko zurekiko loturak apurtuz gero, eta axaleko min bat baizik ez nizula emango, baldin eta, jada maite ez ninduzun une batean, zu maitatzeari uzten banion. Beharrezko iritzi nion, hortaz, zuk ni maitatzeari, maitatua ez zarela jakitearen oinazea senti zenezan, nik hain krudelki dastatua nuen moduan. Uste nuen, noizbait nigana izan zenituen sentimenduak berpiz zitzakeen deus izatekotan, nireak aldatuak zirela ikusaraztea baizik ezin zitekeela izan hori, baina ezkututzen nizulakoa iduri eginez, eta zuri aitor-

tzeko kemenik edukiko ez banu bezala. Delibera-
mendu hori hartu nuen beraz, baina zein zaila
izan zitzaidan hartzea! Izan ere, ezinezkoa irudi-
tu zitzaidan halakorik burutzea berriro ikusi zintu-
danez geroztik. Ehun aldiz egon nintzen gai-
tzespenetan eta malkotan lehertzeko zorian. Eri-
tasunak eragindako egoeraz baliatu nintzen nire
kezka eta etsipenak zuri ostentzeko. Zure
aurrean itxurak egitearen plazerrak, zuk nire
aurrean egin ohi zenuen bezala, indartu egin nin-
duen gero, baina halere, nire burua arras bortxa-
tu behar izan nuen noizbait maite izan zintudala
eta nire sentimenduak aldatuak zirela esan eta
idazteko, nik aditzera eman nahiko nukeen baino
lehenago zerorrek ikusia zenuen bezala. Mindu
egin zintuen horrek. Kexu agertu zinen. Zu lasai-
tzen saiatu nintzen, baina hain modu behartuan,
ezen are gehiago etsi baitzenuen jada ez zintu-
dala maite. Azken batean, egin asmo nuen guz-
tia egin nuen. Zure bihotzaren nabarmenkeriak
nigana itzularazi zintuen, zugarik urruntzen ari
nintzela ikusi ahala. Mendekuak eman dezakeen
plazer guztiaz ari nintzen gozatzen; inoiz maita-
tu ez ninduzun bezala maite ninduzula iruditu

zait, eta nik, ordea, jada ez zintudala maite ikusarazi dizut. Izan dut arrazoirik sinesteko, ezen, ni baztertuz hautatu zenuen hura zeharo abandonatua zenuela jada. Izan dut arrazoirik, halaber, nitaz sekula hitzik esan ez zeniola uste izateko, baina zure itzulerak eta zurruntasunak ez dute zure arinkeria zuzentzerik izan. Ni eta beste norbaiten artean partekatu duzu bihotza, eta iruzur egin didazu. Hori aski izan da, maite ninduzulako plazer hori —merezi uste nuen plazer hori— nigandik betiko ezabatzeko, eta bide batez, harritu egin bazaitu ere, sekula gehiago zu ikus ez zaitzadan hartu dudan deliberamendu horretara bultzatzeko.

Clevesko andereak mila aldiz irakurri eta berrirakurri zuen gutun hori, baina zer irakurri zuen jakin gabe, halere. Soilik ikusten zuen Nemoursko jaunak ez zuela maite berak uste bezala, beste batzuk ere maite zituela, eta berrari bezala, haiei ere iruzur egiten ziela. Hura bai ikuspen eta ezagutza latza harena bezalako izaera zuen pertsona batentzat! Izan ere, maitasun bortitz baten jabe izanik, horren agerpideak

eman baitzizkion duingabetzat zeukan gizon bati, eta harenganako amodioagatik beste bat nahigabetzen zuen! Sekula ez da izan hain bihozmin bizi eta mingarririk. Iruditzen zitzaion bihozmin horren garraztasuna egun hartan jazo-takoak eragina zela, eta baldin Nemoursko jaunak motiborik eduki ez balu Clevesko andereak maite zuela sinesteko, andere hari ez zitzaion axola izango hark besteren bat maitatuz gero. Baina modu hartan, bere burua tronparazten zuen. Hain jasangaitza zitzaion oinaze hura jelsorkeria baizik ezin zitekeen izan, horri atxikirik joan litezkeen izugarrikeria guztiekin batera. Gutun hartan ikusten zuenez, ordea, Nemoursko jaunak aspalditik zuen amodioren bat. Clevesko anderearen ustez, gutun hura idatzi zuenak adorea eta dohaiak zeuzkan, eta maitatua izateko duin iruditzen zitzaion. Bere buruari aitortzen zion kemena baino askoz gehiago aurkitu zuen beste harengan, eta hark Nemoursko jaunari bere sentimenduak ezkutatzeari erakutsitako kemena nahiko zukeen berarentzat. Esango zukeen, gutunaren amaieragatik, emakume hark zinez uste zuela maitatua zela. Clevesko ande-

rearen ustez, printzeak agertu bide zion eta hain hunkiturik utzi zuen zurruntasun hura, gaitzitu nahi ez zuen beste pertsona bati zion maitasunaren ondorio baizik ezin zitekeen izan. Azken batean, bere bihozmina eta etsipena areagotu baizik egiten ez zion oro zetorkion burura. Zenbat gogoeta ez zuen egin bere buruaz! Zenbat hausnarketa amak eman aholkuen gainean! Zenbat damu ez zuen hartu, Clevesko jauna gorabehera, munduko hartu-emanetatik baztertzera tematu ez izanagatik, edo Nemoursko jaunaren alde sentitzen zuen amodio isuria senarrari aitortzeko asmoari jarraiki ez izanagatik! Uste zuen hobe izango zukeela senarrari amodio hura ezagutarazi izan balio, ezaguna zuelako haren ontasuna eta hark nahiago izango zukeelako amodio hura ezkutatzeari, gizon duingabe hari ikusten uztea baino, zeinak, emaztea tronparazteaz gain, agian sakrifikatu ere egingo baitzuen, eta soilik urguilu eta harrokeriazko sentimendu batek bultzaturik maite izan baitzuen. Iruditu zitzaion, azkenik, etor zekizkiokeen gaitz guztiak eta paira zitzakeen ezbehar guztiak deus gutxi zirela, Nemoursko jaunari berak maite zuela iku-

sarazi eta hark beste bat maite zuela jakitearen aldean. Pentsakizun batek kontsolatzen zuen, haatik: hura ezagutu ondoren, ez zeukala zertan bere buruari beldurrik izan, eta printze hari izan zion amodio sukarretik guztiz sendatuko zela.

Ez zen oroitu, inondik ere, dofin andereak bere logelara joateko adierazi aginduaz. Ohean etzan eta gaixo iduri egin zuen, eta modu horretan, Clevesko jauna erregerenetik itzuli zenean, loak hartua zela esan zioten. Baina hura aski urrun zegoen loak hartzera garamatzen lasaitasunetik. Bere burua atsekabetzen eta eskuartean zuen gutuna berrirakurtzen eman baitzuen gau guztia.

Gutun hark atsedena eragotzi zion beste norbait ere izan zen, Clevesko andereaz gain. Chartresko bidamoak —berak galdu baitzuen gutuna, eta ez Nemoursko jaunak— izugarrizko larritasuna zuen. Gau guztia Guiseko jaunaren etxean egin zuen, zeinak afari oparoa eskaini baitzien bere ezkon-anaia Ferrarako dukeari eta gorteko jende gazteei. Halabeharrak hartara eramanez, gutun politez mintzatu ziren afaritan. Chartresko bidamoak esan zuen bazuela bat berarekin, inoiz

idatzi izan den beste edozein baino are ederra-
goa. Erakustera hertsatu zuten, baina hark uko
egin zion. Nemoursko jaunak adierazi zuen ez
zeukala halakorik, eta harrokeriaz baizik ez zela
mintzo. Bidamoak ihardetsi zion bere zuhurtzia
jartzen zuela lekuko, nahiz halere ez zuen gutu-
na erakutsiko, baina zenbait pasarte irakurriko
zituela hartatik, antzekorik zein gizon gutxik
jasotzen zuen frogatuko zietenak. Orduan, gutun
hura hartu nahi izan zuen, baina ez zuen aurkitu.
Alferrik aritu zen haren bila, eta denek egin zio-
ten agiraka, baina hain urduri zirudien, bet-
betan atertu ziren horri buruz mintzatzetik. Bes-
teek baino goizago utzi zion solasari, eta ezine-
gonez bildu zen etxera, galdua zuen gutun hura
han utzi ote zuen ikustera. Artean ere hura aur-
kitu nahian zebilelarik, erreginaren lehen ganbe-
razainetako bat etorri eta esan zion, Uzesko biz-
kondesari beharrezkoa iruditu zitzaiola lehiaz
ohartaraztea, zeren erreginaren etxean albiste
bat zabaldu baitzen, zioena beraren sakeletik
amodio gutun bat erori zela, pilota jokoan aritu
zen bitartean. Gutun hak zioenaren zati handi
bat kontatua zutela jada, gutun hura ikusteko

jakinmin handia aitortu zuela erreginak, eta zerbitzari gisa zeukan aitoren seme bat igorri zuela haren bila, baina hark erantzun omen zuen Chastelarten eskuetan utzia zuela.

Lehen ganberazainak beste hainbat gauza gehiago ere esan zizkion Chartresko bidamoari, asaldura handi batean hondoratu zutenak. Berehala, etxetik irten, eta Chastelarten adiskide mina zen aitoren seme baten etxera joan zen. Ezordua izan arren, ohetik jaikiarazi zuen gutun hura eskatzera joan zedin Chartelartengana, baina nork eskatzen zuen eta nork galdu zuen esan gabe. Chastelartek, zeinak buru-bihotzez uste baitzuen gutun hark Nemoursko jaunarena behar zuela izan, eta, halaber, printze hura dofin andereaz maitemindua zegoela, ez zuen zalantzarik egin hura zenik eskatzera bidali zuena. Ihardetsi zion, atsegin maltzur batez, dofin erreginaren eskuetan utzi zuela gutuna. Aitoren semea Chartresko bidamoarengana itzuli zen erantzun hura ematera. Ordurako zeukan urdurtasuna areagotu baizik ez zion egin horrek, eta beste bat erantsi zion, gainera, lehendik zuenari. Egin behar zuenaz deliberatu ezinik luzaz egon

ondoren, iruditu zitzaion Nemoursko jauna zela larrialdi hartatik irteten lagun ziezaiokeen bakarra.

Haren etxera joan eta logelan sartu zen, eguna argitzear zegoen une berean. Printze hura lo nagi ez-tian zegoen. Bezperan Clevesko anderearengan ikusi zuenak burutapen atseginak bai-zik ez zizkion ekarri. Arras harritu zen Chartresko bidamoak esnatu zuela ikusi zuenean, eta galdegin zion ea afaritan esan zionagatik mendeku hartzeko asmoz etorri al zitzaion atsedena eragoztera. Bidamoaren begitarteak argi erakutsi zion hara ekarri zuen gaiak ez zuela deus txantxetakorik.

— Nire bizitzako gauzarik garrantzitsuena aitortzera natorkizu —esan zion—. Ongi dakit ez duzula zertan niri eskerrak errendaturik, zeren zure laguntzaren premia dudan une batean egi-ten baitut, baina ongi ere dakit zure estimua galduko nukeela, baldin eta kontatzera noakizuna, premiak horretara bortxatu gabe jakinaraziko banizu. Bart arratsean aipaturiko gutun hura, agi denez, erori egin zait. Niretzat egundoko munta du niri zuzendua denik inork ez jakitea. Pilota

jokoan zeuden askok ikusi bide zuten, han erori baitzitzaidan. Zerori ere hantxe zinen, eta arren eskatzen dizut, otoi, zerorrek galdua dela esateko ontasuna izan dezazula.

— Ziur egon behar duzu nik ez dudala maitalerik batere —ekin zion Nemoursko jaunak, irribarrez— halako proposamen bat egiteko, eta halako gutun bat jasotzen dudala sinestaraziz gaitzi dezakedan inor ez dagoela uste izateko.

— Zinez erregutzen dizut —esan zuen bida-moak—. Entzun iezadazu arretaz: maitaleren bat baldin baduzu, eta ez dut zalantzarik egiten horretaz, nahiz ez dakidan nor den bera, erraza izango zaizu zuribideren bat bilatzea. Horretarako bitarteko seguruak emango dizkizut. Haren aurrean zuritzerik ez bazenu ere, une batzuetako gaitzialdia baizik ez duzu izango, okerreanean ere. Baina nik, abentura horren ondorioz, sutsuki maitatu nauen eta niretzat munduko emakumerik estimagarrienetakoa den pertsona bat desohoratuko dut, eta bestetik, nire fortuna eta menturaz zerbait gehiago ere galaraziko didan ezin baretuzko gorrotoa eragingo dut.

— Ez dezaket uler esaten didazun deus —
ihardetsi zion Nemoursko jaunak—, baina horren
bidez iradokitzen ari zara printzesa handi batek
omen zizun interesari buruz zabaldu diren esa-
mesak ez direla guztiz faltsuak.

— Izan, ez dira faltsuak —erantzun zuen
Chartresko bidamoak—, baina Jainkoari nahi
dakiola izan balitez, hala izanez gero ni ez bai-
nintzateke aurkituko orain nagoen ataka hone-
tan. Baina beharrezkoa da gertatutako guztia
konta diezazudan, beldurrez eta goganbehartu-
rik naukan guztia ikus dezazun.

«Gortean naizenez gero, adeitasun eta txera
handiz jokatu da nirekin erregina, eta gogoko
nintzaiola sinesteko motiborik ere izan dut. Ala-
baina, ez zegoen deus berezirik bion artean, eta
begirunezkoetatik at, ez dut beste sentimendu-
rik irrikatu. Arrunt maitemindurik nengoen The-
minesko andereaz. Hura ikusiz aise konpreni lite-
ke nolako maitasun handia izan diezaiokegun
hark maitatuz gero, eta hark, benetan maite nin-
duen. Duela bi urte inguru, gortea Fontaine-
bleaun zegoelarik, bizpahiru alditan izan nuen
erreginarekin hitz egiteko parada, oso jende

gutxi zegoen orduetan. Iruditu zitzaidan gogoko zuela nire izakera, eta bat zetorrela nik esandako guztiarekin. Halako egun batez, konfiantzari buruz hasi ginen solasean. Esan nion sekula ez nuela inorengan ninerik guztiz jarri, egunero damutzen zitzaigula halakorik inorengan jarri izana, eta inoiz inori esan ez nizkion gauza asko nekizkiela. Erreginak esan zidan are gehiago estimatzen ninduela horregatik, berak ere ez baitzuen aurkitu sekretu bat gordeko liokeenik inor Frantzia osoan, eta horrexek gogaitzen zuela gehien, zeren bere konfiantza inori emateko atsegina ezabatu baitzion; bizitzan ezinbesteko gauza zela hori, alegia, norbait edukitzea hitz egin ahal izateko, eta batik bat, haren mailako pertsonentzat. Ondoko egunetan, elkarrizketagai berari heldu zion berriro sarritan. Gertaturiko zenbait gauza, aski ezagungabeak, azaldu zizkidan. Azkenik iruditu zitzaidan nire isiltasuna nahi zuela segurtatu, eta halaber, bere sekretuak niri aitortzeko irrika zuela. Pentsakizun horrek harengana lotu ninduen, nirekiko begiramen horrek hunkitu egin ninduen eta ohi nuena baino maiztasun handiago batez egin nion gordea.

Arrats batez, errege eta dama guztiak basora zaldiz osteratxo bat egitera joanak zirelarik, nora hark ez baitzuen joan nahi izan apur bat ondoezik zegoelako, aldamenean geratu nintzaion. Urmaelaren ondora jaitsi zenean, alde bat utzi zuen bere ezkutarien babesa, askeago ibiltzeko. Zenbait itzuli egin eta gero, nigana hurbildu eta jarraikitzeke agindu zidan.

»Zurekin mintzatu nahi dut —esan zidan—. Ikusiko duzu, esango dizudanagatik, zure adiskide nauzula».

«Hitz horiek esan ondoren gelditu egin zen, eta begiak nigan iltzaturik:

»Maitemindurik zaude —jarraitu zuen—, eta menturaz uste duzu, inori halakorik fidatu ez diozunez, zure amodioa ez dela ezaguna; ordea, gauza ezaguna da, eta are horretan parterik duten pertsonak ere ezagutzen dute. Beha dagozkizu, badakite zein lekutan elkartzen zaren zure maitearekin, eta hantxe ustekabean atze-man nahi zaituzte. Ez dakit nor den, ez dizut galdetu ere egin nahi, baina behinik behin, gainera eror dakizukeen zorigaitzetik begiratu nahi zintuzket».

»Ikus ezazu, otoi, nolako segada hedatu zidan erreginak, eta zein zaila zen horretan ez erortzea. Nola ez baitzidan galdetzen nor maite nuen, eta niri mesede bat egiteko asmoa baizik agertzen ez zuenez, ezinezkoa zitzaidan jakitea jakinminez ala beste xede batez hitz egiten ari zitzaidan.

»Nolanahi izanik ere, itxura orori gogor eginenez, argitu nuen zertan zen egia. Theminesko andereaz maitemindurik nengoen, baina hark ere maite ninduen arren, ez nuen, haatik, guretzako leku kuttunen bat edukitzeko zorionik, ez eta, beraz, ustekabeen harrapatzeko beldurrik ere. Horrela, bada, argi ikusi nuen leku hura ezin zitekeela izan erreginak aipatu nahi zuena. Egia zen, bestetik, Theminesko anderea bezain ederra eta zorrotza ez zen beste emakume batekin ere banuela amodiozko hartu-emanen bat, eta litekeena zela nik hura ikusten nuen lekua aurkitu izana, baina hari ardura gehiegi ez nionez, erraza izan nuen arrisku orotatik salbu jartzea, hura ikusteari utziz. Halatan, erreginari deus ez aitortzeko deliberoa hartu nuen, eta bestetik, segurtatu nahi nion aspaldi etsi nuela emaku-

mEEK nigana senti lezaketen amodiorik desio izatera, zeren gizon zintzo batekin uztartzeko duingabetzat baineuzkan gehientsuenak, eta ez baitzegoen haien gainetik beste inor ere halako konpromisoa hartzera bultza nintzakeenik.

«Ez didazu zintzoki ihardesten —ekin zion erreginak—; ziur nago gauzak ez direla zuk esan bezala. Zuri hitz egiteko dudan moduak ezertxo ere ez ezkutatzera behartu behar zintuzke. Laguna zaitudalakoan nago —jarraitu zuen—, baina ez nuke nahi, kidetasun maila hori eman ez, zure atxikimenduak zeintzuk diren jakin gabe geratu. Zerorrek ikus ezazu eskatzen dizudan prezio hori ordaindu nahi duzun. Bi egun emango dizkizut horretan pentsa dezazun, baina denbora hori iraganik, kontuan izan esango didazuna, eta oroit zaitez, baldin tronparazi egin nauzula jakiten badut aurrerago, ez dizudala nire bizitza guztian barkatuko».

»Hitz horiek esan ondoren utzi egin ninduen erreginak, erantzun nezan itxaron gabe. Pentsa dezakezun bezala, esan berria zidan hura iltzaturik geratu zitzaidan gogoan. Horretan pentsatzeko eman zizkidan bi egun haiek ez zitzaizkidan

inondik ere luzeegiak iruditu erabaki bat hartzeko. Argi nekusan maitemindurik al nengoen jakin nahi zuela berak, eta bai eta ere, nahiago zuela egongo ez banintz. Hartzera nindoan erabakia- ren ondorioak eta segidak ezagunak nituen. Iza- keraz ere arrunt maitagarria zen erregina bate- kin halako lotura bat izateak hanpatu egin zuen nire harrotasuna, eta ez gutxi gainera. Bestalde, Theminesko anderea maite nuen, eta aipatu dizudan beste emakume horrekin nolabait ere desleial nintzaion arren, ezin delibera nintekeen berarekikoak haustera. Garbi ikusten nuen ere, Erreginari iruzur eginez zein arriskutan nengoen, eta zein zaila zen hari iruzur egitea. Hala eta guztiz ere, ezinezkoa gertatu zitzaidan fortunak eskainitakoari uko egitea, eta nire jokaera gaiz- toak ekar ziezadakeenaren mende geratu nin- zen. Beraz, emakume harekiko hartu-emanak hautsi —ezagutzera irits baitzitezkeen—, eta Theminesko anderearekin nituenak ezkutuan gorde ahal izatea iguriki nuen.

»Erreginak, eman zizkidan bi egun horien buruan dama guztiak zirkuluan zeuden gelara

sartu nintzanean, ahots goran eta harritu egin ninduen doinu astun batez zera esan zidan:

«Pentsatu al duzu fidatu nizun kontu horretan, zeinaren egia zertan den bai baitakizu?»

«Bai, Madame —ihardetsi nion—. Berorren Maiestateari esana diodan bezala da».

«Zatoz berriro gaur arratsean, idazten ari-tzen naizen orduan —ekin zion berriz—, eta nire aginduak ematez amaituko dut».

»Apaltasunez gur egin nion, deus ihardetsi gabe, eta hark adierazi orduan azaldu nintzen berriro, hutsik gabe. Bere idazkariarekin eta andere-lagun batekin aurkitu nuen galerian. Ikusi ninduen orduko, nigana hurbildu, eta galeriaren beste muturreraino eramán ninduen.

«Eta? —esan zidan berak—, horretan ongi-ongi pentsatu eta gero, ez al duzu ezer niri esateko? Eta zurekiko izan dudán jokatzeko moduak, ez al du merezi zintzoki mintza zakizkidan?»

«Hain zuzen ere, zintzoki mintzo natzaiolako, Madame —erantzun nion—, ez dut ezertxo ere berorri kontatzeko, eta zin dagoit Berorren Maiestateari, zor diodan begirune guztiaz, ezen

ez dudala inolako atxikimendurik gorteko ezin emakumerekin».

«Sinetsi egin nahi nuke —gaineratu zuen erreginak— zeren hala izatea desio baitut, eta desio ere, guztiz niri atxikirik egon zaitezela desio dudalako, eta zure adiskidetasunak, baldin maitemindurik bazina, ezingo nindukeelako bozkarioz bete. Izan ere, ezin gaitezke maiteminduengan fida. Ezin diezaiekegu sekreturik aitor. Axolagabetuegi eta gogoa barreiatu ibili ohi dira, beren maitalea dutelarik ardura bakar, eta hori ez zaio ongi lotzen, inondik ere, zu nigana atxikia egotea nahiko nukeen moduari. Oroit zaitez ezen, zu aukeratu baldin bazaitut nire konfiantza osoa zutan jartzeko, inolako atxikimendurik ez duzula zin egin didazulako dela. Oroit zaitez zurea ere oso-osorik nahi dudala, baina aldi berean, ez dudala nahi lagunik izan dezazun, ez gizonezkorik eta ez emakumezkorik ere, atsegin zaizkidan haiezaz landa, eta orobat nahiko nukeela, niri poz ematea ez den beste ardura oro abandona dezazun. Ez dizut galaraziko zure fortunarekiko ardura izan dezazunik, zerorrek baino are arta handiagoz zainduko baitut nero-

nek, eta zure alde zernahi egiten dudala ere, ongi saritua ikusiko nuke neure burua, baldin igurikitzen dudan bezala jokatzeko bazara nirekin. Nire atsekabe guztiak zuri aitortu eta horiek gozatzeko lagun diezadazun hautatu zaitut. Zerorrek juzka dezakezu ez direla nolana hikoak. Itxuraz, atsekabe handirik gabe pairatzen dut erregek Valentinoisko dukesari dion atxikimendua, baina jasanezina zait. Andere horrek bere mendean dauka errege, iruzur egiten dio, mesprezu egiten dio, eta nire zerbitzari guztiak harekin bat eginik daude. Erreginak, nire amaginarrebak, haren edertasunaz eta osaba-izeben omenaz harro, ez du nirekiko eginbiderik betetzen. Montmorencyko kondestablea, berriz, erregeren eta erresuma osoaren jabe da. Gorroto dit, eta bere gorrotoaren agerpideak eman dizkit, ezin ahantz ditzakedanak. Saint-Andre mariskal gaztea begikoa eta ausarta da, eta ez da besteek baino hobeki jokatzeko nirekikoetan. Nire zorigaitzen xehetasunek errukia sortaraziko lizukete. Oraindano ez naiz ausartu nire fidantzia inorengan ezartzera, baina orain zuzan ezartzen dudalarik,

ez nazazula, otoi, hori egin izanaz damuarazi, eta izan zaitez nire kontsolagarri».

»Erreginaren begiak gorritu egin ziren hitz horiek amaitzean. Haren oinetara makurtzea pentsatu nuen, hain barnetik hunkitu ninduen aitortzen zidan ontasunak. Egun hartaz geroztik, erabateko fidantzia izan zuen nigan. Ez zuen deus egin aurrez nirekin hitz egin gabe, eta egun oraindik ere badirauen lotura gorde diot harrezkero.

HIRUGARREN ZATIA

»Nolanahi ere, erreginarekiko lotura berri horrek nire gogo asetzen eta betetzen bazuen ere, berezko isuri ezin garaituzko bat sentitzen nuen Theminesko anderearen aldera. Iruditu zitzaidan hark ni maitatzeari utzi ziola, eta zuhurra izan banintz, harengan igar zitekeen mudantza hura baliatuko nukeen nire bihotzeko mina sendatzeko, baina harenganako nire amodioa bikoiztu besterik ez zen egin, eta hain gaizki nintzen jokatu, erreginak berak ere izan baitzuen atxikimendu hari buruzko ezagutzarik. Haren herrikideek berezkoa dute jeloskortasuna, eta printzesa hark, agian, uste baino sentimendu biziagoak zeuzkakeen nire alde. Baina azkenik, ni maitemindurik nintzelako esamesak hain bizi-ki kezkatu eta goibeldu zuen, ezen ehun aldiz baino gehiago uste izan bainuen galdua nintzela haren ondoan. Ordea, jokabide adeitsua erakutsi, begiramenezko hitzak eduki eta gezurrezko zinak eginaren poderioz, azkenik lasaitu nuen, baina ez nukeen luzaz atzipeturik edukiko, bal-

din eta Theminesko anderearen mudantzak ez banindu, nire nahien kontra, harengandik urrundu. Ikusarazi zidan ez ninduela gehiago maite, eta hain konbentzitua nintzen horretaz, beharturik sentitu bainintzen hura gehiago ez oinazetzeraz eta bakean uztera. Zenbait denbora geroago, galdu dudan gutun hori idatzi zidan. Gutun horren bidez jakin nuen hark bazuela arestian aipatu dizudan beste emakume horrekin izandako hartu-emanaren berri, eta halaber, horixe zela haren mudantzaren arrazoia. Harrezkero, nola ez bainuen nire arretak nori eskaini, erregina aski pozik agertu zen nirekin. Baina harengana ditudan sentimenduek ez didatenez eragozten bestelako atxikimendu batzuk ere izan ditza-dan, eta inor ez denez bere borondatez maitemintzen, Martiguesko andereaz zaletu nintzen, zeina lehendik ere sobera maitatu bainuen, dofin erreginaren alaba hori Villemontaisko andereño zen garaian, hain justu. Badut arrazoirik sinesteko ez didala beltzuri handirik. Agertzen diodan zuhurtzia, zeinaren arrazoi guztiak ez baititu ezagutzen, gogokoa du. Erreginak ez du inolako susmorik gai horri buruzkoan, baina badu beste

bat, ez hargatik gutxiago gogaikarria. Martiguesko anderea dofin anderearen etxean egoten denez beti, ohi baino askozaz ere maizago joaten naiz hara. Erregina, printzesa horretaz maitemindu naizelakoan dago. Dofin anderearen mailak —erreginaren maila bera baitu hark ere—, eta beraren aldean daukan edertasun eta gatzetasunak, halako jeloskortasuna diote sortu, ez baitezake ezkuta bere errainaren aurkako amorruek eta gorroto hori. Lorraineko kardinalak, zeinak, ene iduriz, aspaldidanik irrikatzen baititu erreginaren graziak eta ongi ikusten baitu berak bete nahiko lukeen leku bat betetzen ari naizela ni, erregina eta dofin anderea adiskidetzeko estakuruaz baliaturik, elkarren artean izan dituzten ika-miketari parte hartu du. Ez dut zalantzarik egiten erreginaren saminaren benetako zioa zein den ezagutu duela hark, eta uste dut era guztietako zorigaitzak opa dizkidala, hori egiteko asmorik duenik inori agertu gabe. Eta horretan txede gaude gauzak, mintzo natzaizun garai honetan. Zerorrek juzka ezazu nolako ondorioa ekar lezakeen galdu dudan gutun horrek, zeina, nire zorigaitzerako, sakelean sartu baitut, Themines-

ko andereari itzultzeko. Erreginak gutun hau ikusten baldin badu, iruzur egin diodala jakingo du, eta halaber, berari Theminesko anderearekin iruzur egiten nionarekin batera, Theminesko andereari ere iruzur egiten niola beste batekin. Zerorrek juzka ezazu zer burutapen ekar diezaiokeen horrek niri dagokidanean, eta jada ba al duen nire hitzetan inoiz fidatzerik. Ez badu gutun hau ikusten, aldiz, zer esango diot? Badaki dofin anderearen eskuetan utzia dutela. Uste izango du Chastelartek dofin erreginaren idazkera eza-gutu duela eta gutuna harena dela; irudituko zaio jeloskortasun hori eragin duen pertsona agian bera datekeela. Azken batean, badu zer pentsaturik aski, eta nik ere badut pentsakizun horietatik zertaz goganbehartua. Guztiarekin ere, kontuan izan Martiguesko andereak zeharo hunkiturik naukala une honetan, eta dofin andereak, ziurrenik, orain berriki idatzia uste duen gutun hori hari erakutsiko diola. Beraz, berdin gaitzituko zaizkit bai munduan gehien maite dudan pertsona, eta bai munduan begirune gehien zor diodan pertsona ere. Zerorrek ikus, horren ondotik, ea ez al dudan arrazoirik gutun

hori zeurea dela esan dezazun erregutzeko, eta dofin anderearen eskuetatik kentzera joan zaitezzen eskatzeko, arren.»

— Argi dakusat —esan zuen Nemoursko jaunak—, ez dagoela egoterik zu zaudena baino estuasun handiagoan, eta aitortu beharra dago ongi ere merezi duzula. Salatu izan didate maitale desleiala naizela eta amodio asko izan ditudala aldi berean, baina halako abantaila hartu didazu, ez bainintzateke ausartuko zuk abiarazi dituzun gauza horiek burutan hartzera. Nola otu dakizuke Theminesko anderea zuri atxikirik edukitzea, erreginari hitz emana zinelarik? Agian uste al zenuen, erreginari hitz eman eta iruzur egin zeniezaiokeela? Italiarra da, erregina gainera, eta beraz, susmoz, jelsiaz eta urguiluz betea. Eduki duzun asturu onak, zure jokabide zintzoak bainoago, estutzen zintuzten loturetatik askatu zaituelarik, beste batzuk jo dituzu begiz, eta uste izan duzu ezen, gortearen erdi-erdian egonagatik ere, Martiguesko anderea maita zenezakeela, erregina horretaz ohartu gabe. Lehen urratsak egin izanaren lotsa ezabatuko dion arretarik jada ezin diezaiokezu sobera era-

kutsi. Amodio suharra dizu erreginak, zure zuhurtziak niri kontatzea debekatu dizu, eta nireak, zuri galdetzea. Baina finean, maite zaitu, mesfidantza dizun arren, eta egia ez duzu zure alde.

— Zuri al dagokizu ni horrenbeste gaitzespe-
nez nekaraztea? —eten zion bidamoak—. Eta
zerorrek bizi izan duzunak ez al dizu nire akatsak
barkatzeko motiborik ematen? Aitortzen dut,
halere, errua nirea dela, baina saia zaitez, otoi,
nagoen amildegi honetatik ni ateratzen. Irudi-
tzen zait on litzatekeela baldin dofin erregina-
rengana joango bazina berriro, hura esnatu
bezain laster, gutun hori berriro eskatzera, zero-
rrek galdu izan bazenu bezala.

— Lehenago ere esana dizut —berrekin zion
Nemoursko jaunak— egin didazun proposamen
hori ez-ohikoa dela hein batean, eta nik ditudan
nahiek zailtasunak sor diezazkidaketela horre-
tan, baina are gehiago, baldin gutun hori zure
sakeletik erortzen ikusi badute, zail iruditzen zait
niretik erori denik sinestaraztea.

— Uste nuen esana nizula —erantzun zuen bidamoak— gutun hori zerorrenetik eroria bailitzan azaldu diotela dofin erreginari.

— Nola! —eten zuen supituan Nemoursko jaunak, orduantxe jabetu baitzen gaizkiulertu hark nolako ondorio txarrak ekar liezaizkiokeen Clevesko andereari buruzkoan—. Dofin erreginari esan al diote ni izan naizela gutun hori erori zaiona?

— Bai —ihardetsi zion bidamoak—, halaxe esan diote, bai. Zure eta nire zerbitzariak bion jantziak zeuden pilotalekuko aretora horien bila igorri genituenean, erreginen zerbitzuko hainbat gortegizon hantxe zeuden, eta horrek eragin du, hain zuzen, gaizkiulertu hori. Gutun hori erori den orduko, gortegizonek lurretik jaso eta ahots goran irakurri dute. Batzuek uste izan dute zurea zela, eta besteek nirea. Chastelartek esan dit, arestian berari eskatu diodanean —berak hartu baitzuen—, dofin erreginari eman diola zurea balitz bezala, baina bestetik, erreginarekin horretaz mintzatu direnek, nirea dela esan dute, tamalez. Hala, bada, aise egin ahal izango duzu

nik desio dudana, eta nagoen larrialdi honetatik atera ahal izango nauzu.

Nemoursko jaunak betidanik biziki maite izan zuen Chartresko bidamoa, eta Clevesko anderearekin zuen ahaidetasunagatik, are maitagarriagoa zitzaion. Haatik, ezin zitekeen delibera halako arriskurik hartzera, zeren Clevesko andereak, gutun hura entzutean, hartan parte leuka-keen gauza balitz bezala hartuko bailuke. Gogoeta sakonean murgildu zen, beraz, eta bidamok, gogoeta horren gaia igarriz edo:

— Argi ikusten dut —esan zion— zure maiteñoa eta biok liskartuko zareten beldur zarela, eta are izango nuke motiborik sinesteko dofin erregina bera dela zure maiteño hori, baldin eta Anvilleko jaunari diozun bekaizgo urriak ez balit pentsakizun hori ezabatuko. Baina, nolana ere den, bidezkoa da ez dezazula zure atsedena nirearen kariatara sakrifika, eta bitartekoak eskaini nahi dizkizut zure maiteñoari gutun hori niri zuzendua dela, eta ez zuri, froga diezaiozun. Hona hemen Amboiseko anderearen eskutitz hau; Theminesko anderearen adiskidea da bera, eta berari fidatzen dizkio nigana dituen senti-

mendu guztiak. Eskutitz horretan, Theminesko andereak idatzi eta nik galdu dudan gutun hori eskatzen dit. Nire izena ageri da eskutitzean, eta hor idatzirik dagoenak inolako zalantzarik gabe frogatzen du eskatzen didan gutun hori eta aurkitutakoa bera direla. Zeure eskuartearen jartzen dut eskutitz hori, eta baimena ematen dizut zure maiteñoari ere erakusteko, zeure burua zuritu dezazun. Lehiatzen eskatzen dizut ez dezazula unetxo bat ere gal, eta gaur goizean bertan joan zaitzela dofin anderearen etxera.

Nemoursko jaunak halaxe agindu zion Char-tresko bidamoari, eta Amboiseko anderearen eskutitza hartu zuen. Alabaina, haren xedea ez zen dofin erregina ikustea, bazuelako zerbait lehenago egin beharrekoa. Dudarik gabe uste zuen Clevesko anderearekin mintzatua izango zela ordurako gutun hartaz, eta eramanezina zitzaion, bihotz-bihotzetik maitatzen zuen pertsona hark motiborik edukitzea berak besteren bat maite zuela sinesteko.

Clevesko anderearen etxera joan zen, beraz, esna egon zitekeela uste zuen ordu batean, eta esan zion ez liokeela bera ikusteko ohore hura

halako ezordutan eskatuko, baldin eta munta handiko gai batek ez balu hartara hertsatu. Clevesko anderea ohean zen oraindik, gauean izandako pentsakizun tristeek artean ere gogoan mingosten eta aztoratzen ziotelarik. Guztiz harritu zen Nemoursko jaunak beraren galde egiten zuela esan ziotenean. Asaldura hark, ordea, ez zuen durduzarazi, eta deblauki ihardetsi zuen gaixo zegoela, eta ezin zitekeela berarekin mintza.

Ezezko horrek ez zuen printzea samindu. Clevesko anderea jelosturik egon zitekeen une hartan hoztasun agerbide bat edukitzea ez zen aieru txarra. Clevesko jaunaren logelara joan zen, eta emaztearenetik zetorrela esan zion hari, eta arrunt atsekabetua zegoela harekin hitz egi-terik izan ez zuelako, zeren Chartresko bidamo-arentzat oso garrantzitsua zen gai bati buruz hitz egin nahi izan baitzion. Hitz bitan adierazi zion Clevesko jaunari zeintzuk ziren gai haren ondorioak, eta Clevesko jaunak berehala eraman zuen emaztearen logelaraino. Ilunbean egon ez balitz, Clevesko andereak nekez ezkutatu ahal izango zuen bere asaldura eta harridura,

Nemoursko jauna gelara sartzen ikusi zuenean, beraren senarrak gidaturik. Clevesko jaunak azaldu zion gutun bati buruz hitz egin nahi ziotela, beharrezkoa zutela beraren laguntza bidamoren interesak defendatzearen, Nemoursko jaunak eta biok ikusiko zutela zer egin zitekeen, baina bera, bere aldetik, erregeren etxera zihola, bila etorri baitzitzaizkion.

Hortaz, Nemoursko jauna bakarrik geratu zen Clevesko anderearen aldamenean, desio zuen bezala.

— Galdetzera natorkizu, Madame —esan zion—, ea dofin andereak ez al dizun deus esan Chastelartek atzo haren eskuetan utzi zuen gutun bati buruz.

— Zer edo zer esan dit, bai —erantzun zuen Clevesko andereak—, baina ez dakit gutun horrek zer duen ikusteko nire osabaren interese-kin, eta ziur esan diezazuket han ez dela haren aipamenik egiten.

— Egia da, Madame —ekin zion Nemoursko jaunak berriro— han ez dela haren aipamenik egiten. Halere, hari zuzendua dago, eta garran-

tzi handikoa da gutun hori dofin anderearen eskuetatik ken dezazun.

— Zaila zait ulertzea —erantzun zuen Clevesko andereak— zergatik ardura zaion gutun hori inork ikustea, eta zergatik eskatu beharra dagoen haren izenean.

— Baldin niri entzuteko nekerik hartu nahi baduzu, Madame —esan zuen Nemoursko jaunak—, berehala agertuko dizut egia, eta bidamo jaunarentzat hain munta handiko gauzak jakingo dituzu, ezen ez bainizkioke Clevesko printze jaunari berari ere fidatuko, baldin haren laguntza-
ren beharrik ez banu zu ikusteko ohorea izan nezan.

— Nago, ezer esateko nekerik hartuagatik ere, alferrikakoa izango zaidala oro —ihardetsi zuen Clevesko andereak, mintzaera aski lehor batez—, eta hobe zenuke dofin erreginaren bila joango bazina, eta, itzulinguruka ibili gabe, zuzenean azalduko bazenio gutun horrekiko duzun interesa, zeren esan baitiote zerori zarela gutun horren jatorria.

Clevesko anderearen gogoan zekusan sumindura hark inoiz sentituriko atseginik nabarmene-

na eragin zion Nemoursko jaunari, eta gai hura zuritzeko zeukan larritasunaz dudarazi zion.

— Ez dakit, Madame —ekin zion— zer esan ahal izan dioten dofin andereari, baina nik ez dut ezein interesik gutun horretan, zeren bidamo jaunari zuzendua baitago.

— Sinesten dizut —ihardetsi zion Clevesko andereak—, baina kontrakoa esan diote dofin erreginari, eta hari ez zaio egiantzekoa irudituko bidamo jaunaren gutunak zure sakeletik erortzea. Horrexegatik, non eta ez duzun nik ez daki-dan arrazoiren bat dofin erreginari egia ezkutatzeke, gomendatzen dizut hari aitor diezaiozula.

— Hari ez diot deus aitortu beharrik —iharduki zion—. Gutun hori ez da niri zuzendua, eta hori sinestarazi nahi diodanik inor baldin badago, hori ez da dofin anderea. Baina, guztiarekin ere, Madame, honetan guztian bidamo jaunaren etorkizuna jokoan dagoenez, onets ezazu, arren, are zure jakinminarentzat duinak diren zenbait gauza ezagutzera ematen badizkizut.

Clevesko andereak, bere isiltasun hartan, argi erakutsi zuen entzuteko prest zegoela, eta Nemoursko jaunak azaldu zion, ahal izan zuen

laburren, bidamoaz jakin berri zuen guztia. Gauza horiek guztiak benetan harrigarriak eta arretaz entzutekoak izan arren, Clevesko andereak hain soraioki zituen aditu, bazirudien ez zituela egiazkotzat hartzen, edo ez zitzaizkiola axola. Haren gogoak halaxe iraun zuen, harik eta Nemoursko jaunak, esan berri zuen guztiaren egiaztagarri, Amboiseko andereak Chartresko bidamoari idatziriko eskutitza aipatu zion arte. Clevesko andereak bazekienez andere hura Theminisko anderearen adiskide zela, egiantz izpi bat igarri zuen Nemoursko jaunak esandakoan, eta horrek pentsarazi zion gutun hura agian ez zegoela hari zuzendua. Pentsakizun horrek bat-batean uxatu zion, bere borondatearen aurka, ordu arte agertu zuen soraiotasuna. Printze hark, bere buruaren zurigarri zen eskutitz hura irakurri ondoren, Clevesko andereari eskaini zion irakur zezan, eta bide batez esan zion, aztertuz gero, idazkera hura norena zen ezagut zezakeela. Clevesko andereak ezin ziezaiokeen ukorik egin, eta gutun hura harturik, burualdea aztertu zuen Chartresko bidamoari zuzendua al zen ikusteko, eta oso-osorik irakurri zuen, eskatzen zioten

gutuna eta eskuartean zuena berak al ziren jakiteko. Nemoursko jaunak, gainera, horretaz konbentzitzeko egoki iruditu zitzaion guztia adierazion, eta nola egia atsegin batek aise konbentzitzen baikaitu, Clevesko andereari sinestarazion berak ez zuela zerikusirik gutun harekin.

Hala, bada, Nemoursko jaunarekin batera hasi zen bidamoaren arrisku eta estuasunaz gogoeta egiten, haren jokabide gaiztoa gaitzes-ten, hari laguntzeko bideak bilatzen. Clevesko anderea harriturik geratu zen erreginaren portaerarekin. Nemoursko jaunari aitortu zion berak zeukala gutuna, eta azkenik, Nemoursko jauna errugabea zela uste izan zuen orduko, izpiritu ireki eta lasai batez besarkatu zituen hasieran aditu ere nahi izan ez zituen gauzak. Elkar harturik adostu zuten gutun hura ez zegoela zertan dofin erreginari itzulirik, Martiguesko andereari eman ziezaion beldurrez, izan ere, hark, Martiguesko andereak, ezaguna baitzuen Theminesko anderearen idazkera, eta aise igarriko baitzuen, bidamoarengan zuen interesagatik, hari zuzendua zela. Iruditu zitzaion orobat ez zegoela zertan dofin erreginari fidaturik erreginarekin —

haren amaginarrebarekin— zerikusia zuen oro. Clevesko anderea, gai hura osabarekin loturik zegoelako aitzakiaz, atseginez onartu zuen Nemoursko jaunak fidatzen zizkion sekretu guztiak gordetzea.

Printze hark bidamoaren gurariez hitz egiten segituko zukeen, eta Clevesko anderearekin mintzatzean sentitzen zuen askatasun hark bulztaturik, ordu arte inoiz ez bezalako ausardia batez jokatzera menturatuko zatekeen, baldin eta Clevesko andereari ez balitzaizkio etorri esatera dofin erreginak berarengana joateko mantzen ziola. Nemoursko jauna, beraz, erretiratzera hertsatua izan zen. Bidamoaren bila joan eta hari adierazi zion, bera utzi eta gero, egokiagoa iruditu zitzaiola lehenik beraren iloba Clevesko andrearengana zuzentzea, zuzenean dofin anderearengana joatea baino. Ez zitzaion arrazoirik falta izan berak egindakoa bidamoak ones zezan, eta hartatik emaitza on bat iguriki zezan.

Bien bitartean, Clevesko anderea azkar-azkar jantzi eta dofin erreginaren etxera joan zen. Haren gelan sartu orduko, printzesa hark hurbiltzeko agindu, eta honela esan zion ahapetik:

— Badira bi ordu zure zain naukazula. Inoiz ez naiz egia mozorrotzeko hain larriturik egon nola egon bainaiz gaur goizean. Atzo eman nizun gutun horri buruzko zurrumurruak entzun ditu erreginak. Uste du Chartresko bidamoa dela erortzen utzi duena. Zuk badakizu baduela interesen bat harengan jarria. Gutun hori bilatzeko agindu du, eta Chastelarti ere eskatu dio. Hark esan dio niri emana zidala. Nigana etorri dira eskatzera, erreginari jakinmina piztu dion gutun polit bat zelako aitzakia jarriz. Ez naiz ausartu zuk zenuela esatera. Uste izan dut, baldin zure eskuartean jarri nuela esan banio, berehala imajinatuko zukeela zure osaba bidamoa zatekeela horren kausa, eta haren eta nire artean kidetasun handia zegokeela. Iruditu zait atsekabez pairatzen duela hark niri sarritan bisita egitea, eta horregatik esan diot atzo neramatzan jantzietan zegoela gutuna, baina arropategiko giltzariak jada irtenak zirela. Emaidazu gutun hori oraintxe —gaineratu zuen—, hari bidal diezaiodan, eta nik ere irakur dezadan, hari bidali baino lehen, idazkera ezagutzen al dudan ikusteko.

Clevesko anderea, uste zuena baino are larritasun handiago batean aurkitu zen.

— Ez dakit, Madame, nola egingo duen berorrek —ihardetsi zuen—, zeren Clevesko jaunak, zeinari emana bainion irakur zezan, Nemoursko jaunari itzuli baitio, goizean goiz etorri eta itzultzeko erregutu ondoren. Clevesko jauna laxoki mintzatu da berak zeukala esan dionean, eta halaber, Nemoursko jaunak itzultzeko egin dizkion erreguei amore emateko ahuldadea izan du.

— Inoiz aurkitu naizen estuasunik handienean jarri nauzu —berrekin zion dofin andereak—. Oker egin duzu gutun hori Nemoursko janari itzuliz, neronek eman nizulako, eta zuk ez zenuelako zertan inori errendaturik, nire baime-nik gabe. Zer nahi duzu erreginari esatea? Eta zer pentsa lezake hark? Uste izango du, itxura guztien arabera, nirea dela gutun hori, eta bada-goela zerbait bidamoaren eta bion artean. Ez diogu sekula sinestaraziko gutun hori Nemoursko jaunarena denik.

— Atsekabetua nago oso —erantzun zuen Clevesko andereak— berorri sortu diodan estua-

sunaren kariaz. Argi dakusat zeinen larria den, baina hobena Clevesko jaunarena da, eta ez nirea.

— Zeurea da —iharduki zion dofin ande-reak—, zerorrek eman diozulako gutun hori. Munduan ez dago beste emazterik, dakizkien gauza guztien isilmandatua senarrari egingo diotnik.

— Uste dut oker egin dudala, Madame —apaldu zitzaion Clevesko anderea—, baina saia bedi nire hobena konpontzen, eta ez gaitzesten.

— Oroitzen al zara, gutxi gora-behera, zer dioen gutun horrek? —galdegin zion dofin erreginak.

— Bai, Madame —ihardetsi zuen— oroitzen naiz, behin baino gehiagotan irakurria baitut.

— Hala baldin bada —ekin zion dofin ande-reak—, esku ezagungabe batek hura berridatz dezan lortu behar duzu berehala, eta nik erreginari igorriko diot. Hark ez die erakutsiko lehendik ikusia dutenei, baina hala egingo balu ere, nik beti defendatuko nuke hori dela Chastelartek eman didana, eta hura ez litzateke ausartuko kontrakorik esatera.

Clevesko anderea ados etorri zen egiteko horretan, hainbatenaz gehiago zenbatenaz pentsatzen baitzuen Nemoursko jaunaren bila norbait igorriko zuela benetako gutuna berreskuratzea, hitzez hitz hura kopiarazi eta idazkera ere haren antzera berregin zezaten, eta hartara uste izan zuen segur limurtuko zutela erregina. Etxera joan zen orduko jakinarazi zion senarrari nolako estuasunean zegoen dofin anderea, eta Nemoursko jaunaren bila norbait bidaltzeko eskatu zion. Bila joan eta hura berehala iritsi zen. Clevesko andereak bere senarrari arestian esan zion guztia hari berriro azaldu eta gutuna eskatu zion, baina Nemoursko jaunak ihardetsi zion Chartresko bidamoaren esku utzia zuela ordurako, eta hainbeste poztu zuela hura berreskuratzeak eta iragan arriskutik urrun egoteak, ezen bet-betan bidali baitzion Theminesko anderearen adiskideari. Clevesko anderea estuasun berri baten aurrean aurkitu zen, eta azkenik, ongi hausnartu ondoren, gutuna buruz berregitea erabaki zuten bien artean. Gela barruan giltzapetu ziren lan hori burutzeko. Inor ez zedilar sar manatu eta Nemoursko jaunaren zerbitzariei

joateko esan zieten. Misterio eta isilmandatu giro hark ez zuen nolana hiko lilura sortzen printze harengan, ez eta Clevesko anderearengan berarengan ere. Senarraren presentziak eta Chartresko bidamoaren interesek uxatu egin zitzioten nolabait bere barne-ausikiak. Nemoursko jauna ikustearen atsegina baizik ez zuen sentitzen, eta inoiz sentitu gabeko zorion garbi eta nahasgabe bat zuen barrenean. Poz horrek sekulako gogo-alaitasuna eta askatasuna piztu zion, Nemoursko jaunak inoiz ikusi ez zion bezalako, eta horrek, bikoiztu egin zion Clevesko anderearenganako amodioa printzeari. Nemoursko jaunak ordu arte ez zuenez hain une atseginik sekula bizi izan, areagotu egin zitzaion bere berezko bizitasuna, eta Clevesko andereak gutuna gogoratzen eta hura berridazten hasi nahi izan zuenean, printzeak, hari zinez lagundu behar bidean, beren egiteko hartan geldiuneak eginez gauza dibertigarriak esan besterik ez zuen egiten. Arraitasun horrek berak kutsatu zuen Clevesko anderea, eta hala, biak bakarturik denbora luzea zeramaten, bi aldiz etorri ziren dofin erreginaren partetik Clevesko andereari esatera

presa zedin, artean gutunaren erdia egin gabe zeukatelarik.

Nemoursko jauna oso pozik zegoen hain atseginak zitzaizkion une haiek luzatuz zihoazelako eta ordurako ahantziak zeuzkalako bere lagunaren interesak. Clevesko anderea ere ez zen aspertzen ari, eta berak ere ahantziak zeuzkan osabaren interesak. Azkenik, goizaldeko lauetan doi-doia amaitu zuten gutuna, baina hain zegoen gaizki antolatua, eta kopiarazi zuten idazkera hark hain antza gutxi zuen antzeratu nahi izan zutenarekin, ezinbestekoa baitzen erreginak egia argitzeko inolako ahaleginik ez egitea, benetako egia zein zen jakin ez zezan. Hala bada, ez zuten hura engainatzerik lortu, nahiz eta beren ahal guztiak egin zituzten gutun hura Nemoursko jaunari zuzendua zela sinestartzten. Konbentziturik zegoen, ez bakarrik Chartresko bidamoarena zela, baizik eta dofin erreginak ere bazuela hartan parterik, eta halaber, bazegoela halako kidesasunen bat haien bien artean. Pentsakizun horrek hainbesteraino bizituzion printzesa harenganako gorrotoa, ez baitzion

sekula barkatu, eta Frantziatik kanporarazi arte, atzetik jarraika ibili zitzaion beti.

Chartresko bidamoaz den bezainbatean, hon-damendira eraman zuen erreginak, eta, zela Lorraineko kardinala beraren izpirituaren jabe egin zelako, edo zela gutun haren inguruko abenturak —zeinak ikusarazi baitzion tronpatua izan zela— bidamoaren beste iruzurren berri ere jakiteko bide eman ziolako, egia da harrezkero Chartresko bidamoak ez zuela erreginarekin zintzoki adiskidetzetik izan. Lotura hura hautsi egin zen beraz, eta azkenik, Amboiseko matxinadan betiko galdu zuen erreginak, hartan nahasturik agertu baitzen bidamoa.

Gutuna dofin andereari igorri ondoren, Clevesko jauna eta Nemoursko jauna joan egin ziren. Clevesko anderea bakarrik geratu zen, eta maiteñoaren presentziak eman ohi duen zorion horrek abandonatu orduko, amets batetik bezala itzuli zen lurrera. Harriduraz zekusan nolako aldaketa miragarria gertatu zen bezperako arratsean eduki aldartearen eta orduan zeukanaren artean. Gogora etorri zitzaion nolako garrastasunez eta hoztasunez jokatu zen Nemoursko jau-

narekin Theminesko anderearen gutuna hari zuzendua zela uste izan zuen bitartean, eta halaber, garraztasun hari nolako baretasunak eta eztitasunak jarraiki zioten, gutun hura Nemoursko jaunari ez zegokiola sinetsi bezain laster. Eta pentsatzen zuenean nola gaitzetsi zion bere buruari, are krimen bat balitz bezala, bezperako egunean errukiak berak bakarrik pitz ditzakeen sentiberatasunezko agerbideak Nemoursko jaunari eman izana, eta nola ikusarazi zizkion, ares-tiko garraztasun horrek hartaraturik, harengana-ko maitasunaren benetako froga ziren jelsiazko sentimenduak, ez zuen bere burua ezagutzen. Pentsatzen zuenean, gainera, Nemoursko jaunak bazekiela haren maitasunaz oharturik zegoela bera, eta ezagutza hori izan arren, ez zela hartatik harekin okerrago jokutzen, ez eta bere senarraren aurrean ere, baizik eta, aitzitik, ez ziola lehenago inoiz halako ontasunez begiratu, eta bera zela Clevesko jaunak haren bila norbait bidali izanaren arrazoia, eta orobat, afalostean egonaldi berezi bat igaro zutela elkarrekin, bada, horrekin guztiarekin nolabait ere uste izan zuen bazegoela kidetasunen bat Nemoursko jaunaren

eta beraren artean, baina halaber, munduan iruzurrik egitea gutxien merezi zuen senarrari iruzur egiten ziola, eta ahalketurik zegoela bere maitalearen beraren begietara hain estimu gutxiko gauza bezala agertuz. Baina, gauza horietatik guztietatik jasangaitzena, gaua zein egoeratan igaro zuen oroitzea zen, baina baita ere, Nemoursko jaunak beste batzuk maite zituela eta bera tronpaturik zegoela pentsatzeak eragindako oinaze zorrotza.

Ordu arte ezezagunak izan zitzaizkion mesfidantzaren eta jelsiaren barne-ausiki hilgarriak. Nemoursko jauna maitatzetik nola libra zitekeen besterik ez zuen ibili gogoan, eta hark besteren bat maita zezakeelako beldurrik oraindik ez zuen sentitu. Gutun hark sortu zizkion susmoak ezabatua izanagatik ere, begiak zabalarazi zizkioten tronpatua izan zitekeelako arriskuaz, eta lehenago inoiz izan ez zituen mesfidantza eta jelsiazko sentipenak sorrarazi zizkioten. Harriturik geratu zen artean ez zuelako inoiz ere pentsatu zeinen egiantz gutxiko gauza zen Nemoursko jauna bezalako gizon bat, zeinak betidanik halako arintasuna agertu baitzuen

emakumeekiko, atxikimendu iraunkor eta benetakoa bat edukitzeko gauza izan zitekeela. Iruditu zitzaien kasik ezinezko gauza zela haren amodio grinaz pozik egotea.

— Baina pozik egon nintekeen arren —zioen bere baitarako—, zer egin nahiko nuke? Jasan nahiko nuke halakorik? Errendatu nahiko nioke berari? Lotuko al nuke neure burua halako amodio atxikimendu batekin? Desohoratuko nahiko al dut Clevesko jauna? Nahiko al diot neure buruari ere laido egin? Eta finean, nahiko al dut amodioak dakartzan barne-ausiki krudel eta oinaze mingarrietara menturatu? Neure gogoaren kontra naraman amodio batek guztiz gainditurik eta garaiturik nauka. Hartzen dudan delibramendu oro alferrik da. Atzo pentsatzen nuena gaur ere berdin pentsatzen dut, baina ordea, atzo erabakitakoaren guztiz kontrakoa egin dut gaur. Ezinbestekoa da landara joan nadin, eta baldin Clevesko jauna hori eragozten edo horren arrazoiak jakiten setatzen bada, menturaz min egingo diot, bai eta neure buruari ere, horiek azalduz.

Delibero hura hartu eta etxean geratu zen arratsalde guztian, eta ez zen dofin anderearengana joan bidamoaren gutun faltsu harekin zer gertatu zen jakitera.

Clevesko jauna itzuli zenean, emazteak esan zion landara nahi zuela joan, ondoezik sentitzen zela eta egurasteko premia zuela. Clevesko jaunak, zeinaren begietara hain eder agertu baitzen, ez baitzuen sinesten ahal haren eritasuna larriegia izan zitekeenik; lehendabizian barre egin zuen bidaia hura egiteko proposamenaren gainean, eta ihardetsi zion ahantzia zukeela, noski, printzesen ezteiak eta zaldun-gudua egitekoak zirela, eta ez zitzaiola denbora gehiegi geratzen apaintzeko, gainerako emakumeen handitasun berberaz agertu nahi bazuen haietan. Senarraren arrazoiek ez zioten asmoa aldarazi. Eskatu zion ezen, hura erregerekin batera Compiegnen zen bitartean, onets zezala bera Coulommiersera joatea, Paristik egun beteko bidean zegoen etxe eder bat baitzeukaten han, ardura handiz eraikiarazi zutena. Clevesko jaunak ontzat eman zuen, eta Clevesko anderea hara joan zen, itzulera azkarregirik ez egiteko

asmoz, eta errege Compiègne aldera abiatu zen, non ez baitzen egun batzuk baizik egongo.

Nemoursko jaunak damu handia hartu zuen, zeren eta, itxaropenak berretu zizkion afaloste txoil atsegin hura igaroz geroztik ez baitzuen Clevesko anderea berriro ikusterik izan. Sosegurik uzten ez zion ezinegon batez desiratzen zuen hura berriz ikustea, hainbestearaino ezen, errege Parisa itzuli zenean, bere arreba Mercoeurko dukesaren etxera joatea erabaki baitzuen, hura ere landan baitzegoen Coulommierstik oso hurbil. Bidamoari proposatu zion berarekin batera joan zedila, eta hark gogo onez onartu zuen proposamena. Clevesko anderea ikusteko eta bidamoarekin batera haren etxera joateko itxaropenaz egin zion proposamen hura Nemoursko jaunak.

Mercoeurko andereak amultsuki egin zien harrera, eta haren pentsamendu bakarra, haiek dibertiarazi eta landako plazer guztiak erakustea izan zen. Oreina lasterka ehizatzerantz joan ziren egun batez, basoan galdu zen Nemoursko jauna. Itzultzeko hartu behar zuen bideari buruz galdezkari ari zelarik, Coulommierstik hurbil zela jakin

zuen. Coulommiers hitza aipatu orduko, deuse-
tan pentsatu gabe eta beraren asmoa zein zen
jakin ere gabe, trosta bizian joan zen adierazi
zioten alderantz. Basora iritsi, eta, halabeharrak
gidaturik, arta handiz egindako bideetan barrena
abiatu zen, ustez eta gaztelurantz zuzentzen
zirenak. Bide horien amaieran pabilioi bat aurki-
tu zuen, zeinaren behealdea areto itzel bat bai-
tzen, aldamenen bi gelatxo zeuzkalarik. Gela-
txo batek, ohol-hesi bakar batez bereizirik zego-
en lorategi batera ematen zuen, eta besteak,
berriz, parkeko zumardi luze batera. Pabilioi har-
tara sartu zen, eta haren edertasunari begira
geratuko zatekeen, baldin parkeko zumardi har-
tatik Clevesko jaun-andereak, zerbitzari kopuru
handi batekin batera, etortzen ikusi izan ez bali-
tu. Clevesko jauna han aurkituko zuenik inondik
ere espero ez zuenez, erregeren aldamenen
utzi baitzuen, bere lehen mugimenduak ezku-
tuan jartzera bultzatu zuen. Lorategira ematen
zuen gelatxoan sartu zen, handik baso aldera
irekita zegoen ate batetik irteteko asmoz. Baina
ikusi zuenean Clevesko anderea eta haren sena-
rra pabilioiaren aitzinean esertzen zirela, haien

zerbitzariak parkean geratu zirela, eta zerbitzari haiek ezin zitezkeela berarengana iritsi, non eta Clevesko jaun-andereak zeuden tokitik igarotzen ez ziren, ezinezkoa izan zitzaion printzesa hura ikusteko plazerrari uko egitea eta senarrarekin zuen elkarrizketa entzuteko jakinminari gogor egitea, zeren bere aurkarietarik beste edonork baino jelsia handiagoa sortzen baitzion hark.

Eta hala entzun zuen nola esaten zion Clevesko jaunak bere emazteari:

— Baina zergatik ez duzu Parisa itzuli nahi? Nork atxiki zaitzake landan? Aspaldian gogoko duzu bakardadea, halako eran, ezen harriturik eta atsekabeturik bainauka, elkarrengandik urruntzen gaituelako. Are ohi baino goibelago zaitut ikusten, eta beldur naiz nahigabeturik egoteko arrazoiren bat izan dezazun.

— Ezerk ez du nire arima asaldatzen —erantzun zuen doi bat aztoraturik—, baina gorteko zalaparta hain da handia, hainbeste jende izan ohi da zure etxean, ezinezkoa baita nire gorputza eta nire arima ez gogaitzea eta atsedean bila ez abiatzea.

— Atsedena —iharduki zion— ez dagokio zure adineko pertsona bati. Deusek neka ez zaitza-keen egoera batean zara, bai etxean eta bai gor-tean ere, eta gehiago beldurtzen nau nigandik urrun ez ote zaren gustorago sentitzen.

— Bidegabe handia egingo zenidake baldin halako pentsakizuna bazenu —ekin zion, geroz eta larriagoa zen asaldura batez—, baina otoi eskatzen dizut hementxe utz nazazula. Zu ere hemen gelditzeak arras poztuko ninduke, baldin nirekin bakarrik geratuko bazina eta zugandik ia inoiz urruntzen ez den jende saldo amaigabe horri begitarterik ez egiteko ontasuna bazenu.

— Ene Madame! —egin zuen oihu Clevesko jaunak—, zure doinu eta hitzetan igar dezaket baduzula ezezaguna zaidan arrazoiren bat baka-rrik egotea desiratzeko. Zein den azal diezada-zula galdatzen dizut.

Luzaz premia zuen arrazoi haiek azal zie-zazkion, nahiz ez zuen hartara behartzerik lortu, eta senarraren jakinmina biziagotzen zuen modu batean defendatu ondoren, isiltasun sakon batean geratu zen, begiak behera apaldurik, eta

gero, supituan, hizketan hasi eta hari beha jarri-rik:

— Ez nazazu behartu —esan zion— aitortze-ko indarrik ez dudan gauza bat aitortzera, nahiz sarri izan dudan hori egiteko asmoa. Soilik pen-tsa ezazu zuhurtziak ez duela nahi nire adineko emakume bat, bere jokabidearen jabe dena, gor-tearen erdian egon dadin.

— Zer pentsarazi nahi didazu, Madame? —egin zuen oihu Clevesko jaunak—. Ez nintzateke halakorik esatera ausartuko zu iraintzeko beldu-rruz.

Clevesko andereak ez zuen deus ihardetsi, eta isiltasun hark bete-betean baieztatu zion senarrari orduantxe pentsatu berri zuena:

— Ez didazu deus esaten —muzindu zitzaion—; beraz, horrek esan nahi du ez nabile-la oker.

— Ea, bada, Monsieur —erantzun zion haren belaunetara makurtuz—, inork bere senarrari sekula egin ez dion aitortza egingo dizut, zeren nire jokabidearen eta nire sentimenduen garbi-tasunak horretarako kemena ematen baitit. Egia da badudala arrazoirik gortetik urrun egoteko,

eta nire adineko pertsonak zenbaitetan aurki ditzaketen arriskuak nahi ditudala saihestu. Inoiz ez dut nire ahuleziaren frogarik erakutsi, eta ez nintzateke beldurrez egongo halakorik erakusteko, baldin gortetik erretiratzeko askatasuna emango bazenit, edo Chartresko anderea nire aldamenen edukiko banu oraindik, portaera egokia eramaten laguntzeko. Hartzen dudak deliberoa denik eta arriskutsuena izan arren, pozik dut hartzen, zure duin izaten jarrai dezake- dalako. Mila barkamen eskatzen dizkizut baldin desplazatzen zaizkizun sentimenduak badituzte, baina nire ekintzek ez zaituzte gaitziaziko bederen. Pentsa ezazu, egin dudana egiteko, beharrezko dela senarrarekiko inork inoiz izan duena baino are adiskidetasun eta estimu gehiago edukitzea. Gida nazazu, erruki zakizkit, eta arren, maite nazazu oraindik, ahal baduzu.

Clevesko jaunak, hizketaldiak iraun zuen bitartean, burua eskuen artean bermaturik eduki zuen, adimendua galdurik, eta ez zitzaion buru- ratu emaztea zuzpertzirik. Solasa amaitu zue- nean, senarrak harengana landatu zituen bere begiak, eta ikusi zuen bere belaunetara makur-

turik zeukala, begitarteamalkoz beterik eta hain edertasun miresgarriz, oinazez hilko zela uste izan baitzuen, eta hura besarkatuz, eta zegoen lekutik altzaraziz:

— Urrikal zaitez zerori ere nitaz, Madame — esan zion senarrak—, ni ere duin bainaiz halakorik merezi izateko. Barka iezadazu baldin eta atsekabe bortitz batek astintzen nauen lehen une hauetan ez badiot ihardesten, egoki litzatekeen eran, zurea bezalako portaera bati. Munduan izan diren emakume guztien artetik zerori zaitut estimu eta miresmenez duinena, baina aldi berean, inoiz izan den gizonik dohakabeena sentitzen naiz. Ikusi zintudan unetik bertatik zugarako maitasuna piztu zenidan. Zure zorrotasunek eta zure jabetza edukitzeak ez dute hura iraungitzerik lortu, eta oraindik ere lehen-goan dirau. Ezin izan dut inoiz zuregan maitasunik ernarazi, eta argi dakusat beste batengana edukitzeko beldurrez zaudela. Nor da, Madame, beldur hori sorrarazi dizun gizon dohatsua? Noizdanik duzu atsegin? Zer egin du hark, zuk gogoko izan dezazun? Zein bide hautatu du zure bihotzera iristeko? Zure bihotza hunkiezina zelakoan

konsolatu nintzen, alde, hura hunkitu ez izanaz. Halere, nik egiterik izan ez dudana erdietsi du besteren batek. Aldi berean sentitzen dut hala senarraren jelsia nola maitalearena, baina ezinezkoa da senar batenik edukitzea zurea bezalako jokabide bat ezagutuz geroztik. Sentimendu hori zintzoegia da zugaran erabateko segurtasuna izan dezadan, eta are zure maitale gisa ere kontsolagarri zait. Nire alde izan duzun fidantziak eta zintzotasunak ez dute preziorik; aitortza horretaz ez naizela baliatuko uste izateko adina estimatzen nauzu. Arrazoi duzu, Madame, ez naiz horretaz baliatuko, eta ez zaitut horregatik gutxiago maitatuko. Emazte batek bere senarrari inoiz eman dion leialtasun frogarik handiena eman ez dohakabe bilakatu nauzu, baina, Madame, buka ezazu eta azal iezadazu nor den saihestu nahi duzun hori.

— Argi dakusat —esan zuen Nemoursko jaunak—, ez dagoela egoterik zu zaudena baino estuasun handiagoan, eta aitortu beharra dago ongi ere merezi duzula. Salatu izan didate maitale desleiala naizela eta amodio asko izan ditudala aldi berean, baina halako abantaila hartu dida-

zu, ez bainintzateke ausartuko zuk abiarazi dituzun gauza horiek burutan hartzera. Nola otu dakizuke Theminesko anderea zuri atxikirik edukitzea, erreginari hitz emana zinelarik? Agian uste al zenuen, erreginari hitz eman eta iruzur egin zeniezaiokeela? Italiarra da, erregina gainerra, eta beraz, susmoz, jelsiaz eta urguiluz betea. Eduki duzun asturu onak, zure jokabide zintzoak bainoago, estutzen zintuzten loturetatik askatu zaituelarik, beste batzuk jo dituzu begiz, eta uste izan duzu ezen, gortearen erdi-erdian egonagatik ere, Martiguesko anderea maita zenezakeela, erregina horretaz ohartu gabe. Lehen urratsak egin izanaren lotsa ezabatuko dion arretarik jada ezin diezaiokezu sobera erakutsi. Amodio suharra dizu erreginak, zure zuhurtziak niri kontatzea debekatu dizu, eta nireak, zuri galdetzea. Baina finean, maite zaitu, mesfidantza dizun arren, eta egia ez duzu zure alde.

— Zuri al dagokizu ni horrenbeste gaitzespe-
nez nekaraztea? —eten zion bidamoak—. Eta
zerorrek bizi izan duzunak ez al dizu nire akatsak
barkatzeko motiborik ematen? Aitortzen dut,

halere, errua nirea dela, baina saia zaitez, otoi, nagoen amildegi honetatik ni ateratzen. Iruditzen zait on litzatekeela baldin dofin erreginaren gana joango bazina berriro, hura esnatu bezain laster, gutun hori berriro eskatzera, zerorrek galdu izan bazenu bezala.

— Lehenago ere esana dizut —berrekin zion Nemoursko jaunak— egin didazun proposamen hori ez-ohikoa dela hein batean, eta nik ditudan nahiek zailtasunak sor diezazkidaketela horretan, baina are gehiago, baldin gutun hori zure sakeletik erortzen ikusi badute, zail iruditzen zait niretik erori denik sinestaraztea.

— Uste nuen esana nizula —erantzun zuen bidamoak— gutun hori zerorrenetik eroria bailitzan azaldu diotelara dofin erreginari.

— Nola! —eten zuen supituan Nemoursko jaunak, orduantxe jabetu baitzen gaizkiulertu hark nolako ondorio txarrak ekar liezaizkiokeen Clevesko andereari buruzkoan—. Dofin erreginari esan al diote ni izan naizela gutun hori erori zaiona?

— Bai —ihardetsi zion bidamoak—, halaxe esan diote, bai. Zure eta nire zerbitzariak bion

jantziak zeuden pilotalekuko aretora horien bila igorri genituenean, erreginen zerbitzuko hainbat gortegizon hantxe zeuden, eta horrek eragin du, hain zuzen, gaizkiulertu hori. Gutun hori erori den orduko, gortegizonek lurretik jaso eta ahots goran irakurri dute. Batzuek uste izan dute zurea zela, eta besteek nirea. Chastelartek esan dit, arestian berari eskatu diodanean —berak hartu baitzuen—, dofin erreginari eman diola zurea balitz bezala, baina bestetik, erreginarekin horretaz mintzatu direnek, nirea dela esan dute, tamalez. Hala, bada, aise egin ahal izango duzu nik desio dudana, eta nagoen larrialdi honetatik atera ahal izango nauzu.

Nemoursko jaunak betidanik biziki maite izan zuen Chartresko bidamoa, eta Clevesko anderearekin zuen ahaidetasunagatik, are maitagarriagoa zitzaion. Haatik, ezin zitekeen delibera halako arriskurik hartzera, zeren Clevesko andereak, gutun hura entzutean, hartan parte leuka-keen gauza balitz bezala hartuko bailuke. Gogoeta sakonean murgildu zen, beraz, eta bidamok, gogoeta horren gaia igarriz edo:

— Argi ikusten dut —esan zion— zure maiteñoa eta biok liskartuko zareten beldur zarela, eta are izango nuke motiborik sinesteko dofin erregina bera dela zure maiteño hori, baldin eta Anvilleko jaunari diozun bekaizgo urriak ez balit pentsakizun hori ezabatuko. Baina, nolana ere den, bidezkoa da ez dezazula zure atsedena nirearen kariatara sakrifika, eta bitartekoak eskaini nahi dizkizut zure maiteñoari gutun hori niri zuzendua dela, eta ez zuri, froga diezaiozun. Hona hemen Amboiseko anderearen eskutitz hau; Theminesko anderearen adiskidea da bera, eta berari fidatzen dizkio nigana dituen sentimendu guztiak. Eskutitz horretan, Theminesko andereak idatzi eta nik galdu dudan gutun hori eskatzen dit. Nire izena ageri da eskutitzean, eta hor idatzirik dagoenak inolako zalantzarik gabe frogatzen du eskatzen didan gutun hori eta aurkitutakoa bera direla. Zeure eskuartearen jartzen dut eskutitz hori, eta baimena ematen dizut zure maiteñoari ere erakusteko, zeure burua zuritu dezazun. Lehiatzen dizut ez dezazula unetxo bat ere gal, eta gaur goizean bertan joan zaitzela dofin anderearen etxera.

Nemoursko jaunak halaxe agindu zion Char-tresko bidamoari, eta Amboiseko anderearen eskutitza hartu zuen. Alabaina, haren xedea ez zen dofin erregina ikustea, bazuelako zerbait lehenago egin beharrekoa. Dudarik gabe uste zuen Clevesko anderearekin mintzatua izango zela ordurako gutun hartaz, eta eramanezina zitzaion, bihotz-bihotzetik maitatzen zuen per-sona hark motiborik edukitzea berak besteren bat maite zuela sinesteko.

Clevesko anderearen etxera joan zen, beraz, esna egon zitekeela uste zuen ordu batean, eta esan zion ez liokeela bera ikusteko ohore hura halako ezordutan eskatuko, baldin eta munta handiko gai batek ez balu hartara hertsatu. Cle-vesko anderea ohean zen oraindik, gauean izan-dako pentsakizun tristeek artean ere gogoa min-gosten eta aztoratzen ziotelarik. Guztiz harritu zen Nemoursko jaunak beraren galde egiten zuela esan ziotenean. Asaldura hark, ordea, ez zuen durduzarazi, eta deblauki ihardetsi zuen gaixo zegoela, eta ezin zitekeela berarekin min-tza.

Ezezko horrek ez zuen printzea samindu. Clevesko anderea jelosturik egon zitekeen une hartan hoztasun agerbide bat edukitzea ez zen aieru txarra. Clevesko jaunaren logelara joan zen, eta emaztearenetik zetorrela esan zion hari, eta arrunt atsekabetua zegoela harekin hitz egi-terik izan ez zuelako, zeren Chartresko bidamo-arentzat oso garrantzitsua zen gai bati buruz hitz egin nahi izan baitzion. Hitz bitan adierazi zion Clevesko jaunari zeintzuk ziren gai haren ondo-rioak, eta Clevesko jaunak berehala eraman zuen emaztearen logelaraino. Ilunbean egon ez balitz, Clevesko andereak nekez ezkutatu ahal izango zuen bere asaldura eta harridura, Nemoursko jauna gelara sartzen ikusi zuenean, beraren senarrak gidaturik. Clevesko jaunak azaldu zion gutun bati buruz hitz egin nahi ziotela, beharrezkoa zutela beraren laguntza bidamo-aren interesak defendatzearren, Nemoursko jau-nak eta biok ikusiko zutela zer egin zitekeen, baina bera, bere aldetik, erregeren etxera zihoa-la, bila etorri baitzitzaizkion.

Hortaz, Nemoursko jauna bakarrik geratu zen Clevesko anderearen aldamenean, desio zuen bezala.

— Galdetzera natorkizu, Madame —esan zion—, ea dofin andereak ez al dizun deus esan Chastelartek atzo haren eskuetan utzi zuen gutun bati buruz.

— Zer edo zer esan dit, bai —erantzun zuen Clevesko andereak—, baina ez dakit gutun horrek zer duen ikusteko nire osabaren interese-kin, eta ziur esan diezazuket han ez dela haren aipamenik egiten.

— Egia da, Madame —ekin zion Nemoursko jaunak berriro— han ez dela haren aipamenik egiten. Halere, hari zuzendua dago, eta garrantzi handikoa da gutun hori dofin anderearen eskuetatik ken dezazun.

— Zaila zait ulertzea —erantzun zuen Clevesko andereak— zergatik ardura zaion gutun hori inork ikustea, eta zergatik eskatu beharra dagoen haren izenean.

— Baldin niri entzuteko nekerik hartu nahi baduzu, Madame —esan zuen Nemoursko jaunak—, berehala agertuko dizut egia, eta bidamo

jaunarentzat hain muntahandiko gauzak jakingo dituzu, ezen ez bainizkioke Clevesko printze jaunari berari ere fidatuko, baldin haren laguntza-
ren beharrik ez banu zu ikusteko ohorea izan nezan.

— Nago, ezer esateko nekerik hartuagatik ere, alferrikakoa izango zaidala oro —ihardetsi zuen Clevesko andereak, mintzaera aski lehor batez—, eta hobe zenuke dofin erreginaren bila joango bazina, eta, itzulinguruka ibili gabe, zuzenean azalduko bazenio gutun horrekiko duzun interesa, zeren esan baitiote zerori zarela gutun horren jatorria.

Clevesko anderearen gogoan zekusan sumindura hark inoiz sentituriko atseginik nabarmene-
na eragin zion Nemoursko jaunari, eta gai hura zuritzeko zeukan larritasunaz dudarazi zion.

— Ez dakit, Madame —ekin zion— zer esan ahal izan dioten dofin andereari, baina nik ez dut ezein interesik gutun horretan, zeren bidamo jaunari zuzendua baitago.

— Sinesten dizut —ihardetsi zion Clevesko andereak—, baina kontrakoa esan diote dofin erreginari, eta hari ez zaio egiantzekoa irudituko

bidamo jaunaren gutunak zure sakeletik erortzea. Horrexegatik, non eta ez duzun nik ez daki-dan arrazoiren bat dofin erreginari egia ezkutatzeke, gomendatzen dizut hari aitor diezaiozula.

— Hari ez diot deus aitortu beharrik —iharduki zion—. Gutun hori ez da niri zuzendua, eta hori sinestarazi nahi diodanik inor baldin badago, hori ez da dofin anderea. Baina, guztiarekin ere, Madame, honetan guztian bidamo jaunaren etorkizuna jokoan dagoenez, onets ezazu, arren, are zure jakinminarentzat duinak diren zenbait gauza ezagutzera ematen badizkizut.

Clevesko andereak, bere isiltasun hartan, argi erakutsi zuen entzuteko prest zegoela, eta Nemoursko jaunak azaldu zion, ahal izan zuen laburren, bidamoaz jakin berri zuen guztia. Gauza horiek guztiak benetan harrigarriak eta arretaz entzutekoak izan arren, Clevesko andereak hain soraioki zituen aditu, bazirudien ez zituela egiazkotzat hartzen, edo ez zitzaizkiola axola. Haren gogoak halaxe iraun zuen, harik eta Nemoursko jaunak, esan berri zuen guztiaren egiaztagarri, Amboiseko andereak Chartresko bidamoari idatziriko eskutitza aipatu zion arte.

Clevesko andereak bazekienez andere hura The- minesko anderearen adiskide zela, egiantz izpi bat igarri zuen Nemoursko jaunak esandakoan, eta horrek pentsarazi zion gutun hura agian ez zegoela hari zuzendua. Pentsakizun horrek bat- batean uxatu zion, bere borondatearen aurka, ordu arte agertu zuen soraiotasuna. Printze hark, bere buruaren zurigarri zen eskutitz hura irakurri ondoren, Clevesko andereari eskaini zion irakur zezan, eta bide batez esan zion, aztertuz gero, idazkera hura norena zen ezagut zezakeela. Cle- vesko andereak ezin ziezaiokeen ukorik egin, eta gutun hura harturik, burualdea aztertu zuen Chartresko bidamoari zuzendua al zen ikusteko, eta oso-osorik irakurri zuen, eskatzen zioten gutuna eta eskuartean zuena berak al ziren jaki- teko. Nemoursko jaunak, gainera, horretaz kon- bentzitzeko egoki iruditu zitzaion guztia adierazi zion, eta nola egia atsegin batek aise konbentzi- tzen baikaitu, Clevesko andereari sinestarazi zion berak ez zuela zerikusirik gutun harekin.

Hala, bada, Nemoursko jaunarekin batera hasi zen bidamoaren arrisku eta estuasunaz gogoeta egiten, haren jokabide gaiztoa gaitzes-

ten, hari laguntzeko bideak bilatzen. Clevesko anderea harriturik geratu zen erreginareen portaerarekin. Nemoursko jaunari aitortu zion berak zeukala gutuna, eta azkenik, Nemoursko jauna errugabea zela uste izan zuen orduko, izpiritu ireki eta lasai batez besarkatu zituen hasieran aditu ere nahi izan ez zituen gauzak. Elkar harturik adostu zuten gutun hura ez zegoela zertan dofin erreginari itzulirik, Martiguesko andereari eman ziezaion beldurrez, izan ere, hark, Martiguesko andereak, ezaguna baitzuen Theminesko anderearen idazkera, eta aise igarriko baitzuen, bidamoarengan zuen interesagatik, hari zuzendua zela. Iruditu zitzaion orobat ez zegoela zertan dofin erreginari fidaturik erreginarekin — haren amaginarrebarekin— zerikusia zuen oro. Clevesko anderea, gai hura osabarekin loturik zegoelako aitzakiaz, atseginez onartu zuen Nemoursko jaunak fidatzen zizkion sekretu guztiak gordetzea.

Printze hark bidamoaren gurariez hitz egiten segituko zukeen, eta Clevesko anderearekin mintzatzean sentitzen zuen askatasun hark bulzaturik, ordu arte inoiz ez bezalako ausardia

batez jokatzera menturatuko zatekeen, baldin eta Clevesko andereari ez balitzaizkio etorri esatera dofin erreginak berarengana joateko mantzen ziola. Nemoursko jauna, beraz, erretiratzera hertsatua izan zen. Bidamoaren bila joan eta hari adierazi zion, bera utzi eta gero, egokiagoa iruditu zitzaiola lehenik beraren iloba Clevesko andereagana zuzentzea, zuzenean dofin anderearengana joatea baino. Ez zitzaion arrazoirik falta izan berak egindakoa bidamoak ones zezan, eta hartatik emaitza on bat iguriki zezan.

Bien bitartean, Clevesko anderea azkar-azkar jantzi eta dofin erreginaren etxera joan zen. Haren gelan sartu orduko, printzesa hark hurbiltzeko agindu, eta honela esan zion ahapetik:

— Badira bi ordu zure zain naukazula. Inoiz ez naiz egia mozorrotzeko hain larriturik egon nola egon bainaiz gaur goizean. Atzo eman nizun gutun horri buruzko zurrumurruak entzun ditu erreginak. Uste du Chartresko bidamoa dela erortzen utzi duena. Zuk badakizu baduela interesen bat harengan jarria. Gutun hori bilatzeko agindu du, eta Chastelarti ere eskatu dio. Hark esan dio niri emana zidala. Nigana etorri dira

eskatzera, erreginari jakinmina piztu dion gutun polit bat zelako aitzakia jarriz. Ez naiz ausartu zuk zenuela esatera. Uste izan dut, baldin zure eskuartean jarri nuela esan banio, berehala imajinatuko zukeela zure osaba bidamoa zatekeela horren kausa, eta haren eta nire artean kidetasun handia zegokeela. Iruditu zait atsekabez pairatzen duela hark niri sarritan bisita egitea, eta horregatik esan diot atzo neramatzan jantzietan zegoela gutuna, baina arropategiko giltzariak jada irtenak zirela. Emaidazu gutun hori oraintxe —gaineratu zuen—, hari bidal diezaiodan, eta nik ere irakur dezadan, hari bidali baino lehen, idazkera ezagutzen al dudan ikusteko.

Clevesko anderea, uste zuena baino are larritasun handiago batean aurkitu zen.

— Ez dakit, Madame, nola egingo duen berorrek —ihardetsi zuen—, zeren Clevesko jaunak, zeinari emana bainion irakur zezan, Nemoursko jaunari itzuli baitio, goizean goiz etorri eta itzultzeko erregutu ondoren. Clevesko jauna laxoki mintzatu da berak zeukala esan dionean, eta halaber, Nemoursko jaunak itzultzeko egin diz-

kion erreguei amore emateko ahuldadea izan du.

— Inoiz aurkitu naizen estuasunik handienan jarri nauzu —berrekin zion dofin ande-reak—. Oker egin duzu gutun hori Nemoursko janari itzuliz, neronek eman nizulako, eta zuk ez zenuelako zertan inori errendaturik, nire baime-rik gabe. Zer nahi duzu erreginari esatea? Eta zer pentsa lezake hark? Uste izango du, itxura guztien arabera, nirea dela gutun hori, eta bada-goela zerbait bidamoaren eta bion artean. Ez diogu sekula sinestaraziko gutun hori Nemoursko jaunarena denik.

— Atsekabetua nago oso —erantzun zuen Clevesko ande-reak— berorri sortu diodan estua-sunaren kariaz. Argi dakusat zeinen larria den, baina hobena Clevesko jaunarena da, eta ez nirea.

— Zeurea da —iharduki zion dofin ande-reak—, zerorrek eman diozulako gutun hori. Munduan ez dago beste emazterik, dakizkien gauza guztien isilmandatua senarrari egingo dio-nik.

— Uste dut oker egin dudala, Madame —apaldu zitzaion Clevesko anderea—, baina saia bedi nire hobena konpontzen, eta ez gaitzesten.

— Oroitzen al zara, gutxi gora-behera, zer dioen gutun horrek? —galdegin zion dofin erreginak.

— Bai, Madame —ihardetsi zuen— oroitzen naiz, behin baino gehiagotan irakurria baitut.

— Hala baldin bada —ekin zion dofin andereak—, esku ezagungabe batek hura berridatz dezan lortu behar duzu berehala, eta nik erreginari igorriko diot. Hark ez die erakutsiko lehendik ikusia dutenei, baina hala egingo balu ere, nik beti defendatuko nuke hori dela Chastelartek eman didana, eta hura ez litzateke ausartuko kontrakorik esatera.

Clevesko anderea ados etorri zen egiteko horretan, hainbatenez gehiago zenbatenaz pentsatzen baitzuen Nemoursko jaunaren bila norbait igorriko zuela benetako gutuna berreskuratzen, hitzez hitz hura kopiarazi eta idazkera ere haren antzera berregin zezaten, eta hartara uste izan zuen segur limurtuko zutela erregina. Etxera joan zen orduko jakinarazi zion senarrari nola-

ko estuasunean zegoen dofin anderea, eta Nemoursko jaunaren bila norbait bidaltzeko eskatu zion. Bila joan eta hura berehala iritsi zen. Clevesko andereak bere senarrari arestian esan zion guztia hari berriro azaldu eta gutuna eskatu zion, baina Nemoursko jaunak ihardetsi zion Chartresko bidamoaren esku utzia zuela ordurako, eta hainbeste poztu zuela hura berreskuratzeak eta iragan arriskutik urrun egoteak, ezen bet-betan bidali baitzion Theminesko anderearen adiskideari. Clevesko anderea estuasun berri baten aurrean aurkitu zen, eta azkenik, ongi hausnartu ondoren, gutuna buruz berregitea erabaki zuten bien artean. Gela barruan giltzapetu ziren lan hori burutzeko. Inor ez zedilar sar manatu eta Nemoursko jaunaren zerbitzariei joateko esan zieten. Misterio eta isilmandatu giro hark ez zuen nolana hiko lilura sortzen printze harengan, ez eta Clevesko anderearengan berarengan ere. Senarraren presentziak eta Chartresko bidamoaren interesek uxatu egin zizkioten nolabait bere barne-ausikiak. Nemoursko jauna ikustearen atsegina baizik ez zuen sentitzen, eta inoiz sentitu gabeko zorion garbi eta

nahasgabe bat zuen barrenean. Poz horrek sekulako gogo-alaitasuna eta askatasuna piztu zion, Nemoursko jaunak inoiz ikusi ez zion bezalakoa, eta horrek, bikoiztu egin zion Clevesko anderearen amodioa printzeari. Nemoursko jaunak ordu arte ez zuenez hain une atseginik sekula bizi izan, areagotu egin zitzaion bere berezko bizitasuna, eta Clevesko andereak gutuna gogoratzen eta hura berridazten hasi nahi izan zuenean, printzeak, hari zinez lagundu behar bidean, beren egiteko hartan geldiuneak eginez gauza dibertigarriak esan besterik ez zuen egingen. Arraitasun horrek berak kutsatu zuen Clevesko anderea, eta hala, biak bakarturik denbora luzea zeramatera, bi aldiz etorri ziren dofin erreginaren partetik Clevesko andereari esatera presa zedin, artean gutunaren erdia egin gabe zeukatelarik.

Nemoursko jauna oso pozik zegoen hain atseginak zitzaizkion une haiek luzatuz zihoazelako eta ordurako aherentziak zeuzkalako bere lagunaren interesak. Clevesko anderea ere ez zen aspertzen ari, eta berak ere aherentziak zeuzkan osabaren interesak. Azkenik, goizaldeko

lauetan doi-doia amaitu zuten gutuna, baina hain zegoen gaizki antolatua, eta kopiarazi zuten idazkera hark hain antza gutxi zuen antzeratu nahi izan zutenarekin, ezinbestekoa baitzen erreginak egia argitzeko inolako ahaleginik ez egitea, benetako egia zein zen jakin ez zezan. Hala bada, ez zuten hura engainatzerik lortu, nahiz eta beren ahal guztiak egin zituzten gutun hura Nemoursko jaunari zuzendua zela sinestartzten. Konbentziturik zegoen, ez bakarrik Chartresko bidamoarena zela, baizik eta dofin erreginak ere bazuela hartan parterik, eta halaber, bazegoela halako kidesasunen bat haien bien artean. Pentsakizun horrek hainbesteraino bizituzion printzesa harenganako gorrotoa, ez baitzion sekula barkatu, eta Frantziatik kanporarazi arte, atzetik jarraika ibili zitzaion beti.

Chartresko bidamoaz den bezainbatean, hondamendira eramán zuten erreginak, eta, zela Lorraineko kardinala beraren izpirituaren jabe egin zelako, edo zela gutun haren inguruko abenturak —zeinak ikusarazi baitzion tronpatua izan zela— bidamoaren beste iruzurren berri ere jakiteko bide eman ziolako, egia da harrezkero

Chartresko bidamoak ez zuela erreginarekin zintzoki adiskidetzarik izan. Lotura hura hautsi egin zen beraz, eta azkenik, Amboiseko matxinadan betiko galdu zuen erreginak, hartan nahasturik agertu baitzen bidamoa.

Gutuna dofin andereari igorri ondoren, Clevesko jauna eta Nemoursko jauna joan egin ziren. Clevesko anderea bakarrik geratu zen, eta maiteñoaren presentziak eman ohi duen zorion horrek abandonatu orduko, amets batetik bezala itzuli zen lurrera. Harriduraz zekusan nolako aldaketa miragarria gertatu zen bezperako arratsuan eduki aldartearen eta orduan zeukanaren artean. Gogora etorri zitzaion nolako garraztasunez eta hoztasunez jokatu zen Nemoursko jaunarekin Theminesko anderearen gutuna hari zuzendua zela uste izan zuen bitartean, eta halaber, garraztasun hari nolako baretasunak eta eztitasunak jarraiki zioten, gutun hura Nemoursko jaunari ez zegokiola sinetsi bezain laster. Eta pentsatzen zuenean nola gaitzetsi zion bere buruari, are krimen bat balitz bezala, bezperako egunean errukiak berak bakarrik pitz ditzakeen sentiberatasunezko agerbideak Nemoursko jau-

nari eman izana, eta nola ikusarazi zizkion, ares-
tiko garraztasun horrek hartaraturik, harengana-
ko maitasunaren benetako froga ziren jelsiazko
sentimenduak, ez zuen bere burua ezagutzen.
Pentsatzen zuenean, gainera, Nemoursko jaunak
bazekiela haren maitasunaz oharturik zegoela
bera, eta ezagutza hori izan arren, ez zela harga-
tik harekin okerrago jokatzeko, ez eta bere sena-
rraren aurrean ere, baizik eta, aitzitik, ez ziola
lehenago inoiz halako ontasunez begiratu, eta
bera zela Clevesko jaunak haren bila norbait
bidali izanaren arrazoia, eta orobat, afalostean
egonaldi berezi bat igaro zutela elkarrekin, bada,
horrekin guztiarekin nolabait ere uste izan zuen
bazegoela kidetasunen bat Nemoursko jaunaren
eta beraren artean, baina halaber, munduan iru-
zurrik egitea gutxien merezi zuen senarrari iru-
zur egiten ziola, eta ahalketurik zegoela bere
maitalearen beraren begietara hain estimu
gutxiko gauza bezala agertuz. Baina, gauza
horietatik guztietatik jasangaitzena, gauza zein
egoeratan igaro zuen oroitzea zen, baina baita
ere, Nemoursko jaunak beste batzuk maite

zituela eta bera tronpaturik zegoela pentsatzeak eragindako oinaze zorrotza.

Ordu arte ezezagunak izan zitzaizkion mesfidantzaren eta jelosiaren barne-ausiki hilgarriak. Nemoursko jauna maitatzetik nola libra zitekeen besterik ez zuen ibili gogoan, eta hark besteren bat maita zezakeelako beldurrik oraindik ez zuen sentitu. Gutun hark sortu zizkion susmoak ezabatuak izanagatik ere, begiak zabalarazi zizkioten tronpatua izan zitekeelako arriskuaz, eta lehenago inoiz izan ez zituen mesfidantza eta jelosiazko sentipenak sorrarazi zizkioten. Harriturik geratu zen artean ez zuelako inoiz ere pentsatu zeinen egiantz gutxiko gauza zen Nemoursko jauna bezalako gizon bat, zeinak betidanik halako arintasuna agertu baitzuen emakumeekiko, atxikimendu iraunkor eta benetako bat edukitzeko gauza izan zitekeela. Iruditu zitzaion kasik ezinezko gauza zela haren amodio grinaz pozik egotea.

— Baina pozik egon nintekeen arren —zioen bere baitarako—, zer egin nahiko nuke? Jasan nahiko nuke halakorik? Errendatu nahiko nioke berari? Lotuko al nuke neure burua halako amo-

dio atxikimendu batekin? Desohoratuko nahiko al dut Clevesko jauna? Nahiko al diot neure buruari ere laido egin? Eta finean, nahiko al dut amodioak dakartzan barne-ausiki krudel eta oinaze mingarrietara menturatu? Neure gogoaren kontra naraman amodio batek guztiz gainturik eta garaiturik nauka. Hartzen dudan deliberramendu oro alferrik da. Atzo pentsatzen nuena gaur ere berdin pentsatzen dut, baina ordea, atzo erabakitakoaren guztiz kontrakoa egin dut gaur. Ezinbestekoa da landara joan nadin, eta baldin Clevesko jauna hori eragozten edo horren arrazoiak jakiten setatzen bada, menturaz min egingo diot, bai eta neure buruari ere, horiek azalduz.

Delibero hura hartu eta etxean geratu zen arratsalde guztian, eta ez zen dofin anderearengana joan bidamoaren gutun faltsu harekin zer gertatu zen jakitera.

Clevesko jauna itzuli zenean, emazteak esan zion landara nahi zuela joan, ondoezik sentitzen zela eta egurasteko premia zuela. Clevesko jaunak, zeinaren begietara hain eder agertu baitzen, ez baitzuen sinesten ahal haren eritasuna

larriegia izan zitekeenik; lehendabizian barre egin zuen bidaia hura egiteko proposamenaren gainean, eta ihardetsi zion ahantzia zukeela, noski, printzesen ezteiak eta zaldun-gudua egitekoak zirela, eta ez zitzaiola denbora gehiegi geratzen apaintzeko, gainerako emakumeen handitasun berberaz agertu nahi bazuen haieran. Senarraren arrazoiek ez zioten asmoa aldarazi. Eskatu zion ezen, hura erregerekin batera Compiengnen zen bitartean, onets zezala bera Coulommiersera joatea, Paristik egun beteko bidean zegoen etxe eder bat baitzeukaten han, ardura handiz eraikiarazi zutena. Clevesko jaunak ontzat eman zuen, eta Clevesko anderea hara joan zen, itzulera azkarregirik ez egiteko asmoz, eta errege Compiengne aldera abiatu zen, non ez baitzen egun batzuk baizik egongo.

Nemoursko jaunak damu handia hartu zuen, zeren eta, itxaropenak berretu zizkion afaloste txoil atsegin hura igaroz geroztik ez baitzuen Clevesko anderea berriro ikusterik izan. Sosegurik uzten ez zion ezinegon batez desiratzen zuen hura berriz ikustea, hainbesteraingo ezen, errege Parisa itzuli zenean, bere arreba Mercoeurko

dukesaren etxera joatea erabaki baitzuen, hura ere landan baitzegoen Coulommierstik oso hurbil. Bidamoari proposatu zion berarekin batera joan zedila, eta hark gogo onez onartu zuen proposamena. Clevesko anderea ikusteko eta bidamoarekin batera haren etxera joateko itxaropenaz egin zion proposamen hura Nemoursko jaunak.

Mercoeurko andreak amultsuki egin zien harrera, eta haren pentsamendu bakarra, haiek dibertiarazi eta landako plazer guztiak erakustea izan zen. Oreina lasterka ehizatzaera joan ziren egun batez, basoan galdu zen Nemoursko jauna. Itzultzeko hartu behar zuen bideari buruz galdezka ari zelarik, Coulommierstik hurbil zela jakin zuen. Coulommiers hitza aipatu orduko, deuse-tan pentsatu gabe eta beraren asmoa zein zen jakin ere gabe, trosta bizian joan zen adierazi zioten alderantz. Basora iritsi, eta, halabeharrak gidaturik, arta handiz egindako bideetan barrena abiatu zen, ustez eta gaztelurantz zuzentzen zirenak. Bide horien amaieran pabilioi bat aurkitu zuen, zeinaren behealdea areto itzel bat baitzen, aldamenean bi gelatxo zeuzkalarik. Gela-

txo batek, ohol-hesi bakar batez bereizirik zegoen lorategi batera ematen zuen, eta besteak, berriz, parkeko zumardi luze batera. Pabilioi hartara sartu zen, eta haren edertasunari begira geratuko zatekeen, baldin parkeko zumardi hartatik Clevesko jaun-andereak, zerbitzari kopuru handi batekin batera, etortzen ikusi izan ez balitu. Clevesko jauna han aurkituko zuenik inondik ere espero ez zuenez, erregeren aldamenean utzi baitzuen, bere lehen mugimenduak ezkutu jartzera bultzatu zuen. Lorategira ematen zuen gelatxoan sartu zen, handik baso aldera irekita zegoen ate batetik irteteko asmoz. Baina ikusi zuenean Clevesko anderea eta haren senarra pabilioiaren aitzinean esertzen zirela, haien zerbitzariak parkean geratu zirela, eta zerbitzari haiek ezin zitezkeela berarengana iritsi, non eta Clevesko jaun-andereak zeuden tokitik igarotzen ez ziren, ezinezkoa izan zitzaion printzesa hura ikusteko plazerrari uko egitea eta senarrarekin zuen elkarrizketa entzuteko jakinminari gogor egitea, zeren bere aurkarietarik beste edonork baino jelsia handiagoa sortzen baitzion hark.

Eta hala entzun zuen nola esaten zion Clevesko jaunak bere emazteari:

— Baina zergatik ez duzu Parisa itzuli nahi? Nork atxiki zaitzake landan? Aspaldian gogoko duzu bakardadea, halako eran, ezen harriturik eta atsekabeturik bainauka, elkarrengandik urruntzen gaituelako. Are ohi baino goibelago zaitut ikusten, eta beldur naiz nahigabeturik egoteko arrazoiren bat izan dezazun.

— Ezerk ez du nire arima asaldatzen —erantzun zuen doi bat aztoraturik—, baina gorteko zalaparta hain da handia, hainbeste jende izan ohi da zure etxean, ezinezkoa baita nire gorputza eta nire arima ez gogaitzea eta atsedean bila ez abiatzea.

— Atsedena —iharduki zion— ez dagokio zure adineko pertsona bati. Deusek neka ez zaitza-keen egoera batean zara, bai etxean eta bai gortean ere, eta gehiago beldurtzen nau nigandik urrun ez ote zaren gustorago sentitzen.

— Bidegabe handia egingo zenidake baldin halako pentsakizuna bazenu —ekin zion, geroz eta larriagoa zen asaldura batez—, baina otoi eskatzen dizut hementxe utz nazazula. Zu ere

hemen gelditzeak arras poztuko ninduke, baldin nirekin bakarrik geratuko bazina eta zugandik ia inoiz urruntzen ez den jende saldo amaigabe horri begitarterik ez egiteko ontasuna bazenu.

— Ene Madame! —egin zuen oihu Clevesko jaunak—, zure doinu eta hitzetan igar dezaket baduzula ezezaguna zaidan arrazoiren bat bakarrik egotea desiratzeko. Zein den azal diezadazula galdatzen dizut.

Luzaz premia zuen arrazoi haiek azal ziezazkion, nahiz ez zuen hartara behartzerik lortu, eta senarraren jakinmina biziagotzen zuen modu batean defendatu ondoren, isiltasun sakon batean geratu zen, begiak behera apaldurik, eta gero, supituan, hizketan hasi eta hari beha jarri-rik:

— Ez nazazu behartu —esan zion— aitortze-ko indarrik ez dudan gauza bat aitortzera, nahiz sarri izan dudan hori egiteko asmoa. Soilik pentsa ezazu zuhurtziak ez duela nahi nire adineko emakume bat, bere jokabidearen jabe dena, gor-tearen erdian egon dadin.

— Zer pentsarazi nahi didazu, Madame? —egin zuen oihu Clevesko jaunak—. Ez nintzateke

halakorik esatera ausartuko zu iraintzeko beldurrez.

Clevesko andereak ez zuen deus ihardetsi, eta isiltasun hark bete-betean baieztatu zion senarrari orduantxe pentsatu berri zuena:

— Ez didazu deus esaten —muzindu zitzaion—; beraz, horrek esan nahi du ez nabilela oker.

— Ea, bada, Monsieur —erantzun zion haren belaunetara makurtuz—, inork bere senarrari sekula egin ez dion aitortza egingo dizut, zeren nire jokabidearen eta nire sentimenduen garbitasunak horretarako kemena ematen baitit. Egia da badudala arrazoirik gortetik urrun egoteko, eta nire adineko pertsonak zenbaitetan aurki ditzaketen arriskuak nahi ditudala saihestu. Inoiz ez dut nire ahuleziaren frogarik erakutsi, eta ez nintzateke beldurrez egongo halakorik erakusteko, baldin gortetik erretiratzeko askatasuna emango bazenit, edo Chartresko anderea nire aldamenean edukiko banu oraindik, portaera egokia eramaten laguntzeko. Hartzen dudan deliberoa denik eta arriskutsuena izan arren, pozik dut hartzen, zure duin izaten jarrai dezake-

dalako. Mila barkamen eskatzen dizkizut baldin desplazer zaizkizun sentimenduak badituz, baina nire ekintzek ez zaituzte gaitziaraziko bederen. Pentsa ezazu, egin dudana egiteko, beharrezko dela senarrarekiko inork inoiz izan duena baino are adiskidetasun eta estimu gehiago edukitzea. Gida nazazu, erruki zakizkit, eta arren, maite nazazu oraindik, ahal baduzu.

Clevesko jaunak, hizketaldiak iraun zuen bitartean, burua eskuen artean bermaturik eduki zuen, adimendua galdurik, eta ez zitzaion bururatu emaztea zuzpertzetik. Solasa amaitu zue-nean, senarrak harengan landatu zituen bere begiak, eta ikusi zuen bere belaunetara makurturik zeukala, begitarte malkoz beterik eta hain edertasun miresgarriz, oinazez hilko zela uste izan baitzuen, eta hura besarkatuz, eta zegoen lekutik altxaraziz:

— Urrikal zaitez zerori ere nitaz, Madame — esan zion senarrak—, ni ere duin bainaiz halakorik merezi izateko. Barka iezadazu baldin eta atsekabe bortitz batek astintzen nauen lehen une hauetan ez badiot ihardesten, egoki litzatekeen eran, zurea bezalako portaera bati. Mun-

duan izan diren emakume guztien artetik zerori zaitut estimu eta miresmenez duinena, baina aldi berean, inoiz izan den gizonik dohakabeena sentitzen naiz. Ikusi zintudan unetik bertatik zugarako maitasuna piztu zenidan. Zure zorrotasunek eta zure jabetza edukitzeak ez dute hura iraungitzerik lortu, eta oraindik ere lehen-goan dirau. Ezin izan dut inoiz zuregan maitasunik ernarazi, eta argi dakusat beste batengana edukitzeko beldurrez zaudela. Nor da, Madame, beldur hori sorrarazi dizun gizon dohatsua? Noizdanik duzu atsegin? Zer egin du hark, zuk gogoko izan dezazun? Zein bide hautatu du zure bihotzera iristeko? Zure bihotza hunkiezina zelakoan kontsolatu nintzen, aldez, hura hunkitu ez izanaz. Halere, nik egiterik izan ez dudana erdietsi du besteren batek. Aldi berean sentitzen dut hala senarraren jelsia nola maitalearena, baina ezinezkoa da senar batenik edukitzea zurea bezalako jokabide bat ezagutuz geroztik. Sentimendu hori zintzoegia da zugaran erabateko segurtasuna izan dezadan, eta are zure maitale gisa ere kontsolagarri zait. Nire alde izan duzun fidantziak eta zintzotasunak ez dute preziorik;

aitortza horretaz ez naizela baliatuko uste izateko adina estimatzen nauzu. Arrazoi duzu, Madame, ez naiz horretaz baliatuko, eta ez zaitut horregatik gutxiago maitatuko. Emazte batek bere senarrari inoiz eman dion leialtasun frogarik handiena emanez dohakabe bilakatu nauzu, baina, Madame, buka ezazu eta azal iezadazu nor den saihestu nahi duzun hori.

— Arren eskatzen dizut ez diezadazula galdetu —ihardetsi zuen—. Deliberaturik nago ez esatera, eta uste dut zuhurtziak ez duela nahi zuri haren izenik aipatzea.

— Ez beldurrik izan, Madame —berrekin zion Clevesko jaunak—, mundu gehiegi ezagutzen dut, eta badakit, beraz, senar batenganako begiruneak ez digula galarazten haren emazteaz maitemindurik egotea. Maitemindurik daudenei gorroto behar zaie eduki, baina ez dugu haietaz arranguratu behar. Madame, berriro ere galdetzen dizut, otoi, azal diezadazula jakin gogodudan hori.

— Alferrik premiatzen nauzu —ihardetsi zion emazteak—. Sobera indar badut esan behar ez dudana isiltzeko. Egin dizudan aitortza hori ez

dizut ahuldadez egin; adore gehiago behar baita egia hori aitortzeko, ezkututzen ahalegintzeko baino.

Nemoursko jaunak ez zuen elkarrizketako hitzik galtzen, eta Clevesko andereak esan berri zuenak ez zion haren senarrari baino jelsia gutxiago sortzen. Hain zegoen itsutuki hartaz maitemindurik, uste baitzuen mundu guztiak zeuzkala harekiko sentimendu berberak. Egia zen, bestalde, aurkariak ugari zeuzkala, baina zirenak baino askoz gehiago ere imajinatzen zituen, eta gogoia galtzen zitzaion Clevesko andereak aipatu nahi izan zuen haren bila. Sarri askotan uste izan zuen Clevesko andereak gogoko zuela bera, baina une hartan, hain ezdeusak iruditzen zitzaizkion gauzetan funtsatzen zuen juzku hura, ez baitzezakeen imajina halako maitasun bortitza sorraraz zezakeenik, Clevesko andereak hain ohiz kanpoko erabakietara jo behar izateko. Hain zegoen bere baitatik kanpo, ez baitzekien kasik zer ari zen ikusten, eta ezin ziezaiokeen Clevesko jaunari barka emazteak ezkututzen zion izen hura esatera behar hainbat hertsatu ez izana.

Clevesko jaunak, halere, bere ahal guztiak egin zituen hura jakitearren, baina horretara alferrik premiau ondoren:

— Iruditzen zait —ihardetsi zuen emazteak— pozik egon behar duzula nire zintzotasunaz. Ez iezadazu gehiago galda eta ez iezadazu biderik eman egin berri dudana damu nadin. Ziurtatzen dizut —eta ziurtasun hori aski behar zenuke— nire ezein ekintzek ez diola inori nire sentimendurik agertarazi, eta inork ez didala sekula ezer iraingarririk esan.

— Ene, Madame! —iharduki zion bat-batean Clevesko jaunak— ez dakit sinets diezazukedan. Oroitzen naiz nolako bihotz-hersturak astindu zintuen zure potreta galdutako egunean. Norbaiti eman diozu, Madame, norbaiti eman diozu hain maitea nuen eta lege onez neuri zegokidan potret hura. Ez duzu zure sentimenduak ezkututzerik izan. Maite duzu, eta hark badaki. Zure bertuteak libratu zaitu gainerakotik oraindainoan.

— Ba ote liteke —egin zuen oihu printzesak— nirea bezalako aitortza batean asmo ezkutukoren bat dagoenik pentsatzea, inolako arrazoirik

hori egitera behartzen ez ninduenean? Fida zaitetz nire hitzetan, oso prezio garestian ordaintzen baitut eskatzen dizudan fidantzia hori. Sinets ezazu, otoi, ez diodala inori eman nire potreta. Egia da ikusi nuela nola hartzen zuen norbaitek, baina ez nuen inoren begietara agertu nahi izan halakorik ikusten nuenik, artean sekula esatera ausartu ez ziren gauzak esango zizkidaten bel-durrez.

— Zein bidetatik erakutsi dizute maite zaituztela —ekin zion berriro Clevesko jaunak—, eta zer froga eman dizute amodio horretaz?

— Libra nazazu, arren —ihardetsi zion—, halako xehetasunak berresan beharraren neketik, zeren horiek antzeman izanak nerau ere ahalketu eta neure ahuldadeaz etsiarazi bainau, ongi baino hobeto.

— Arrazoi duzu, Madame —gaineratu zuen senarrak— bidegabeki jokatu naiz. Antzeko gauzak eskatzen dizkizudanean, ukaiezakidazu aldi oro, baina ez zakizkit, halere, bekaiztu, halakorik galdatzen badizut.

Une hartan, zumardian geratuak ziren hainbat zerbitzari Clevesko jaunarengana hurbildu

eta jakinarazi zioten aitoren seme bat etorri zela beraren bila, erregeren partetik, arratsean Parisen izan zedin agindua ematera. Clevesko jauna, beraz, hertsatua izan zen abiatzera, eta ez zion emazteari deus esan ahal izan, salbu eta biharamunean hara joateko otoizten ziola, eta zinez erregutu zion sinets zezan, bera nahigabeturik egon arren, halako samurtasuna eta halako estimua ziola, ezen pozik egon behar baitzukeen horretaz.

Printze hura partitu ondoren, bakarrik geratu zen Clevesko anderea, eta egin berri zuena hausnartzen hasi zenean, hain izaturik gelditu zen, nekez imajina baitzezakeen egia zenik. Iru-ditu zitzaion bera urrundu zela senarraren bihotzetik eta estimutik, eta bera bakarrik amildu zela sekula irtengo ez zen leize hartara. Bere buruari galdegiten zion ea zergatik egin zuen hain gauza adore handikoa, eta kontsideratu zuen bere baitatik sentitu zuela hartarako isuria, kasik horretarako asmorik izan gabe. Halako aitortza baten berezitasunak, zeinaren adibiderik ez baitzuen beste inon aurkitzen, arrisku guztiak ikusarazi zizkion.

Baina pentsatzen zuenean ihespide hura, litekeenik bortxazkoena izan arren, Nemoursko jaunaren aurka defenda zezakeen bakarra zela, iruditzen zitzaion ez zuela zertan damaturik, eta ez zuela inondik ere gehiegi arriskatu. Gau guztia zalantzaz, kezkaz eta beldurrez beterik eman zuen, baina azkenik, baretasuna gailendu zitzaion ariman. Leialtasunaren lekukotza hura hain ongi merezi zuen senarrari eman izana kontsolagarri zitzaion, zeren hark estimu eta laguntasun handia agertu baitzion, eta are horren frogak ematen baitzizkion, ikusirik nolako begirunea erakutsi zuen beraren aitortza entzutean.

Nemoursko jauna, bien bitartean, hain nabarmenki hunkitu zuen elkarrizketa hura entzundako lekutik irten eta basoan barnatu zen. Clevesko andereak potretaz esandakoak bizia itzultsion, horrexek ikusarazi baitzion hark ez ziola beltzuri handirik. Poz horren mendera abandonatu zen lehenik, baina ez zuen denbora asko egin, noiz eta ohartu baitzen, eta etsia hartu, Clevesko anderearen bihotza hunkitu zuela zekien bezala, ez zuela sekula gehiago horren agerbiderik jasoko, eta ezinezkoa zela hain ohiz kanpoko

ihespidea baliatzeko gauza zen pertsona bategandik maitasunik igurikitzea. Nolanahi ere, atsegin handia sentitu zuen halako erabaki larria hartzera behartu zuelako. Ohoretzat zeukan beste emakume guztietatik hain desberdina zen emakume hark bera maitatzea. Finean, mila aldiz zoriontsu eta mila aldiz dohakabe sentitu zen une berean. Gauak basoan harrapatu zuen ezustean, eta zailtasun handiak izan zituen Mercoeur anderearen etxerako itzulbidea aurkitzen. Eguna urratzearekin batera iritsi zen. Estuasun gaitzak izan zituen etxetik kanpo atxiki zuen arrazoiari buruzko kontuak ematen, baina larrialdi hartatik ahal zuen ongien irten, eta egun hartan bertan itzuli zen Parisa, bidamoarekin batera.

Printze hura hain zegoen amodio grinaz beterik eta hain harriturik aditu zuenarekin, zuhurki ez jokatzuz gero arruntean egin ohi den hutsa egin baitzuen, nola baita hitz orokorren bidez norberaren sentimenduez mintzatzea eta norberaren abenturak izen asmatuen azpian mozorro-tzea. Itzuli zenean, amodioari buruzko elkarrizketari heldu zion berriro, eta maitatua izateko

duin den pertsona batez maitemintzeak zekarren plazerraz esan ahal guztiak esan zituen. Amodio grina horren ondorio bitxiez hitz egin zuen, eta finean, Clevesko anderearen jokatzeko moduak sortu harridurari bere baitan ezin eutsirik, bidamoari kontatu zion, pertsona hura nor zen aipatu gabe, noski, eta berak hartan parterik zuenik esan ere gabe, baina hain sutzuki eta halako miresmenez zion kontatu, ezen bidamoak aise susmatu baitzuen printze hari zegokion historia zela hura. Lehiaz hertsatu zuen aitortzera. Esan zion aspaldidanik zekiela amodio grina ezin eutsizko bat zuela, eta ez zela bidezkoa bere bizitzako sekretua fidatu zion gizon bati hainbestereinoko konfiantzarik ez agertzea. Nemoursko jauna, ordea, maiteminduegia zegoen bere maitasuna inori aitortzeko. Betidanik ezkutatu zion bidamoari, gortean gehien maite zuen gizona izan arren. Ihardetsi zion lagun batek kontatu ziola abentura hura, eta zin eginarazi ziola hartaz ez zuela hitzik aipatuko, bidenabar sekretu hura gordetzeko eskatzen ziolarik mesedez. Bidamoak segurtatu zion ez ziola inori haren gainean deus esango, baina Nemoursko jauna ordu-

rako damutua zen hainbeste gauza kontatu izanaz.

Bien bitartean, Clevesko jauna erregeren bila joan zen, bihotza heriozko oinaze batek erdiratzen ziolarik. Senar batek sekula ez du izan emaztearenganako halako amodio bortitzik, ez eta sekula hainbeste estimurik ere. Jakin berri zuenak ez zion harenganako estimua ezabatzen, baina ordu arte izan zuenaz oso bestelako bat sortu zion. Gehien kezkatzen zuena, ordea, hari laket izaten nork asmatu zuen jakiteko desioa zen. Nemoursko jauna etorri zitzaion lehenik gogora, gortean zeuden gizonik maitagarrienetako bat zelako, eta halaber, Guiseko zalduna eta Saint-Andre mariskala, gustagarri izaten saiatu ez ezik, oraindik ere arreta ugari eskaintzen zizkieten bi gizon zirelako, eta ondorioz, hiru horietakoren batek izan behar zuela sinestera etorri zen. Louvrera iritsi zenean, erregek bere aretoan sarrarazi zuen, eta esan zion bera hautatu zuela Madameri Espainiarako bidaiari lagun egin ziezaion, inork ez zuelako berak baino hobeto burutuko eginbide hura, eta inork ez ziolako hainbeste ohore egingo Frantziari nola Cle-

vesko andereak. Egoki zen legez jaso zuen Clevesko jaunak hautapen haren ohorea, eta iruditu zitzaion beraren emaztea gortetik urrunduko zuen gauza bat izan zitekeela, haren jokabidean aldaketarik agertarazi gabe. Alabaina, irteera eguna oraindik oso urrun zegoen, aurkitzen zen estuasunaren irtenbidea izan zedin. Bet-betan idatzi zion Clevesko andereari, arestian erregek esandakoaren berri izan zezan, eta berriro jakinarazi zion biziki desiratzen zuela Parisa itzul zedin. Hark agindu bezala itzuli zen emaztea, eta elkar ikusi orduko, sekulako tristezia batek hartu zituen bi-biak.

Clevesko jaunak, munduko gizonik prestu eta duinenak bezala hitz egin zion:

— Ez daukat inolako kezkarik zure jokabideari buruzkoan —esan zion—. Uste duzuna baino indar eta bertute gehiago duzu. Etorkizunaren beldurrak ere ez nau atsekabetzen. Nik eman ezin izan dizkizudan sentimenduak beste bategana dituzula jakiteak, horrexek bakarrik nau atsekabetzen.

— Ez dakit zer ihardetsi —esan zion Clevesko andereak—. Ahalkez hiltzen naiz zurekin mintza-

tzean. Ez nazazula, otoi, halako solasaldi krudelen bidez gogaitu. Zuzen ezazu nire jokabidea, eta saia zaitez inor ikus ez dezadan. Horixe da eskatzen dizudan guztia. Baina onar ezazu, arren, ez diezazudala gauza baten gainean hitz egin, zeina ez baitzait iruditzen zure duin denik, eta are niretzat ere duingabea baita.

— Arrazoi duzu, Madame —ihardetsi zion—. Gehiegi baliatu naiz zure eztitasunaz eta zure fidantziaz, baina urrikal zaitez ipini nauzun egoeraz, eta pentsa ezazu ezen, esan didazun guztia gorabehera, izen bat didazula ezkututzen, zeinak bizitzen uzten ez didan jakinmin bat sorrarazi baitit. Ez dizut eskatzen, beraz, jakinmin hori ase dezazun, baina ezin naiteke gera esan gabe, bekaitza behar diedala ene iduriz agertu Saint-Andreko mariskalari, Nemoursko dukeari eta Guiseko zaldunari.

— Ez dizut deus ihardetsiko —esan zion Clevesko andereak, ahalke gorriturik— eta ez dizut inolako biderik emango, nire erantzunen bitartez zure susmoak gutxitu edo baieztatu ditzazun, baina niri beha jarririk, horiek argitzen ahalegintzen baldin bazara, mundu guztiaren begietan

agertuko den larrialdia sortuko didazu. Jainkoaren izenean —segitu zuen— onar ezazu ez dezadala inor ikus, edozein eritasunen aitzakiapean.

— Ez, Madame —iharduki zion—, berehala igarriko baitute estakururen bat litzatekeela, eta gainera, zerorri baizik ez dizut fidatu nahi. Hori xe da nire bihotzak gomendatzen didan hautabidea, eta arrazoiak ere halaxe aholkatzen dit. Duzun aldartea ikusirik, baldin aske uzten bazaitut, sekula ezartzen ahal nizkizukeenak baino are muga estuagoak ezarriko dizkizut.

Clevesko jauna ez zebilen oker: emazteari aitortu konfiantzak are gotortzenago zuen Nemoursko jaunaren aurka, eta ezein hertsape nek lor zitzakeenak baino are erabaki latzagoak hartzera bultzatzen zuen. Louvrera eta dofin erreginaren etxera joan zen beraz, ohi zuen bezala, baina hainbesteko arduraz saihesten zituen Nemoursko jaunaren presentzia eta begiak, ia osorik ezabatu baitzion maite zuelako usteak printze hari zemaion poza. Nemoursko jaunak ez zuen printzesa haren ekintzetan deus ikusten kontrakoa sinestaraziko zionik. Jada ez zekien hari aditutako hura amets bat besterik ez

ote zen, izan ere, hain egiantz gutxiko gauza zeritzon. Oker ez zebilela segurtatzen zion gauza bakarra Clevesko anderearen tristezia mugagabea zen, nahiz printzesa hark bere ahal guztiak egiten zituen hura ezkutatzearren. Menturaz, behako eta hitz adiguritsuek ez zuketena Nemoursko jaunaren amodioa hainbeste sutuko nola egin baitzuen jokabide zurrun hark.

Clevesko jaun-andereak erreginaren etxean ziren arrats batez, norbaitek esan zuen jendar-tean zurrumurrua zabaldua zela erregek beste jaun handi bat izendatuko zuela, Madameri Espainiako bidaiari lagun egiteko. Clevesko jaunak bere emaztearengan zeuzkan begiak finkaturik, noiz eta ere gehitu baitzuten jaun hura zurrunik Guiseko zalduna edo Saint-Andre mariskala izango zela. Igarri zuen beraren emazteak ez zuela zirkinik ere egin bi izen horiek entzutean, ez eta bidaiari hura berarekin egin zezaketelako proposamena aditu zuenean ere. Horrexek sinestarazi zion bi haietako inor ezin zitekeela izan emaztea goganbeharturik zeukan pertsona, eta, bere susmoak argitu nahirik, erreginaren gelan sartu zen, hantxe baitzen errege. Zenbait

denbora barruan egin ondoren, emaztearen ondora itzuli eta ahapetik esan zion arestian jakin zuela Nemoursko jauna izango zela berekin Espainiara joango zena.

Nemoursko jaunaren izenak, eta bidaiia luze batean egun oroz bere senarraren presentzian hura ikusteko arriskuan egon beharraren pentsakizunak, halako aztoramena eragin zion Clevesko andereari, ez baitzuen hura ezkutatzerik izan, eta horri beste era bateko arrazoiak bilatu nahirik:

— Printze horrena oso aukera gogaikarria dateke zuretzat —ihardetsi zuen—. Ohore guztiak partekatuko ditu, eta nago, besteren bat aukera dezaten ahalegindu beharko zenukeela.

—Ez da loriak sortua, Madame —ekin zion Clevesko jaunak— Nemoursko jauna nirekin etortzeko duzun beldurra. Horrek eragin dizun atsekabeak beste arrazoi bat du. Zure atsekabe horrek jakinarazi dit, hain zuzen, beste edozein emakumek zure egoera horretan edukiko lukeen zorionagatik jakingo nukeena. Baina ez beldurrik izan; esan berri dizudana ez da egia, asmatu

egin baitut lehendik sobera nekien gauza batez segurta nendin.

Hitz horiek esan eta irten egin zen, emaztea-
rengan zekusan aztoramen itzel hura beraren
presentziak larriagotu ez zezan.

Nemoursko jauna une horretan sartu zen, eta
berehala igarri zuen zein egoeratan zegoen Cle-
vesko anderea. Harengana hurbildu eta ahapeka
esan zion ez zela ausartzen berarekiko begiru-
nez galdetzera zerk bilakatu zuen ohi baino pen-
tsakorrago. Nemoursko jaunaren ahots doinuak,
ordea, bere onera ekarri zuen, eta, hari beha,
hark esan ziona aditu ere gabe, bere baitako
pentsakizunetara bihurturik eta senarrak haren
ondoan ikus ez zezan beldurrez, zera esan zion:

— Jainkoarren! Utz nazazu bakean!

— Ene, Madame! —ihardetsi zuen— gehiegi-
tan zaitut bakean uzten. Nola kexa zaitezke
orain? Ez naiz ausartzen zuri hitzik esatera, ez
naiz ausartzen zuri behatzera ere, eta dardarak
nagoela baizik ez naiz zuregana hurbiltzen. Zer
egin dut nik esan didazun hori merezi izateko,
eta zergatik nahi didazu sinestarazi parterik
dudala zure nahigabe horretan?

Clevesko andereari zinez damutu zitzaion Nemoursko jaunari bide eman izana bere bizitza osoan sekula baino argiago azal zedin. Hantxe utzi zuen erantzunik eman gabe, eta etxera itzuli zen, gogoia inoiz baino aztoratuago. Senarra berehala ohartu zen haren gogo-asaldura handitua zela. Argi ikusi zuen emaztea beldur zela gertatuaz mintza zekion, eta kabineteraino jarraiki zitzaion atzetik.

— Ez nazazula saihestu, Madame —esan zion Clevesko jaunak—, displazer zaizunik deus ez dizut esango eta. Barkamena eskatzen dizut baldin arestian ustekabea eman badizut. Nahikoa penaturik bainago jakin dudana gero. Gizon guztietarik Nemoursko jaunari nion beldurrik handiena. Badakit nolako arriskutan zaren, baina izan zaitez zeure buruaren jabe niganako amodioaren kariaz. Ez dizut senar baten modura eskatzen, baizik eta zugandik zorion guztia jasotzen duen gizon baten modura, zeinak zure bihotzeko kuttunak baino are maitasun samurragoa eta bortitzagoa erakusten baitizu.

Clevesko jauna hunkitu egin zen azken hitz horiek esatean, eta kosta egin zitzaion bukatzea.

Emazteari ere zirrara eragin zioten, eta, negar-malkotan urtuz, halako samurtasun eta oinaze batez besarkatu zuen senarra, ezen berearen egoera bertsua sorrarazi baitzion hari ere. Luzaz egon ziren besarkaturik, ezer esan gabe, eta bereizi zirenean ere, ez zuten elkarrekin hitz egiteko indarrik izan.

Amaitu zituzten Madameren ezkontzarako prestakizun lanak. Albako dukea ere etorria zen harekin ezkontzera. Gisako ekitaldi batean egin zitezkeen ospakizun eta handitasun guztiekin egin zioten harrera. Erregek harengana bidali zituen Condeko printzea, Lorraine eta Guiseko kardinalak, Lorraineko dukeak, Ferrarakoak, Aumalekoak, Bouillongoak, Guisekoak eta Nemourskoak. Aitoren seme ugari eta anitz handikien morroi, denak berdin jantzirik, ziren bilduak. Errege Louvreko ate nagusian geratu zen Albako dukearen zain, bere zerbitzuko berrehun aitoren semeekin, eta haien guztien buru, kondestablea. Duke hura erregana hurbildu zelarik, oinetan muin eman nahi izan zion, baina erregek hori eragotzi, eta beraren aldamenean joan zedin agindu zion erreginaren eta Madameren

egoitzetara iritsi arte, zeinari Albako dukeak opari ezinago ederra ekarri baitzion bere jaunaren partetik. Berehala, erregeren arreba Margueriterengana joan zen, Saboiako jaunaren konplimentuak egitera eta egun gutxi barru hura ere han izango zela hari segurtatzera. Jaialdi handiak antolatu zituzten Louvren, Albako dukeari eta harekin batera etorria zen Orangeko printzeari gortearen edertasunak erakusteko asmoz.

Clevesko andereak ez zuen ausardiarik izan hara joateari uko egiteko, hori egiteko irrikaz egon arren, beldur baitzen senarrari gaitzituko ote zitzaion, hark hara joan zedila preseski galdatu ondoren. Nemoursko jauna han izango ez zela jakiteak deliberarazi zuen, beste ezerk baino gehiago, hara joatera. Izan ere, Nemoursko jauna Saboiako jaunaren bila joana zen, eta, printze hura iritsiz geroztik, haren aldamenean egon behar izan zuen beti, ezteietako ospakizunei zegozkien gauza guztietan laguntzeko. Horregatik ez zuen Clevesko andereak ohi bezain sarritan topatu printze hura, eta beraz, nolabaiteko atsedena aurkitu ahal izan zuen.

Chartresko bidamoak ez zuen ahortzi Nemoursko jaunarekin izandako elkarrizketa. Printzeak kontatu abentura hura harena baizik ezin zitekeela izan gogoan iltzaturik geratu zitzaion, eta hainbesteko arduraz behatzen zion, egia jakingo baitzukeen ziurrenik, baldin eta Albako dukearen eta Saboiako jaunaren iritsierak ez balu halako aldaketarik eta halako durduzadurarik sortu gortean, zeren horrek eragotzi egin baitzion bestela argitu ahal izango zuena ikustea. Hura argitzeko gogoak eramanik, edo agian, maite dugun pertsonari zerbaitetaz daki-gun guztia azaltzeko dugun berezko isuriak bultzaturik, gauza da ekintza gogoangarri hura errepikatu ziola Martigues andereari, hots, emazteak senarrari beste batenganako amodioa kontatzen zioneko hura. Segurtatu zion Nemoursko jauna zela, hain zuzen, amodio bortitz hura sorrarazi zuena, eta erregutu zion printze hura zelatatzen lagun ziezaiola. Martigues anderea asko poztu zen bidamoak esan ziona jakin zuenean, eta Nemoursko jaunari zegozkion gauzei buruz batez ere dofin anderearengan

betidanik igarri zuen jakinminak, are gehiago adoretu zuen abentura horretan sakontzera.

Ezkontzaren ospakizunetarako hautatu zutena baino egun batzuk lehenago, dofin erreginak afari bat eman zuen bere aitagarreba erregearen eta Valentinoisko dukesaren ohoretan. Clevesko anderea, apaintze-lanetan arduraturik ibili baitzen, ohi baino beranduago joan zen Louvrra. Hara zihoalarik, aitoren seme bat topatu zuen, dofin anderearen manuz beraren bila zetorrena. Gelan sartu zenean, printzesa hark, etzanda zegoen ohetik, oihukatu zion beraren zain egon zela sekulako larriminez.

— Uste dut, Madame —ihardetsi zion Clevesko andreak— ez diodala eskerrik zor egonarri horregatik, zeren, zalantzarik gabe, beste zerbaitek sortua izango baitu, ez bederen ni ikusteko gogoak.

— Arrazoi duzu —iharduki zion dofin erreginak—, baina halere, esker ona agertu behar zenidake, zeren pozik jakingo duzula ziur dikedan abentura baten berri emango baitizut.

Clevesko anderea belauniko jarri zen haren ohearen aurrean, eta bere zorionerako, egun-argiak ez zuen aurpegian jotzen.

— Badakizu —esan zion erreginak— Nemoursko dukeak ageri duen mudantza hori zerk sortua den jakiteko irrika biziz garela; nago badakidala zein den horren zioa. Harri eta zurutziko zaituen gauza bat da, gorteko pertsonarik ederrenetako batez baitago itsutuki maitemindua eta arrunt zaletua.

Hitz horiek, zeintzuk Clevesko andereak ezin baitzitzakeen berari zuzenduak bezala har, zeren ez baitzuen uste inork zekienik berak printze hura maite zuela, aise imajina litekeen oina-ze bizi bat eragin zioten.

— Nik, ordea —erantzun zuen—, Nemoursko jaunaren adina eta gorpuzkera duen gizon batengandik harridura sor dezakeen deus ez dut ikusten horretan.

— Izan ere, ez da hori —berrekin zion dofin andereak— harritu behar zaituena, baizik eta jakitea Nemoursko jaunak maite duen emakume horrek ez diola inoiz maitasun horren agergarri-rik eman, eta bere amodio horren jabe ez izate-

ko beldurrak senarrari aitortzera bultzatu duela, hark gortetik urrun eraman dezan. Eta Nemoursko jaunak berak kontatua da esaten ari natzaizuna.

Clevesko andereak, lehenik, oinazea nozitu zuen abentura hartan parterik ez zuela pentsatzean, baina dofin anderearen azken hitzek etsipenean amilarazi zuten, nahi baino parte handiagoa zeukala jakin baitzuen. Ez zuen ihardesterik izan eta burua ohearen gainean bermaturik eduki zuen, erreginak hizketan segitu zuen bitartean, Clevesko andereari esaten ari zitzaion hartan guztian hain arduratua, ez baitzen ohartu haren estuasunaz. Clevesko anderea doi bat bere baitara bihurtu zenean:

— Historia horri ez deritzat inondik ere egiantzekoa, Madame —ihardetsi zion—, eta gogo onez jakingo nuke nork kontatu dion berorri.

— Martiguesko andereak jakin du Chartresko bidamoaren ahotik —azaldu zion andereak—. Zuk badakizu hartaz maitemindurik dagoela. Sekretu bat bailitzan fidatu dio, Nemoursko jaunak berak kontaturik jakin baitu hark. Egia da Nemoursko dukeak ez diola dama

horren izenik aipatu, eta ez diola aitortu ere bera zenik hartaz maitemindua, baina Chartresko bidamoak ez du horri buruzko zalantzarik egin.

Dofin erreginak hitz horiek esatez amaitu zuenean, norbait hurbildu zen ohe ondora. Clevesko anderea bizkarrez zegoen, halako jarreran ezen ezinezkoa baitzitzaion hura nor zen ikustea. Baina ez zuen zalantzarik egin, dofin andereak bozkario eta harridura aire batez zera oihuztatu zuenean:

— Hara! Hementxe dugu bera. Horixe galdegingo diot.

Clevesko andereak, haren aldera itzuli gabe ere, ongi baino hobeto zekien Nemoursko dukea zela, eta izan ere, bera zen. Clevesko anderea dofin anderearengana lehiaz hurbildu, eta aha-petik esan zion ongi begiratu beharra zegoela abentura hura hari aipatzetik, Chartresko bidamoari isilean fidatu ziolako eta haien artean etsaigoa pitz zezakeen gauza zelako. Dofin andereak irribarrez ihardetsi zion zuhurregia zela, eta Nemoursko jaunarengana itzuli zen. Gaueko festarako jantzia zetorren, eta hain

berezkoa zuen xarmaz baliaturik, hitza hartu eta:

— Uste dut, Madame —esan zuen— beldurrik gabe pentsatzen ahal dudala ezen, sartu naizelarik, niri buruz ari zinetela solasean, berorrek niri zerbait galdetzeko gogoia zuela eta ezetz zioela Clevesko andereak.

— Egia da —erantzun zuen dofin andereak—, baina behingoagatik ez dut berarekiko izan ohi dudan etorkortasun bera izango. Zugandik nahi nuke jakin ea benetakoa den kontatu didaten historia bat, eta ea ez al zauden gorteko emakume batez maitemindua eta zaletua, zeinak arta handiz ezkututzen baitizu bere maitasuna eta are bere senarrari ere aitortu baitio.

Clevesko anderearen estuasuna eta aztoramena, imajina litekeen oro baino harantzago zihoan, eta Herio aurkeztu izan balitzaio egoera hartatik ateratzeko, atseginez onetsiko zukeen. Baina Nemoursko jauna are aztoratuago zegoen, egoterik baldin badago. Batetik, dofin andereak gorrotorik ez ziola sinesteko motiborik izan zue-
nez, eta bestetik, printzesa hark, gortean zeuden pertsona guztien artetik, konfiantzarik handiena

Clevesko andereari zionez —baina hark ere hein berean zionez dofin andereari—, hitz haiek, Clevesko anderearen aurrean esanik, pentsakizun bitxien hain nahaste ikaragarria zioten sortu, ezinezkoa izan baitzuen bere aurpegiaren eiteari eustea. Beraren erruz Clevesko anderea nolako estuasunean zegoen ikusteak, eta hark bera gorrotatzeko zeukan bidezko arrazoiaren pentsakizunak, halako izu-ikara eragin zioten, ihardetsi ezinik geratu baitzen. Dofin andereak, zeinen harriturik zegoen ikusirik:

— Begira, begira iezaiozu —esan zion Clevesko andereari— eta juzka ezazu abentura hori ez al den berarena.

Guztiarekin ere, Nemoursko jauna, lehen aztoramen hartatik bere baitara bihurtuz, eta halako estualdi arriskutsutik irten beharraren garrantziaz jabeturik, bere gogoaren eta bere aurpegieraren jabe egin zen bet-betan:

— Aitor dut, Madame —esan zuen— nagoena baino harrituago eta nahigabetuago ezin litekeela egon Chartresko bidamoak erakutsi didan desleialtasunagatik, zeren, nire lagun baten abentura isilgordean hari fidatu diodalarik, kontatu egin

baitu berak. Mendeka ninteke —segitu zuen, irribarrez, dofin andereak eduki berriak zituen susmoak ia guztiz ezabatu zizkion ahots-doinu bare batez—. Ez dira hala-holako gauzak fidatu dizkidatenak, baina ez dakit, Madame —gehitu zuen— zergatik egin didan berorrek abentura horretan nahasteko ohorea. Bidamoak ezin esan dezake afera hori niri dagokidanik, kontrakoa esan baitiot nik. Gizon maitemindu baten entzutea ongi egokitzen ahal da nirekin, baina ez dut uste, Madame, berorrek gizon maitatuarena eman diezadakeenik.

Printzea pozik azaldu zen, aspaldi batean dofin andereari agerturikoa gogoraziko zion zer-bait esan ahal izango ziolako, eta hark zeuzkakeen pentsakizunak gogotik aldarazi ahal izango zizkiolako. Dofin andereak ongi aditu uste zuen hark zioena, baina, deus ere ihardetsi gabe, haren estualdiari gogor egiten jarraitu zuen.

— Nire adiskideari diodan laguntasunak, Madame —ihardetsi zion Nemoursko jaunak—, eta hark bizia bera baino maiteagoa duen gauza bat inori azaltzeagatik egin diezazkidakeen bidezko gaitzespenek, aztoraturik naukate.

Hark, ordea, hitz erdika baizik ez dit kontatu, eta ez dit aipatu bere maiteñoaren izena. Munduko gizonik maiteminduen eta urrikgarriena dela baizik ez dakit.

— Maitatua delarik —ekin zion dofin andereak—, hain urrikgarria deritzazu?

— Berorrek ere maite dutela uste al du, Madame? —iharduki zion—. Eta benetako amodio isuria duen pertsona batek bere senarrari halakorik aitor diezaiokeela ere benetan uste al du? Pertsona horrek, dudarik gabe, ez du maitasuna ezagutzen, eta berari dioten atxikimenduari nolabaiteko esker-erakutsia baizik ez dio agertu. Nire adiskideak ezin erna dezake inolako itxaropenik, baina, bere zorigaitzean, zoriontsua da bederen, bera maitatzeko beldurra sortu duela-ko harengan, eta ez lioke bere lekua aldatuko munduko maitalerik dohatsuenari.

— Zure adiskide horrek —esan zuen dofin andereak— aise konpli dezakeen amodioa sentitzen du, eta hasia naiz sinesten ez zarela zeure buruaz ari. Gutxi egin du, gainera —jarraitu zuen—, nerau ere ez bainaiz Clevesko anderea-

ren iritzira etorri, zeinak esaten baitu abentura hori ezin daitekeela egiazkoa izan.

— Ez dut uste, benetan diot, egia izan daitekeenik —gaineratu zuen Clevesko andereak, zeinak ez baitzuen artean hitzik egin—, eta egia izango balitz ere, nola jakin liteke halakorik? Itxura guztien arabera, ez dirudi emakume batek, hain gauza harrigarria egiteko gauza izanik ere, hori inori kontatzeko ahuldadea edukiko lukeenik, eta jakina, haren senarrak ere ez luke inondik ere kontatuko, zeren osterantzean ez bailitzateke izango emazteak berarekiko izandako jokaeraren duin.

Nemoursko jauna, Clevesko andereak senarrarekiko zituen susmoak ikusirik, poztu egin zen horiek berretuz. Ongi zekien hura zela garaitzeko zeuzkan aurkarietatik beldurgarriena.

— Jelosiak —erantzun zuen—, eta esan zaiguna baino gehiago jakin nahi izateak, arduragabekeriak eginarazi diezaizkioke senar bati.

Clevesko anderea bere indarraren eta bere adorearen muga-mugan zegoen, eta, nola ez baitzuen elkarrizketa hura denbora luzeagoan jasaten ahal, ondoezik zegoela esateko puntuan

zen, noiz eta, beraren zorionerako, Valentinoisko dukesa sartu, eta errege iristear zegoela esan baitzion dofin andereari. Erregina hura, beraz, bere kabinetan sartu zen janzteko asmoz. Clevesko anderea dofin anderearen atzetik joatekoa zenean, Nemoursko jauna hurbildu zitzaion.

— Neure bizia emango nuke, Madame —esan zion— une batez zurekin mintzatzearren, baina esan nahi dizkizudan gauza garrantzitsu guztien artetik, deus ez zait hain garrantzitsua iruditzen nola baita zuri eskatzea, otoi, sinets dezazula, dofin anderearekin zerikusia izan dezakeen zer-bait esan baldin badut, berari ez dagozkion arrazoiengatik esan dudala.

Clevesko andereak Nemoursko jaunari aditzen ez ziolako iduri egin zuen. Hantxe utzi zuen hari begiratu ere gabe, eta errege sartu berriari jarraiki zion. Jendetza handia zegoenez gero, soinekoarekin nahaspilatu eta behaztopatu egin zen. Hala, estakuru hura baliatu zuen luzaroago egoteko indarrik ez zuen leku hartatik irteteko, eta zutik egon ezin zuelakoa eginez, etxera joan zen handik.

Clevesko jauna Louvrera joan zen, eta harriturik geratu zen beraren emaztea han ez zegoe-la jakin zuenean. Hark izandako ezbeharrak jakin bezain azkar etxera itzuli zen, haren berriak eza-gutzera. Ohean etzanik aurkitu zuen, eta jakin zuen haren ondoeza ez zela larriegia. Emaztea-ren ondoan une batzuk eman ondoren, ohartu zen hain tristezia latz batek kolpatu zuela, harriturik geratu baitzen.

— Zer duzu, Madame? —esan zion—. Iruditzen zait, kexatzen zarenaz gainera, baduzula beste oinazeren bat.

— Izan nezakeen nahigaberik handiena sentitzen dut —erantzun zuen—. Nola baliatu zara erakutsi dizudan fidantzia erabatekoaz edo, hobeki mintzatzera, eroaz? Ez al nuen merezi sekretua gordetzerik? Eta ez merezi arren ere, ez al zintuen zure interesak horretara hertsatzen? Inola ere esan behar ez dizudan izen bat jakiteko gogoak halako sekretu bat inori fidatze-ra eraman al zaitzake, izen hori zein den argitze-ko xedez? Jakinmin horrek bakarrik eragin bide dizu halako arduragabekeria krudela burutzea, zeinaren ondorenak izan zitezkeen deitoraga-

rrienak izan baitira. Abentura hori gauza ezaguna da, oraintxe kontatu baitidate, nahiz ez dakitene ni naizenik abentura horretan lehen interesatua.

— Baina zer diozu, Madame? —ihardetsizion—. Zu eta bion artean gertatua kontatutududala salatzen didazu, eta hori guztia gauza ezaguna dela esaten didazu? Ez dut neure burua zurituko inori halakorik kontatu izanagatik, ez baitzenidake sinetsiko. Zalantzarik gabe, zeurea balitz bezala hartu duzu besteren bati buruz esan dizutena.

— Ene, Monsieur! —berrekin zion—. Munduan ez dago nirea bezalako beste abenturarik. Ez dago gauza bera egin dezakeen emakumerik. Halabeharrak ezin dezake halakorik asma, inori ez zaio sekula halakorik bururatu, eta pentsakizun hori nire gogoan baizik ezin zitekeen sortu. Dofin andereak arestian kontatu dit abentura hori guztia. Chartresko bidamoak esan diolako daki, eta hark, berriz, Nemoursko jaunak esanik.

— Nemoursko jauna! —egin zuen oihu Clevesko jaunak, haren suminaldia eta etsipena islatzen zuen keinu batez—. Nola! Nemoursko

jaunak ba al daki zuk maite duzula eta nik ere badakidala?

— Nemoursko jaunarengan dituzu begiak fin-
katurik, beste inorengan bainoago —iharduki
zion—. Lehen ere esan dizut ez dizudala zure
susmoen gainean deus erantzungo. Ezezaguna
zait Nemoursko jaunak ba ote dakien abentura
horretan dudan partea eta zuk hari egozten dio-
zuna. Baina, zernahi gisaz ere, hark Chartresko
bidamoari kontatu dio, eta lagun batek esanik
zekiela ere esan dio, nahiz ez dion pertsona
horren izenik eman. Nemoursko jaunaren lagun
horrek zurea ere behar du izan, eta segur, horri
fidatuko zenion, gauzak argitze aldera.

— Ba al dugu munduan halako isilmandatua
egin nahiko geniokeen lagunik? —ihardetsi zion
Clevesko jaunak—. Eta nahiko al genituzke
susmo horiek argitu, geure buruari ere ezkutatu
nahiko geniokeen hori norbaiti agertzeko prezio-
an? Pentsa ezazu zerorrek, Madame, norekin
zaren mintzatu, zeren egiazkoagoa baitirudi
sekretu hori zerorri itzuri izana, niri baino. Non-
bait, ez bide duzu aski kemen izan aurkitu zaren
estuasan hori zeure kabuz jasateko, eta zure

kontzientziaren aringarria bilatu duzu traditu zaituen isilmandatariren bati azalduz.

— Ez nazazu gehiago nekarazi —egin zion oihu—, eta zerorrek egin duzun hobena niri salatzeko bezain bihozgabea ez zaitez izan. Zinez susma al dezakezu halakorik nigandik? Zuri hitz egiteko adorea izan dudalako, beste edonori hitz egiteko ere gauza izan behar al dut?

Clevesko andereak bere senarrari egindako aitortza hura hain zen haren zintzotasunaren agerbide nabarmena, eta hain sendoki ukatzen zion inori fidatu ziola, Clevesko jaunak ez baitzekien zer pentsatu. Bestetik, segur zen berak ere ez ziola inori deusik esan. Ezin zitekeen halakorik asma, baina halere, gauza ezaguna zen. Beraz, bietako batek esana behar zuen izan, baina halere, oinaze larriena sortzen ziona, sekretu hura norbaiten esku zegoela eta, itxura guztien arabera, berehala barreiatuko zela jakitea zen.

Clevesko andereak gauza berak kontsideratzen zituen gutxi gora-behera, eta hari ere ezinezkoa iruditzen zitzaion senarra hartaz mintzatu izana, baina bai eta ez mintzatu izana ere.

Jelosiak senar bati arduragabekeriak eginaraz diezaizkiokeela eta horren inguruan Nemoursko jaunak esan zionak hain zehatz azaltzen zuen Clevesko jaunaren egoera, ez baitzuen sinesten ahal halabeharrez esandako gauza zenik, eta egiantz horrek hertsatu zuen sinestera Clevesko jauna baliatu egin zela berarengan jarri fidantziatziaz. Bata zein bestea hain zeuden beren pentsakizunetan arduraturik, luzaz egon baitziren elkarrekin mintzatu gabe, eta lehendik hainbatean esanak zituzten gauza berberak esateko baidarik ez zuten urratu isiltasun hura, eta, hala gogoz nola bihotzez, inoiz baino elkarrengandik urrunago eta asaldatuago geratu ziren.

Aise imajina liteke zein egoeratan igaro zuten gaua. Clevesko jaunari, berak miresten zuen emakume hura beste baten amodioaz hunkiturik zegoela ikusi beharraren zorigaitzak pairamen guztia ahitu zion. Ez zitzaion kemenik gehiago geratzen, eta ez zuen uste horretarako indarrik aurki zezakeenik, beraren ohorea eta omena hain bortizki laidoztatuak zeuden afera batean. Ez zekien zer pentsatu emazteaz. Ez zekien zein jokabide behar zion harrarazi, ez eta nola jokatu

behar zuen berak ere. Alde guztietarik amildegia eta leize ilunak baizik ez zituen ikusten. Azkenik, asaldura eta egonezin ikaragarri baten ondoren, ikusirik aurki Espainia aldera behar zuela abiatu, dohakabezko egoera hari buruzko susmoa edo ezagutza emenda zezakeen deus ez egitera deliberatu zen. Clevesko anderearen bila joan zen, eta esan zion kontua ez zela elkarren artetik sekretuari norik huts egin zion argitzea, baizik eta biek behar zutela ahalegindu kontaturiko historia hura funtsik gabeko esamesa baizik ez zela sinets zezaten, zeinetan berak ez baitzuen inolako parterik; bere esku zuela Nemoursko jaunari eta gainerakoei horretaz konbentziaraztea; amodioa aitortzen zion gizon bati eduki behar zaion zurruntasunaz eta hoztasunaz behar zuela harekin jokatu; jokabide hartaz baliaturik, aise ezabatuko ziola beraren alde amodiozko isuri bat sentitzen zuelako ustea; orobat, ez zeukala zertan atsekabeturik pentsa zezakeen guztiagatik, zeren eta, aurrerantzean bere ahuldadearen inolako agerbiderik ematen ez bazuen, aise desegingo baitzitzaizkion pentsakizun guztiak, eta beharrezkoa zela, batez

ere, Louvrera eta gainerako bilkuretara joatea, ohi zuen moduan.

Hitz horiek esan ondoren, Clevesko jaunak emaztea utzi zuen, haren ihardespeneren zain egon gabe. Emazteak oso arrazoizkoa zeritzan senarrak esan zion orori, eta Nemoursko jaunaren aurka piztu zitzaion hegigoa zela kausa, uste izan zuen gauza erraza izango zela hura azken burura eramatea, baina zaila iruditu zitzaion, haatik, ezkontzako ospakizun guztietan lasaitasunezko begitarte batez eta baretasunezko aldarte batez agertzea. Alabaina, nola dofin anderearen ezkon-soinekoaren isatsa eraman behar baitzuen, eta nola egiteko hartarako beste anitz printzesa baino nahiago izan baitzuten, ez zeukan modurik, zarata handirik egin gabe eta horren arrazoiak bilatzera inor gogatu gabe, hari uko egiteko. Halatan, bere kabuz ahalegin bat egitea erabaki zuen. Gainerako egun osoa eman zuen horretarako prestatzen eta asaldatu zuten sentimendu guztiei atea zabaltzen. Bere kabinetan isolatu zen. Bere gaitz guztietarik, Nemoursko jaunaz kexu izateko motiboa izan eta, halere, hura desenkusatzeko inolako bitar-

tekorik aurkitu ezinak kolpatzen zuen bortxarik handienaz. Dudarik ez zegoen abentura hura Nemoursko jaunak kontatu ziola Chartresko bidamoari, hark halaxe aitortu baitzuen, eta ezin zezakeen zalantzan ere jarri, Nemoursko jauna mintzatu zitzaion moduagatik, hark ez zekienik abentura hura berari zegokiola. Nola desenkusatzeko ahal zuen hain moldakaizkeria nabarmenetik? Non zegoen printze haren zuhurtzia txoil beregainekoa, hainbeste hunkitu zuena?

— Zuhurtasunez jokatu da —zioen bere baitarako— dohakabea zela uste izan duen bitartean, baina zorion baten —zorion ziurgabe baten— pentsakizunak suntsitu egin dio zuhurtzia hori. Ezin izan du imajinatu norbaitek bera maita zezakeenik, besteek hori jakitea nahi izan gabe. Esan zezakeen guztia esan du. Nik ez diot aitortu maite nuenik; berak du igarri, eta besteei dizkie bere susmoak ikusarazi. Ziurtasuna eduki izan balu, modu berean jokatuko zen. Haren loriaren goresgarri zena ezkutatzeko gauza izango zela sinestea izan da nire hobena. Gainerakoetatik hain desberdina neritzon gizon horren erruz beste emakumeak bezala aurkitzen naiz,

nahiz horien irudiko izatetik aski urrun nagoen. Zorionez bete behar ninduen senar baten bihotza eta estimua galdu ditut, eta amodio ero eta bortitz bat izan duen pertsona bati bezala begiratuko didate laster guztiek. Amodio hori sentiarazi didanak ere badaki, eta hain zuzen ere, zorigaitz horiek saihesteagatik jarri dut arriskuan nire atsedena eta nire bizitza osoa.

Gogoeta triste horien ondoren, uharka isuri zitzaizkion negar-malkoak, baina gainezkaturik zeukan oinaze hura zitezkeenetik mingarriena izanagatik ere, ederki zekien hura jasateko adina indar edukiko zukeela, baldin Nemoursko jaunak gogobeterik utzi izan balu.

Printze haren gogoia ez zegoen lasaiago. Chartresko bidamoari mintzatzean egin zuen arduragabekeriak eta horren ondorio krudelek, bihotz-herstura hilgarria sortu zioten. Clevesko anderearengan ikusiriko asaldura, kezka eta atsekabeaz ezin zitekeen oroitu gaiturik sentitu gabe. Ezin zitekeen kontsola abentura haren ganean hainbat gauza esan izanaz, eta berez hitz ederrak zirenak, une hartan zantarrak eta moldakaitzak iruditzen zitzaizkion, zeren hitz

horiek Clevesko andereari aditzera eman batzioten Nemoursko jaunak bazekiela amodio bortitz hura sentitzen zuen emakumea bera zela, eta sentitu ere, beraren alde sentitzen zuela. Nemoursko jaunak desira zezakeen gauza bakarra printzesa harekin solasaldi bat izatea zen, baina iruditu zitzaion, desiratu baino gehiago, beldurra eduki behar ziola.

— Zer esan diezaioket? —egin zuen oihu Nemoursko jaunak bere baitarako—. Joango al natzaio esatera jadanik ongi baino hobeto eza-gutzerara eman diodana? Azalduko al diot badakidala berak maite nauela, maite dudala esatera sekula ausartu ez naizen honek? Deblauki mintzatzen hasiko al natzaio nire amodioaz, itxaropenek ausart bihurtu duten gizona naizela haren begietara agertzeko? Harengana hurbiltze hutsa ere pentsa al dezaket? Eta ausartuko al naiz nire behakoa jasan beharraren estuasunean jartzera? Nola zuri dezaket neure burua? Ez dut aitziarik, ez naiz duin Clevesko andereak beha diezadan, eta beraz, ez dut igurikitzen hark niri behatzerik. Nire erruz ez diot bitarteko hoberik eman nire aurka defenda zedin, salbu eta berak

nahien zituenak eta menturaz alferrik bilatzen zituenak. Nire laxokeriak galarazi dit munduko pertsonarik maitagarrienak eta estimagarrienak ni maitatzeak sortuko lidakeen zoriona eta loria, baina, baldin zorion hori, hark sofritu gabe eta nik hari oinaze hilgarririk eman ere gabe, galduko banu, kontsolagarri litzaidake, eta une honetan gehiago sentitzen dut hari egin diodan mina, ezen ez harenaren aldean neure buruari egin diodana.

Nemoursko jauna luzaz egon zen bere buruaz nahigabetzen eta gauza berak pentsatzen. Clevesko andereari hitz egiteko gogoia etengabe zetorkion burura. Horretarako baliabideak aurkitzea irrikatzen zuen, idaztea ere pentsatu zuen, baina azkenean, egindako hobenaren ondoren, eta hark bide zeukan aldartea kontuan izanik, iruditu zitzaion egin zezakeen gauzarik onena haren nahigabe eta isiltasunarekiko begirune sakon bat erakustea zela, ikusaraztea ez zela ausartzen haren aurrean agertzera, eta itxarotea denborak, halabeharrak eta hark zion amodio isuriak zerbait egin zezaten beraren alde. Halatan, Chartresko bidamoak agertu desleialtasuna-

gatik gaitzespenik ez egitea erabaki zuen, haren susmoak sendoago bilakatuko ote ziren beldurrez.

Madameren biharamuneko ezkon-agintzak eta hurrengo eguneko ezteiek hain zeukaten arduraturik gorte osoa, ezen Clevesko andereak eta Nemoursko jaunak aise ostendu baitzuten beren tristura eta asaldura jendearen aurrean. Dofin andereak iragaitzaz baizik ez zion aipatu Clevesko andereari Nemoursko jaunarekin izan zuten elkarrizketa, eta Clevesko jaunak ontzat eman zuen gertatutakoaz bere emazteari deus gehiago ez esatea, halako moldez, ez baitzen aurkitu imajinatu zuen bezain estuasun larrian.

Ezkon-agintzak Louvren egin ziren, eta oturuntzaren eta dantzaren ondoren, erregezkoak gotzaindegira joan ziren lotara, usatu ohi ziren bezala. Goizean, Albako dukeak, zeina guztiz arrunki beztitzen baitzen beti, urrez bordaturiko soineko bat jantzi zuen, suzko gorri, hori eta beltz kolorez nahastua, oro harribitxiz estalia, buru gainean koroa itxia zuelarik. Orangeako printzea, arrandia handiz jantzia eta segizio guztia atzetik jarraika zuelarik, eta orobat espainiar

guztiak, haiek ere beren zerbitzariekin batera, Albako dukearen bila joan ziren Villeroi hotelera, hantxe hartu baitzuen ostatu, eta launakako ilaratan jarririk, hantxe abiatu ziren gotzaindegia buruz. Iritsi bezain laster, elizara joan ziren ordenan. Errege zihoan Madamerekin, zeinak ere itxia baitzeraman koroa, soinekoari Montpensierko eta Longuevilleko andereñoek eusten ziotelarik. Erregina zetorren horien atzetik, koroarik gabe, alabaina. Jarraian dofin erregina, Madame erregeren arreba, Lorraineko anderea eta Nafarroako erregina heldu ziren, eta printzesek zeramatzaten haien soinekoak. Erregina eta printzesa guztiek soineko bikainez jantziak ekarri zituzten beren alabak, haiek zeramatzaten kolore berberetz, halako moduz, ezen, beren soinekoen koloreak ikusirik, garbi ezagut baitzitekeen nor noren alaba zen. Eliza barruan atonduriko mailadira igo eta ezkontz ospakizunak egin zituzten. Berehala gotzaindegira itzuli ziren afaltzera, eta bostak aldera, jauregiari buruz abiatu ziren, hantxe egingo baitzuten oturuntza. Bertara etor zitezela eskatu zieten Parlamentuari, Gorte Nagusiei eta Udalari. Errege-erreginek eta prin-

tze-printzesek marmolezko mahai baten inguruan bazkaldu zuten jauregiko areto handian. Albako dukea Espainiako erregina berriaren aldamenean eseria zegoen. Marmolezko mahaiaren mailen oinetan, eta erregeren eskuinera, mahai bat zegoen enbaxadore, artzapezpi-ku eta ordenako zaldunentzat, eta beste aldean, berriz, beste mahai bat Parlamentuko jaun guztientzat.

Guiseko dukeak, urre frisatzuko soineko batez jantzirik, ospakizun buruaren zerbitzua bete zuen erregerentzat, Condeko printze jaunak ogiketariarena, eta Nemoursko jaunak, berriz, edarizainarena. Mahaiak jaso ondoren, dantza hasi zen. Beregaineko ballet-saio eta ikuskizunek eten zuten une batez dantzaldia, baina berehala heldu zioten atzera dantzari, eta azkenik, gauerdia iragan zelarik, errege eta gorte guztia Louvrera itzuli ziren handik. Clevesko anderea triste egonagatik ere, edertasun paregabe baten gisa agertu zen une oro Nemoursko jaunaren begietara. Printze hura ez zen ausartu harekin mintzatzera, ospakizunetako anabasak horretarako bitarteko ugari eskaini

zizkion arren, baina halako tristezia eta harengana hurbiltzeko halako beldur begirunetsua erakutsi zion, jada ez baitzitzaien Clevesko andearari hain hobendun iruditzen, nahiz ez zuen hark deus ere esan bere burua zuritzeko. Berdin jokatu zen hurrengo egunetan, eta egun horietan ere, jokabide horrek eragin berbera sortu zuen Clevesko anderearen bihotzean.

Azkenik iritsi zen zaldun-guduaren eguna. Erreginak, berentzat apailatu zituzten galeria eta mailadietara hurbildu ziren, eta lau lehiaburuak gudazelaiaren mutur batean azaldu ziren, zaldi eta zaldi-mutil kopuru amaigabearekin, Frantzia inoiz egin den ikuskizunik handiosena osatzeko prest.

Erregek zeramatzan kolore bakarrak zuria eta beltza ziren, Valentinoisko andere alargunaren ohoretan betiere. Ferrarako dukea eta haren segizio guztia kolore hori-gorritz zihoan. Guiseko jauna, aldiz, kolore zuri-gorritz agertu zen. Hasieran inork ez zekien zein izan zitekeen kolore haiek eramatearen kausa, baina gero oroitu ziren emakume eder batenak zirela, hura ezkongai zela maite izan zuena, eta oraindik ere maite

zuena, nahiz ez zen ausartzen hala agertzera. Nemoursko jaunak kolore hori-beltzak zeramatzan. Alferrik ahalegindu ziren horren arrazoia-
ren bila, baina Clevesko andereari ez zitzaion gaitz izan asmatzea: oroitu zen haren aurrean kolore horia gogokoa zuela esan izanaz, eta damu zuela ilehoria izatea, ezin zezakeelako halako kolorerik soinean eraman. Printze hark uste izan zuen nabarmendu gabe ager zitekeela kolore harekin, zeren, Clevesko andereak halako kolorerik soinean ez zeramanez, ezin igarriko baitzuten hari zegokionik.

Sekula ez du inork halako trebetasunik erakutsi nola agertu baitzuten lau lehiaburu haiek. Erresumako zaldunik onena errege izan arren, ez zen jakiten ahal haien artetik nori eman lehentasuna. Nemoursko jaunak berezko xarma bat agertzen zuen bere ekintza guztietan, are Clevesko anderea baino pertsona ezaxolatuagoak erakar zitzakeena. Hura gudazelaiaren mutur batetik agertzen ikusi orduko, Clevesko andereak neurritz gaineko zirrara sentitu zuen bere barrenean, eta printze haren lasterkaldi bakoi-

tzean zail zitzaion bere poza ezkutatzea, hark bere lasterkaldia arrakastaz burutuz gero.

Ilunabar aldera, ekitaldi guztiak amaitzear zirenean eta jendea erretiratzeko prest, erregek nahi izan zuen, Estatuaren patu gaiztoak horretara bultzaturik, lantza bat gehiago hautsi. Agindu zion Montgomeryko kondeari, zeina izugarri trebea baitzen, gudazelaira hurbil zedin. Kondeak hertsatuki eskatu zion egiteko hartatik desenkusa zezala, eta otu zitzaizkion arrazoi guztien aitzakia jarri zion, baina erregek, amorratzeraino haserratzeko puntuan, halaxe nahi zuela jakinarazi zion fermuki. Erreginak agindu zuen esan ziezaiotela erregeri lasterketa gehiago ez egiteko eskatzen ziola, zeren, hain ongi jokatua zelarik, kontent egon beharko baitzukeen, eta beraren ondora itzul zedila otoizten zion. Erregek ihardetsi zuen harenganako maitasunagatik nahi zuela lasterka egin eta guda-esparruan sartu. Erreginak, orduan, Saboiako jauna bidali zuen harengana berriro, itzul zedila bigarren aldiz erregutzera, baina alferrik izan zen den-dena. Lasterka egin zuten, lantzak apurtu ziren, eta Montgomeryko kondearenaren izpi

batek erregeri begian eman eta hantxe geratu zitzaion sartua. Printze hura lurrera erori zen kolpearen ondorioz, eta ezkutariak eta Montgomeryko jauna, gudazelaiko buruetako bat baitzen, harengana joan ziren bizkor-bizkor. Harriturik geratu ziren hura zauriturik ikustean, baina errege ez zen txoil harritu. Deus gutxi zela esan zuen, eta Montgomeryko kondeari barkatzen ziola. Aise imajina liteke zer nolako asaldura eta zer nolako nahigabea ekarri zuen halako ezbehar zorigaiztokoak, alaitasunerako behar zuen egun batean. Errege bere ohera eraman zuten, eta medikuek haren zauria ikusi bezain laster, oso larria zela iritzi zioten. Kondestable jauna orduantxe oroitu zen erregeri egin iragarpenean nola esan zuten gudu berezi batean hilko zutela, eta ez zuen dudarik egin iragarpen hura beteko zela.

Espainiako erregeak, Bruselan baitzen une hartan, istripu haren berri jakin orduko bere medikua bidali zuen, aipu handiko gizona bera, baina hark ere etsipena eman zion.

Gorteak, hain erdibitua eta hain interes kontrajarriez betea, halako gertakari handi baten

bezperatan bizi zuen aztoramena ez zen nolanahikoa; halere, mugimendu oro ezkutuan gordetzen zuten, eta itxura guztien arabera, erregeren osasuna zuten kezka bakar. Erreginak, printzeak eta printzesak ez ziren kasik haren gelaitzinetik irteten.

Clevesko andereak, jakinik han egon beharra zuela, Nemoursko jauna ere hantxe ikusiko zuela eta bere senarrari ezin ziezaiokeela ezkuta hura ikusteak sortzen zion estuasuna, eta ezaguturik, halaber, printze haren presentzia hutsak justifikagarri bilakatzen zuela beraren begietara eta aldez aurreko erabaki guztiak suntsitzen zizkiola, gaixo iduri egiteko deliberoa hartu zuen. Gor-tea arduratuegi zegoen haren jokabideaz ohar-tzeko eta haren eritasuna aizuna ala benetakoa zen argitzeko. Haren senarrak bakarrik ezagut zezakeen egia, baina ez zuen nahigabetzen hark jakiteak. Horrela, beraz, etxean geratu zen, gor-tean prestatzen ari zen aldakuntza handiaz ardu-ra gehiegirik hartu gabe, eta bere pentsakizunek osoki beretua zutenez gero, askatasun osoa sentitu zuen pentsamendu horien mendera etortzeko. Mundu guztia zegoen erregeren etxean. Cle-

vesko jauna ordu jakin batzuetan etorri ohi zen berriak ematera. Emaztearekin betidanik izan zuen portaera bera gorde zuen, eta bakarrik zirenean soil-soilik agertzen zen doi bat hotz eta uzkur. Clevesko jaunak ez zion gertatutakoaz berriro hitzik egin, eta Clevesko andereak ere ez zuen behar adina indarrik izan, eta ez zitzaion egoki iruditu ere, elkarrizketa hari berrekin ziezaioten.

Nemoursko jauna, zeinak Clevesko anderearekin mintzatzeko unetxo bat aurkitzea igurikitzen baitzuen, txoil harritu zen, eta samindu, hura ikusteko atsegina izan ez zuelako. Erregeren eritasuna hain larria izaki, zazpigarren egunean medikuek etsipena eman zioten. Bere heriotzaren ziurtasuna irmotasun handiz jaso zuen, eta hainbatenaz miresgarriagoa zen, zenbatenaz zorigaiztoko istripu bategatik galduko baitzuen bizia, adinaren lorean galdu ere, zoriontsu, bere jendeek miretsia eta maitasuna zion emakume batez bera ere itsutuki maitemindua. Heriotzaren bezperan, bere arreba Madamearen eta Saboiako jaunaren arteko ezkontza ospatu zuen, zeremoniarik gabe. Aise juzkatzen ahal da

zein egoeratan zen Valentinoisko dukesa. Erreginak ez zion baimenik eman errege ikus zezan, eta artean bere esku zeuzkan erregeren zigiluak eta koroaren harribitxiak eskatzera etorri zitzaizkion, erreginak hala manaturik. Dukesak errege hila al zegoen galdegin zien, eta haiek ezetz erantzun ziotenez:

— Oraindik ez dut jaberik —ihardetsi zuen—, eta inork ezin nazake behartu haren konfiantzak nire eskuetan utzi duena itzultzera.

Tournellesko gazteluan erregek azken hatsa eman orduko, Ferrarako dukeak, Guiseko dukeak eta Nemoursko dukeak Louvrera gidatu zituzten erregina ama, errege semea eta haren emazte erregina. Nemoursko jauna zihoan erregina amari lagun egiten. Oinez abiatu zirenean, erregina ama urrats batzuk atzera itzuli, eta erregina bere errainari esan zion hari zegokiola lehen lekuan joatea, baina argi ikus zitekeen konplimendu hartan garratzasuna zegoela, onginahia baino gehiago.

LAUGARREN ZATIA

Lorraineko kardinala, harrezkero, erregina amaren gogoaren guztizko jaun bilakatu zen. Chartresko bidamoak jada ez zuen inolako partetik erreginaren ontarteetan, eta Martiguesko andeareari eta libertateari zion maitasunak, galera hura merezi adina sentitzea eragotzi zion. Kardinalak, erregeren eritasunak iraun zuen hamar egun haietan, astia izan zuen bere egitasmoak osatzeko eta erreginari bere egitasmoen araberako erabakiak harrarazteko, halako gisaz, ezen, errege hil bezain laster, erreginak manatu baitzion kondestableari Tournellesen gera zedila, errege zenduaren hilotzaren aldamenean, ohiko ospakizunak egin zitezten. Egiteko hark gauza orotarik urruntzen zuen, eta halaber, mugitzeko askatasuna ezabatzen zion. Mandatari bat igorri zuen Nafarroako erregearengana, lehiaz etor zedila esatera, Guiseko jaun-andereek ustez erdietsiko zuten gorapen handiari elkarrekin kontra egin ziezaioten. Armadaren gidaritzza Guiseko dukeari eman zioten, eta

finantzak Lorraineko kardinalari. Valentinoisko dukesa gortetik iraitzi zuten. Tournongo kardinalari, kondestablearen etsai aitortua zenari, eta Olivier kantzilerrari, Valentinoisko dukesaren etsai zinezkoari, itzultzeko esan zieten. Hala, bada, guztiz aurpegi aldaturik agertu zen gordea. Guiseko dukeak odoleko printzeen maila bera erdietsi zuen, eta hileta elizkizunetan erregeren soinganekoari eusten joan zen. Hura eta haren anaiak jaun eta jabe bakarrak izan ziren, ez bakarrik kardinalak erreginaren gogoan zuen itzalagatik, baizik eta printzesa hark uste izan zuelako, haiek mesfidantzarik sortuz gero, erraz urrun zitzakeela bere ondotik, baina ez ordea kondestablea, zeren hark odoleko printzeen bermea baitzuen.

Hileta elizkizunak amaitu zirenean, kondestablea Louvrera etorri, eta erregek hoztasun handiz egin zion begitartea. Bakarrean mintzatu nahi izan zuen erregerekin, baina hark, Guiseko jaun-andereei deituz, haien aurrean esan zion atsedean hartzeko gomendatzen ziola, finantzak eta armadaren gidaritza izendatuak zirela jada, eta haren aholkuen beharra eduki zezanean, dei-

tuko zuela bere ondora. Erregina amak erregek berak baino are hoztasun handiagoaz egin zion harrera, eta agiraka egin zion, zeren errege zenduari esan baitzion haren seme-alabek ez zutela aitaren antzik. Nafarroako erregea ere iritsi zen, baina hari ez zioten harrera hoberik egin. Condeko printzeak, anaiak baino pairamen gutxiago izaki, ahots goran egin zuen kexu. Alferrikakoak izan ziren, ordea, haren arrangurak. Gortetik urrunarazi zuten, Flandesera bakearen berrespe-
na sinatzera bidaltzen zutelako estakuruaz. Nafarroako erregeari Espainiako erregearen gutun faltsu bat erakutsi zioten, zeinean Espainiako hirietara erasoaldiak egin izanaz salatzen baitzuten. Bere lurak gal zitzakeelako beldurra piztu zioten, eta azkenik, Biarnora joan zedin gogatu zuten. Erreginak hori egiteko bitartekoak hornitu zizkion, Elisabeth anderea haraino gidatzea bere ardurapean utziz, eta printzesa haren aurretik abiatzera hertsatu zuen. Hala, bada, Guiseko leinuaren boterea dardarazi zezakeen inor ez zen geratu gortean.

Elisabeth anderea ez gidatzea Clevesko jaunari desplazatzen zitzaion arren, ez zuen kexurik

egiterik beraren gainetik nahiago izan zutenaren handitasunagatik. Eginkizun hura deitoratzen zuen, ez hainbeste jasoko zukeen ohoreagatik, baizik eta modu hartan gortetik urrundu ahal izango zuelako emaztea, handik urruntzeko gogorik zuenik iduri gabe.

Errege hil eta egun batzuetara, Reimsera joatea erabaki zuten koroatze ekitaldirako. Bidaia hartaz hitz egin zioten orduko, Clevesko andreak, zeina denbora hartan guztian etxean gertatu baitzen gaixo iduri eginez, senarrari erregutuzion ontzat eman zezala, arren, berak gorteari ez jarraitzea, eta, horren orde, Coulommiersera joatea, egurastera eta bere osasuna zaintzera. Hark ihardetsi zion ez zuela sakon aztertu nahi bidaia ez egitera bultzatu zuen arrazoia osasuna zen ala ez, baina haatik, onesten ziola bidaia hura ez egitea. Ez zitzaion zail gertatu lehendik erabakia zuen gauza bati baiezkoa ematea, izan ere, bere emaztearen bertuteaz iritzi ona edukia-gatik ere, argi zekusan ez zela egoki, zuhurtziaren kariatz, hark maite zuen gizon baten begien bistara luzaroan agertzea.

Nemoursko jaunak berehala jakin zuen Clevesko andereak ez ziola gorteari jarraikiko. Ezin delibera zitekeen hura ikusi gabe abiatzera, eta irteeraren bezperan, haren etxera joan zen giza-bideak baimentzen zuen ordurik beranduenean, bakarrik aurkituko zuelakoan. Haren asturu onak fabore egin zien zeuzkan asmoei; ezkaratzera sartu zenean, Neversko anderea eta Martiguesko anderea topatu zituen, handik irteten ari zirela, eta bakarrik utzi zutela esan zioten. Biziki asaldaturik eta aztoraturik igo zen haren gelara, eta sentipen hura, Clevesko andereari Nemoursko jauna ikustera zetorkiola esandakoan izan zuen durduzarekin pareka zitekeen soilik. Hark bere amodio grinaz hitz egingo ote zion beldurra..., berak adeitsuegi ihardetsiko ote zion erre-zeloa..., bisitaldi hark senarrari sor ziezaiokeen bihotz-herstura..., gauza horien guztien berri eman edo ezkutatzekeo zailtasuna..., kolpetik etorri zitzaizkion denak gogora, eta hain eragozpen larria zioten sortu, ezen munduan gehien desiratzen zuen hartatik begiratzeko deliberoa hartu baitzuen. Bere andere-lagunetako bat igorri zuen Nemoursko jaunarengana, zeina gelai-

tzinean baitzegoen zain, berriki gaizkitua zela esan ziezaion, eta arrunt atsekabetzen zuela hark egin nahi zion ohoreari harrerarik egin ahal ez izateak. Zer nolako nahigabea printze harentzat Clevesko anderea ez ikustea, eta ez ikustea gainera, hark ikusterik nahi ez zuelako! Biharamunean bertan alde egin zuen handik; harrezkerro ezin zezakeen itxaropenik eduki asturu onean. Dofin anderearen etxean izandako elkarrizketaz geroztik ez zion deus ere esan, eta izan zuen motiborik sinesteko bidamoari hitz egitean egingdako oker harexek zizkiola itxaropen guztiak suntsitu. Azkenik, oinaze bizi bat are garratzago egin lezaketen gauza guztiek kolpatu zuten.

Clevesko anderea printze haren bisitaldiaren pentsakizunek sortu asalduratik doi bat bere onera bihurtu zenean, hura errefusarazi zioten arrazoi guztiak aienatu ziren. Are oker bat egin zuela ere esango zuen, eta ausardiarik izan balu edo oraindik garaiz egon balitz, haren bila igorriko zukeen norbait.

Neversko eta Martiguesko andereak, haren etxetik irten zirenean, dofin erreginaren etxera joan ziren. Clevesko jauna ere hantxe zen. Prin-

tzesa hark nondik zetozen galdegin zien, eta haiek esan zioten Clevesko anderearen etxetik heldu zirela, bertan igaro zutela arratsaldearen zati bat, beste jende askorekin batera, eta Nemoursko jauna baizik ez zutela han utzi. Hitzok, haientzat axolagabeak izanagatik ere, Clevesko jaunarentzat axola handikoak ziren. Nahiz imajinatzen zuen Nemoursko jaunak noiz-nahi aurki zezakeela beraren emazteari hitz egiteko parada, hala eta guztiz ere, pentsatzen zenean Nemoursko jauna emaztearen etxean zela, bakarrik zegoela, eta bere amodioaz hitz egiten ahal ziola, une hartan hain gauza berria eta hain jasanezina iruditu zitzaion, ezen jelsia piztu baitzitzaion bihotzean, sekula ordu arte baino bortxa handiago batez. Ezinezkoa izan zitzaion erreginaren etxean luzaroago geratzea, eta etxera itzuli zen, zergatik itzultzen zen eta Nemoursko jaunari etetera joateko gogorik zeukan ere jakin gabe. Etxera hurbildu bezain laster, printze hura oraindik han zegoela pentsaraz ziezaiokeen deus ikusten ote zuen begiratu zuen. Han ez zegoela ikusirik lasaitasuna sentitu zuen, eta eztigarria izan zitzaion luzaroan han egoterik izan ez zuela

pentsatzea. Imajinatu zuen agian ez zukeela jelskor sentitu behar Nemoursko jaunagatik, eta, horri buruzko dudarik egiten ez bazuen ere, zalantzan nahi zuen jarri, baina hainbeste gauzak konbentziarazten zuten hartaz, ez baitzen denbora luzean egon desiratzen zuen ziurgabetasun hartan. Emaztearen logelara joan zen lehenik, eta, zenbait denboraz gauza ezaxolagabeez hitz egin ondoren, ezin izan zuen etsi zer egin zuen eta nor ikusi zuen galdetu gabe. Emazteak guztia azaldu zion, baina Nemoursko jauna inondik ere aipatzen ez ziola ikusirik, Clevesko jaunak galdegin zion, dardaraz, ea ez al zuen beste inor ikusi, zeren hartara printze haren izena esateko bide bat zabaltzen baitzion, eta bide batez, bere emazteak makurkeriaren bat egiteak sortuko liokeen oinazea ezabatzeko ere bai. Emazteak, Nemoursko jauna ikusi ez zue- nez, ez zion haren izenik aipatu, eta Clevesko jaunak, hitzari berriro lotuz, beraren atsekabea agertzen zuen ahots doinu batez:

— Eta Nemoursko jauna —esan zion—, ez al duzu ikusi? Ala ahantzi egin al duzu?

— Izan ere, ez dut ikusi —ihardetsi zuen—. Gaizkiturik nengoen eta nire andere-lagunetako bat igorri dut nire desenkusak hari ematera.

— Harentzat baizik ez zinen gaizkiturik ordea —iharduki zion Clevesko jaunak—, zeren mundu guztia ikusi baituzu. Zer du bereiz Nemoursko jaunak? Zergatik ez da zuretzat beste edonor bezalakoa? Zergatik egon behar duzu haren begiradaren beldur? Zergatik ikusarazten diozu beldur diozula? Zergatik agertzen diozu haren maitasun grinak eman botereaz baliatzen zarela? Ausartuko al zinateke hura ez ikustera baldin ez bazeneki hark ongi bereizten dituela zure zorrozkeriak eta zure moldekaizkeriak? Baina zergatik da beharrezko harenganako zorrozkeriak izan ditzazun? Zu bezalako pertsona bategan, Madame, axolagabeziaz landa, oro da ontarte.

— Ez nuen uste —berrekin zion Clevesko andereak—, Nemoursko jaunaz edozein susmo duzularik ere, gaitzespenik egin zeniezadakeenik hura ez ikusteagatik.

— Egiten dizut halere, Madame —ihardetsi zion—, eta ongi fundaturik daude. Zergatik ez

hura ikusi, deus esan ez badizu? Baina, Madame, hark hitz egin dizu. Isiltasunaren bidez bakarrik agertu izan balizu bere amodioa, ez zukeen zugar halako zirrara handia sortuko. Ez duzu egia osoa esaterik izan, zatirik handiena ezkutatut baitidazu. Aitortu didazun apur hori ere damu duzu, eta ez duzu indarrik aski izan jarraikitzekeo. Uste nuena baino dohakabeagoa naiz; munduko gizonik dohakabeena naiz. Nire emaztea zara, maitale baten gisan maite zaitut, baina zuk beste bat maite duzula dakusat. Beste hori gorteko pertsonarik maitagarriena da, eta egun oroz zaitu ikusten. Hark badaki zuk maite duzula. Ai ene! Nolatan sinets nezakeen —egin zuen oihu— hari diozun txera gaindituko zenuenik? Zentzua galdua eduki behar dut, hori gerta litekeenik sinesteko.

— Ez dakit —ekin zion berriro Clevesko andereak, tristeki— nirea bezalako hain ohizkanponko jokaera bat ederrestean oker egin duzun ala ez, baina ez dakit nerau ere ez ote naizen tronpatu, nirekin zuzentasunez jokatuko zinela uste izanik.

— Ez dezazula zalantzarik egin, Madame —
ihardetsi zion Clevesko jaunak—, tronpatu egin
zara. Zugandik igurikitzen nituenak bezain ezi-
nezkoak dira zuk nigandik espero zenituenak.
Nola espero zenezake ni zentzuan egoterik?
Ahaztu egin al duzu sutsuki maite zintudala eta
zure senarra nintzela? Batak nahiz besteak
muturreraino eraman gaitzakete. Zer ez ote
zezaketen biek batera? Izan ere, zer ez dira? —
jarraitu zuen—. Ezin mendera ditzakedan senti-
mentu bortitz eta zehazgabeak baizik ez ditut.
Jada ez dut uste zure duin naizenik, eta zerori
ere, ez zait iruditzen nire duin zarenik. Miresten
zaitut eta gorroto dizut, iraintzen zaitut eta bar-
kamena dizut eskatzen, gurtzen zaitut eta ahal-
ke naiz gurtzen zaitudalako. Azken batean, ez
baretasunik ez zentzurik daukat gehiago. Ez
dakit nola bizi naitekeen Coulommiersko hartan
hitz egin zenidanez geroztik eta Dofin andereak
zure abentura hori gauza ezaguna zela jakinara-
zi zizunez geroztik. Ez nuke asmatuko nola jakin
duen hark, ez eta zer gertatu den ere Nemours-
ko jaunaren eta zure arteko afera horretan. Zuk
ez didazu sekula argituko eta nik ere ez dizut

argitzeko galdegingo. Munduko gizonik dohaka-beena bilakarazi nauzula gogoratzea baizik ez dizut eskatuko.

Clevesko jauna, hitz horien ondotik, emaztearenetik irten zen, eta biharamunean bertan partitu zen, hura ikusi ere gabe. Halere, nahigabez, onestasunez eta ezintasunez beteriko gutun bat idatzi zion. Emazteak hain ihardespen hunkigarria egin zion, eta iraganeko jarreraz nola etorkizunean edukiko zuenaz hain segurtasunez betea, ezen, segurtasun hura egian bermaturik zegoenez, eta izan ere, horiek zirenez haren benetako sentimenduak, gutun hark zirrara bizia eragin baitzion Clevesko jaunari, eta nolabaiteko sosegua eman ere bai. Kontuan harturik, gainera, bera bezala Nemoursko jauna ere erregeren bila zihoala, lasaiago geratu zen hura Clevesko anderearekin batera ez zela egongo jakinik. Printzesa hark bere senarrari hitz egiten zion guztietan, batetik senarrak hari aitortzen zion maitasunak eta haren jokabidearen zintzotasunak, eta bestetik, emazteak senarrari zion laguntasunak eta hari zor zion guztiak, halako zirrara eragiten zioten bihotzean, Nemoursko jaunaren oroitzar-

pena ere lausotzen baitzitzaion. Baina une batez baizik ez zen izaten, eta ideia hura sarritan etortzen zitzaion oroimenera, sekula lehenago baino are biziago eta nabarmenago.

Printze haren irteeraren ondoko lehen egunetan, apenas sumatu zuen haren ezaldia, baina gero krudela iruditu zitzaion. Hura maitatzen zuenez geroztik, ez zen egun bakar bat ere izan hura berriro ikusteko beldurrez edo irrikaz egon ez zenik, eta hura berriz ikustea halabeharraren esku ez zegoela pentsatzeak atsekabe handia sentiarazi zion.

Clevesko anderea Coulommiersera abiatu zen, eta hara zihoalarik, arta handiz ahalegindu zen, Valentinoisko andereak Anet-eko etxe ederrerrako eginarazi zituen koadro batzuetatik kopiarazitako zenbait margolan handi hara eramán zitzaten. Errege zenduaren agintaldian jazotako gertaera esanguratsu guztiak margolan haietan jasoak zeuden. Besteak beste, Metzeko setioa ageri zen, eta setio horretan nabarmendu ziren guztiak antz handiz zeuden margoturik. Nemoursko jauna haien guztien artean ageri

zen, eta agian, horrexek gogatu zuen Clevesko anderea margolan haiek edukitzera.

Martiguesko andereak, zeinak ez baitzuen gortearekin batera joaterik izan, zin egin zion Coulommiersera joango zela egun batzuk iragatera. Bi-biek partekatzen zuten erreginarene mesedea, baina horrek ez zien sekula bekaizgorik edota elkarrenganako urruntasunik sortu. Lagunak ziren, nahiz ez zizkioten haatik beren sentimenduak elkarri fidatzen. Clevesko andereak bazekien Martiguesko andereak bidamo maite zuela, baina Martiguesko andereak, aldiz, ez zekien Clevesko andereak Nemoursko jauna maite zuenik, ez eta Nemoursko jaunak bera maite zuenik ere. Clevesko anderea bidamoaren iloba zenez, are begikoago bilakatu zen Martiguesko anderearen begietara, eta Clevesko andereak ere, pertsona bezala maite zuen, berarena bezalako maitasun bat zuelako, eta maitasun hura, izan ere, beraren maiteñoaren adiskide minenari ziolako.

Martiguesko anderea, Clevesko andereari hitz eman bezala, Coulommiersera joan zen. Arras bizimodu bakartian aurkitu zuen. Printzesa

hark, erabateko bakardadean egoteko eta mirabeen laguntzarik gabe arratsaldeak lorategi artean igarotzeko modua bilatu zuen. Nemoursko jaunak entzun zioneko pabilioi hartara joan, eta lorategira ematen zuen kabinet hartan sartu ohi zen. Andere-lagunak eta mirabeak aldame-neko kabinetean egon ohi ziren, edo pabilioiaren behealdean bestela, eta hark hots egiten zienean baizik ez ziren berarengana azaltzen. Martigues andereak ez zuen inoiz Coulommiers ikusi. Han aurkitu zituen edertasun guztiek harriturik utzi zuten, eta batik bat, pabilioi haren xarmak. Clevesko anderea eta bera han egon ohi ziren arrats oroz. Gauez, bakarrik eta munduko tokirik ederrenean aurkitzean sentitzen zuten askatasunak amaigabeak bilakarazi zituen bi emakume gazte haien arteko elkarrizketak, zeintzuek maitasun hondogabe bera baitzeukaten beren bihotz-zolan errotua. Eta horri buruzko isilmandaturik elkarri ez eginagatik ere, atsegin handia sortzen zien elkarrekin mintzatzeak. Martiguesko andereari asko kostatuko zitzaion Coulommiers uztea, baldin eta, hura utzi ondoren, bidamoa zegoen leku batera joan beharko ez

balu. Chambord aldera abiatu zen beraz, hantxe baitzegoen gordea denbora hartan.

Lorraineko kardinalak Reimsen burutu zuen koroatze ekitaldia, eta Chambordeko gaztelu eraiki berrian iragango zuten gainerako uda zatia. Erreginak poz handia erakutsi zuen Martiguesko anderea berriz ikustean, eta konplimentu ugari egin ondoren, Clevesko andereaz eta landan egin ohi zuenaz berriak galdegin zizkion. Nemoursko jauna eta Clevesko jauna erreginaren etxean ziren une hartan. Martiguesko andereak, zeinari miresgarria iruditu baitzitzaion Coullommiers, hango edertasun guztiak azaldu zituen, eta hagitz luzatu zen, hala basoko pabilioi haren deskribapenean, nola gauaren zati batean bakarrik paseatzeak Clevesko andereari sortzen zion plazerraren gainean. Nemoursko jaunak, zeinak Martigues andereak esandakoa ulertzeko adina ezagutzen baitzuen leku hura, uste izan zuen ez zela ezinezkoa berak Clevesko anderea ikusi ahal izatea, hark bera ikusi gabe. Martigues andereari zenbait galdera egin zizkion, segurtasun gehiago edukitzearren, eta Clevesko jaunak, zeina Nemoursko jaunari beha

egon baitzen Martigues anderea mintzatu zen bitartean, une hartan hark gogoan zerabilena igarri uste izan zuen. Printze hark egin galderek are gehiago berretsi zioten pentsakizun hura, eta horrela, ez zuen zalantza izpirik izan beraren emaztearen egoitzara joateko xedea zuela. Ez zebilen oker susmo haietan. Izan ere, xede hark hain erro sakonak egin zituen Nemoursko jaunaren gogoan, ezen, hura burutzeko bitartekoak hausnartzen gau osoa eman ondoren, biharamun goizean bertan baimena eskatu baitzion erregeri Parisa joateko, asmatutako estakururen bat baliatuz.

Clevesko jaunak ez zuen dudarik egin bidaia haren xedeaz, eta zinez deliberatu zen bere emaztearen jokamoldea segurtatzera eta ziurgabetasun krudel hartan gehiago ez egotera. Nemoursko jaunaren denbora berean abiatu eta, ezkutuan, bidaia haren ondorenak ezagutzera bere kabuz joateko irrika bizia izan zuen, baina irteera hura ohiz kanpoko gerta zedin beldurrez, eta Nemoursko jaunak, horren berri izanik, beste neurri batzuk har zitzan goganbeharturik, beraren aldamenean zegoen aitoren seme bati

fidatzea erabaki zuen, zeinaren leialtasuna eta adorea ezagunak baitzituen. Nolako estuasunean aurkitzen zen azaldu zion. Esan zion zein izan zen ordu arte Clevesko anderearen bertutea, eta manatu zion Nemoursko jaunaren urratsen atzetik abia zedila, xehetasun oro azterrezala, eta ikus zezala ea Coulommiersera joaten zen eta ea gauzez lorategian sartzen zen.

Aitoren semeak, halako eginbidea burutzeko oso gai baitzen, imajina litekeen zehaztasun handienarekin burutu zuen. Nemoursko jaunari herri batera iritsi arte jarraiki zion, Coulommiersetik ordu erdira-edo, hantxe geratu baitzen printzea, eta aitoren semeak aise igarri zuen gauaren zain egoteko besterik ez zela. Ez zion egoki iritzi berak ere han itxaroteari, eta herria zeharkatu eta basoan barnatu zen, Nemoursko jauna iragan zitekeela iruditu zitzaion ingururaino. Ez zuen hutsik egin pentsatutako deusetan. Gaua abaildu orduko, norbait zebilela entzun zuen, eta ilunpean egon arren, aise hauteman zuen Nemoursko jauna. Lorategiari itzulia ematen ikusi zuen, han inor ote zegoen entzun nahi izango balu bezala eta hesia igaro ahal izateko toki-

rik errazena aurkitu nahian bezala. Zuresia oso garaia zen, eta oraindik bazen beste bat atzera-
go, barrura inor sar zedin galarazteko, eta hor-
taz, nahiko zaila zuen iraganbiderik aurkitzea.
Nemoursko jaunak, halere, erdietsi zuen. Lorate-
gian aurkitu bezain laster, ez zitzaion zail gerta-
tu Clevesko anderea non zegoen jakitea: argi
ugari ikusi zituen kabinetan, leiho guztiak irekiak
zeuden, eta zuresian zehar labainduz, haraino
hurbildu zen, erraz imajina litekeen asaldura eta
bihotz-mugida batek hartua. Ate bezala egiten
zuen leiho baten atzealdean kokatu zen, Cleves-
ko anderea zer egiten ari zen ikusteko. Bakarrik
zegoela ikusi zuen, baina halako edertasun
miresgarri batez ikusi ere, nekez oneratu baitzen
ikustaldi hark sortu zion liluratik. Bero egiten
zuen eta nahaspilan bildurik zeuzkan ileek baizik
ez zioten burua eta lepo ingurua estaltzen. Atse-
den-ohe baten ganean zegoen etzanik, aurrean
mahai bat zuelarik, eta haren ganean, zerren-
dez beteriko hainbat otartxo. Haietako batzuk
hautatu zituen, eta Nemoursko jauna ohartu zen
berak zaldun-guduan erabilitako kolore bereko-
ak zirela. Ikusi zuen haiekin korapiloak egiten

zituela Indietako kanabera arras bitxi batean, zeina, garai batean berak ibili ondoren, arrebari eman eta hari Clevesko andereak hartu baitzion, Nemoursko jaunarena izan zenik zekiela inori agertu gabe. Ederlan hura amaitu zuenean, bere bihotzeko sentimenduak aurpegian islarazi zizkioten adeitasun eta eztitasun batez, zuzi bat hartu eta mahai handi baten ondora hurbildu zen, Nemoursko jaunaren irudia ageri zeneko Metzko setioaren margolanari buruz buru. Hantxe eseri eta potret hari beha egon zen, amodio grinak soilik pitz dezakeen arretaz eta irudime-naz.

Ezin daiteke azal Nemoursko jaunak une hartan sentitu zuena. Gauaren erdian eta munduko tokirik ederrenean pertsona adoragarri hura ikustea, eta ikusi ere, begira ari zitzaionik hark jakin gabe eta berari buruzko nola hark ezkutatzen zion amodioari buruzko pentsakizunetan guztiz murgildua ikustea, beste ezein maitalek sekula dastatu eta imajinatu gabeko gauza zen.

Printze hura, beraz, hain zegoen bere onetik aterea, mugiezinik geratu baitzen Clevesko andereari so, une haiek zein preziatuak zitzaiz-

kion pentsatu ere gabe. Doi bat bere baitara etorri zenean, pentsatu zuen hura lorategian izan arte itxaron behar zuela harekin mintzatzeko. Uste izan zuen, hartara, segurtasun handiagoz hitz egin ahal izango liokeela, hura bere andere-lagunetatik urrunago egongo zelako. Baina bere kabinetatik irten gabe geratzen zela ikusirik, hara sartzeko erabakia hartu zuen. Erabaki hori burutu nahi izan zuelarik, ordea, nolako asaldurak ez zuen kolpatu! Nolako beldurra hari desplazer izan zekion! Nolako izua, hainbeste eztitasun zeuzkan begitarte hura aldarazi eta zorrotasunez eta suminez betea bilakaraz zezan!

Iruditu zitzaion erokeria izan zela, ez hainbeste Clevesko andereari ezkutuan behatzera etortzea, baizik hark ikus zezala nahi izatea. Ordu arte aintzat hartu ez zituen alderdi guztiak ikusi zituen orduantxe. Ausardia hartan nabarmenkeria bat iruditu zitzaion amodioaz sekula lehena-go hitz egin ez zion pertsona haren aurrean agertzea, gauaren erdian eta ustekabean. Pentsatu zuen ezin zezakeela desiratu hark entzun nahi izatea, eta arrazoiz suminduko zela sortu zion arriskuagatik, horrek ekar liezaizkiokeen

eragozpenen kariatz. Huts egin zion adoreak, eta zenbait aldiz, hark ikusi gabe atzera itzultzeko erabakia hartzeko puntuan egon zen. Ordea, harekin mintzatzeko gogoak bultzaturik, eta ikusitako hark guztiak ematen zion itzaropenak lasaiturik, zenbait urrats egin zituen aurrera, baina hain moldakaizki egin ere, soinean zerman xala leihoan trabatu eta zarata atera baitzuen. Clevesko andereak harantz itzuli zuen burua, eta zela printze hark gogoak guztiz betetzen ziolako, edo zela hura egondako lekuan nor egon zen bereizteko nahiko argi bazegoelako, gauza da ezagutu egin zuela bere iduriz, eta zalantzarik egin gabe, andere-lagunak zain zeuzkan gelan sartu zen, Nemoursko jauna zegoen aldera itzuli gabe. Nola hain asaldaturik sartu baitzen, behartua sentitu zen, hori ezkutatzearren, gaizkitua zegoela esatera, baina baita ere esan zuen zerbitzari guztiak lanpeturik edukitzeagatik eta Nemoursko jaunari handik erretiratzeke astia emateagatik. Clevesko andereak, une batez gogoeta egin ondoren, tronpaturik zegoela uste izan zuen, eta irudimenaren ondorio bat baizik ez zela izan Nemoursko jauna ikusi

zuelako ustea. Bazekien Chamborden zela, eta ez zuen motiborik sinesteko hark halako eginbide ausarta abiarazi zuenik. Kabinetan sartu eta lorategian norbait al zegoen ikustera joateko irrikaz egon zen zenbait aldiz. Agian desiratu adina beldurtzen zuen Nemoursko jauna han aurkitzeak, eta azkenik, arrazoiak eta zuhurtziak gainerako sentimendu guztiak aienatu zizkiotenean, iruditu zitzaion hobe zela zalantza hartan geratzea, hura argitzeko ausardia hartzea baino. Luzaz egon zen printze hura ustez hain hurbil egondako toki hartatik irteteko erabakia ezin harturik, eta egun argia zen doi-doia gaztelura itzuli zenean.

Nemoursko jauna lorategian geratu zen argitasuna ikusi zuen bitartean. Ez zuen galdu Clevesko anderea berriz ikusteko itxaropena, nahiz konbentziturik zegoen hark ezagutu zuela, eta bera saihesteagatik baizik ez zela handik urrundu. Baina atea ixten zituztela ikusi zuenean, argi aski jabetu zen ez zeukala jada deus igurikitzerik. Beraz, bere zaldiaren bila joan zen, Clevesko jaunak igorritako aitoren semea zain zegoen tokitik oso hurbil. Aitoren seme hark orpoz

orpo segitu zion bezperako gauean abiatu herri-raino. Nemoursko jaunak egun osoa han egitea erabaki zuen, arratsean atzera Coulommiersera itzultzeko asmoz, ikustera ea Clevesko anderea berriro ere ihes egiteko bezain krudela al zen, ala inoren bistara ez agertzeko bezain gupidagabea. Berari buruzko pentsakizunetan hain murgildua aurkitu izanak atsegin nabarmena sortu zion arren, nahigabetua zegoen oso, zeren bera-gandik ihes egiteko berezko barne-mugida bat igarri baitzuen harengan.

Sekula ez da izan printze hark une hartan sentitzen zuena bezain amodio samur eta bortitzik. Sahats batzuen gerizpera abiatu zen, ezkurtaturik zegoen etxearen atzealdetik zehar-zehar zihoan errekatxo baten albotik. Ahal izan zuen beste urrundu zen, inork ikus eta entzun ez zezan, eta bere amodio grinak eragindako bihotz-mugiden mende geratu zen. Halako bihotz-herstura zuelarik, zenbait malko isurtzera beharturik aurkitu zen, baina malko horiek, ordea, ez ziren oinaze hutsak isurarazi ditzakeen era horretakoak, eta maitasunean baizik ezin

aurki daitezkeen eztitasun eta xarmaz nahasturik zeuden.

Clevesko andereaz maitemindurik zegoen garaitik ordudainoko haren ekintza guztiak gogoratzen hasi zen. Hura bai zurruntasun zintzo eta apala, hark bera maite izan arren betidanik erakutsi ziona! «Zeren azken batean —zioen bere baitarako— maite nau. Maite nauela ezin dezaket zalantzarik egin: hitz-emate handienak eta ontarte handienak ez dira nik jaso ditudanak baino froga ziurragoak. Nolanahi ere, gorroto izango balidate bezain zorrozki naute tratatzen. Etorkizunean jarri dut itxaropena, baina jadanik ezin dezaket deus iguriki. Egun oroz, nire kontra nola bere buruaren kontra defendatzen ikusten dut. Hark ez banindu maite, gustagarri izatea amestuko nuke, baina gustokoa natzaio, maite nau, ezkutatu egiten dit, ordea. Zer itxaron dezaket, eta zer aldaketa iguriki dezaket nire patuan? Baina, nola liteke? Munduko pertsonarik maitagarrienak maite naularik, eta maitatua izatearen lehen ziurtasunek eman ohi duten maitasun mukurua sentitzen badut, ez ote da izango ni gogor hartzearen oinazea hobeto sentitzeko,

ala? Utz iezadazu, printzesa eder horrek, maite nauzula ikusten —egin zuen oihu—, utz iezadazu zure sentimenduak ikusten. Baldin nire bizitzan behin bederen horiek ezagut banitza, gogo onez onartuko nuke unaturik naukaten zorrotasun horietara betiko itzul zaitezten. Begira iezadazu, behinik behin, gaur gauean nire potretari so zure aurpegian ikusi ditudan bi begi horiexekin. Hala-ko ezintasunez begiratu eta nola ihes egin dezakezu nigandik hain bihozgabeki? Zeren beldur zara? Zergatik deritzazu hain beldurgarria nire maitasunari? Maite nauzu, alferrik didazu hori ezkututzen. Zerorrek eman dizkidazu horren froga nahigabekoak. Ezaguna dut nire zoriona, utz iezadazu dastatzen, eta ez nazazula gehiago zorigaiztoko bilakarazi. Ba al liteke —ekin zion osterara— Clevesko andereak ni maitatu eta, aldi berean, zorigaiztoko izatea? Zeinen ederra zegoen gaur gauean! Nola eutsi ahal izan diot haren oinetara umiltzeko gogoari? Egin izan banu, nigandik ihes egitea eragotziko niokeen menturaz, nirekiko begiruneak lasaitu egingo zukeen. Baina agian ez nau ezagutu. Behar nukeena

baino gehiago atsekabetzen naiz, zeren izutu egin baitu halako ezordutan gizon bat ikusteak.»

Burutapen horiek egun osoa hartu zioten Nemoursko jaunari. Gauaren zain geratu zen ezinenez, eta gautu zuenean, Coulommierserako bidetari lotu zitzaion berriro. Clevesko jaunak igorritako aitoren semeak, zeina mozarrotu egin baitzen hain nabarmen ager ez zedin, Nemoursko jaunari bezperako arratsean segitu tokiraino segitu zion, eta lorategi berean sartzen ikusi zuen. Printze hark berehala jakin zuen Clevesko andereak ez zuela arriskatu nahi izan berriz ikusteko ahaleginik egin zezan, itxiak baitzeuden ate guztiak. Alde guztietatik ibili zen hara eta hona, argirik ikusten al zuen jakiteko, baina alferrik izan zen.

Clevesko anderea, Nemoursko jauna itzul zitekeela susmaturik, bere gelan geratu zen. Goganbehartu zen, eta beldurtu, hari ihes egiteko indarririk edukiko ote zuen beti, eta ez zuen hartu nahi izan harekin mintzatzeko ausardiarik, ordu arte izandako jokamoldearekin inondik ere bat ez zetorrelako.

Nemoursko jaunak hura ikusteko itxaropenik ez izanagatik ere, ezin zitekeen delibera Clevesko anderea hain maiz egon ohi zen leku hartatik hain bizkor irtetera. Gau osoa egin zuen lorategian, eta kontsolagarriren bat aurkitu zuen, bederen, hark egunero ikusten zituen gauza berberak ikusiz. Eguzkia jalgia zen handik alde egitea pentsatu baino lehenago, eta azkenik, han aurkituko zuten beldurrak partizera hertsatu zuen.

Ezina izan zitzaion Clevesko anderea ikusi gabe handik urruntzea, eta Mercoeur anderearen etxera joan zen, zeina Coulommierstik hurbil zeukan landetxean baitzegoen denbora hartan. Txoil harritu zen anaiaren etorrerarekin. Hark bidaiaren arrazoi bat asmatu zuen, arreba tronparazteko bezain egiantzekoa, eta azkenik, hain abilki bideratu zuen bere asmoa, ezen arrebak bere kabuz Clevesko anderearen etxera joatea proposa ziezaiola lortu baitzuen. Proposamen hura egun hartan bertan burutu zuten, eta Nemoursko jaunak bere arrebari esan zion Coulommiersen bananduko zela harengandik, modu hartan haren aurretik joaten utziko ziolako espe-

rantzan, eta horrela, bada, Clevesko anderearekin mintzatzeko bitarteko ziurra aurkitu zuela uste izan zuen.

Iritsi zirenean, lore-saila inguratzen zuen pasealeku luze batean aurkitu zuten, osteratxo bat egiten ari zela. Nemoursko jaunaren ikustaldiak ez zion nolanhiko asaldura sortu, eta ez zuen zalantza txikienik ere egin hura izan zela bezperako gauean ikusitako pertsona. Ziurtasun horrek suminezko sentimendu bat eragin zion, Nemoursko jaunak jokabide haren bidez erakutsitako ausardia eta arduragabekeriagatik. Printzeak hoztasunezko zantzu bat igarri zuen Clevesko anderearen begitartean, eta horrek oinaze nabarmena sortu zion. Gauza axolagabeez mintzatu ziren, baina halere, printzeak halako abilezia eta hainbeste begirune izan zuen, hainbeste etorkortasun eta hainbeste miresmen agertu zion Clevesko andereari, ezen hasieran agertu hoztasunaren zati bat uxatu baitzion, haren gogoia kontra eduki arren.

Nemoursko jauna lehen beldur hartatik lasaiturik sentitu zenean, basoko pabilioia ikustera joateko jakinmin ezin eutsizko bat zeukala eman

zuen aditzera. Munduko tokirik atseginena balitz bezala mintzatu zen hartaz, eta hain deskribapen zehatza zuen egin, ezen Mercoeurko andereak esan baitzion sarritan han egona behar zuela izan, edertasun haiek oro hain ongi ezagutzeko.

— Ez dut uste haatik —ekin zion Clevesko andereak—, Nemoursko jauna hara sekula sartu denik. Berrikitan amaitu duten lekua baita.

— Ez da denbora luzea han egona naizela —ihardetsi zion Nemoursko jaunak hari beha—, eta ez dakit ez ote dudan arrunt pozik egon behar, zeren zuk ni han ikusi izana ahortzi baituzu.

Mercoeurko andereak, lorategien edertasunari so zegoenez, ez zuen arretarik jartzen anaiaren hitzetan. Clevesko anderea ahalke gorritu zen, eta, begiak behekituz, Nemoursko jaunari begiratu ere gabe:

— Ez naiz oroitzen —esan zion— zu han ikusi izanaz, eta han egon baldin bazara, nik jakin gabe izan da hori.

— Egia da, Madame —ihardetsi zion Nemoursko jaunak— zure onespenik gabe izan

naizela bertan, eta hantxe iragan ditudala nire bizitzako unerik eztiyak eta krudelenak.

Clevesko andereak garbi aski ulertzen zuen printze hark zioena, baina ez zuen halere deus ihardetsi. Mercoeurko anderea kabinet hartara sar zedila eragotzi nahi zuen batik bat, han zegoelako Nemoursko jaunaren potreta eta ez zuelako nahi hark ikus zezan. Hain ongi jokatu zen, ohartu ere gabe iragan baitzen denbora, eta Mercoeurko anderea itzultzeaz mintzatu zen. Baina Clevesko andereak ikusi zuenean Nemoursko jauna eta haren arreba ez zirela elkarrekin abiatu, berehala zuen sumatu zer arriskuren menpe geratuko zen. Parisen zela pairatutako estuasun berean aurkitu zen, eta orduko erabaki bera hartu zuen. Bisitaldi hura senarrak zeuzkan susmoen berrespen bat baizik ez zelako beldurrak ez zion, gainera, laguntza urria eman horretara deliberarazteko. Eta Nemoursko jauna berarekin bakarrik geldi zedin eragotzi nahirik, Mercoeurko andereari esan zion baso ertzeraino lagunduko ziola, eta bere zalgurdiari manatu zion harenari jarraiki ziezaiola. Clevesko anderearengan beti zorrotasun segida bera aur-

kitzeak printzeari sortu zion oinazea hain izan zen bortitza, ezen une hartan bertan zurbildu baitzitzaion begitartea. Mercoeurko andereak gaizkiturik al zegoen galdegin zion, baina hark Clevesko andereari behatu zion, inor horretaz ohartu gabe, eta begikeran erakutsi zion etsipena zela haren oinaze bakarra. Nolanahi ere, alde egiten utzi behar izan zien, atzetik jarrikitzera ausartu gabe, eta, esandakoaren ondotik, ezin itzul zitekeen arrebarengana. Horrela, bada, Parisa itzuli zen, eta biharamunean bertan abiatu zen handik.

Clevesko jaunak igorritako aitoren semea zelatan aritu zitzaion une oroz. Hura ere Parisa itzuli zen, eta, Nemoursko jauna Chambord alde-
ra partitzen ikusi zuenez gero, posta-gurdia hartu zuen, Clevesko jaunaren aurrera azaldu eta bere bidaiaren kontu emateko. Nagusia haren itzuleraren zain zegoen, bere bizitza guztirako zorigaitza ekarriko zion gauza bat balitz bezala.

Hura ikusi orduko, berehala igarri zuen haren aurpegian eta haren isiltasunean, gauza gogai-
karriak besterik ez zekartzala berari kontatzeko.

Denbora batez nahigabeak jota egon zen, burumakur eta hitz egiteko indarrik gabe. Eta azkenik, erretiratzeko keinua egin zion eskuaz.

— Zoaz —esan zion—, badakit zer dakarzun niri kontatzeko, baina ez dut indarrik entzuteko.

— Epai ziurrik eman diezazukeen deus ez daukat zuri kontatzeko —ihardetsi zion aitoren semeak—. Egia da Nemoursko jauna bi gauetan basoko lorategian sartu dela, eta hurrengo eguna Coulommiersen izan dela Mercoeurko anderearekin.

— Aski da, aski da, —ihardetsi zuen Clevesko jaunak, erretiratzeko keinua osterara eginez—, ez dut argibide gehiago behar.

Aitoren semeak, beraz, utzi egin behar izan zuen bere nagusia, etsipenak hartua. Inoiz ez bide da etsipen bortitzagorik izan, eta Clevesko jauna bezain gizon adoretzu eta bihotz-maitemindu gutxik dute aldi berean sentitu maitalearen desleialtasunak sortu ohi duen oinazea eta norberaren emazteak iruzur egin izanaren lotsa.

Clevesko jaunak ezin izan zuen halako makaldirik jasan. Sukarra arrats hartan bertan lotu zitzaion, eta hain ondorio larriekin gainera, oso

eritasun arriskutsua baitzirudien une hartan. Horren guztiaren kontu eman zioten Clevesko andereari, eta hura lehia bizian etorri zen. Iritsi zenean, askozaz okerrago zegoen senarra, eta berarekiko hain hotz eta hain uzkur aurkitu zuen, biziki harritu eta nahigabetu baitzen. Are iruditu zitzaion saminez baizik ez zituela onartzen berak eskaintzen zizkion zerbitzuak, baina azkenik uste izan zuen eritasunaren ondorio bat izango zela agian.

Clevesko anderea Bloisera joan aitzin, hantxe baitzegoen gordea ordu hartan, Nemoursko jaunak ezin izan zion bere pozari eutsi, hura beraren egoitza berean izango zela jakin zuenean. Egun guztiez entseiatu zen hura ikustera eta Clevesko jaunaren gelara joatera, haren osasunaren berri jakiteko estakuruaz, baina alferrik izan zen. Clevesko anderea ez zen senarraren gelatik irten, eta senarrarengan zekusan aldarte hark oinaze sakona sortzen zion. Nemoursko jauna etsiak hartua zegoen hura halako saminez ikusirik. Aise igarri zuen samindura hark zenbateraino zion Clevesko andereari senarrarenganako adiskidetasuna berritu, eta adiskidetasun hura

zenbateraino zen galgarria bihotzean gordetzen zuen maitasun nahiarentzat. Sentimendu hark goibeldura heriogarria sortu zion denboraldi batez, baina Clevesko jaunak zuen eritasunaren larriak itxaropen berriak ernarazi zizkion. Iruditu zitzaion Clevesko anderea agian aske izango zela bere bihotz-jaidurari jarraikitzeke, eta zorion eta atsegin iraunkorren segida bat aurki zezakeela geroan. Eramanezina zitzaion pentsa-kizun hura, izan ere, hainbeste aztoramen eta asaldura sortzen zion, eta hala, bada, bere gogotik urrunarazi zuen, itxaropenak galdurik nahigabetuago aurkitu zedin beldurragatik.

Sendagileak, bizkitartean, Clevesko jaunari etsia ematekotan ziren. Erialdiaren azkeneko egun batez, oso gau nekagarria iragan ondoren, atsedean hartu nahi zuela esan zuen goizean. Clevesko anderea bakarrik geratu zen haren logelari. Iruditu zitzaion, atsedean hartzen bainoago, urduritasun handi batean zela. Harengana hurbildu eta ohearen aurrean belaunikatu zitzaion, aurpegia malkotan blai eginik. Clevesko jaunak erabakia zuen ez ziola ikustera emango haren aurka zuen nahigabe bortitza, baina hark eskain-

tzen zizkion ardurek eta haren atsekabeek — zeintzuk, batzuetan egiazkoak iruditzen zitzaizkion arren, beste batzuetan itxurakeria eta fede gaiztoaren agerpidetzat baitzeuzkan—, hain aurkako sentimenduak eta hain mingarriak zizkionten sortu, ezinezkoa izan zitzaion haiei bere barnean eustea.

— Ugari isuri dituzu malkoak, Madame — esan zion—, zerorrek eragin duzun heriotza honegatik, baina ezin sor diezazuke agertzen duzuna bezalako oinazerik. Jadanik ez nago zuri gaitzespenik egiteko —jarraitu zuen, eritasunak eta oinazeak ematuriko ahots batez—, sortu didazun bihozmin krudel horrexek hilko bainau. Coulommiersen mintzatu zintzaizkidanean erakutsi zenidana bezalako jokaera bikain batek, hain jarraikitasun eskasa behar al zuen? Zergatik zenidan Nemoursko jaunaren alde duzun amodioa azaldu, baldin zure bertuteak ez bazuen horri gogor egiteko kemenik? Aise tronpatua izateko punturaino maite zintudan, ahalke z dizut aitortzen. Atera nauzun atsedenezko egoera faltsu hori deitoratzen dut. Zergatik ez nauzu utzi hainbeste senar bizi diren itsutasun

lasai horretan? Menturaz, ez nuke nire bizitza guztian jakingo Nemoursko jauna maite zenuela. Hil egingo naiz —gehitu zuen—, baina jakizu atseginagoa egin didazula heriotza, eta zuregan-na neuzkan estimu eta samurtasunak ezabatu zenizkidanez gero, beldurgarria zitzaidala bizitza. Zer litzateke niretzat bizitza —berrekin zion—, hainbeste maite izan dudan eta hain bihozgabeki tronparazi nauen pertsona baten ondoan bizi beharko banu, edo bestenez, pertsona horrengandik bereizirik bizi, eta nire izatearen eta zuri dizudan amodio suharraren aurkako gaizpide eta bortxak jasan behar banitu? Ikusi duzuna baino harantzago doa, Madame. Parterik handiena ezkutatu dizut, zu gogaitarazi edo doi bat zure estimua galduko ote nuen beldurrez, senar bati ez dagokion jokamoldea agertzeagatik. Finean, zure bihotza merezi nuen, eta berriro diot, damurik gabe hilko naiz, zeren ez baitut neureganatzerik izan eta ezin baitut jada horrelakorik desira. Adio, Madame, egiazko eta bidezko maitasuna zizun gizon baten hutsunea duzu egunen batean nabarituko. Pertsona arrazoidunek horrelako elkarbideetan aurkitzen duten

nahigabea duzu sentituko, eta ezagutuko duzu zer alde dagoen nik maite zintudan bezala maitatu, edo, amodioa aitortu arren, zu limurtzeko ohorea baizik bilatzen ez duten pertsonak maitatu. Baina nire heriotzak aske egingo zaitu —erantsi zuen—, eta Nemoursko jauna zoriontsu egin ahal izango duzu, zuretzat krimena izan gabe. Zer ardura zait ordea —ekin zion osterani— ni hemen ez naizenean zer gertatzen den, eta zergatik eduki behar dut ahuldadea begiak halako gauzei atxikitzeko?

Clevesko anderea hain zegoen urrun senarrak beraren aurkako susmorik eduki zezakeela imajinatzetik, hitz haiek guztiak deus ulertu gabe aditu zituen, eta ez zitzaion bururatzen beste pentsakizunik, Nemoursko jaunaren alde zuen isuria gaitzesten ari zitzaiola baizik. Baina azkenik, itsutasun hartatik kolpe batean zuzper-tu, eta:

— Nik krimena? —oihukatu zuen—. Pentsatzea ere ezezaguna zait. Bertuterik zurrunenak ere ezin lezake nik izan dudana beste jokaerarik iradoki, eta sekula ez dut ekintzarik burutu, zu horren lekuko izan zaitezela desiratu gabe.

— Desiratuko al zenuke —ihardetsi zion Clevesko jaunak, destainezko begirada batez— Nemoursko jaunarekin iragan dituzun gauetan ni horren lekuko izatea? Ene, Madame! Zutaz ari al naiz, gizon batekin bi gau iragan dituen emakumeaz mintzatzen ari naizenean?

— Ez, Monsieur —ihardetsi zion—. Ez, ez zara nitaz mintzatzen ari. Sekula ez dut gaurik edota unerik iragan Nemoursko jaunarekin. Ez nau inoiz bakarka ikusi, ez dut onetsi eta ez entzun, eta behar beste aldiz zin egingo nuke hori.

— Ez dezazula deus gehiago esan —eten zion Clevesko jaunak—, zinegite faltsuek edo aitortza batek nahigabe bera sortuko lidakete-eta ziurrenik.

Clevesko andereak ezin zezakeen ihardetsi; malkoek eta oinazeak hitz egitea galarazi zioten, eta azkenik, ahalegin bat eginez:

— Begira iezadazu bederen —esan zion—, entzun iezadazu. Baldin nire interesa baizik ez balitz, jasango nituzke gaitzespen horiek, baina bizia doakizu horretan. Entzun iezadazu zure biziaren amorekatik: ezinezkoa da horrelako

egiekin nire errugabetasunaz zu ez konbentzitzea.

— Jainkoari nahi dakiola horretaz konbentziaraz nazazun! —egin zuen oihu—, baina zer esan diezadakezu? Nemoursko jauna ez al da izan Coulommiersen bere arrebarekin? Eta ez al ditu azken bi gauak zurekin iragan basoko lorategian?

— Hori baldin bada nire krimena —ihardetsi zuen—, erraza dut zuribidea. Ez dizut eskatzen sinets nazazun, baina sinets iezaiezu zure zerbitzariei, eta jakingo duzu Nemoursko jauna Coulommiersera iritsi zen bezperan basoko lorategira joan nintzen ala ez, eta aurreko gauean ohi nuena baino bi ordu goizago irten nintzen ala ez.

Berehala kontatu zion nola norbait ikusi uste izan zuen lorategian. Aitortu zion nola, haren ustez, Nemoursko jauna izan zen. Halako ziurtasunez mintzatu zitzaion, eta egiak hain erraz sinestarazi ohi ditu bai eta egiantzekoak ez diren gauzak ere, ezen Clevesko jauna doi-doia konbentzitu baitzen haren errugabetasunaz.

— Ez dakit —esan zion Clevesko jaunak—, zuri sinestera plegatu behar dudanentz. Ez nuke

ikusi nahi bizia deitorarazi diezadakeen deus, hain sentitzen naiz heriotzatik hurbil. Beranduegi nauzu horretaz ohartarazi, Madame, baina halere, nire estimuaren duin zarelako pentsakizuna nirekin eramatea aringarria gertatuko zait beti ere. Arren eskatzen dizut, beraz, utz diezadazula kontsolamendu hori nirekin gordetzen, alegia, sinestea gogoan izango duzula nire oroitzapena eta, zure esku balego, beste baten alde dituzun sentimenduak niretzat edukiko zenituzkeela.

Hizketan segi nahi izan zuen, baina makalaldi batek hitza galarazi zion. Clevesko andereak sendagileak etor zitezela agindu zuen. Hil hurren aurkitu zuten. Egun batzuk gehiago luzatu zen haren hiltamua, eta azkenik, irmotasun miresgarri batez hil zen.

Clevesko anderea hain tristura hondogabeen murgildu zen, ia arrazoimena ere galdu baitzuen. Erregina ohartasun handiz joan zitzaion ikustera, eta komentu batera eraman zuen, nora gidatzen zuten jakin gabe. Ezkon-ahizpek Parise-ra zuten atzera ekarri, artean bere oinazea argi bereizteko gauza ez zela. Gogoeta egiteko inda-

rrak berreskuratzen hasi eta ikusi zuenean nolako senarra galdu zuen, eta bide batez, pentsatu zuenean bera izan zela haren heriotzaren eragilea eta, izan ere, beste bati zion amodioagatik izan zela, ezin irudikatuzko bihotzondokoa sentitu zuen, bai bere buruagatik eta bai Nemoursko jaunagatik ere.

Printze hura, lehenbizi berri hartan, ez zen ausartu beste ardurarik eskaintzera adeitasunak manatzen zituenez landa. Sobera ezagutzen zuen Clevesko anderea, jarraitasun handiagoa desplazer izango zitzaiola jakiteko, baina gero jakin zuenak argi ikusarazi zion denbora luzean agertu beharko zuela jokamolde bera.

Ezkutari batek zion kontatu nola Clevesko jaunaren aitoren seme hark, zeinaren laguna baitzen, esan zion, nagusiaren galerak sorturiko oinaze hartan, Nemoursko jaunak Coulommiersera egin bidaia izan zela haren heriotzaren eragilea. Nemoursko jauna hagitz harritu zen hitz haiek entzutean, baina hartaz gogoeta egin ondoren, egiaren parte bat zuen igarri, eta argi jakin zuen nolakoak bide ziren Clevesko anderearen sentimenduak hasiera hartan, eta nolako

urruntasuna gordeko zion, baldin haren ustez jelsiak sortu bazion eritasun hura senarrari. Uste izan zuen artean ez zela beharrezko haren izena oroitarazterik, eta hortaz, jokamolde horri lotu zitzaion, mingarria irudituagatik ere.

Bidaia bat egin zuen Parisa, eta ezin izan zuen etsi haren ate ondora joan gabe, haren berriak jakitera. Han esan zioten inork ez zuela aspaldian ikusten, eta are debekatu zuela haren bila etortzen zirenen kontu eman ziezaiotela. Halako agindu zehatzak printze hari begira emango zituen ziurrenik, eta halaber, haren aditza izan ez zezan. Nemoursko jauna maiteminduegia zegoen Clevesko anderea ikustea galara-ziko zion biziera bat eramanez ahal izateko. Eta horrela, jasanezina zitzaion egoera hartatik irte-teko baliabideak —zailenak izanagatik ere— aurkitzea erabaki zuen.

Printzesa haren oinazea arrazoimenaren mugaz harantzago zihoan. Beraren erruz eta berarekiko samurtasunez hil hurran egondako senarraren oroitzapen hura ezin zezakeen gogotik urrundu. Hari zor zion guztiaz oroitzen zen eten gabe, eta krimena iruditzen zitzaion haren-

ganako amodio isuririk ez izana, hori beraren borondatearen esku zegoen gauza balitz bezala. Zeukan kontsolamendu bakarra, hark merezi zuen beste deitoratzen zuela pentsatzea zen, eta, hura biziko balitz, hark begi onez ikusiko lukeena baizik ez zuela egingo bere bizitza osoan.

Sarritan pentsatu zuen nola jakin zuen hark Nemoursko jauna Coulommiersen izan zela. Zalantzarik gabe uste zuen printze hark kontatu zuela, eta are axolagabea zitzaion, hark errepikatatu izan balu ere, hainbestearaino sentitzen zen harenganako maiteminez sendatua eta urrundua. Halere, oinaze bizia sortzen zion senarraren heriotzaren eragilea hura izan zela imajinatzeak, eta tristeki oroitzen zuen Clevesko jaunak hiltamuan harekin ezkon zedin azalduriko beldurra. Baina oinaze haiek oro, senarraren galerak eragindakoarekin nahasten ziren, eta ez zuen uste besterik zeukakeenik.

Hilabete batzuen buruan, bizi izandako saminaldi latz hartatik irten eta tristezia eta ahulezia aldi batean zen erori. Martiguesko andereak bidaia bat egin zuen Parisa, eta lehiatuki ikusi

zuen, bertan egin zuen egonaldian. Gortean eta han gertatzen ziren gauza guztiez kontu eman zion, eta, nahiz Clevesko andereak ez zirudien hartan arreta handiegirik jartzen zuenik, Martiguesko andereak haren gainean mintzatzen segitu zuen, hura dibertitzearren.

Bidamoaren berriak kontatu zizkion, Guiseko jaunarenak eta beren izaera edo merezimenduengatik nabarmentzen ziren gainerako guztiak.

— Nemoursko jaunaz den bezainbatean — esan zion—, ez dakit aferek gortean eginbidetuen lekua hartua duten haren bihotzean, baina erakutsi izan duena baino arraitasun gutxiago agertu ohi du, eta badirudi emakumeekiko harremanetatik arras dela baztertu. Maiz ditu Parisa bidaiak egiten, eta uste dut une honetan hemen dela.

Nemoursko jaunaren izenak ustekabean harrapatu zuen Clevesko anderea, eta lotsagarritu egin zen. Hizketa-gaia aldatu zuen, nahiz Martiguesko anderea ez zen ohartu haren asalduraz.

Printzesa hura, biharamunean, aurkitzen zen egoerari egoki zitzaizkion zereginen bila zebile-

larik, sedazko lanak modu bitxi batez egin ohi zituen gizon bat ikustera joan zen etxetik hurbil, haien antzeko batzuk egin ziezazkion eskatzera. Lan haiek erakutsi zizkiotenean, gela bateko atea ikusi zuen, eta uste izan zuen norbait gehiago bazela han. Ireki zezatela eskatu zuen, baina etxeko jabeak ihardetsi zion ez zuela gela hartako giltzarik eta gizon batek hartua zuela, zeina zenbait egunez etortzen baitzen, hango leihoetatik ikusten ziren etxe eta lorategi ederrak marraztera.

— Munduko gizonik lirainena duzu —esan zuen ondoren—. Ez du bizimodua aurrera atera beharrean egoteko itxurarik. Hona etortzen den guztietan, etxeei eta lorategiei begira ikusten dut beti, baina sekula ez lanean.

Clevesko andereak arta handiz zituen hitz haiek aditzen. Gogora etorri zitzaion nola Marti-guesko andereak esan zion Nemoursko jauna Parisen izan ohi zela zenbaitetan, eta pentsakizun hura, beraren etxetik hurbil bizi zen gizon hark esandakoarekin lotu zuen. Nemoursko jaunaren irudi bat egin zuen, bera ikustera tematua, eta horrek, gaitzeko nahasmendua zion sortu,

horren arrazoia zein zen jakin gabe. Lehió aldera joan zen nora ematen zuten ikustera. Handik beraren etxearen aurrealdea eta lorategi guztia ikusten zela ohartu zen. Eta etxera iritsi zenean, aise aurkitu zuen gizon hura joaten omen zen leioa. Hura Nemoursko jauna zela pentsatzeak zeharo aldarazi zion gogoaren aldartea; jada ez zen aurkitzen dastatzen hasia zen atsedenezko egoera goibel hartan. Urduri eta kezkatu sentitu zen. Azkenik, etxean bakarrik ezin egonik, handik irten eta lorategira joan zen haize pixka bat hartzera, aldirietatik urrun, han bakarrik egongo zelakoan. Irtsi zenean esango zuen ez zuela okerrik egin, zeren ez baitzuen inor ibili izanaren aztarnarik ikusi, eta beraz, luzaz promenatu zen.

Baso txiki bat zeharkatu ondoren, zuhaitzilara baten amaieran, lorategiko ingururik baztertuenean eta alde guztietarik irekia, kabinet antzeko bat begiztatu zuen, eta hara zituen bere urratsak zuzendu. Hurbil samar zelarik, gizon bat ikusi zuen eserleketan, liluramendu sakon batean abaildua iduri, eta Nemoursko jauna eza-gutu zuen. Ikustaldi hark bat-batean geldiarazi

zuen. Baina segizioko zerbitzariak zarata hotsen bat egin eta Nemoursko jauna liluramendu hartatik iratzarri zuten. Entzuniko zarata hura zerk eragin zuen behatu ere gabe, zegoen lekutik altxa, berarengana zihoan lagun multzoa saihestearren, eta beste zuhaitz-ilara bati buruz abiatu zen, nor agurtzen zuen ikustea ere galarazi zion jautsapenezko gurtza eginez.

Jakin izan balu nor saihesten zuen, zein gogo biziz ez ote zen bere urratsen gainera itzuliko! Zuhaitz-ilaran barna aitzinatu zen ordea, eta Clevesko andereak, zalgurdia zain zeukan atzealdeko atetik irteten ikusi zuen. Nolako zirrara eragin zuen une bateko ikustaldi hark Clevesko anderearen bihotzean! Nolako grina loakartua berpiztu zen haren bihotzean, eta nolako bortxaz! Nemoursko jauna irten berria zen tokira joan zen esertzera, eta hantxe egon zen erdi-liluraturik. Printze hura etorri zitzaion orduan gogora, munduan zeuden gauza guztietarik maitagarriena balitz bezala, begirune eta leialtasun beteko amodio batez aspaldidanik maite izan balu bezala, beraren amorekatik oro bazterretsiz, are beraren oinazea ere errespetatuz, bera ikusteko

irrikaz ikusia izan gabe, gortea utzirik —non guztiei egiten baitzien atsegin—, bera hertsirik zeukaten murrailak ikustera etortzeko, bera aurkitzea ezin iguriki zezakeen lekuetara amestera etortzeko; azken batean, atxikimendu harengatik soil-soilik maitatua izateko duin zen gizon bat balitz bezala, zeinari hain amodio isuri bortitza baitzion, berdin-berdin maitatuko baitzukeen hark ez maite arren; eta, are gehiago, gizatasun handiko gizon bat balitz bezala, berari zegokion mailakoa. Clevesko andereak jada ez zeukan bere sentimenduen kontrako ez obligaziorik eta ez bertuterik ere. Garaituak zeuden eragozpenak oro, eta iragan egoera hartatik Nemoursko jaunaren amodioa eta berak harekiko zuena baik ez zitzaion geratzen.

Idea haiek guztiak berriak ziren Clevesko printzesarentzat. Halako heinean nozitu zuen Clevesko jaunaren heriotzaren samina, ezina izan baitzitzaion haiei buruzko artarik hartzea. Nemoursko jaunaren presentziak, ordea, arrapaladan berpiztu zizkion pentsakizun haiek bere izpirituan, baina guztiz beretua zutenean, oroitu zen gizon hura, beraren senar izateko gai bezala

zekusan hura, senarra bizi artean maite izanda-ko pertsona hura bera zela, eta orobat, hura izan zela senarraren heriotzaren kausa; oroitu zen nola hiltamuan bere senarrak azaldu zion harekin ezkontzeko zuen beldurra, eta pentsakizun hark hain gogorki zion bere bertute zorrotza kolpatu, ez baitzitzaion iruditu Nemoursko jaunarekin ezkontzea senarra bizi artean hura maitatzea baino krimen larriagoa zenik. Horrela, bada, beraren zorionerako hain galgarriak ziren gogoe-ta haietan barnatu zen, eta are gehiago sendotu zituen, bere atsedena eta printze harekin ezkontzean iragartzen zituen zorigaitzak gogoan izanik. Azkenik, egoera hartantxe bi orduz egon ondoren, etxera itzuli zen, bere begiak haren-gandik urrundu behar zituela zeharo konbentzi-turik, beraren eginbidearen aurkako gauza bai-tzen, inondik ere.

Baina arrazonamenduaren eta bertutearen ondorio ziren pentsakizun horiek ez zuten haren bihotza erakartzerik izan. Nemoursko jaunari zion atxikimendua hain zen bortxazkoa, ezen egoera urrikgarri batean jartzen baitzuen, eta ez zion atsedenerako biderik uzten. Sekula iga-

rotako gaurik krudelenetako bat igaro zuen. Goizean, beraren etxe aldera ematen zuen leiho hartan inor al zegoen ikustea izan zen lehen mugimendua. Joan eta hantxe ikusi zuen Nemoursko jauna. Ikuskizun hark, alabaina, harriturik utzi zuen, eta hain azkar baztertu zen, printzeak uste izan baitzuen ezagutu egin zuela. Nemoursko jaunak, Clevesko anderea ikusteko modua aurkitu zuenez geroztik, horixe gerta zedila desiratu zuen sarritan, eta halako plazerrik izatea espero izaten ez zuenean, printzesa hark topatu zueneko lorategira joan ohi zen amets egitera.

Hain zorigaiztoko eta hain ziurtasun gabeko egoera hartaz unaturik, bere patua argitzeko bideren bat tentatzea erabaki zuen. — Zer espero dezaket? —zioen bere baitarako—. Denbora luzea da hark maite nauela dakidala. Hura libre da, ez du zertan niri buru eginik. Zergatik naiz hura ikustera mugatzen, hark ni ikusi gabe eta ni harekin mintzatu gabe? Akaso maitasunak arrazoimena eta ausardia ezabatuko zidan eta nire bizitzako beste amodioetan izan naizenetik hain desberdina egingo ninduen? Clevesko anderea-

ren oinazea errespetatu behar izan dut, baina luzeegi dut errespetatu, eta nigana duen isuria itzaltzeko astia ere eman diot.

Gogoeta horien ondoren, hura ikusteko zein bide baliatu behar zuen hasi zen pentsatzen. Uste izan zuen jada ez zegoela ezer bere maitasuna Chartresko bidamoari ezkutatzera hertsia zezakeenik. Beraz, harekin mintzatzera eta haren ilobarentzat zeuzkan asmoak azaltzera deliberatu zen.

Bidamoa Parisen zen orduan. Mundu guztia hara etorria zen, bakoitzak bere segizio eta bere zerbitzariari aginduak ematera, Espainiako erregina gidatu behar zuen erregeari jarraiki ziezaioiten. Nemoursko jauna, hortaz, bidamoaren etxera joan zen, eta ordu arte ezkutatu zizkion gauza guztien aitortza zintzoa egin zion, Clevesko anderearen sentimenduena izan ezik, ez baitzuen agertu nahi izan horien jakitun zenik.

Bidamoak atsegin handiz aditu zuen hark esandako guztia, eta ziurtatu zion, haren sentimenduak zeintzuk ziren jakin ez arren, sarritan pentsatu zuela, Clevesko anderea alargunduz geroztik, bera zela harentzako pertsona duin

bakarra. Nemoursko jaunak, harekin mintzatze-ko eta, hartara, haren asmoak zeintzuk ziren jakiteko baimena eman ziezaiola erregutu zion.

Bidamoak haren etxera eramango zuela proposatu zion, baina Nemoursko jaunak uste izan zuen gaitzi gerta zekiokeela hori, oraindik ez zuelako inor etxean hartzen. Elkarrekin adostu zuten Bidamo jaunak bere etxera etortzera behar zuela gonbidatu, aitzakiaren bat baliatuz, eta Nemoursko jauna ezkutuko zurubi batean gora igoko zela, inork ikus ez zezan. Den-dena erabaki bezala burutu zuten: Clevesko anderea etorri, bidamoa harrera egitera irten, eta areto handi batera gidatu zuen, bere etxearen barru-barruraino. Zenbait denbora geroago, Nemoursko jauna sartu zen, patuak hara eraman izan balu bezala. Clevesko anderea txoil harritu zen hura ikustean, eta ahalkez gorri-gorri eginik, gorritasun hura ezkutatzera entseiatu zen. Bidamoa gauza axolagabeez mintzatu zen lehenik, eta gero, irten egin zen, aginduren bat eman behar zuelako iduri eginez. Clevesko andereari erregutu zion berak egin zitzala etxeko ohoreak, eta esan zion une batean itzuliko zela berriro.

Ezin liteke adierazi zer sentitu zuten Nemoursko jaunak eta Clevesko andereak baka-
rrik eta lehenbiziko aldiz elkarrekin mintzatzeko
egokiera aurkitu zutenean. Denboratxo batez
egon ziren elkarri deus esan gabe. Baina azke-
nik, Nemoursko jaunak, isiltasun hura urratuz:

— Barkatuko al diozu Chartresko jaunari,
Madame —esan zion—, zu ikusteko eta zurekin
solastatzeko aukera eman izana, zuk beti hain
krudelki ukatu didazunean?

— Ezin diezaioket barka —erantzun zuen
printzesak— nire egoera zein den eta nire
omena zein arriskutan jartzen duen ahantzi
izana.

Hitz horiek esanez, handik alde egin nahi izan
zuen, baina Nemoursko jaunak, hari atxikiz:

— Ez dezazula deusen beldurrik izan, Mada-
me —ihardetsi zion—, inork ez daki ni hemen
nagoenik eta ez duzu zertan izan ezein arrisku-
ren beldur. Entzun iezadazu, Madame, entzun
iezadazu arren: ontasunez ez bada ere, izan
dadila bederen zure buruarekiko maitasunez,
eta jada nire mendean ez dagoen amodio batek

ezinbestean eginaraziko dizkidan erokerietatik zu libratzearren.

Clevesko andereak amore eman zuen, lehenbiziko aldiz, Nemoursko jaunarenganako amodio isuriaren alde, eta eztitasunez eta xarmaz beteriko begiekin hari behatuz:

— Baina zer espero duzu —esan zion— eskatzen didazun ontarte horretatik? Damu izango zaizu, apika, hori lortu izana, eta damu izango zait niri, ezinbestean, hori eman izana. Orain arte izan duzuna eta etorkizunean aurki dezakezuna baino patu zoriontsuagoa merezi duzu, non eta ez duzun beste nonbait bilatzen.

— Nik, Madame! —esan zion—, zoriona beste nonbait bilatu! Ba al dago zorionik zuk ni maitatzeaz beste? Inoiz horretaz hitz egin ez dizudan arren, ezin dezaket sinetsi, Madame, nire maitasuna ezagutzen ez duzunik, eta inoiz izan den eta izango den benetakoena eta bortitzena dela ez dakizunik. Nolako frogak ez ote ditu jasan ezezagunak zaizkizun arrazoiengatik! Eta nolako frogak ez dizkiozu zuk ezarri zure zorroztasune-kin!

— Nola nahi baituzu horretaz hitz egin diezazudan eta horretara delibera nadin —ihardetsion Clevesko andereak, eseriz—, nire sexuko pertsonengan urri aurkituko duzun zintzotasun batez nauzu mintzatuko. Ez dizut esango ez dudarik ikusi nigana agertu duzun atxikimendua; beharbada, ez zenidake sinetsiko esango banizu ere. Aitor dizut, beraz, ikusi ezezik, zerorrek agertzea nahiko zenukeen bezala ikusi dudala.

— Eta, baldin ikusi baduzu, Madame —eten zion—, ba al liteke horrek zu ez hunkitzea? Eta ausartuko nintzateke galdetzera: ez al du horrek zure bihotzean zirrararik sortu?

— Zerorrek epai dezakezu nire jokaeraren kariaz —ihardetsi zion Clevesko andereak—; baina ongi jakin nahi nuke zer pentsatu duzun horren inguruan.

— Nagoena baino egoera zoriontsuago batean beharko nuke egon —erantzun zuen hark—. Nire patuak deus gutxi ikusteko du esango nizukeenarekin. Gauza bakarra azal diezazuket, Madame; zinez nahiago nukeela baldin niri ezkututzen zenidana ez bazenio Clevesko jauna-

ri aitortu, eta nik ikus nezan utzi duzun hori hari ezkutatu izan bazenio.

— Nola jakin ahal izan duzu —iharduki zion, geroago eta gorriago— Clevesko jaunari deus aitortu diodanik?

— Zerorregandik jakin dut, Madame —ihardetsi zion—, baina, zuri entzutean izan dudan ausardia barkatzeko, oroit zaitez entzundakoaz baliatu naizenentz, nire itxaropenak horregatik berretu direnentz, edota zuri hitz egiteko ausardia gehiago izan dudanentz.

Clevesko jaunarekin izaniko elkarrizketa hura nola aditu zuen hasi zitzaion kontatzen, baina Clevesko andereak eten egin zion amaitu baino lehenago.

— Ez iezadazu gehiago esan —esan zion—. Orain argi dakusat nola duzun jakin hain ongi horren berri. Halaxe iruditu zitzaidan, bai ongi iruditu ere, Dofin anderearen etxean, zeinak zure isilmandatarien bidez jakin baitzuen abentura horren berri.

Gauzak nola gertatu ziren azaldu zion Nemoursko jaunak.

— Ez ezazu desenkusarik jar —iharduki zion—. Denbora luzea da barkatu dizudala, zuk horren azalpenik eman ez arren. Baina, neronen-gandik jakin duzunez gero nire bizitza guztian ezkutatzeko asmo nuena, aitor dizut zu ikusi aurretik ezezagunak zitzaizkidan sentimenduak sorrarazi dizkidazula, eta hain gutxi nekien horietaz eta halako harridura zidaten sortu, are gehiago emendatu baitzuten horiei jarraikitzen zaien asaldura. Aitortza hau ahalke gutxiagorekin dizut egiten, zeren krimenik gabe egin dezakedan denbora batean egiten baitut, eta zerorrek ikusi baituzu nire jokaera ez dela nire sentimenduen mende egon.

— Zinez uste al duzu, Madame —esan zion Nemoursko jaunak, haren belaunetara makurtuz— ez naizela zure oinetan pozez eta hunkipe-nez hiltzen ari?

— Ez dizut adierazi —esan zion printzesak, irribarrez—, lehendik ongi baino hobeto zenekiena besterik.

— Ai, Madame! —ihardetsi zuen Nemoursko jaunak—. Zeinen desberdina den patuaren gora-

behera bategatik jakin edo zerorregandik jakin, eta gainera, nik jakitea nahi duzula ikusi!

— Egia da —esan zion Clevesko andereak— zuk jakitea nahi dudala eta zuri esateak eztitasuna sortzen didala. Egiaz, ez dakit nire buruarekiko maitasunez ala zureganako maitasunez esaten dizudan. Zeren aitortza honek ez baitu jarraipenik izango eta nire eginbideak ezartzen dizkidan arau zurrunei baitiet segituko.

— Ez dezazula horrelakorik pentsa, Madame —ihardetsi zuen Nemoursko jaunak—; jada ez daukazu lotzen zaituen obligaziorik, aske zara, eta, ausartuko banintz, esango nizuke zure esku dagoela, baldin nigana dituzun sentimenduak egunen batean gorde nahi badituzu, zure eginbidea horretara behartzea.

— Nire eginbideak galarazten dit —iharduki zion printzesak— inoiz inor gogotan hartzea, eta zu, munduan dagoen beste inor baino gutxiago, ezezagunak zaizkizun arrazoiengatik.

— Agian, ez zaizkit ezezagunak, Madame —erantzun zion—, baina ez dira inondik ere benetako arrazoiak. Jakin uste dudanez, nintzena baino zoriontsuago iritzi dit Clevesko jaunak, eta

zure onespenik gabe amodio grinak eginarazi dizkidan erokeriak baiesten zenituela du imajinatu.

— Ez dezagun abentura horren gainean hitz egin —esan zion Clevesko andereak—, ezingo bainuke horren oroitzapena jasan. Ahalkegarria eta, bide batez, mingarriegia zait, izan dituen ondorengatik. Egia baino egiago da zerori izan zarela Clevesko jauna hil izanaren kausa. Zure jokaera arduragabeak sorrarazi dizkion susmoek diote bizia edeki, zerorrek zeure eskuekin kendu izan bazenio bezala. Pentsa ezazu zer beharko nukeen egin halako muturreko ekintzetaraino iritsi bazina eta zorigaitz bera gertatu balitz. Ongi dakit ez dela gauza bera munduaren begien aurrean, baina nitaz den bezainbatean, ez dago inolako alderik, zeren bai baitakit zure erruz hil dela hura, eta ni izan naizela horren zergatia.

— Ai Madame! —esan zion Nemoursko jaunak—, zein alegiazko betekizun diozu nire zorionari kontrajartzen? Nola dizu eragotziko, Andere, pentsakizun hutsal eta funsgabe batek, gorrotorik ez diozun gizon bat zoriontsu egitea? Nolatan zait piztu nire bizitza zure aldamenean igarotze-

ko itxaropena? Nire patuak munduko pertsonarik estimagarriena maitatzera eramango ninduke, maitale miresgarri bat izateko gauza guztiak nituzke harengan ikusiko, hark ez lidake gorrotorik izango eta nik emakume batengan desira litekeen oro nuke haren jokaeran aurkituko. Zeren, azken batean, Madame, zerori baitzara, agian, bi ezaugarri horiek zeurean bezalako maila batean biltzen dituen pertsona bakarra munduan. Beren maiteñoekin ezkontzen diren pertsona guztiak, dardaraz egon ohi dira horiekin ezkontzean, eta beldurrez oroitzen dute, besteekin izaniko hartu-emanak gogoan dituztelarik, haiek agertu izan dieten jokaera; baina zugaran, Madame, ez dago zeren beldur izanik, eta miresmenerako arrazoiak baizik ez dira aurkitzen. Ez ote nuen, bada, diot nik, hain leialtasun handia igurikiko, zuk zeure buruaren gainean oztopoak jartzen ikusteko? Ene, Madame! Ahantzi egin al duzu beste gizonengandik bereizi nauzula, edo, hobeki mintzatuz, ez nauzula sekula haiengandik bereizi? Zuk oker uste izan duzu, eta nik itxaropen uste-lak ditut egin.

— Ez duzu itxaropen ustelik egin —erantzun zion Clevesko andereak—. Nire betekizunaren arrazoiak ez litzaizkidake menturaz hain sendoak irudituko, igarri duzun bereizketa hori gabe, eta horrexek dit ikusarazten nolako zorigaitzak neuzkakeen zurekin lotuz gero.

— Ez dut deus esateko, Madame —berrekin zion hark—, zorigaitzen beldur zarela aditzera ematen baldin badidazu, baina aitor dizut, ontasunez esan didazunaren ondotik, ez nuela hain arrazoi krudelik aurkitzea espero.

— Hain da lausengarri zuretzat —ekin zion berriz Clevesko andereak—, nekeza egiten baitzait zuri adieraztea.

— Zoritxarrez, Madame —ihardetsi zion— lausengatuko nauen zeren beldur izan zaitezke, esan didazunaz gero?

— Hasi naizen zintzotasun berarekin nahi nuke oraindik zurekin hitz egiten jarraitu —erantsi zuen—, eta lehen elkarrizketa batean eduki beharko nituen neurritasun eta sentiberatasun guztiak alde bat ditut utziko, baina arren eskatzen dizut etenik egin gabe entzun diezadazula. Uste dut zure atxikimendu horri zor diodan

gauza dela nire ezein sentimendu ez ezkutatzea, nahiz sari xumea den, eta diren bezala ikusten utzi behar dizkizudala. Zalantzarik gabe, zuri horiek ikusaraztera plegatuko naizen une bakarra izango da nire bizitzan. Nolanahi ere, ezin diezazuket ahalke gabe aitor, ezen, baldin zirtasuna banu ez ninduzukeela gehiago maitatuko orain maite nauzun bezala, zinez zorigaitz beldurgarria litzatekekeela niretzat, baina, nire betekizunak ezin gaintituzko arrazoirik emango ez balit ere, zalantza egingo nukeela zorigaitz horren menpe jartzera menturatuko ote nintzatekeen. Badakit libre zarela, ni ere hala naizela, eta gauzak diren bezala izanik, jendeak ez lukeela ez zu eta ez ni gaitzesteko motiborik agian, betiko elkarrekin uztartuz gero. Baina gordetzen al dute gizonek amodiozko surik konpromiso betierekoetan? Mirariren bat itxaron behar al nuke nire alde, eta mentura al ninteke nire zorion guztia bilduko lukeen maitasun hori ezinbestean nola iraungitzen den ikustera? Clevesko jauna munduko gizon bakarra zen, agian, ezkondu ondoren ere maitasuna berekin gordetzeko gauza zena. Nire asturuak, ordea, ez du nahi

izan zorion hori gozatzeko aukerarik izan nezan. Litekeena da, halaber, nigan halakorik aurkitu ez izanagatik baizik ez irautea haren maitasunak. Baina nik ez nuke zurea iraunarazteko baliabide berbera edukiko. Eta are esango nuke eragozpe- nei esker duzula iraupen hori, ugari aurkitu bai- tituzu horiek garaitzera adoretu zintezan, eta nire oharkabeko ekintzek, edota halabeharrari esker jakin dituzun gauzek, aski itxaropen eman dizute asmo horretan ez etsiarazteko.

— Ene, Madame! —berrekin zion Nemoursko jaunak— ezin dezaket gorde ezartzen didazun isiltasuna. Bidegabe handia egiten didazu, eta garbi didazu erakusten zein urrun zauden nire- gana ontarte bat edukitzetik.

— Aitor dut —ihardetsi zuen— amodioek gida ditzaketela nire urratsak, baina ezingo ninduke- te itsutu. Deusek ezin diezadake eragotzi jakitea galaitasunerako doai guztiekin eta horiek azken burura eramateko beharrezkoak diren ahalmen guztiekin sortua zarela. Maiteño asko izan ditu- zu, eta aurrerantzean ere izango zenituzke. Nik ez nizuke zorionik emango, eta beste batentzat zarela ikusiko nuke, niretzat izan zaren bezala-

xe. Horrek oinaze heriogarraia sortuko lidake eta jelsiaren zoritxarra jasan beharretik ere ez nintzateke salbu egongo. Dagoeneko gauza gehiegi esan dizkizut horrelakorik ere ezagutu dudala ezkutatzeko; izan ere, erreginak Theminesko anderearen gutun hura —zuri zuzendua omen zena— eman zidan arratsean bertan hain nahigabe larriak nituen jasan, ezen gaitzetan okerrenak direla sinestarazi didan halako oroitzapen bat geratu baitzait. Dela harrokeriaz, dela gutuz, emakume guztiek nahi dute zurekin lotu. Gutxi batzuk baizik ez dira gogoko ez zaituztenak. Nire esperientziak sinestera narama ez dagoela inor zukanako maitemina piztu ezin diezaiokezunik. Bestez maitemindua eta bestek maitatua iritziko nizuke beti, eta ez nintzateke sarritan tronpatuko. Egoera horretan, halere, sofrimenduarenaz beste aukerarik ez nuke izango. Ez dakit kexatzera ere ausartuko nintzatekeen. Horrelako gaitzespenak maitale bati egiten ahal zaizkio, baina senar bati, maitasunik gehiago ez izatea baizik ezin diezaiokegunean gaitzetsi, egiten ahal diogu halakorik? Halako zorigaitz batera ohituko banintz ere, ohitu al nin-

teke Clevesko jauna bere heriotzaz beti zu salatzzen ikustera, zu maitatu izana eta zurekin ezkondu izana niri gaitzestera eta haren atxikimenduaren eta zurearen arteko aldea sentitzera? Ezinezkoa da —segitu zuen— hain arrazoi sendoak aintzat ez hartzea: beharrezkoa da nagoen egoera honetan gera nadin, bertatik sekula ez irtete aldera hartu dudan deliberoan tinko.

— Ai ene! Uste al duzu ahalko duzula, Madame? —egin zuen oihu Nemoursko jaunak—. Uste al duzu zure delibero horiek tinko iraungo dutela, miresten zaituen eta zutaz maitemindurik egoteak zorionez betetzen duen gizon baten aurka? Gogoko dugun eta maitatzen gaituen norbaiti buru egitea uste duzuna baino zailagoa da, Madame. Ia parekorik ez duen bertute zurrun bati esker egin ahal izan duzu orain artean, baina bertute hori, jadanik, ez dago zure sentimenduen aurka, eta espero dut horiei jarraikiko diezula, gogoz kontra bada ere.

— Ongi dakit ez dagoela deus, egin asmo dudana baino zailagorik —ihardetsi zuen Clevesko andereak—, eta nire arrazonamendu horien

guztien erdian, nire indarrez ere ez naiz fida. Clevesko jaunaren oroitzapenari zor uste diodana ez litzateke aski izango, atsedena hartu beharrendan laguntzarik ez balu, eta atsedenerako ditudan arrazoi horiek, halaber, nire betebeharraren laguntza eta bermea behar dute. Baina neure buruaz mesfidatu arren, uste dut ez ditudala sekula barne-ausiki horiek garaituko, zugana dudan amodio isuria gainditzea espero ez dudan legez. Amodio horrek zorigabeko nau bilakaraziko, eta uko egingo diot zu ikusteari, ahalegin horretan senperrenak egin behar baditut ere. Otoi eskatzen dizut, zure gainean dudan botere guztiaren amorekatik, ez dezazula ni ikusteko inolako aukerarik baliatu. Beste garai batean zilegi zitzaidan oro krimen bihurtzen duen egoera batean aurkitzen naiz, eta gizabide hutsak gu bion arteko harreman oro debekatzen du.

Nemoursko jauna haren oinetara jautsi, eta bide eman zien asaldatzen zuten bihotz-mugida guztiei. Bere hitzen eta bere negar-malkoen bidez, bihotz bat sekula hunkitu duen maitasunik biziena eta samurrena ikusarazi zion. Clevesko

anderearena ere ez zen hunkigaitza, eta printze hari beha, begiak doi bat malkoek lausoturik:

— Zergatik da beharrezko —egin zuen oihu— Clevesko jaunaren heriotzaz zu salatu ahal izatea? Zergatik ez naiz zu ezagutzen hasi libre izan naizenez geroztik, edo zergatik ez zaitut ezagutu ezkon-hitzez lotu aitzin? Zergatik gaitu patuak bereizi hain oztopo gaindiezin baten erruz?

— Ez dago oztoporik, Madame —ekin zion Nemoursko jaunak—. Zerori bakarrik zara nire zorionaren oztopo; zerorrek bakarrik duzu lege bat ezartzen, ez bertuteak eta ez arrazoiak ezarri ezingo lizuketena.

— Egia da —ihardetsi zuen Clevesko andreak— asko dudala sakrifikatzen nire irudimeanean baizik ez dirauen betebeharraren alde. Itxaron ezazu ea denborak zer egiten duen. Clevesko jaunak berriki eman du bere azken hatsa, eta zorigaiztoko gertakari hori hurbilegi daukat gauzak argi eta bereiz ikus ditzadan. Izan ezazu, halere, zu ezagutu ez bazintu beste inor maitatuko ez zukeen pertsona baten maitasunak dakarren atsegina. Izan ziur zugana ditudan sentimenduak betiko izango direla, eta, zernahi ere

egiten dudan, bere horretan dutela iraugo. Adio —esan zion—, elkarrizketa hau ahalkegarri zait. Emaiozu horren kontu Bidamo jaunari; baimena dizut ematen, eta halaxe dizut erregutzen.

Hitz horiek esan ondoren irten egin zen, eta Nemoursko jaunak ez zuen han atxikitzerik izan. Clevesko andereak bidamoa aurkitu zuen aldameneko gelan. Hark hain aztoratua ikusi zuen, ez baitzen ausartu ere egin hitz egitera, eta zalgurdiraino lagundu zion deus esan gabe. Bidamoa Nemoursko jaunaren bila itzuli zen atzera. Printze hura hain zegoen pozik eta triste, harriturik eta miretsirik, eta azken batean, hainbestearaino hunkitu zuten beldurrez eta itxaropenez beteriko amodio batek sor ditzakeen sentimendu guztiek, jada ez baitzen arrazoiaren jabe. Bidamoa luzaz saiatu zen hark bere elkarrizketaren berri eman ziezaion. Azkenik lortu zuen, eta Chartresko jaunak, maitemindurik ez egonagatik ere, ez zuen Nemousko jaunak berak baino miresmen gutxiago agertu Clevesko anderearen bertute, izpiritu eta merezimenduen alde. Printze hark geroari buruz zer espero zezakeen aztertu zuten, eta, amodio hark zenbait beldur

sortzen bazizkion ere, Bidamo jaunarekin ados etorri zen Clevesko andereari ezinezkoa izango zitzaiola deliberamendu haietan tinko irautea. Elkarrekin adostu zuten, haatik, Nemoursko jaunak haren aginduei behar ziela jarraiki, beldur baitzen, hari zion atxikimenduaz jendea ohartuz gero, Clevesko anderea ez ote zen beharturik sentituko zenbait adierazpen egitera eta zenbait konpromiso hartzera jendaurrean —ondorenean ere sustengatuko zituenak—, beldur baitzen senarra bizi izan zuen artean Nemoursko jauna maite zuela inork sinets zezan.

Nemoursko jaunak erregeri jarraikitzea erabaki zuen. Desenkusatzerik ez zuen bidaia bat zen, eta harekin batera abiatzea erabaki zuen, Clevesko anderea behinola ikusi zuen leiho hartatik berriz ikustera tentatu gabe. Bidamo jaunari harekin mintza zedila eskatu zion. Zer ez zion aipatu hari esateko! Zer arrazoi segida amaigabea hark bere barne-ausikiak garaitu zitzan konbentzitzeko! Azkenik, gauaren parte bat igaroen, Nemoursko jaunak hura atsedenean uztea pentsatu aurretik.

Clevesko anderea ez zen halako atsedeen egoerarik aurkitzeko gauza. Berarentzat hain gauza berria izan zen bere buruari ezarri hertsapen hartatik irtetea eta bere bizitzan lehenbiziko aldiz norbaiti berarenganako maitasuna adierazteko baimena ematea, eta bide batez, berak ere, hura maite zuela esatea, ez baitzuen bere burua ezagutzen. Harriturik zegoen egindakoarekin; damu zuen eta pozik zegoen. Haren sentimendu guztiak asalduraz eta irrikaz beterik zeuden. Zoriona galarazten zioten bere betekizunaren arrazoiak aztertu zituen berriro. Mina sentitu zuen haiek hain sendoak zirela ikustean, eta damutu egin zitzaion Nemoursko jaunari haiek hain ongi ikustera eman izana. Lorategian ikusi zuen orduko harekin ezkontzeko pentsakizuna ernatu zitzaion arren, ez zion, hargatik, arestiko elkarrizketak egin berri zion zirrara bera eragin, eta une batzuetan nekeza gertatzen zitzaion harekin ezkonduz zorigabekoa izan zitekeela ulertzea. Bere buruari adierazi nahi ziokeen gaizki fundaturik zeudela hala iraganeko ausikiak nola etorkizuneko beldurrak. Beste une batzuetan, ordea, arrazoiak eta bere betekizunak guz-

tiz aurkako gauzak erakusten zizkioten, berriro ez ezkontzeko eta Nemoursko jauna sekula gehiago ez ikusteko deliberoa hartzera berehala bultzatzen zutenak. Baina erabaki hori hagitz bortitza zen berea bezain bihotz hunkitu eta maitasunaren xarmak berriki loratutako batean finka zedin. Azkenik, lasaitasun pixka bat hartzearren, uste izan zuen oraindik ez zela beharrezko deliberoen bat hartzera presa zedin. Ego-kitasunak erabaki bat hartzeko aski denbora ematen zion, baina halere, irmo jarraitzeko eta Nemoursko jaunarekin hartu-emanik ez edukitzeko deliberoa hartu zuen. Bidamo jauna etorri zitzaion ikustera, eta imajina daitezkeen arta eta txera guztiekin mintzatu zitzaion printzearen faboretan. Ez zuen ez Clevesko anderearen jokaera ez Nemoursko jaunari ezarri ziona ere aldatzerik izan. Printzesa hark esan zion aurkitzen zen egoera hartan irautea zela beraren patua, bazekiela zein zaila zen patu hura azken burura eramatea, baina espero zuela horretarako indarrak edukitzea. Hain garbi azaldu zion zein puntutaraino zegoen hunkiturik Nemoursko jaunak beraren senarraren heriotza eragin zuela-

ko, eta zenbateraino zegoen etsiturik harekin ezkonduz bere betekizunaren aurkako ekintza bat egingo zuela, bidamoak uste izan baitzuen, goganbeharrez, zail izango zela hari iritzi hura ezabatzea. Nemoursko jaunari ez zion aipatu berak zer pentsatzen zuen, eta elkarrizketa haren berri eman zionean, gizon maitemindu bati arrazoiak ahalbidetzen dizkion itxaropen guztiak ernarazi zizkion.

Biharamunean abiatu ziren erregerekin bil-tzera. Bidamo jaunak, Nemoursko jaunaren erreguz, gutun bat idatzi zion Clevesko andereari, printze hari buruz hitz egiteko, eta lehenaren ondotik berehala jarraiki zion bigarren gutun batean, Nemoursko jaunak bere eskuz idatzitako lerro batzuk gehitu zituen. Baina Clevesko andereak, bere buruari ezarri arauetatik irten nahi ez zuenez, eta gutunen bidez etor zitezkeen ezbeharren beldur zenez, bidamoari jakinarazi zion ez zuela harenik gehiago jasoko baldin Nemoursko jaunaz mintzatzen segitzen bazuen, hain her-tsatuki adierazi ere, ezen printzeak bere izenik ez aipatzeko eskatu baitzion.

Gortea Espainiako erreginari laguntzera joan zen Poitouraino. Ezaldi hartan, Clevesko anderea bere baitara bildua egon zen, eta Nemoursko jaunarengandik eta hura oroitaraz zezaketen gauza guztietatik urrundu ahala, Clevesko jaunaren oroitzapena ekarri ohi zuen gogora, haren ohoreari zor zion gauza baitzen oroitzapen hura gordetzea. Nemoursko jaunarekin ez ezkontzeko zeuzkan arrazoiak, sendoak iruditu zitzaizkion bere betekizunari buruzkoan, eta ezin gaindituzkoak, bere atsedinari buruzkoan. Printze haren maitasunaren amaierak eta ezkontza batek lekarzkiekeen jelsiazko gaitzek —saihestezinak, beraren ustez— ikusarazi zioten nolako zorigaitz zurrera amiltzera zihoan, baina ikusi zuen ere, ezinezko gauza bilatzen zuela munduko gizonik maitagarrienari buru egitean —hark bera maite eta berak ere hura maite zuenean—, eta ez bertutearen eta ez egokitasunaren kontrakoa zen gauza bati aurre egitean. Urruntzeak eta kanpora joateak bakarrik eman ziezaioketen zenbait indar, bere ustez. Iruditu zitzaion bazuela horren beharrik, konpromisorik ez hartzeko erabakiari eusteko ez ezik, baita Nemoursko jauna ikustetik

begiratzeko ere, eta horrela, bidaiia askiluze bat egitea erabaki zuen, egokitasunak bakartasunean bizitzera hertsatzen zuen denbora guztia hantxe emateko. Pirineo aldean zeuzkan lur-eremu zabal batzuk, aukera zezakeen tokirik hurbilena iruditu zitzaizkion. Gortea itzuli baino egun batzuk lehenago partitu zen, eta, abiatzean, Bidamo jaunari idatzi zion, beraren berri-rik edukitzen edota idazten saia ez zedila eskatzeko, arren.

Nemoursko jaunari halako atsekabe handia sortu zion bidaiia hark, nola beste bati bere maitalearen heriotzak. Denbora luzean Clevesko anderea ikusi gaberik egongo zela pentsatzeak oinaze mingarria eragin zion, batik bat hura ikusteko —eta, ikusi ere, beraren maitasunaz hunkitua ikusteko— plazerra sentitu zuen denbora hartan. Nolanahi ere, atsekabetu beste gauzarik ezin zezakeen egin, eta hala, nabarmenki areagotu zen haren nahigabea. Clevesko anderea, izpirituz hain aztoraturik egon ondoren, eritasun benetan bortitz batek kolpatu zuen etxera itzuli zen orduko. Albiste hura gorteraino iritsi zen. Nemoursko jauna ezin kontsolaturik zebilen eta

haren oinazea etsipeneraino eta eromeneraino zihoan. Bidamoari asko kosta izan zitzaion hark bere amodioa jendaurrean aditzera eman zezan eragozte, eta asko kosta izan zitzaion, orobat, han atxikitzea eta Clevesko anderearen berri jakitera joateko asmoa haren burutik ezabatzea. Bidamo jaunaren ahaidetasuna eta laguntasuna aitzakia gisa baliatu zituen printzesarengana zenbait mezulari bidaltzeko, eta azkenik jakin zuten iragan arrisku larri hartatik kanpo zegoela, baina ahulaldi erigarri bat lotu zitzaion oster, zeinak ez baitzion bizi-itxaropenerako motibo handirik ematen.

Heriotza hain luzaroan eta hain hurbil ikusi izanak, bizitza honetako gauzak beste begi batzuekin ikusarazi zizkion Clevesko andereari, osasunaldian ikusi ohi diren modu guztiz desberdin batean. Hain hurbil ikusi zuen hil behar hark gauza guztietatik urruntzera eramane zuen, eta eritasunaren luzeak ohitura bilakatu zuen jarrera hura. Egoera hartatik zuzpertzenean, halere, ohartu zen Nemoursko jauna ez zela beraren bihotzetik ezabatu, eta harekin ez ezkontzeko eduki uste zituen arrazoi guztien bila jo zuen

laguntza eske, harengandik begira zezaten. Gaitzeko borroka burutu zen haren baitan. Azkenik, bere eritasunak sortu sentimenduen eraginez ordurako ahulduak zeuden amodio haren azken hondarrak garaitu zituen. Heriotzaren inguruko pentsakizunek Clevesko jaunaren oroitzapena berritu zioten, eta haren betekizunarekin guztiz bat zetorren oroitzapen hura, biziki errotu zitzaion bihotzean. Grina eta konpromiso mundutarrak, beren itxaropenak urrunago jarriak dauzkaten pertsonentzat bezalakoak ziren harentzat. Haren osasuna nabarmen ahuldua geratu bazen ere, horrek lagundu egin zion zeuzkan sentimenduak gordetzen, baina aldarreek erabaki zuhurren ganean duten boterea ezagutzen zuelarik, ez zuen nahi izan bereak suntsituak izatera menturatu, ez eta berak maite izan zuen pertsona hura egona zen lekuetara itzuli ere. Erlijio-etxe batera bakartu zen, bizimoduz aldatzeko aitzakiaz, gorteari uko egiteko asmo irmorik zeukanik aditzera eman gabe.

Nemoursko jaunak horri buruzko lehen berria izan zuenean, bakarraldi horren pisua sentitu eta horren garrantzia ikusi zuen. Une hartan bertan

ulertu zuen ez zeukala jada zer desiraturik. Itxa-ropenak galtzeak, ordea, ez zion eragotzi Clevesko anderea itzularazteko eginahal guztiak egitea. Erreginak hari idaztea lortu zuen, bidamoak ere hari idaztea lortu zuen, bai eta hara joatea ere, baina dena alferrik izan zen. Bidamok ikusi zuen Clevesko anderea, baina hark ez zion esan erabakirik hartu zuenik. Uste izan zuen, alabaina, hura ez zela sekula itzuliko. Azkenik, Nemoursko jauna bera joan zen hara, bainuetara joateko estakuruaz baliatuz. Clevesko anderea hagitz kezkatu zen, eta harritu, haren etorreraren berri izan zuenean. Agindu zuen, asko estimatzen zuen eta une hartan bere aldean zeukan gizon prestu baten bidez, esan ziezaiotela ez zezala gauza harrigarritzat har, baldin hura ikustera eta, ikustaldi haren bidez, gorde beharrak zeuzkan sentimenduak desegite-
ra menturatzen ez bazen; orobat jakinarazi nahi ziola, beraren betekizuna eta atsedena ez zirenez ongi uztartzen haren maitea izateko asmoa-
rekin, munduko gainerako gauzak hain axolaga-
beak egin zitzaizkiola, uko egin baitzion mun-
duari betiko; beste munduko gauzetan baizik ez

zuela pentsatzen, eta ez zitzaiola beste sentimendurik geratzen, berak zeuzkan xede haiek hark ere bazeuzkala ikusteko desioa baizik.

Nemoursko jaunak, oinazearen oinazez, mintzaten ari zitzaion haren aurrean hilko zela uste izan zuen. Hogei aldiz erregutu zion Clevesko anderearengana itzul zedila, berak ikusteko modua izan zezan, baina pertsona hark esan zionaren arabera, Clevesko andereak, haren partetik ezer esan ziezaiotela galarazteaz gain, elkarriketa haren berri eman ziezaiotela ere debeatu zuen. Printze hark, azkenik, handik abiatu beharra izan zuen, inoiz izan den maitasunik bortitzenaz, naturalenaz eta ongien zimendatuenaz maitatutako pertsona bat sekula berriro ikusteko itxaropen oro galdurik, eta oinaze horrek gizon bati eragin ziezaiokeen abaildurarik handiena berekin eramanez. Ez zuen adorerik galdu hargatik, eta hari asmoa aldaraz ziezaiokeela imajinatu zuen oro egin zuen. Azkenik, zenbait urte iragan ondoren, denborak eta ezaldiak oinaze hura ematu eta harenganako maitasuna iraungiarazi zioten. Clevesko anderea, berriz, inoiz itzuliko zenik ez zirudien modu batez bizi izan zen.

Urtearen parte bat erlijio-etxe hartan igarotzen zuen, eta bestea, bere etxean, baina komentu zurrunenetakoa baino are bakardade eta biziera sailduagoa eramanez, eta haren bizitzak —izatez, nahikoa laburra—, parerik gabeko bertutezko ereduak utzi zituen.